



KOMUNIKAZIO ETA DEMOKRAZIAREN PARADOXA

Euskal Herriko sozio-ingurumen
gatazketako informazio estrategiak



DOKTORE-TESIA
Izaro Gorostidi Bidaurrezaga
Zuzendaria: Iñaki Barcena Hinojal

KOMUNIKAZIO ETA DEMOKRAZIAREN PARADOXA

Euskal Herriko sozio -ingurumen
gatazketako informazio estrategiak

KOMUNIKAZIO ETA DEMOKRAZIAREN PARADOXA

Euskal Herriko sozio -ingurumen
gatazketako informazio estrategiak

Izaro Gorostidi Bidaurrezaga

Zuzendaria: Iñaki Barcena Hinojal

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Facultad de Ciencias Sociales
y de la Comunicación
Departamento de Ciencia Política
y de la Administración

Gizarte eta Komunikazio
Zientzien Fakultatea
Politika eta Administrazio
Zientzia Saila

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

Ama eta Aitari

Nahi dudana egiteko gai naizela erakutsi didazuelako

*«Yo espero que mis alumnos sean capaces de hacer cualquier cosa
siendo responsables de lo que hacen, y eso exige
que sean capaces de reflexionar sobre su quehacer»*

Humberto Maturana

Komando Akelarreri

Unibertsitatean, elkar laguntza, maitasuna eta kooperazioa
zer den erakutsi didazuelako

*«Bizitza, bizitza da
eta ez bere emaitzak»*

Bernardo Atxaga

Aurkibidea

1.SARRERA.....	13
2.MARKO TEORIKO KONTZEPTUALA	17
2.1. Informazioa, hedabideak eta iritzi publikoa	17
2.1.1.Komunikazioa eta Informazioa ezaugarritzen: desberdintasunak.....	17
2.1.2.Hedabideen funtzioak gizartean	21
A. Funtzioak	21
B. Begiratu bat hedabideen egoerari gaur egun.....	24
2.1.3.Hedabideen eragina gizartean.....	30
A. Hedabideen eraginen teoriak	30
B. Hedabideak eta agendak.....	36
2.2. Sozio ingurumen gatazkak.....	41
2.2.1.Gatazkak	41
A. Hurbilpen teorikoa eta definizioa	41
B. Gatazkak eta aukera demokratikoak	44
2.2.2.Sozio-ingurumen gatazkak	46
A. Kontzeptua definitzen	46
B. Aktoreak.....	48
C. Dinamikak.....	49
D. Tipologiak	51
E. Sozio ingurumen gatazkak Euskal Herrian	52
2.2.3.Sozio ingurumen gatazkak eta hedabideak.....	54
A. Hedabideen eginkizuna ingurumen aferetan	55
B. Hedabideak eta sozio-ingurumen gatazkak.....	57

2.3. Ingurumen informazioa eta komunikazioa: eremu publikoa	63
2.3.1.Hedabideak eta Ingurumena	63
2.3.2.Ingurumen kazetaritza eta Ingurumen komunikazioa	67
A. Ingurumen Kazetaritza	67
B. Ingurumen kazetaritzaren zailtasunak.....	71
C. Ingurumen Komunikazioa.....	73
2.3.3.Eremu publikoa, demokrazia eta ingurumen komunikazioa	75
3.DISEINUA ETA METODOLOGIA.....	83
3.1. Oinarrizko diseinu metodologikoa	83
3.2. Laginaren aukeraketa	87
3.3. Hipotesiak	89
3.4. Tresna Metodologikoak.....	91
3.4.1.Sakoneko elkarrizketak	91
3.4.2.Bigarren mailako Iturrien azterketa.....	92
A. Azterketa Hemerografikoa	93
3.4.3.Soziogramak.....	99
4.AZTERKETA KASUEN GARAPENA	101
4.1. Abiadura Handiko Trenaren Proiektua Euskal Herrian: Euskal Y-aren sozio-ingurumen gatazka ...	101
4.1.1.Azpiegitura mega-erraldoiak eta AHT.....	102
4.1.2.AHT: Sozio-ingurumen gatazkaren deskribapen analitikoa.....	104
A. Kokapen Geografikoa.....	104
B. Proiektuaren Deskribapena	106
C. Kokapen Historikoa.....	110
D. Aktoreen identifikazioa eta elkarren arteko harremana.....	126

4.1.3.AHT: Sozio-ingurumen Gatazkaren Analisi Enpirikoa.....	132
A. Definizio konpartituaren analisia.....	132
B. Eztabaida-eremu publikoaren analisia	139
C. Marko diskurtsiboen kokapena eta analisia.....	152
4.2. Petronorren Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen Proiektua, Koke edo FMU Planta.....	159
4.2.1.Energiaren esparrua Euskal Herrian	159
4.2.2. Koke planta: Sozio-ingurumen gatazkaren deskribapen analitiko.....	164
A. Kokapel Geografikoa.....	164
B. Proiektuaren Deskribapena	165
C. Kokapen Historikoa	167
D. Aktoreen identifikazioa eta elkarren arteko harremana.....	176
4.2.3.Koke plantaren sozio-ingurumen gatazkaren analisi enpirikoa	182
A. Definizio konpartituaren analisia.....	182
B. Eztabaida-eremu publikoaren analisia	191
C. Marko diskurtsiboen kokapena eta analisia.....	205
5.ONDORIOAK	217
5.1. Informazioa, ezagutza eta gardentasunaren maila	217
5.2. Hedabideen funtzioa sozio-ingurumen gatazketan	221
5.3. Eztabaida eremu publikoa	223
5.4. Azken gogoeta orokorra.....	225
5.4.1.Informazioaren kudeaketa.....	225
5.4.2.Hedabideen kudeaketa.....	226
5.4.3.Esparru publikoaren kudeaketa	226
5.5. Ikerketaren mugak.....	229

6.ERREFERENTZIAK	231
6.1. Liburuak, Artikuluak eta Tesiak.....	231
6.2. Egunkariak	257
6.3. Informeak eta dokumentuak	261
6.4. Webguneak eta bideoak	263
7.ERANSKINAK.....	265
7.1. Laburduren eta siglen zerrenda	265
7.2. Taulen aurkibidea	266
7.3. Grafikoen aurkibidea	267
7.4. Irudien aurkibidea	268
7.5. Elkarrizketak egiteko erabilitako galdetegia	269

1. Sarrera

*«El papel de los medios de comunicación en la política contemporánea nos obliga a preguntar por el tipo de mundo y de sociedad en los que queremos vivir y qué modelo de democracia queremos para esta sociedad»
(Chomsky, 2009:7)*

Ikerlan honen abiapuntua UNESCO katedrak finantzaturako ikerketa batean du oinarria, «Ingurumen politiken komunikazioa: sostengarritasunaren adierazle soziopolitikoaren bila» hain zuzen. Parte Hartuz ikerketa taldeko «Sostengarritasun Taldeak» ikerketa hori burutu zuen 2008 eta 2010 urteen bitartean. Egitasmo horren hedapen lana egiteko eta batez ere, gaiaren azterketan sakontzeko aurreikusitako bide bat, doktorego tesi baten lanketa izan zen. Lan hau beraz, horren ondorioa da.

Aipaturako ikerketa horretan egindako diagnostikoak ingurumen politiken informazio defizita iradokitzen zuen. Izan ere, gaiari buruzko informazio eskasak edo partzialak ingurumen egitasmoen gaineko eztabaida publikoa mugatzen du. Ondorioz, eztabaida publikoaren ga-bezia honek, sozio-ingurumen gatazkak sortzeko aukerak errazten ditu. Diagnostiko honetan sakontzeko eta gaiaren analisi azterketa gauzatzeko ikerlan hau egin dugu. Ikuspegi soziopolitiko batetik, sozio-ingurumen gatazken analisisa jorratuz, euren dimentsio informatiboa eta komunikatiboa aztertzea izan da gure xedea.

Ingurumen gaiak, arazoez eta gatazkek gure gizartean eta batez ere hedabideetan, gero eta espazio eta garrantzi gehiago dute. Hots, ingurumenaren eta ingurumen politiken gaineko interesa handiago da. Gure bizitza sozialean protagonismoa irabazi duten gaiak dira eta horren ondorioz, hiritarrok ingurumen aferei buruzko informazio eskaria daukagu.

Euskal Herrian beste ezaugarri nabarmen batekin topatzen gara. Ingurumen politika publikoaren ezarketan ondorioz (Crespo, 1999:1; Beristain, 2010:24) sozio-ingurumen gatazken hazkunde bizi dugu. Ikerketa desberdinetan azaldu diren datu empirikoek (Barcena, Ibarra, Guarrutxena eta Torre, 2003; Bergantinos, Ibarra eta Martinez Palacios, 2011) baieztatzen dutenaren arabera, gure herrian sozio-ingurumen gatazkak ditugu nonahi. Hortaz, gure hipotesi nagusia, izapide informatibo argiago batek eragile ekonomiko, politiko eta gizarte mugimenduen arteko harremanak parametro egokiagoetan lekutzeko aukera eman dezakeela da. Finean, euren arteko komunikazioa eta elkarren arteko informazio kanalak sakonduz, ingurumen politiken ezartze garden eta zabalago bat burutu daitekeelakoan gaude.

Ikerlan hau burutzeko hiru lerro mugatzaile erabili ditugu: espaziala, denborazkoa eta edukizkoa. Ikerketa garatuko den marko espaziala Euskal Herria¹ izango da eta zehazki bertan antzeman ditugun bi sozio-ingurumen gatazken azterketa kasu azalduko ditugu. Batetik, Abiadura Handiko Trena, zehazki Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berria aztertuko dugu eta Muskizeko Petronorren Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen planta, Koke Plantaren izenarekin ere ezaguna dena. Aldi berean eta lagin espaziala kontutan edukita, prentsa izango dugu aztergai informazioaren analisi sakona egiteko. Denborazko lerro mugatzailea hautatutako sozio-ingurumen gatazken hasiera izango da, 1989.urtea Trenbide Sare Berriaren kasuan eta 2004. Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen plantaren kasuan. Ikerketa burutzeko bukaerako epe muga 2017. urtea izan da. Edukizko muga, ikerlanean azalduko den moduan, energia eta garraio azpiegituren sorreraren ondorioz sortzen diren sozio-ingurumen gatazketan kokatuko da.

Azterketa hau gauzatzeko ikerketa deskribatzaile-esplikatzaile baten aldeko hautua egin dugu. Horrela, azterlanaren helburu orokor nagusia, ingurumen gatazketan informazioa nola bildu eta ekoizten den jakitea da, hots, zer eta nolako kanaletatik sakabanatzen den eta nolako eragina duen sozio-ingurumen gatazkan parte hartzen duten eragileetan. Hortaz gure ikerlana, ingurumen politiken gaineko informazio estrategien ekoizpenen azterketan oinarritzen da.

Ildo berean, azterketa honetan, jorratuko ditugun helburu zehatzak erabiliko dugun lagin materialari so, energia eta garraio azpiegitura politiken produkzio informatiboa nondik eta nola sortzen den ezagutzea da. Ikerketak zehazki bi sozio-ingurumen gatazketan, Euskal Autonomi Erkidegoko Trenbide Sare berria, Euskal Y-an eta Muskizeko Fuel-olioa Murrizteko Unitate plantan, Koke plantan, alde desberdinetatik bideratzen den informazioa, diskurtsoa, eta estrategia diskurtsiboak identifikatzea bilatzen du. Alegia, sozio-ingurumen gatazka hauek ekoizten diren informazio estrategien nolakotasunak aztertuko ditugu, bai instituzio eta alderdi politikoaren partetik bai enpresa edo gizarte zibilaren taldeen eskutik ere.

Azterlana sei ataletan banatu dugu. Hasteko ikerketaren nondik norakoak azaldu ditugu aurrean dugun sarrera honetan eta ondoren bigarren atalean, ikerlana egiteko erabili dugun marko teoriko kontzeptuala jorratzen da. Honen helburua, ondoren atal aplikatua garatuko diren kontzeptuen marko testuala sortzea da. Hirugarren atalean ikerlanaren diseinua eta metodologia aurkezten da, erabilitako diseinu metodologikoa eta tresna metodologikoen azterketa landuz. Laugarren atalean alde aplikatuari ekiten diogu, garatutako bi sozio-ingurumen gatazken azterketa jasotzen baitugu: Abiadura Handiko Trena, Euskal Trenbide Sare Berria eta Muskizeko Fuel-olioa Murrizteko Unitate planta. Kasu azterketak garapen berdinez aurkezten dira eta bi ataletan ardaztu ditugu: analisi deskriptiboa eta analisi enpirikoa, alegia. Horretarako lehenengo atalean kokapen geografikoa, proiektuaren deskribapena, kokapen historikoa, eragileen identifikazioa eta beraien arteko harremanak landuko ditugu soziograma baten bi-

¹ Euskal Herria aipatzerakoan Harluxet Hiztegi Entziklopedikoaren definizioa kontutan eduki gugu: «Europako nazioa, Frantzia eta Espainiako estatuetan banatua; 20.864 km² eta 2.920.123 bizanle (euskal herritarrak). Hiriburu historikoa: Iruñea. Zazpi probintzia edo lurralde historiko ditu: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Espainiako estatuetan eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa Frantziakoan» (<http://www1.euskadi.net/harluxet/>) Kontsulta: <2017.01.03>.

tartez. Análisi enpirikoak aldiz, hiru atal hauek osatzen dute: Definizio konpartituaren análisisia; eztabaida-eremu publikoaren azterketa eta prentsaren jardueraren lanketa eta azkenik, marko diskurtsiboen kokapena eta diskurtsoen análisisia jorratuko dugu. Bosgarrenik aztertutako kasuen emaitzak eta kontuan hartuta finkatutako oinarri teorikoak, ikerlanaren ondorio nagusiak aurkezten ditugu. Azkenik, lana burutzeko erabili ditugun erreferentziak jasotzen dira: bibliografikoak (liburuak, artikulak eta tesiak), dokumentalak (prentsa artikulak eta dokumentu ofizialak) eta iturri elektronikoak (web guneak eta bideoak).

1. GRAFIKOA: Ikerlanaren atalak



Iturria: Egileak egina

Atal hau bukatzeko ikerketa hau burutzeko ezinbestekoak izan diren pertsonak eskertu nahi nituzke: Miren Bidaurrezaga, Angel Mari Gorostidi, Zaloa Gorostidi, Markel eta Iune. Zuen konfiantza nire indarra delako eskerrik asko familia; ahizpa garrantzitsua eta urgentea bereizten erakutsi didazulako esker mila.

Kimetz, zuretzat esker bereziak, benetan handia zarelako, zu barik hau ezinezkoa izango zen. Eskerrik asko maitea.

Ikerlan honen zuzendariarentzat ere, aparteko aipamena eskaini nahi diot, zure laguntza, indarra eta «bronkei» esker ikerketa hau gauzatu dudalako, eskerrik asko Iñaki. Zure eskuzabaltasuna nire erreferentzia da.

Maitasun iturri izan zaretenoi, eskerrik asko: Naiara (betikolez...), Guillermo (zure sostengua...), Idoia, Rakel, Andere (maiti gure terapiak ezin eskertu, zure babesa izugarria izan da), Iratxe (zure sostengua oso garrantzitsua izan da, mil esker maitea), Zuberoa, Lorena, Hasberri, Carles, Miquel, Sisku, Miren, Izaskun, Ainara, Izas, Martingorri, Amaia, Eva, Aurelio, Oli, Isabel, Alma, Bixen, eskerrik asko bizitzako bidaideak nire alboan egoteagatik beti. Eta betiko.

Unibertsitateko kideak eta Zumalabeko kideak eskertu behar ditut, Zesar, Igor, Paco, Pedro, Alicia, Pili, Marta, Olatz, Marta, Ainhoa, Unai, Leire, Jokin, Itzi eskerrik asko. Igor eskerrik asko sostengua eta animoak emateagatik. eta Paco, milesker zure konfiantzagatik.

Azkenik, Parte Hartuz ikerketa taldeko Ingurumen Politiken Komunikazioa lan taldean kide izan ditudan Jone Martinez Palacios, Mario Zubiaga, Josu Larrinaga, Epi Zurimendi, Iban Gallita-beitia eta Sergio San Joséri ere nire eskerrak. Jone Martinez Palaciosi zehazki bere eskuzabaltasuna eta elkartasuna eskertu nahi diot oso garrantzitsua izan delako niretzat. Eskerrik asko Jone.

2. Marko teoriko kontzeptuala

2.1. Informazioa, hedabideak eta iritzi publikoa

Munduaz informatzeaz gain, hedabideek mundua bera eratzen dute.
(Basterretxea, 2002:66)

Si en el mundo se dieran solamente procesos de información, no podría haber sociedad. Afortunadamente, eso no es posible.
(Paoli 2000:17)

2.1.1. Komunikazioa eta Informazioa ezaugarritzen: desberdintasunak

Gure ikerlanaren ardatz teorikoak lantzeko marko teoriko kontzeptualaren lehen atal honetan informazio, hedabideak eta iritzi publikoaren hurbilketa teorikoaren azterketa egingo dugu. Hasteko komunikazio eta informazio kontzeptuak jorratuko ditugu. Kontzeptuak definitu ondoren hedabideen azterketari erreparatuko diogu, lanketa bi esparrutan oinarrituz: batetik hedabideen funtzioak, eta gaur eguneko egoera eta bestetik hedabideen eragina eta hauen harremana agendekin.


Komunikazioa gizakiaren sozializazio garapena ahalbideratzen duen oinarritzko prozesua da. «Ezinezko da ez komunikatzea» esaten du giza komunikazioaren lehen axiomak (Watzlawick, et al., 1993), baina zer da komunikatzea? Komunikazioari buruzko diskurtso orokorrean argipen faltarekin topatzen gara, hartzailerek asmatu behar izaten dute aldi bakoitzean hizlaria edota adierazlea zehazki zertaz ari den komunikazio kontzeptua erabiltzen duenean. Kontzeptu hau ulertzeko modu ezberdinak eta anitzak daude. Amezaga irakaskideak esaten duen moduan kontzeptuaren konplexutasunak eta aldi berean kontzeptua mugatu ez izanak izugarri zailtzen du gogoeta lana (Amezaga, 1998:11).

Komunikazioa definitze bidean komunikazio interpersolana eta gizarte komunikazioa bereiztu behar ditugu, bigarrena izango baita gure aztergaia. Komunikazio interpersonala aukeratutako igorle eta hartzailearen artean ematen den komunikazio mota da, gizarte komunikazioan berriz gizarte osoari zuzendu daitezkeen mezuak sortzen dira. Komunikazio interpersonala elkarreragilea da, mezua pertsona batetik bestera heltzen da atzeraelikadura prozesua erabiliz, «feed back» prozesua hain zuzen. Gizarte komunikazioan aldiz prozesua bide bakarrekoa edo elkarreragilea izan daiteke (Castells, 2009:88) eta gizarte komunikazioaren bi eredu hauetan oinarritzen da komunikazio eta informazioaren ezaugarritze teorikoa.

Komunikazioa definitzeko hastapena antzinako Grezian kokatu dezakegu Aristotelesen La Retórica liburuan, K.A 336.urtean (Berlo,1978; Ramiro Beltrán,1979). Bertan hiru osagai aipatzen dira: hizlaria, diskurtsoa eta hartzailea. Aristotelesen aburuz komunikazioaren helburua limurtzea da, hots, igorleak egiten duen saiakera hartzaileak bere ikuspuntu berdina edukitzeko. Definizio klasiko hau gogoeta teoriko anitzen abiapuntua izan da komunikazioaren teori ezberdinak eraikitzeko orduan. Horra hor 1948. urtean Laswellek asmatutako paradigma Aristotelesen ereduari bi osagai berri gehitu ziona: nola, ze mediotik eta zertarako, zein ondorioekin. Nixonen teoriak (1963) aldiz Laswellen paradigma osotu zuen beste bi elementuekin: igorlearen intentzioa eta mezua hartzeko dauden baldintzak.

Baina eredu orokorren artean Informazioaren Teoria aipatu behar dugu komunikazio mota oro ulertzeko giltza eman zezakeen eredutzat hartu baita (Amezaga, 1999:395). Shannon eta Weaverren (1949) proposatutako teoria hau, Informazioaren Teoria Matematikokoaren izenez ere ezaguna, bost osagaiez osotutako komunikazioaren eredu linealean oinarritzen da: informazio iturria, igorlea, kanala, hargailua eta hartzailea. Eredu hau telefono bidezko transmisioetarako asmatu zen. Iturriak deitu egiten du eta igorgailuak ahotsa seinale elektrikoa bihurtzen du kode bat erabiliz. Transmisioan egon daitezkeen arazoak ere identifikatu zituzten «zarata» osagaia izendatuz.

2. GRAFIKOA: Informazioaren teoria




Iturria: egileak berak egina

Beraz Komunikazioaren Teoria Orokorra eraikitzeko erabili den eredu oinarria, Informazioaren Teoria Matematikoa, modu honetan hezurramitzen da: subjektu batek (igorleak) beste bati (hartzailea) kode batean dagoen seinale baten bitartez kanal batetik mezua bidaltzen

dio esanahia ematen dion testuinguru batean. Eredu honen oinarrian paradigma klasikoaren premisa hau agertzen da: komunikazioa informazioaren transmisioa da, norabide bakarreko informazio transmisioa.

Komunikazioa informazioaren transmisio linealari atzeraelikadura edo *feedback* prozesua atxiki diote zenbait ikerlek (Lerner, 1973; Scheflen, 1973; Pasquali, 1979; Ramiro Beltrán, 1981) eta eredu lineala edo monologikoaren aurrean, paradigma klasikoa alegia, bestelako eredu batzuk proposatu dituzte hartzailearen erantzuna, feedback, kontutan hartzen dituztenak. Komunikazio eredu zirkularraren oinarria Norbert Wiener (1948). matematiko iparramerrikarraren ekarpenean oinarritzen da. Komunikazio ekintza batean igorlearen igortze ekintzaren ondorioz mezua sortzen da. Atzeraelikadura beraz igorritako mezuarekin zer gertatzen den behatu ondoren, igorleak bere hurrengo igortzea bideratzearen ekintzan oinarritzen da (Amezaga, 1999: 396-397).



Egileak egina, https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Block_Diagram_for_Feedback.svg web guneko irudian oinarrituta (kontsulta: 2016.01.29)


«Hemos estudiado la comunicación como una operación lineal en la cual un determinado remitente emplea un cierto canal para entregar un mensaje a un receptor (una audiencia), el cual se ve entonces afectado en cierta forma por ese mensaje. Hoy, aún profesionales sobrios como nosotros reconocemos que la interacción de doble vía y la retroalimentación bidireccionales son conceptos esenciales en nuestro pensamiento sobre la comunicación y su futuro». (Lerner hemen, Ramiro Beltrán 1981:7)

Komunikazio hitzaren definizioa aztertzerakoan oinarritzko bi esanahi aurkitzen ditugu. Lehenengo adiera komunikatu, jakinarazi ekintzarekin lotzen da eta bigarren adierak berriz komunikatu, harremanetan jartzeari erreferentzia egiten dio (Elhuyar Hiztegia, 2000:155). Bi adiera hauek, komunikazio kontzeptua ulertzeko bi eredu adierazten dute. Batetik, transmititzea, igortzea, informatzeko ekintza, alegia, eta bestetik elkarrizketa, trukatzea, hots, konpartitzeko ekintza (Kaplun, 1985:64). Lehenengo definizioak, eredu monologikoak, igorle, mezua eta hartzailearen eskema jarraitzen du. Bigarrenak berriz, igorlea, mezua, hartzailea eta honen

erantzunean oinarritzen da, elkarriketarako irekia dagoen eredu batean hain zuzen ere, eredu zirkularra. Kaplunen esanetan berez esanahi zaharrena bigarrena izango litzateke, komunikazioaren sustrai latinoarekin bat egiten duena communis; komunitate, komunio hitzen sustrai berdina da, konpartitzen dena adierazten du, komunean dagoena edo bizitzen dena.

1981.urtean Winkin irakasleak «La nouvelle Communication» liburuan telegrafoa eta orkestraren metafora erabili zituen bi komunikazio eredu hauek konparatzeko (Winkin, 1984:11-26). Autore honen aburuz telegrafoaren arabera komunikazioa informazioaren transmisioa izango litzateke eta orkestraren arabera komunikazioa gizakien arteko elkarrekintza osoa inplikatu luke. Modu honetan bi definizio hauek informazioa eta komunikazioa bereizten dute, informazioa bide bakarrekoa dela adieraziz eta komunikazioa aldiz, elkar ekintzan oinarritzen den prozesua.

4. GRAFIKOA: Informazioa eta Komunikazioa



Iturria: egileak berak egina

Beraz informazioa aldebakarreko prozesua da, mekanismo multzo bat «gizakiari bere ingurunearen datuak jasotzen aukera ematen diona» (Paoli, 2000:15). Eta komunikazioak elkarrekiko ekintza da «elementu emozionalak eta kognitiboak dituen eta hitzezko edo ez hitzezko eran ematen dena» (Nowak et al., 1977:1). Informazioaren transmisioa komunikazioan gertatzen den prozesu bat baino ez litzateke izango. Komunikazioa aldiz gizarte arauen arabera burutzen den elkarrekintza izango litzateke.

«Los modelos tradicionales de comunicación inducen a confusión entre la información que puede transferirse por un acto unilateral y la comunicación que es diferente y más amplia que la información ya que su naturaleza bilateral implica necesariamente interacción que busca comunalidad de significados o conciencia» (Ramiro Beltrán, 1981:21)

2.1.2. Hedabideen funtzioak gizartean

A. FUNTZIOAK

Lehen atalean aztertutako komunikazio eta informazio kontzeptuen definizio bereizketa abiapuntutzat harturik, hedabideen azterketa jorratuko dugu oraingoan.

Hedabideak informazio prozesuaren oinarritzko elementua dira. Laugarren boterea deitu izan zaie. Edmund Burke (1729-1797) politikari eta idazle irlandarrari egozten zaio definizioa baina berak ez zuen erabili. Thomas Babington Macaulay (1800-1859) parlamentaria eta historialari izan zen esaldia famatu bihurtu zuena mende bat geroago (Hernando, 2002:44). Botere legislatiboa, ejekutiboa eta judizialaren ondoren kokatu da hedabideen boterea, hain zuzen.

Botere hau ulertzeko hedabideen funtzioak zeintzuk diren ulertu behar ditugu. Matematikako funtzio bat bi multzoren arteko elementuen arteko erlazioa da. Beraz funtzioa bere jatorrizko zentzuan, aldagaien arteko harremana da, interdependentzia, elkarrekikotasuna bilatzen duen eginkizuna, alegia (Basterretxea, 1997:41). Gure aldagaiak gizartea² eta hedabideak izanik, paradigma funtzionalistan³ oinarrituta, gizarte sistema batek dituen funtzioak hauek izango lirake (Wolf, 1991:60-80):

1. **Ereduaren biziraupena eta tentsioen kontrola**
2. **Helburu kolektibo batzuk aurrera eramatea**
3. **Ingurunearekiko egokitzapena**
4. **Gizarteratzea:** sistema osatzen duten eragileen arteko harremana.

Funtzio hauek zuzeneko lotura dute Laswell politologoak 1948. urtean proposatutako hedabideen funtzio klasikoekin (Moragas, 1986:68):

2 Ikerlan honetan gizartea aipatzen dugunean, sistema politiko poliarkikoa eta sistema kapitalista konbinatzen duen gizarte ereduaz hitz egiten dugu.

3 Teoria funtzionalistak elkarrikotasun interaktiboan edo gizartearen behar izan eta hedabideen funtzio sozialen arteko egokitasun funtzionalean oinarritzen dira (Bretones, 1997,142). Eduardo Apodaka irakaskideak honela azaltzen du eredu funtzionalista «Idea nagusia da sistemaren oreka (homeostasis) erakundeengatik baino funtzioengatik mantentzen dela egonkor, funtzio horiek edozein erakundek bete ahal ditu, alegia, masa-komunikabideek gizarteari kohesionaturik iraunarazi ahal diote» (Apodaka, 2004:255).

1. **Zainketa:** Hedabideek gizartea bere inguruari buruz informatzen dute eta egon daitezkeen mehatxuen berri ematen dute.
2. **Transmisioa:** Kulturaren sozializazio izango litzateke
3. **Harremana:** Gizartea osatzen duten osagaien arteko harremana bermatzen dute

Hortaz, ondorioztatu dezakegu hainbat autorek aipatutakoa, hots, gizarte sistemaren baitan hedabideen eragin sozializatzailea oso garrantzitsua dela (Barcena eta Larrinaga, 2004:161). Sozializazio oro transmisio eta barneratze prozesuen bitartez gauzatzen da eta horretarako ohitze eta irakaste mekanismoak erabiltzen dira. Hala izanik, agerikoa da, gizarte baten funtzionamenduan hedabideek betetzen dituzten funtzioen analisia egiterakoan, gizarte sistema beraren funtzioekin daukan harremana. Hedabideak sozializazio prozesua ahalbideratzen duen gune bat dira munduaren ikusmolde jakinak erreproduzitzen dituztelako. Irudikapen sozial legitimoen sortze horrek eragina dauka gizarteak erabiltzen dituen egitate eta esanahien eraikuntzan. Gizarte guztiek funtzio hau betetzeko sozializazio mekanismoak erabiltzen dituzte «sozializazioaren bitartez gizarte-ordenak bere birsorkuntza eta batasuna bermatzen ditu, zeren gizakiak talde-arauei buruzko adostasunera bultzatzen baititu» (Barcena eta Larrinaga, 2004:151).

Beraz gure ikerlanaren azterketan derrigerrozkoa iruditzen zaigu hedabideen funtzio sozialak aztertzen dituzten XX. mendeko ikerketa nagusiak aipatzea. Horretarako Bretones ikerlariaren analisi eskema jarraitu dugu (1997: 137-196), hots, funtzio mobilizatzailea, kultura errepikapen funtzioa, kontrol sozialaren funtzioa eta manipulazio funtzioa aztertzea.

1. **Funtzio mobilizatzailea:** Funtzio honen arabera hedabideak gizartekideen portaeren katalizatzaile moduan ulertu daitezke, hots, ez dute portaerak sortzen baizik eta berez daudenak azalarazten laguntzen dute. Gizartekideak aktiboak dira eta hedabideak beraien interes, motibazio eta beharren arabera erabiltzen dituzte (Katz et al., 1986:127-171). Halatan, azterketak audientziaren beharretan eta erabileretan oinarritu behar dira. Teoria honek 1940an Cantrilek landutako azterketan dauka abiapuntua. Orson Wellesek 1938an egindako «Munduen Gerla» irratsaio famatuak sortutako ikara egoera ikertu zuen ikertzaile honek. Bere aburuz herritarren erantzuna ulertzeko nahitaezkoa zen aurreko urteetan jendartean hedatu zen ikara-sentsazioari erreparatzea (Cantril 1986: 91-110).
2. **Kultura errepikapen funtzioa:** Funtzio hau azaltzeko masa kulturen ikerketak aipatu behar ditugu, hots, jarduera kulturalaren eginkizun soziala aztertzen dituzten teoriak (Morin, 1966; Moles, 1978) eta «Cultural-Studies»en perspektiba (Hall, 1981; Williams, 1981; Thompson, 1990). Masa kulturaren ikerketa hauek hedabideei egotzen zaizkien jarduera kulturalen azterketan oinarritzen dira. Morinek adierazten duen

moduan hedabideen kontsumoa hedabide bakoitzak eskaintzen dituen munduaren inguruko datuengatik baldintzatuta dago. Datu hauek hedabide bakoitzaren formatuak inposatzen duen amankomuneko formula homogeneo eta estandarizatu batean arabera eraikitzen dira (Morin, 1966). Moles ikerlariaren ustez hedabideek eskaintzen dizkiguten datuak industrialak dira edo «fabrikatuta» daude gizakien kultura asetzeko eta modu honetan kulturak sormen eta berriztapen potentzialak galtzen ditu (Moles, 1978: 309-321). Beraz hedabideek errealitate edo munduaren esanahiak «eraikitzen dituzte» eta sozializazioaren bitartez sinbolo amankomunak sortzen dituzte gizartean.

El interés de los cultural studies se centra sobre todo en analizar una forma específica de proceso social, correspondiente a la atribución de sentido de la realidad, al desarrollo de una cultura, de prácticas sociales compartidas de un área común de significados. (...) En el concepto de cultura caben tanto los significados y los valores que surgen y se difunden entre las clase y los grupos sociales, como las prácticas efectivamente realizadas a través de los valores y significados y en las que están contenidos. (Wolf 1991:121)

3. Kontrol sozialaren funtzioa: Funtzio hau bi zentzutan aztertu daiteke. Batetik kontsentsuaren biderapenarekin zerikusia dauka eta bestetik iritzi publikoaren kudeaketarekin. Hedabideek gizartea akordioak lortzera laguntzen dute jendeak gai berdinei buruz hitz egitera edo arduratzera laguntzen dutelako (Cohen, 1963; Mc Combs eta Shaw, 1972; Saperas, 1987; Noelle Neumann, 1995). Horregatik *agenda setting*-ak⁴ —«Prentsak ez dauka arrakasta handirik jendeari esaten zer pentsatu behar duen baina badauka bere irakurleei esaten zeri buruz pentsatu behar duten» (Cohen, 1963: 13)— ez du bakarrik zaintza funtzioan laguntzen edo informazio iturri moduan funtzionatzen, gainera gizartean beharrezkoa den adostasun funtzioan ere erantzukizunak ditu. (Leyva Muñoz, 1997).

4. Manipulazio funtzioa: Funtzio hau azaltzeko «Orratz hipodermikoaren» teoria (Wolf, 1991, 1994) edo «Balaren teoria» (Muñoz Alonso et al., 1992) kontutan eduki behar dugu. Metafora hau erabiliz mezua gizakiaren gorputzean sartzen denean, orratz hipodermikoa, ezinbesteko eragina izango duela adierazten da (Iturriotz, 1991:110). Funtzio hau hedabideak eta botere ekonomiko eta politikoen arteko harremanean oinarritzen da. Batetik hedabideak botere politikoen instrumentu bilakatu daitezke eduki propagandistikoa hedatuz eta bestetik instrumento komertzialak direnean gizabanakoaren portaera manipulatu dezakete beraien interes komertzialen arabera. Funtzio mani-

4 3.1.3 atalean kontzeptu honen gogoeta teorikoa jasotzen da.

pulatiboaren perpektiba, orratz hipodermikoaren arabera, persuasioa edo propagandaren bitartez ematen da. Teoria Kritikoaren lehenengo bertsioaren autoreek aldiz (Horkheimer, 1937; Adorno, 1944) hedabideek funtzio manipulatioa garatzeko mekanismorik ez dutela behar adierazi zuten, kontsumoaren bitartez automatikoki ematen delako manipulazioa.

«La atrofia de la capacidad imaginativa y de la espontaneidad del consumidor de medios de comunicación social no debe atribuirse a ningún mecanismo psicológico: la pérdida de dichas facultades debe achacarse al carácter objetivo de los productos». (Adorno eta Horkheimer, 1947 hemen aipatua: Curran, 1981:398)

B. BEGIRATU BAT HEDABIDEEN EGOERARI GAUR EGUN

Hedabideen funtzio sozialak aztertu ondoren hedabideen gaur eguneko egoerari erreparatuko diogu. Ignacio Ramonet (1998) kazetariaren hitzetan informazioa gaur egun salgaia da eta ikuspuntu horrek hedabideen papera aldatu du. Neoliberalismoaren garaian, enpresa pribatuak dira hedabide handi eta garrantzitsuen jabe⁵ eta komunikazioa beste merkatu bat da. Komunikazioa informazio produktua bilakatu da, eskaintza eta eskaera arauen menpe dago, eta ez gizabidezko edo irizpide etikoen menpe (Ramonet, 1998:145-175). 70ko hamarkadan Hans Magnus Ensenbergerrek irakurketa berdina egin zuen. Bere analisiaren arabera informazio igorle eta hartzailearen arteko banaketak gizartean ematen den kontsumitzaile eta ekoizleen arteko banaketa jarraitu du, ezaugarri politiko garrantzitsu batekin, kontzientzia industria delako eta azken finean menderatzaile eta menderatuaren arteko banaketa delako (Ensenberger, 1974:11).

Ildo honetan, Joseph Rota irakasle eta ikerlariaren ustez, hedabideak gizarte osoko ahotsa entzuteko, gizarteko indar ezberdinen oreka mantentzeko eta garapen demokratikoa sostengatzeko balio dutela adierazten du baina kontrolatzeko eta menperatzeko ere erabili daitezkeela. Gaur egun hedabideen pribatizazioak eta komertzializazioak, komunikazio enpresen bilakaera gero eta boteretsuagoak diren metaketa ekonomikoetan eta komunikazioaren globalizazioak, hedabideetan entzuten diren ahotsen murrizketara jo du, edukiak homogeneizatuz eta despolitizatuz eta komunikazio irispidea murriztuz (Rota, 2001: 86-96).

Murrizketa hau Manuel Castellesen esanetan bi iragazkien bidez ematen da. Batetik gobernuaren kontrol zuzena, hedabide publikoen kasuan eta bestetik hedabideen jabeak eta zuzendariak ezartzen duten kontrola, hedabide pribatuen kasuan (Castells, 2009:262-273). Jose Inazio Basterretxea irakaskideak hiru iragazki mota desberdintzen ditu: hedabideen jabetza, albiste iturriak eta publizitatearen agindua⁶ (Basterretxea, 2002: 254-256). Autore honen aburuz, lehen

5 Ben Bagdikian «*The Media Monopoly*» (1983) liburuan berrogeita hamar enpresa identifikatu zituen EEBBtako mass media merkatuaren jabe. 2004ean bost korporazio aipatzen ditu. EEBBetan zentratzen bada ere mundo osoan eman den tendentzia deskribatzen du (Campo Vidal, 2008).

6 Pascual Serrano kazetari eta ikerlariak «Desinformación: Cómo los medios ocultan el mundo» (2009) liburuan albisteen iturrien iragazkien harira komentatzen du «albisteen %80 iturriak gaur eguneko nazioarteko informazioaren ardura duten 4 agen-

iragazkia ekonomikoa da eta horren ondorioz kontrol politiko-soziokulturala suertatzen da. Hedabideen jabetza duten eliteek beraien interes politiko, erlijioso, kultural eta sozialearen arabera informazioa bakarrik eskainiko baitute.

Chomsky irakasleak eta Herman ekonomialari eta analista politikoak (1990: 15-80) bost iragazki identifikatzen dituzte:

1. Hedabideen kontzentrazioa mundu mailako dozena bat korporazioen eskutan, hedabideen edukiak irabazien arabera neurtzera behartzen du.
2. Publizitatearen bidez hedabideen finantziario ekonomikoa bermatzea, mezuen edukiak baldintzatzen ditu.
3. Informazio Enpresen kudeaketa burokratikoaren bidez, gobernuko informazio iturri eta korporatiboekiko dependentsia suposatzen du.
4. Hedabideak eliteen interes korporatiboaren agenda jarrai dezaten, presio taldeak eta iritzi indar taldeek egiten duten lana beste iragazki bat litzateke.
5. Azken iragazkia, autore hauen aburuz, ideologia hegemonikoak jokatzeko duen papearra da. Beraiek iragazki «antikomunista» deitzen diote, EEBBetan oinarritzen den eredu azaltzen dutelako, baina besteak etsai moduan tratatzen duen ideologia nagusi bati erreferentzia egiten dio.

«El mecanismo de control anticomunista llega, a través del sistema, a ejercer una profunda influencia en los medios de comunicación. En épocas normales, así como en períodos de caza de rojos, los temas suelen ser esquematizados en términos de un mundo dividido en potencias comunistas y anticomunistas, con pérdidas y ganancias asignadas a los bandos contestatarios, y en el cual la propaganda en favor de "nuestro bando" se considera como una práctica totalmente legítima». (Chomsky eta Herman, 1990:71)

Horrenbestez, autore hauen arabera, botere politiko eta ekonomikoaren jarduerak hedabideen autonomia murrizten dute. Bi baldintza nagusigatik gertatzen da hau: batetik hedabideen jabetza monopolikoa edo oligopolikoa suertatzen delako eta bestetik baldintza teknologikoak; mezuak emititzeko abantaila talde txiki baten esku dago, gehiengoaren adierazpen eskubidea

tzia nagusi dira: Associated Press, United Press International, Reuters eta Agence France Press». Publizitatearen aginduaren iragazkia ulertzeko El Corte Inglesa jartzen du adibide, «nekez aurki dezakezu estatu espainolean El Corte Inglesari buruzko albiste negatiborik, 151 milioi euro ordaintzen ditu hedabideetako iragarkietan». (Serrano, 2009: 31-34 orr.)

baztertuz (Pasquali, 1979:48). Baina gaur egun informazio aro berri batean bizi gara, Manuel Castells soziologoaren esanetan, Gizarte Sarean (Castells, 2000). Internet oinarria da eta tresna honek batez ere herrialde garatuetan, gizarte proiektu berri bat zehaztu du, Castellsek deitzen duen Gizarte Informazionala. Hortaz, baldintza teknologikoen bestelako parametro batzuetan gauzatzen dira.

«El término informacional indica el atributo de una forma específica de organización social en la que la generación, el procesamiento y la transmisión de información se convierten en las fuentes principales de productividad y poder, debido a las nuevas condiciones tecnológicas que surgen en este período histórico».(Castells, 1999:47)

Dena den gogoratu behar dugu, Gizarte Sarean ez gaudela denak modu berean sartuta. 2010.urtean 1966 miloi internauta zeuden munduan baina % 63a herrialde industrializatueta kokatzen ziren⁷, munduko biztanleriaren ehuneko hamabosta herrialde hauetan bizi da, beraz haustura digitala—komunitateen arteko haustura teknologiko eta sozioekonomikori erreferentzia egiten du, ezberdintasun hauek internet duten eta internet ez duten komunitateen artean ezartzen denean (Baigorri, 2000:163)— edo amildegi digitala (Covi, 2002:13-33) agerian dago, munduko biztanle guztiek ez dituzte informazio eta komunikazioaren teknologiak beren eskura⁸. 2012ko ekaineko datuak⁹ ezberdintasun hori azalarazten dute berriz ere: Estatu batuak 273 miloi erabiltzaile, Europak 518, Asiak 1076 milioi erabiltzaile, eta gainerako herrialdeetan 369 miloi erabiltzaile. Munduan orotara 2.405.005 erabiltzaile daude, hots, biztanleriaren % 30a eta gehiengo berriz ere herrialde industrializatueta kokatuta dago. Hortaz datu hauek kontuan edukita ezin dugu esan interneten erabilpena hedatuta dagoenik eta bere erabilera mundu mailan gizarte informazionalaren mugak ikustarazten ditu¹⁰.

Aldi berean internet ez dago enpresa eta gobernuen kontroletik aske. Interneteko enpresa nagusiak, Google, Yahoo, Viacom eta Apple, EEBBtako hedabide korporazio nagusiekin (Time Warner, CBS, News Corporation, Walt Disney Company, NBC eta Bertelsmann Media) dituzten erlazioak —sozietate sareen bitartez, inbertsio gurutzatuak erabiliz eta kontseilu kideen eta zuzendarien loturengatik— ugariak eta etengabeak dira (Castells, 2009:114). Adibide legez EEBBtako Nazio Segurtasun Departamentuak web orrialdeak eta gizarte sareak mehatxu te-

7 Iturria: <http://www.internetworldstats.com> (Kontsulta: 2015.11.12).

8 Seth Godin-ek beste fenomeno bat somatu du, «The new digital divide», konektatu gehienak bizi garen lehen mundu aberats honen baitan: aukera pertsonal librea eginez bere burua teknologian eguneratzea eta azken joeren jakitun egotea erabiltzen dutenak alde batetik. Bestetik, gure artean, sarbidea ukan eta Internet noizean behin erabili arren, mundu digitalagatik interes handirik erakusten ez dutenak. Geografiak edo irabazi ahalmenak inolako eraginik izan gabe, euren hala erabaki dutelako edo ez dutelako horren beharrik somatzen, atzean geratzen ari ei dira bigarren multzokoak. http://sethgodin.typepad.com/seths_blog/2005/05/the_new_digital.html (kontsulta:2015.2.22)

9 Iturria: <http://www.internetworldstats.com> (Kontsulta: 2015.11.12)

10 Luxemburgoko 400.000 biztanleek Afrikako 750 miloi biztanleek baino internet banda zabalera gehiago konpartitzen dute (Romano, 2004) <http://www.rebellion.org/noticia.php?id=15032> (kontsulta:2015.01.23)

roristaren seinaleen bila monitorizatzeko erabiltzen duten hitz zerrenda¹¹ aipatu behar dugu, EEBBtako gobernuak egiten duen kontrol ekintza hau mundu mailan pairatzen dugulako. Electronic Privacy Information Center erakundeak egin zion eskaerari erantzuten 2012ko maiatzean publikatu behar izan zuten zerrenda eta horrela jakin dugu Facebook-en «México» edo «China» hitzak erabiltzen ditugunean programa berezi batetan erregistratuta geratzen dela¹². Hedabide eta interneten inguruko ikerlari eta teorikoa den Lovink –ek adierazten duen moduan «hay algo de cierto en la tesis de que, en última instancia, es el gobierno de EE UU quien controla internet»¹³.

Beraz 1980an Unescok McBride Informe¹⁴ plazaratu zenetik «Multiple voices, one word» gaur egun arte panorama ez da asko aldatu. Mc Bride informaren abiapuntua 1977.urtean Sean McBride Unescon emandako hitzaldi batean dago. Bake nobel saridunak prentsak gizartean betetzen duen funtzezko paperari buruz hitz egin zuen eta bere eginkizuna betetzeko dituen zailtasunak eta arriskuak identifikatu zituen. Hasteko prentsaren egoera ahula salatzen du informeak, hedabide multinazionalen interesetan oinarritzen diren presio ekonomiko eta politikoak direla eta. Informazioaren desorekekin bukatu eta munduko kolektibitate desberdinak informazio fluxuetan parte hartzeko eskubidea erreklamatzeko du, informazio monopolioen eraginaren murrizketa eskatuz. Aldi berean iturrien aniztasuna aldarrikatzen da, prentsa askatasuna bermatzeko neurriak hartu behar direla adieraziz. Horretarako herri bakoitzaren nortasun kulturala errespetatzeko beharra aipatzen da, bakoitzak bere parametrotik informatzeko eskubidea eduki dezan (Zallo, 2005:75). Mc Bride Komisioak ateratako proposamenak Belgradon Unescoko Konferentzia Orokorren onartu ziren baina XXI .mende hasieran jadaneko informea izaten jarraitzen du.

«Algunos enfoques y planteamientos del Informe MacBride mantienen su vigencia a principios del siglo XXI. Justamente cuando, en un grado mayor que nunca antes, la dominación económica y la dominación política parecen asentarse en aquella otra dominación construida sobre el acceso desigual a las fuentes del conocimiento»
(Tresserras,2005:3)

11 Iturria:<http://www.opposingviews.com/i/technology/internet/list-words-department-homeland-security-looks-online> (Kontsulta:2015.3.1)

12 Irak, Irán, Afganistán, Pakistán, Yemen, Somalia, Corea del Norte eta Colombia hitzak ere agertzen dira lista horretan, «bomba sucia», «rehenes», «sarín», «yihad» eta «Al Qaeda» eta halako hitz arruntak ere «nube», «nieve», «cerdo», «químico», «puente», «virus» http://spanish.ruvr.ru/2012_05_30/EEUU-Internet-Seguridad-Nacional-The-Daily-Mail-control/ (Kontsulta:2015.3.5)

13 SINC servicio de información y de noticias científicas: (<http://www.agenciasinc.es/Entrevistas/El-control-de-Internet-es-el-campo-de-batalla-del-siglo-XXI> Lovink, 2008(Kontsulta:2015.3.5)

14 unesdoc.unesco.org/images/0004/000400/040066sb.pdf (Kontsulta: 2015.11.12)

Informe hau plazaratu baino lehen, Estatu Batuetan 1947. urtean prentsaren eredu liberala berrikusteko saiakera bat egin zen Hedabideen Giza Erantzukizunaren teoria planteatuz. Hedabideen kontzentrazioaren aurrean, gero eta hedabide gehiago gero eta esku gutxiagotan, eta hedabideen mezuen eta ideologiaren homogeneizatzearen aurrean Hutchins komisioak edo Prentsaren Askatasun Komisioak hedabideen gizarte erantzukizunaren teoriaren abiapuntua bilakatu zen informea plazaratu zuen. Henry Luce, momentu hartan Time-Life kontsorzioaren jabeak, komisioa babestu zuen bere helburua gizarte demokratiko batean kazetaritzaren pape-
ra zein zen aztertzea zelako.

«Contrario a lo esperado por Luce, la comisión publicó un informe crítico que apuntaba por primera vez los riesgos del monopolio de la propiedad de los medios, la necesidad de cubrir mejor diversos grupos sociales, la necesidad de transmitir diversas ideas y el papel fundamental de los medios independientes en una sociedad democrática (...) Sus requisitos de responsabilidad social se han convertido en una de las piezas centrales de la ética periodística y de la cobertura de grupos minoritarios en Estados Unidos» (Benavides eta Quintero, 2004: 6)

Hutchins komisioaren arabera hedabideek gizarte erantzukizun eredua jarraitzeko hiru ardatz hauek kontutan eduki behar dituzte: eremu publikoan ideien aniztasuna bermatzea, jar-
rera arduratsua erakutsi behar dute gizartearekiko eta gizartea osatzen duten talde ordezkari guztiak irudikatu behar dituzte (Benavides eta Quintero, 2004: 4-5). Ildo horretatik Enszenber-
gerrek 7oko hamarkadan eta Josep Rotak XXI. mendean proposatutako eredu aldaketak aipatu behar ditugu:

1. TAULA: **Enszenbergen eredu aldaketa**

HEDABIDEEN ERABILERA ERREPRESIBOA	HEDABIDEEN ERABILERA EMANTZIPATUA
Igorle bakarra, hartzaille asko	Hartzaille bakoitza, igorle potentziala
Kontrol zentralista	Programa deszentralizatua
Gizabanako isolatuaren gelditasuna	Masen mobilizazioa
Kontsumoaren aurrean abstentzio pasiboa	Partehartzaileen interakzioa, Feedback
Despolitizazio prozesua	Politikar ikaskuntza prozesua
Espezialisten produkzioa	Talde produkzioa
Jabe edo burokraten kontrola	Erakunde autogestionatuen kontrol sozializatua

Iturria: Egileak berak egina Enszenberger, 1974:46 oinarrituta

7oko hamarkadako Enszenbergen proposamena feedbackean ardatzen den komunikazio eredua da, hots, hartzaile bakoitza igorle potentziala bilakatzen da atzeraelikaduraren bidez. Horretarako kontrol zentralista batean oinarritutako ereduaren aurrean deszentralizazioa aldarrikatzen du. Hedabideen erabilera errepresiboa emantzipatua bilakatzeko gizabanakoen indibidualismo pasibotik masen mobilizaziora pasatu behar gara gogoratzen digu. Aldi berean, autore honen aburuz, kontsumitzaile pasibo eta despolutizatu parte hartzaile eta politika ikaskuntzan jantzia bihurtu behar da. Enszenbergerrentzako hedabideen lana talde produkzioa izan behar da, bere ustez espezialisten produkzioarekin bukatu behar delako. Teorialari honen arabera, jabe edo burokraten kontrolarekin bukatzeko erakunde autogestionatuen kontrol sozializatu ezarri behar da.

XXI. mendean Josep Rota ikerlari eta irakasleak Enszenberge 7oko hamarkan proposatutakoaren haritik eredu aldaketa hau proposatzen du:

2. TAULA: **Rotaren eredu aldaketa**

KONTROLPEAN IZATETIK	ERABILGARRI IZAN BEHAR DEN BALIABIDERA.
Zentralizatuta	Deszentralizatuta
Jabetza burokratikoetik	Giza jabetzara
Larderiako eredutik	Demokratiar eredura
Bide bakarretik	Bide bikoitzera edo anizkunerara
Bertikaltasunetik	Horizontaltasunerara
Informatibotik	Parte hartzailea eta elkarrizketan jarduna
Kanal itxietatik	Kanal irekietara
Teknikoa eta murriztua izatetik	Irekia eta ulertteraza izatera

Iturria: Egileak berak egina Rota, 2001:89 oinarrituta

Rota ikerlariak hedabideek jasaten duten kontrolarekin bukatzeko komunikazioa baliabide erabilgarri moduan aldarrikatzen du. Enszenbergerekin bat eginaz deszentralizazioa eta giza jabetzaren garrantzia azpimarratzen du, zentralismoa eta jabetza burokratikoaren aurrean. Horretarako eredu demokratikoa aipatzen du, horizontaltasuna ezarriz bertikaltasunaren aurrean eta elkarrizketan oinarritutako eredu, bide bikoitzekoa eta anitza, parte hartzailea, kanal irekietan oinarrituta. Espezializazio tekniko ere aldatu beharko litzatekeela azaltzen du, ulertteraza eta irekiak diren hedabideak sortuz.

Bi autore hauek proposatzen duten komunikazio eredua, komunikazio horizontala, komunikazio parte hartzailea, utopikotzat jo dute beste autore batzuk «fikzioa baino ez dena, baina masa-komunikazioan berriro sinesten hasten lagundu diezagukeena» (Basterretxea, 1997:4). Baina proposamen hauen harira informazio kanal alternatiboak lantzen dituzten hedabideak sortu dira eta komunikazio teorian paradigma berri bat: Gizarte Eraldaketarako Komunikazio. Teoria honek elkarrizketan eta parte hartzean oinarritzen den komunikazio etikoa da: «es decir, de la

identidad y de la afirmación de valores; amplifica las voces ocultas o negadas, y busca potenciar su presencia en la esfera pública» (Gumicio, 2004:6-7). Eta hau da hain zuzen komunikazio paradigma honek lortzen duena, isilarazita eta menperatuta dauden giza taldeek beraien informazioa, iritziak, esperientziak, igortzea eta bideratzea, hedabide nagusietatik kanpo dardelako edo hedabide horietan deformatuta agertzen direlako. «Ez da bakarrik kanal berrien eraketa, hizkuntza berrien eraketa ere bada»(Fernandez,1987:71).

2.1.3. Hedabideen eragina gizartean

A. HEDABIDEEN ERAGINEN TEORIAK

Gure azterlanaren ardatz teoriko kontzeptualekin jarraituz hedabideen eraginen teoriari erpreparatu behar diogu orainoan. Hedabideen eraginen teoriaren eboluzio ardatzak azaltzeko (McQuail, 1981; DeFleur eta Rokeach, 1982; Roda, 2001; Igartua eta Humanes, 2004) moduko autoreek erabili dituzten hiru paradigmen ikuspegia jarraituko dugu:

- 1. Erabateko eraginen teoria, 1910-1950:** XX. mende hasieran mundu gerletan eta bereziki Hitlerrek erabilitako propaganda mekanismoak aztertu ziren. Lehen gerratearen ostean hedabideen pertsuasio boterea oso handia zela uste zen, gizakien portaerak aldatzeko gaitasuna zeukatela bazirudielako (Schonemann 1924, hemen Wolf, 1991:27). Laswellen paradigma nork/nori/zer/zein kanal/zein ondorio (1948) oinarri bilakatu zen komunikazioaren ikerkuntza izenaz ezagutu den hasierako korrante teorikoko autore gehienentzat. Beraz XX. mendean egin ziren lehenengo ikerketak estimulu-erantzun eskema konduktistan oinarritu ziren, gizabanakoan sortzen duten eraginean hain zuzen. Ikerketa lerro honek Frankfurt Eskolako ikerketa lerroarekin argi desberdintzen da beraien azterketak hedabideen fenomenoa gizarte osoarentzako sortzen dituzten eraginetan oinarritzen zirelako eta ez gizabanakoaren portaeretan.

Garai honetakoa da «Orratz Hipodermikoaren teoria» edo «Balaren teoria» moduan ezaguna den proposamena. Eskema konduktistan oinarritutako teoria hau mezua zuzenean hartzailean sartzen dela esaten du «nahitaezko erreakzioa eraginez» (Ramirez de la Piscina, 1997:70). Hau da, mezua gizabanakoan eragin pertsonala dauka. Orson Wellesek 1938.urtean egindako irratsaioak teoria honen adierazlea da, herritar askoengan izu-ikara eragin baitzuen fikziozko irratsaio honek.1940an Cantril ikerlariak kasu hau aztertu zuen eta lan honen ondorioek paradigma aldatetarako bidea zabaldu zuten: 6 miloi entzuleetatik bakarrik miloi batek izu-ikara sufritu baitzuen (Cantril 1986:91-110). Beraz faktoreen analisiak bigarren paradigmarako bideak ireki zituen.

- 2. Eragin Txikien Teoria 1950-1970:** Garai honetan Lazarsfeldek Columbia Unibertsitateko Bureau of Applied Social Researchek egindako ikerketak zuzentzen ditu: «Voting» (1954) eta «Personal Influence» (1955) besteak beste. 1954. urtean Berelson,

Lazarsfel eta McPheek «Voting» liburua argitaratu zutenean eragin txikiaren paradig-
maren lehen oinarriak ezarri ziren. Elmira herria (New York) ikergunetzat hartu zuten
1948.urteko hauteskunde kanpaina aztertzeko. Trumanen EEBBtako lehendakaritza
hauteskundeak irabazi zituen bere aurkaria Dewyk garai hartako egunkari garrantzi-
tsuen jabea zelarik. Ikerlari hauen aburuz hedabideek ez dute eragin zuzenik sortzen,
aldiz, aurretik norberarengan dauden jarrerak eta iritziak agerian usten edo indartzen
dituzte (Ramirez de la Piscina, 1997:71). Beraz hedabideen efektua pertsonengan eta gi-
zartearengan mugatua izango litzateke beste faktore batzuk ere hedabideekin batera
aritzen direlako, «talde egiturak, iritzi aitzindariak eta harreman pertsonalek, hau da,
faktore bitartekariak, iragazten eta ahultzen dute komunikabideen balizko eragina»
(Iturrioz, 1991:111). Kaplerrek 1960.urtean «The effects of mass communication» liburua-
rekin teoria hau gorpuztuko du garai hortararte egindako mila ikerketa eta saiakeren
inguruko azterketa eginez. Bere liburuaren tesia argia zen:

«Hay que abandonar la tendencia a considerar la comunicación de masas como
causa necesaria y suficiente de los efectos que se producen en la audiencia, para
pasar a considerar a los medios como una influencia más que actúa junto a otras
influencias en una situación total» (Kappler,1960: 5)

Garai honetan Engel Lang ikerlariak hedabideen efektuak neurtzeko epe luzeko
ikerketak behar zirela adierazi zuten. Epe hartako hedabideen eraginen inguruko
ikerketak epe labur eta ertaineko azterketak ziren eta ikerlari hauen aburuz ez ziren
nahikoak eraginak neurtzeko. Hedabideek ukaezineko efektua dute baina epe luzera
bakarrik igarri daitezke (Moragas, 1986:66-94).

- 3. Eragin Indartsuaren Teoriara itzuli, 1970tik aurrera:** Eragin minimoen teoria pla-
zaratu zenetik ikerketa ugari egin ziren hedabideek eragin handia zutela gizaki eta
gizartearengan frogatzen saiatzeko (McQuail, 1994:498). Paradigma aldaketa 1973an
Noelle Neumannen «Return to the Concept of Poweful mass media» artikuluan oina-
rritzen da. Bertan politologo alemandarrak «orratz hipotermikoaren» teoriak azaltzen
duen inpaktu ahalmena berreskuratzen du baina eragin metagarriak direla adieraziz,
epe luzerako ondorioak hain zuzen.

«Ya no estamos en el campo de los efectos intencionales, vinculados a un contexto
comunicativo limitado en el tiempo y caracterizado por objetivos dirigidos a
obtener dichos efectos: ahora se pasa a efectos de alguna forma latentes,
implícitos en la forma en que determinadas distorsiones en la producción de los
mensajes se reflejan en el patrimonio cognoscitivo de los destinatarios» (Noelle
Neumann, 1973 hemene Wolf, 1991:162)

Paradigma berri honen harira Noelle Neumannek isiltasunaren espiralaren teoria plazaratu zuen iritzi pertsonalen eta hedabideek iritzi hauetan eduki dezaketen garrantziaren arteko interdependentzian oinarrituta. Teoria honen funtsezko tesia gehiengoaren iritziaren eraginean eta hedabideen eraginean oinarritzen da. Oro har sozialki ontzat hartzen dena eragin handia dauka pertsonen ustean. Beraien iritzia kontrakoa bada isiltasunera jotzen dute gizartean isolatuta ez sentitzeko eta hortaz hedabideek jokutzen duten papera oso garrantzitsua da, iritzi nagusiaren erakusleiko bilakatzen direlako (Noelle Neumann, 1995).

Iritzi publikoaren iragarpenak gertakari bilakatzen dira eta hedabideen hedadurari esker hauek *statu quo* bilakatzen dira. Beraz gutxiengoak bere iritzia isiltzeko joera edukiko du (Miller, 2005:278). Neumann-ek egindako ikerketan iritzi publikoaren prozesu eraketan «ongi» kontsideratua dagoena eragin handia daukala frogatzen da. Hau da, iritzi «onak» hasieran dituzten baino babes gehiago lortzen dute eta gutxiengoen iritzia (edo horrela antzematen dena) gero eta babes gutxiago lortzen du, isiltasunaren espiralaren prozesuan.

«Mass medien efektuak sarritan oharkabe igarotzen dira. Gizakiak ez dira gauza beraien inguruan gertatu denaz jabetzeko nahastu egiten dituzte beren pertzepzioak eta hedabideen bitartez jasotako filtrazioak, euren barruan banaezina den unitatea osatu arte; eta gainera hori guztia euren pentsakera eta esperientzia pertsonalen ondorioa dela sinisten dute askotan» (Noelle Neumann, 1980:60)

Eragin indartsuaren paradigmaten harira komunikazio ikerketan hiru teoria nabarmendu ziren: *Agenda setting* (McCombs&Shaw, 1972), *Priming* (Iyengar & Kinder, 1987) eta *Framing* (Iyengar & Simon, 1993) teoriak hain zuzen. XX. mende bukaeran sortutako hiru teoria hauek gizarte esanahi sozialen eraikuntzan eta sinismen eta jarrera soziopolitikoaren eraketan eragina dute. Scheufele eta Tewksburyk (2007:10) adierazten duten moduan komunikazio politikoko teoriari buruzko ikerketetan, *framing*, *agenda setting* eta *priming*-en gaineko ikerketek azken norabide paradigmaticoa irudikatzen dute.

- 3.1. Agenda Setting Teoria:** *Agenda Setting* Teoria Cohenek aurkeztu zuen 1963. urtean eta bederatzi urte geroago McCombs eta Shaw-ek frogatzen saiatu ziren. «The Agenda-Setting Functions of the Mass Media» artikulua plazaratu zutenean. Bertan hedabideen agendaren eragina eta zer nolako harremana daukan iritzi publikoaren agendan aztertu zuten. Beraien ikerketa 1968ko Estatu Batuetako hauteskunde kanpainan oinarritu zen. Chapel Hill izeneko herri batean hautesle zalantzatiek politikaren inguruko gai ezberdinei buruzko iritzia (*issues*) zeintzuk ziren jaso zituzten hauteskunde aurreko epealdian. Epe berdinean hedabideek plazaratutako edukiakin konparatu zuten eta honela hedabideek publikoaren kanpainako agenda ezartzen

zutela ondorioztatu zuten. Modu honetan aspaldidanik susmatzen zen ideia indartu zuten, hedabideek boterea zeukatela iritzi publikoan. Hau da *agenda setting*-ak hedabideen agenda eta pertzepzio publikoaren eguneko *item* garrantzitsuen artean, erlazio zuzena dagoela baieztatzen du, hots, hedabideek arreta kontzentratzen den ohiko topalekuak sortzen dituzte (McCombs eta Shaw, 1972: 176-187).

Agenda setting teoriaren arabera agenda ezartzeak, hedabide eta publikoaren arteko harreman kausala sortzen du. Hedabideek zioa, edukia, ematen digute eta publikoak ondorioa, iritzia ipintzen dugu. Horrela esan dezakegu hedabideek interes kolektiboko gaiak eratzten dituztela eta agenda publikoaren osaera determinatzen dutela.

Baina hau ez da *agenda setting*-en teoriak frogatzen duen ondorio bakarra. Hedabideek emandako enfasiaren arabera gaiak modu batean edo bestean agertuko dira publikoan. Hau da, jendeak gai bateri ematen dion garrantzi maila hedabideek eman dioten garrantziaren arabera neurtzen da (Wolf, 1991:163). Beraz hedabideek gero eta enfasi gehiago ipintzen badute gai baten inguruan, audientzian, arreta publikoaren orientatzaile moduan, gero eta garrantzi gehiago edukiko du gai horrek. Fenomeno hau «*agenda-setting*-en bigarren maila» moduan ezaguna da.

Hedabideek gertaera bat deskribatzen dutenean ezaugarri batzuei garrantzi gehiago ematen diete beste batzuei baino, ezaugarri batzuk gehiago aipatzen dituzte beste batzuk baino. Horrela gaien nabarmentasun maila ezartzen dute eta modu berdinean ezaugarrien hierarkia bat ere sortzen dute. Eta honek ere eragina dauka iritzi publikoan. *Agenda setting*-en bigarren mailak plano subjektiboan eta iritzian daukaten perspektibak eta irudiak ikertzen ditu. Hedabideetatik ez dugu soilik gai zehatz batzuen inguruko informazioa jasotzen, gai bakoitzari ematen diogun garrantzia eta enfasia ere jasotzen dugu (portadan agertzen bada edo ez, zenbat leku edo denbora eskaintzen saion albisteari, idatziko hedabideetan irudia eramaten badu edo ez, besteak beste).

Modu honetan *agenda setting*-ari buruz hitz egitea, hedabideek azpimarratzen duten gaien irudiei buruz hitz egitea da. Hedabideek nabarmentzen dituzten irudiak eta audientziak nabarmentzen dituen irudiak kasu geihenetan berdinak dira. Beraz hedabideek ez dute erabakitzen publikoak zer pentsatu edo ze iritzi eduki behar duen baina hedabideek eragin handia daukate publikoaren iritzi nagusia eraikitzeke orduan, pertsonen pertzepzioan daukaten eragina handia delako (Scheufele eta Moy, 1999).

3.2. Priming Teoria: Iyengar eta Kinderrek (1987) proposatutako *priming* teoria jendeak gertaera edo pertsonai publikoei buruz egiten dituzten epai edo iritzietan eragina duten faktoreez aritzen da. Autore hauek pertsonen informazioa biltzeko eta prozesatzeko daukaten ahalmen mugatuan oinarritzen dute beraien hipotesia. Hau da, pertsonen eta gertaera jakinen gainean jendeak garatzen dituen balorazioak eta iritziak ez dira eraikitzen informazio osoaren gainean, baizik eta eskura duen informazio murrizta baliatuta (Balaban, 2008:10). Informazio horrek iturri asko ditu jakina, baina

hedabideak lehen mailako iturria bilakatzen dira elementu batzuk presente eta beste batzuk ezikusiak edo ahaztuak mantentzeko gaitasuna dutelako.

Hedabideek objektuak, pertsonak edo prozesu politikoak ebaluatzeko oso lagungarriak dira hiritarrentzako. Pertsona bati adibidez lehendakariari buruzko epaia eskatzen zaionean ezin du analisi sakona eta zehatza egin eta bere memorian eskura duen informazioaren bitartez sortzen du epaia. Modu honetan adibidez hedabideek lehendakariaren politika ekonomikoari lehentasun informatiboa ematen badiote, jendeari lehendakariaren kudeaketa administratiboari buruzko balorazioa eskatzen zaionean, balorazio hori lehendakariaren politika ekonomikoan oinarrituko da eta ez kudeaketan. Eta hortan datza teoria honen funtsa, hedabideek portaera politiko zehatz bat sustatzeko ideiak eta/edo joerak aktibatzeke ahalmena dutenean *priming* efektua ematen dela esaten da.

«...al llamar la atención sobre algunas cuestiones, al tiempo que otras son ignoradas, las noticias transmitidas por la televisión influyen los estándares que las personas utilizarán para juzgar a gobiernos, presidentes, políticas y candidatos...» (Iyengar eta Kinder, 1987: 63)

Priming teoriak hedabideek eduki edo mezuei ematen dioten erakusketan oinarritzen da. Hau da erakusketaren arabera gai horren inguruko pentsamenduak eskuragarriagoak egongo dira gure memorian (Berkowitz y Rogers, 1986 hemen, Freinderberg, 2004:9). Hortaz *priming* informazioaren eskuragarritasunaz eta gogoan gordetako informazioa prozesatzeko moduz arduratzen da.

Hala izanik ere, askotan *agenda setting*-aren luzapen gisa ulertua izan da eta teoria bien artean loturak egonda ere desberdintasun adierazgarri bat antzeman dezakegu. *Agenda setting*-ak gai batzuk jendearen adimenean eta kezketan nabarmenarazten dute eta hedabideek igorritako informazio horren bitartez jendeak gaiak edo eragileak ebaluatzen dituen *priming* ari gara (Scheufele eta Tewskbury, 2007: 11). Beraz *priming* teoriak hedabideen eraginen ikerketan elementu berri bat suposatzen du ezagutza baino iritziak aztertzen dituelako.

3.3. Framing teoria: *Framing* teoriak aldiz informazioaren enkuadreaki erreparatzen dio, «errealitatearen hautematea eta irudikapena gidatzen dituzten egitura kognitiboak» (Scheufele eta Tewskbury, 2007: 11) hain zuzen. Beraz beste elementu bat gehitzen du gure azterketan: ezagutza eta iritziak sortzeko erabiltzen ditugun egitura kognitiboak erreparatzen dio. Kanpoko errealitatea bereganatzeko eta pentsamenduak sortzeko erabiltzen ditugun interpretaziorako eskemak, biak aztertzen ditu «beraien artean ematen den harreman isomorfitikoa esker» eta harreman hau «*framen* bitartez sortzen delako gainera» (Sábada et al., 2012:110). Hartan datza teoria honen oinarria.

Ondorioz, bi dimentsio lantzen ditu. Batetik psikologikoa, gai bat albistegietan aurkeztua eta azaldua den moduak eragin dezake jasotzaileek gai hori ulertuko duten eran (Scheufele eta Tewksbury, 2007: 9) eta bestetik soziologikoa, gizabanakoak ezin du mundua bere osotasunean ulertu beraz informazioa sailkatzeko eta ulergarria egiteko pertsonak eskema sinpleak (primary frameworks) erabiltzen ditu (Martinez de Luna, 2010:62).

«El poder de nombrar, que es el de empotrar cada denominación en un marco conceptual que implica valores y sentimientos de los que las audiencias son generalmente inconscientes. Y ese lenguaje bien armado con sus implicaciones morales y emocionales tiene el poder de definir las realidades una vez introducido y reiterado en los medios de comunicación» (Lakoff, 2007:10)

Beraz *framing* teoriak hedabideek gai bat enkoadratzeko moduak publikoaren ulermenean eta ebaluaketan daukan eragina aztertzen du. Modu askotan definitua izan den arren (Entman, 1993; Scheufele, 1999; Scheufele eta Tewksbury, 2007) Tankard et al.,-ek erabiltzen duten definizioa kontzeptua argitzen lagunduko digu. Autore hauen arabera frame bat da: «albisteen edukien ideia antolatzaile zentrala, testuinguru bat ematen duena eta gaia zer den iradokitzen duena, aukeraketa, enfasia, bazterketa eta lanketaren erabileraren bidez» (Tankard et al., 1991:3).

Definizio hau jarraituz *framing* eta *agenda setting*-en bigarren mailaren arteko antzekotasunak nabariak dira baina Weaverrek azaltzen duen moduan *framing* definitzeko erabiltzen dugun argibidearen arabera antzekotasun gehiago edo gutxiago edukiko ditu *agenda setting*-en bigarren mailarekin (Weaver, 2007:144). Eta hau da, autore anitzek adierazi duten legez, *framing*-ak daukan ahuldadea «kontzeptualizazio teoriko anbigua» (Vicente Lopez, 2009: 15) edo/eta «partekatutako definiziorik eza» (Sádaba et al., 2012:111) . *Framingen* gaineko ikerketen espezializazio akademikoak pluralismo teoriko eta metodologiko bat sortu du, beraz «funtsean *framing*-a bere arrakastaren biktima bat da» (D'Ángelo eta Kuyper, 2010:3). Datu empirikoek hala frogatzen dute. XXI .mendeko lehenengo urteetako ikerketa aldizkari erreferenteetan *framing* azterketek lehenengo postua lortu dute. 2001 eta 2005 urte bitartean 165 ikerketa egin ziren *framing*-en gainean, 43 *agenda setting*-ari buruz eta 25-ek *priming*-a eduki dute ezterketa ardatza (Weaver, 2007:144).

Garrantzi hau bi faktoreei dagokio: batetik prozesu komunikatiboa azaltzeko daukan aberasgarritasuna —aipatu dugun dimentsio psikologiko eta soziologikoan oinarritzen dena— eta bestetik bere ñabardura anizkunak informazio prozesuaren maila ezberdinetan kokatzeko aukera ematen diolako. Framingaren eragina hedabideetan, berrien edukietan, kulturaren eta audientzian aztertu daitezke (Sádaba et al., 2012: 112).

B. HEDABIDEAK ETA AGENDAK

XX. mende hasieratik gaur egun arte hedabideen eraginei buruz sortutako ikerketek argi frogatu dute hedabideek arazo publikoak definitzeko eta ideia politikoak komunikatzeko duten ahalmena oso handia dela.

Orain arte azaldu dugun moduan, bereziki arreta publikoa bideratzeko eta gai politikoak ulertzeko, interpretatzeko, testuinguruak sortzeko duten boterea nabarmena da (D´Adamo et al., 2000:57). Ondorioz, esan dezakegu auzi publikoen inguruko eztabaidak hedabideek esan, publikatu eta proiektatzen dutenaren arabera eraikitzen direla.

Eta hau da hain zuzen ere, gure ikerlanaren oinarri analitikoa argitzeko erabiltzen dugun ardatz teorikoaren zutabe bat. Atal aplikatuan garatuko diren kontzeptuen marko testuala sortzeko bidean marko teoriko kontzeptualaren lehen atal honetan hedabide eta agenden arteko lotura aztertuko dugu azkenez.

Etimologikoki agenda, egin behar diren gauzei egiten dio erreferentzia. Hedabideen agenda, agenda publikoa eta agenda politikoa konpondu behar diren arazoez osatzen dira. Beraz gai bat agendan egotearen garrantzia hartan datza, bere presentzia hutsak interes lehentasunak markatzen ditu: «agendan dagoena ez dagoena baino lehentasun gehiago dauka» (Sabada et al., 2007:188). Agenda bakoitza bere egitura eta ezaugarriak ditu:

- **Hedabideen agenda:** Hedabideek hautatzen dituzten gertakizun, jazoera eta auziei erreparatzen dio. Momentu zehatz batean hedabideek garrantzitsuenak jotzen dituzten gaiekin zerikusia dauka.
- **Agenda Publikoa:** Publikoak ezartzen dituen edukiez osatzen da, denboraldi batean publikoak auzi edo gai zehatzei ematen dion garrantzi hierarkia hain zuzen.
- **Agenda Politikoa:** Elite politikoak ezartzen dituen lehentasunekin lotuta dago, gobernuak, parlamentuak eta instituzioek ezartzen dituzten gaiak.

5. GRAFIKOA: **Agendak eta beraien arteko eraginak**



Iturria: Egileak berak egina

Agendaren eraketa prozesua sortzen dela esaten da «arazo edo gai batzuk gobernuaren arreta pizten dutenean, seriozki eta aktiboki, politika publiko bat bihurtzeko aukerarekin» (Elder & Coob, 2003:77). Beraz politika publikoa bilakatu daitekeen arazoen hautaketa eta definitzea, erabaki ariketa dialektikoa da.

dutenean hasten da. 1980. urte arte hedabideen agenda berez sortzen zen fenomeno bezala aztertzen zen. Baina urte horretan International Communication Association Meeting-ean hedabideen agendan gaiak zergatik agertzen ziren gaineko gogoeta landu zuten eta horrela *gatekeeper* terminoa, berrien hautatzailea hain zuzen, agenden sorreraren elementu determinatzaile moduan aztertzen hasi ziren (Dearing y Rogers, 1996:24). Terminoa hedabideetan berrien hautaketan arduradunak diren pertsoneri (banaka edo kolektiboki) egokitzen zaio. *Gatekeeper*-en funtzioak hauek dira: kazetari ikuspuntutik epaitu zeintzuk diren gai interesgarriak eta zeintzuk ez; gai hori lantzeko erabiliko den espazioa edo denbora (hedabidearen arabera) erabaki eta gai horrek duen garrantzia zehaztu erabiltzen den genero edo/eta kokapenaren arabera (DeGeorge, 1981: 219-220).

Rodríguez Díaz ikerlariak *gatekeeper*-en inguruko literatura azterketa egiterakoan bi hipotesi nagusi aipatzen ditu fenomeno honen izatea azaltzeko. Batetik Iparramerikako ikerketa askok defenditzen duten ikuspuntua: mundu mailan ere, *gatekeeper* nagusia Estatu Batuetako presidentea da, bere pertsonarekin zerikusia duen guztia berria bilakatzen delako (Trump-en adibidea aipatu dezakegu) eta bestetik Whitney eta Becker (1982) egindako lan bilduma aipatzen du bigarren hipotesia frogatzeko. *Gatekeeper*-ek hautatuko duten gai zerrenda, hedabideen agenda determinatzen duena alegia, berri-agentziek emandako albistekin eratzen da: «los temas proporcionados por las agencias servían de referencia a los medios (como si fuera la única materia prima), indicando cuáles iban a ser los temas más preferentes del día» (Rodríguez Díaz, 2004:41).

Agenden arteko dinamikak ulertzeko hiru agendetan eragina daukaten bi faktore kontutan eduki behar ditugu. Aristotelesek azaltzen zuen moduan gizakiak animalia sozialak gara eta gure helburuak komunitate baten barruan garatzen ditugu. Beraz, esperientzia pertsonalak eta interpertsonalak eta gizakien arteko komunikazioak agenden sorkuntzan eragin nabarmena dauka. Gainera inguratzen gaituen munduaren elementuak eta erreferentzia tasak ezagutzeko erabiltzen diren adierazleak hiru agendetan eragiten dute. Orientazio adierazleak dira, hots, mundu errealeko adierazleak, gertaera bat edo gai baten testuinguruan eragina duten elementuak, erakusgarriak, giza jarraibideak, etab. Adierazle hauek arazo sozial batek daukan garrantzia neurtzen erabiltzen dugun aldagaia da, (Dearing y Rogers, 1996:28).

Faktore hauek agenda guztietan ondorioak sortzen dituzte hortaz hedabideen agenda eratzeke *gatekeeper*-en lana eta aipatutako adierazleak kontuan eduki behar ditugu. Ondoren hedabideen agenda horren arabera albiste batzuk azpimarratuko dira. Nabarmentzen diren albiste horiek publikoaren memorian eta gogoan barneratuko dira eta jende askorentzat garrantzitsuak eta erraz oroitzeko modukoak izatera iritsiko dira *agenda setting*-aren bitartez.

«Hedabideek mundua eratzen eta konformatzen laguntzen dute, gure elkarriketarako erreferente bilakatzen dira. Albisteak kontatzeaz gain —egitate eta gertakizun guztien artean albiste zein diren erabakitzen dutenez—, munduan garrantzitsua zer den eta zer ez den esaten dute hedabideek. Errepikapenaren ondorioz, jendeak ikasi egiten du handia zer den eta txikia zer, eta, gero, horren arabera funtzionatzen du bere bizitza arruntean» (Basterretxea, 2002:66)

Agenda setting-aren bitartez agenda publikoaren eraketan aintzakotzat hartu behar ditugun bi fenomeno ematen dira. Batetik hedabideek gaiei emandako arretaren eta audientziak esleitutako garrantziaren artean dagoen korrelazio estua (Scheufele eta Tewskbury, 2007:11) eta bestetik zer gai pentsatu edo baloratuko den baldintzatzen duela (Vicente Mariño eta Lopez Rabadan, 2009:21). Hortaz, ikerlan akademikoek frogatu duten moduan, «*agenda-setting*aren gainean egindako ikerketen konklusio orokorra hedabideetako agendak publikoaren agenda aukeratzen duela da» (Dearing y Rogers, 1996: 50).

Baina ez da agenda publikoan eragiten duen fenomeno bakarra. Agenden arteko harremanak azaltzen diren 5.eskeman agertzen den legez, beste bi osagai aipatu behar ditugu: *priming*-en bitartez sortzen diren erreferente gakoak —gertaerak edo eragileak baloratzean eta iritzia osatzerakoan audientziak hedabideek sortutako erreferente horiek erabiltzen baititu— eta *framing* efektua, hedabideek igortzen duten informazioa iritziek eta balorazioek osatutako interpretazio eskemekin eranstean dute. Hauen arabera, hots, informazioa nola aurkezten den arabera, audientzian ondorio desberdinak sortuko dira. Horregatik autore batzuen aburuz derrigorrezkoa da gai politikoak perspektiba desberdinetatik lantzea «gizarte batean gertakizun politikoei buruzko berrien estaldura, arazo beraren gainean argudio eta analisi elementu desberdinak eskaintzen duten bereizitako perspektibetatik burutu behar da» (Freidenberg, 2004:12).

Hortaz agenda publikoa sortzeko prozesua honakoa litzateke: *agenda setting*-aren bidez agenda publikoa ezartzen da eta *priming* eta *framing*-en bitartez agenda hori eraikitzen da. *Agenda settingak* gai ordena ematen du eta *priming* eta *framing*-en medioz gai horien lanketa ematen da.

Aldi berean agenda publikoa eta agenda politikoaren harremana aztertu behar dugu (ikusi 5. grafikoa) eta horretarako eredu garria bihurtu den (Rodriguez Diez, 2001:22) Wright eta McIver ikerlarien azterketa aipatuko dugu. 1993.urtean. EEBBtako estatu guztietan 142.00 pertsoneri egindako inkesta telefonikoetan oinarritutako azterlanak agenda bien arteko harreman zuzena frogatu zuen. Datuen analisisan baieztatzen zenez iritzi publikoak harreman zuzena dauka agenda politikoarekin: "La opinión pública es la que influye predominantemente en los tipos de políticas que se hacen" (Erikson et al., 1993:244). Beraz agenda politikoak eratzeko hedabideen agendeei eta publikoaren agendari erreparatu behar diegu. Eta bide batez beste bi agendak aztertzeko agenda politikoari erreparatu behar diegu, bera baita Dearing eta Rogersentzat agenda guztien giltz orokorra. Agenda honek hedabide eta publikoan eragina edukiko duten gai berriak eratzen baititu (Dearing Rogers, 1996:72).

Azaldutakoaren arabera ondoriztatu dezakegu, agenden arteko harremana joan etorriko harremana dela. Finean eragina ez da norabide bakarrekoa eta hedabideen agenda eta agenda politikoaren kasuan fenomeno hau agerikoa da. Harreman hau ulertzeko, kazetari eta politikarien arteko harremana-edo kazetari eta politika publikoak egin behar dituzten arduradunen arteko (*policymakers*) harremana azaldu behar dugu. Erlazio hau sinbiotikoa izatera heltzen da, batak eta besteak elkar behar direlako. Kazetariak informazioa behar dute publikatzeko eta berrien iturriak lortzeko. Bestaldetik instituzio ordezkariak hiritarrei, boto-emaileei, beraien

programak zabaldu eta proposatu behar dizkiete eta horretarako kazetariak behar dituzte. Horregatik autore anitzentzako (Linsky, 1986; Trejo, 2000; Boniface, 2005) gaur eguneko gizartean politika egiteko, hedabideak nonahiko eta ezinbesteko bihurtu dira: «Tienen más influencia que cualquier otro factor de poder en las sociedades contemporáneas» (Trejo, 2000:16).

Laburbilduz esan dezakegu hiru agenda mota hauek beraien artean harremantzen direla eta lotura hauen analisia politika publikoen eraketan hedabideen papera zein den ulertzeko beharrezkoa da. Errealitate sozialaren eraikuntzan hedabideek politikarekiko harremanean oinarritzeko papera betetzen dute: ekintza, gertaera eta pertsonaiei ikusgaitasuna eransteko ahalmena dutelako. Hau da, informazioaren bidez arreta publikoan kokatzen dituzte gertaerak. Ahalmen hau berezko lotura dauka gertaera bati garrantzi publikoa emateko gaitasunarekin, sozialki garrantzia ematearekin eta gure eguneroko bizitzan kokatzearekin. Modu honetan botere politikoak bere ikusgaitasun publikoa kudeatzeko aldebakarreko ahalmena galdu du, hau da, aparatu komunikatiboekin lantzeko beharra dute (Thompson, 1998:180).

Edozein sistema politiko modernotan hedabideek hiru paper substantibo garatzen dituzte: oihartzuna, konpartsa eta protagonista dira (Vallès, 2000:362). Gehienetan hedabideek beste eragile batzuek (alderdi politikoak, gobernuak, hiritarrak, buruzagi politikoak...) komunikatzen dutenaren oihartzuna transmititzeko arduradunak dira. Beste kasu batzuetan hedabideek konpartsa bezala laguntzen dute beste eragileak, hau da, instituzio ordezkariei, politikariei edo sistemaren beste eragileei kritika edo sostengua ematen dieten euskarri bilakatzen dira. Zenbaitetan hedabideak protagonista bilakatzen dira berezko estrategia bat garatzen dutenean adibidez, politika zehatz bat bultzatzeko edo injustizia baten kontra agertzen direnean.

Hedabideek funtzio hauek betetzerakoan prozesu politikoan eta hiritarren bizitzan funtsezko eragina daukate. Zentzu honetan hedabideak eragile politiko moduan aritzen dira hiritarrek beraiengatik informazio politikoa jasotzen dutelako eta aldi berean, instituzioenganako kontrola edo zaintza gauzatzen dutelako. Zaintzaile paper hau, informazio politikoko transmititzaile, eta iritzi publikoaren eratzailerekin batera —Sartorik adierazi zuen moduan gaur eguneko demokrazietan iritzi publikoaren eraketaren oinarri nagusia hedabideak dira (Sartori, 2005)— politikako, eta, beraz, zientzia politikoko funtsezko aktoreak bilakatzen dituzte hedabideak. Finean «se comportan como instituciones que hacen políticas públicas o influyen en el proceso de elaboración y/o control de las mismas» (Freidenberg, 2004: 5). Eta hori da gure azterlanaren marko teoriko kontzeptualaren atal honetan azpimarratu nahi dugun lehenengo ildo. Sozio ingurumen gatazka politika publiko arautzaile baten erantzuna/erreakzio posiblea den heinean, hedabideek bertan jokatzeko duten eginkizunaren garrantzia aztertze beharra.

2.2. Sozio ingurumen gatazkak

Los conflictos existen siempre; no tratéis de evitarlos sino de entenderlos.

Lin Yutang. Hemen aipatuta Redorta, 2007:14

Los «problemas ambientales» hoy son problemas económicos, sociales, políticos y culturales, a la vez, en la medida que su análisis y solución cuestiona los paradigmas de desarrollo y bienestar de esta civilización.

Bacchetta, 2013 hemen aipatua Gotopo, 2013:204

2.2.1. Gatazkak

A. HURBILPEN TEORIKOA ETA DEFINIZIOA

Marko teoriko kontzeptual honen bigarren atalean gatazkak, sozio ingurumen gatazkak eta hedabideek sozio ingurumen gatazketan betetzen duten rola aztertuko dugu. Horretarako gatazkaren hurbilketa teorikoan murgilduko gara, beraren aukera demokratiko posibleak azalduz. Ondoren sozio ingurumen gatazken kontzeptuan sakonduko dugu eta Euskal Herriko egoerari begiratu bat emango diogu. Azkenik hedabideek gatazka mota hauetan betetzen duten eginkizunak azalduko ditugu.

Soziologia eta zientzia politikoetan gatazkaren definizioa eta kontzeptualizazioa landu duten eskola desberdinak daude. Ikerlan honetan lantzen dugun azterketa unitatea sozio-ingurumen gatazka da. Gatazka mota hau sozio estrukturala da beraz gatazka soziala landu duten autore esanguratsuenetarikoz zenbaiten ideiak jasoko ditugu atal honetan.

Gatazka harremanean ematen den prozesu bat da. Gatazka guztietan elkarri eragiten dioten bi pertsonak edo taldek edo pertsona edo talde gehiagok parte hartzen dute. Hauen artean interes, ikuspegi, jarrera, edo/eta balio desberdinak kontrajartzen direnean sortzen den harremanari gatazka deitzen diogu. Aurkakotasun horren oinarria gizartearen egituraren ondorioz sortutako desberdintasunak direnean gatazka soziala bilakatzen da. Beraz esan dezakegu gatazka soziala gatazka estrukturala dela. Weberrek hitzak erabiliz "Gatazka ezin daiteke bizitza sozialetik baztertu... Bakea gatazka-formen aldaketa bat baino ez da, aurkariengan edo gatazkaren objektuetan edo, azken batean, aukeraketen eratan" (Coser, 1956: 21).

Gatazka soziala definitzeko Santandreu eta Gudymas (1998: 32-33) ikerlariek erabiltzen dituzten ezaugarri nagusiak kontuan hartuko ditugu. Hasteko gatazka soziala prozesu bat da, ez da estatikoa eta denborazko garapena du, hots, hasiera, garapena eta itxiera prozesua osatzen

dute, azken hau partziala edo osoa izan daitekeelarik. Prozesu hauek eremu publikoan gertatzen dira eta eragile bat baino gehiagok parte hartzen dute. Beraz ekintza kolektiboan gertatzen dira eta pertsona taldeek parte hartzen dute. Eragile hauek balio, hautemate edo esanahi desberdinak ematen diete beraiengan eragina duten ekintza edo egoerei eta modu honetan gatazka soziala sortzen da, eragileen arteko oposizioko, eztabaidako, borrokako edo protestako dinamikak sortzen direlako. Oposizioan dauden eragileen eskaerak zilegitzat edo aintzakotzat hartzen ez badira ere, aurkakotasunaren onarpena dago. Gatazka sozialak, sintesian, oposizio-dinamika, eztabaida, borroka edo aktore-protesta suposatzen du. Weber-ek bere Ekonomia eta Gizartea izeneko obran honelaxe definitu zuen gizarte-gatazka: «Aktorearen borondatea betetzeko intentziazko ekintza, beste aldearen edo aldeen erresistentziaren aurka» (Barcena eta Larriana 2004:183).

Bobbiok baliabideen esku hartzea eta banaketan ematen den banako, taldeko, kolektibitateko eta erakundearen arteko interakzio forma liskartsuari deitzen dio gatazka (Bobbio, 2001:298-304). Badio, hala ere, behin aurrekoa onartuta, berehala agertzen direla desberdintasunak eta desadostasunak gatazka-kontzeptuarekin lotutako arazo gehienei buruz. Hortaz kontzeptuaren inguruko eztabaida kontzeptual eta akademikoak gatazkaren gainean egiten diren balioespen eta gogoetan datza eta ez hainbeste definizioan.

Politika zientzian eta soziologian gatazkarekiko oinarritzko jarrera teoriko-praktikoa kontutan izanda, gatazkarekiko jokabidearen arabera autore taldeak hiru eskoletan bereiz ditzakegu (Barcena eta Larriana, 2004:182-186):

1. **1.Egiturezko funtzionalismoa:** Eskola honetako teoriariek gatazka saihestu beharreko zerbait dela uste dute, hots, gatazka gaixotasun, irregulartasun edo istripu bat balitz bezala hartzen dute. Korrante honen perspektibatik gatazka gizarte gaitza da, beraz ekidingarria eta baztergarria den zerbait litzateke. Hobbesentzat gizakiaren egoera naturalean gizakia bata bestearen aurka lehiatzen dira. Beraz gatazka egoera honetatik ateratzeko gizarte hitzarmena egin behar da, saihestu nahi den egoera lortzeko. Iparramerikako funtzionalista estrukturalentzat, Parsons, Merton edo Lunberg adibidez, gatazkaren oinarrian gaixotasun-fenomeno sozialak hautematen dira nahitaez. Gatazkaren existentzia ukatu barik bestelako terminoak erabiltzen dituzte gatazka aipatzeko (tentsioak, estresa, tenkatzeak...). Eskola honetako teoriarientzat ez dago aukerarik gatazken bidez gizarte harremanak hobetzeko edo ondorio positiborik sumatzeko. Beraientzako gatazka gizartearen eritasuna da hortaz, gatazka saihesgarria eta baztergarria dute.
2. **Utilitaristak eta truke ekonomikoarenak:** Ikuspegi teoriko honen arabera, gizartearen funtsa zio ekonomikoetan dago. Hala izanik eta pertsonak zein talde sozialek interes antagonikoak edukiz, merkatuan aurkitzen dute egoera gatazkatsuen eraldaketa arrazionala. Hobbes-en eta A.Smith-en ildo filosofikotik abiatuz, egoera naturalean ematen diren gatazka iraunkorrak esku ezkutuaren probidentziaz etekin so-

zialak bihurtzen dira. Beraientzat merkatuaren eraldakuntzaren bidez interes eta xede kontraesankorren egoera bat, prozesu kooperatibo batean bukatzen da, non denok irabazten duten zer edo zer.

3. Gatazkaren teorilariak: Gatazkaren teoriko sozialek botere-desberdintasunetan eta sumisiozko harremanetan ikusi nahi izan dute gatazkaren iturria. Dahrendorf-en ustez, " gatazka sozialen egiturazko jatorria antolaketa sozialaren unitate batzuen barruan nagusi direnen domeinuko erlazioak dira» (1996:344). Beraz edozein gizarte-antolamenduren emaitza izango litzateke gatazka, bizitzaren beraren gakoa. Eskola honetako teorilariak (Simmel, Coser, Dahrendorf, Hirshman...) gizarte gatazkaren dimentsio positiboak eta eraldatzaileak baieztatzen dituzte. Ikuspegi hau landu duten autoreentzat gizarte gatazkaren dimentsio positiboak, egitura aldaketetan, xede eta balioen birplantatzean edo sortutako erlazio berrietan oinarritzen da.

Ikuspegi hauek kontutan edukita gatazka esanahi erraz eta estatiko batetik aldendu egiten den kontzeptua dela esan dezakegu. Hala ere kontzeptua ezaugarritze aldera oinarritzeko nolakotasunak aipatu behar ditugu. Alde batetik eraikipen soziala dela esan behar dugu; testuinguru zehatzetan ematen den aktore eta faktoreen interakzio legez ulertzen dugun heinean, gizarte eraikuntza bat da (Martinez Palacios, 2012:57). Bestetik, indarkeriatik berezi behar dugu «bortxatik desberdinduriko gizarte eraikuntza da, hots, gizakiari datxekion zerbait» (Fisas, 1998: 29-65). Hortaz, gatazka indarkeri eta biolentziatik desberdinduriko eraikipen soziala da.

Ikerlan honetan McAdam, Tarrow eta Tilly-k *lehia politiko* izendatzeko erabiltzen duten definizioa erabiliko dugu sozio-ingurumen gatazkaren kontzeptua lantzeko. Hiru autore hauek erabiltzen duten kontzeptualizazioa gatazka makroetan oinarritzen bada ere, argi azaltzen dute proposatzen duten kontzeptualizazioa maila mikroan, lokalean, aplikatu daitekeela inolako arazo metodologikoan jausi gabe (McAdam, Tilly, Tarrow, 2005: 9). Egile hauen arabera gatazka: «Erreklamatzailen eta eskatutako objektuen arteko noizean behingo eragin-truke publikoa da, eta, bertan, (a) gutxienez gobernu bat erreklamatzaila edo eskatutako objektua da, eta (b) eskatutakoa lortzen bada, gutxienez alde baten interesek kaltea hartuko dute»(2005: 5)¹⁵.

Definizioan sakontzeko hiru teorilari hauek bi azpi tipologia bereizten dituzte: «geldiarazitako liskarra» eta «liskar transgresiboa». Lehenengo tipologiak alde aurretik zehaztutako autoreei eta ekintza arruntei erreferentzia egiten dio. Kasu honetan «antzinako ekintza errepertorioak» erabiltzen dira. Bigarren tipologiak, «liskar transgresiboa», gatazkaren ondorioz eta egoerari aurre egiteko sortzen diren aktore berriei egiten dio erreferentzia (plataformak eta kontra-plataformak besteak beste) eta aurretik ezagutzen ez diren ekintza kolektibo berriak erabiltzen dira, «*errepertorio berria*» gehi «*aitzinezkoa*» da nagusi honetan (McAdam, Tarrow eta Tilly, 2005: 5).

15 Definizio honen baliagarritasuna neurtzeko bi arrazoi nagusi aipatu behar ditugu: batetik publikoa denez, erakundeen barnean, mugimendu sozialen barnean, alderdi eta agente instituzionalen barnean ematen diren gatazkak at geratzen dira. Bestetik, egintza programatuak eta liskar episodikoak at gelditzen dira.

Errepertorioa aipatzen dugunean Tillyren definizioa jarraitzen dugu «aktoreek aldarrikape-
nak jasotzeko eta gauzatzeko zuzendutako egiturak eta kanalak dira» (Tilly, 1995:43). Martinez
Palaciosek (2012:60) Pinilla aipatzen du (Pinilla, 2006: 82) antzinako errepertorioa eta erreper-
torio berria zer den azaltzeko. Antzinako errepertorioan asanblada publikoak, santzioak eta es-
kabideak dira nagusi. Errepertorio berria aldiz, ekintza autonomoa –organizatzaileek beraiek
sortua– kosmopolita –ekintza beste komunitateetara zabaldu daitekeenean– eta modularra-
rekin– ekintza kolektibo forma bat leku desberdinetan aplikatzean datza.

Azterlan honetan lantzen ditugun bi sozio-ingurumen gatazka kasuak, liskar transgresi-
boen kontzeptualizazioan kokatzen ditugu. Ikerlan honetako laugarren atalean azalduko du-
gun moduan, bi kasuetan aktore berriak sortu dira eta bai bata eta bestean, errepertorio be-
rriak eta antzinakoak erabili dira.

B. GATAZKAK ETA AUKERA DEMOKRATIKOAK

Gatazkaren teorilari sozialek adierazten dutenarekin bat eginez, gatazka transformaziorako
testuinguru sozio politiko bat suposatzen du. Guk ere, hainbat autoreek azaldu duten legez
(Mouffe, 2003, 2005; Swyngedouw, 2005; Harvey, 2005; Ruano, 2010) gatazkaren ahalmen eral-
datzailea defizit demokratiko bezala ulertzen dugu.

Hots, demokraziaren oinarria, ezarritako botereei menekotasunaren logika ezeztatzean da-
tza, nahiz eta botere hauek legitimoak eta gehiengoaren arauaren arabekoak izan. Hau da,
aginpidearen eztabaidatze iraunkorrean, printzipioz, inork ez du arauak jartzeko eskubiderik
besteak gobernatzeko asmoz, legitimazio hori, antagonista politikoekiko lehia justuan lortu
behar dela eta. Antagonista hauek ez badira existitzen edo ez badute aurkariak izateko eskubi-
derik, demokrazia huskeria dugu (Mouffe, 2003).

Gizarte demokratikoetan, gatazka ezin da eta ez litzateke desagerrarazi behar, baina
borroka horrek ez luke etsaien artekoa izan behar (antagonismoa), aurkarien artekoa
baizik (agonismoa). Horregatik, nire ustez, politika demokratikoaren kategoria nagusia
«aurkarien» kategoria da: aurkaria eta gu ados gaude «denentzako askatasuna eta
berdintasunaren» printzipio demokratikoan, baina ez horren interpretazioan. Aurkariak
elkarrekin borrokatzen dira, beren interpretazioa nagusitzea nahi baitute; baina, beren
posizioaren alde borrokatzean, ez dute aurkarien zilegitasuna zalantzan jartzen.
Niretzat, «borroka agonistikoa» terminoak aurkarien arteko konfrontazioa esan nahi du;
nire ustez, hori da demokrazia sendo baterako baldintza nagusia (Mouffe, 2005:56)

Chantal Mouffe, demokrazia gobernu mota bat baino gehiago dela uste du, giza bizikidetasu-
na politikoki antolatzeko eredua, alegia. Prozesu hau bi tradizio desberdinen artikulazioagatik
gertatzen da; batetik, liberalismo politikoaren tradizioa –legearen inperioa– eta bestetik, tra-
dizio demokratikoaren artikulazioagatik –herri subiranotasuna (Mouffe, 2003). Mouffen tesiak

jarraikiz, demokraziaren eskutik gatazka agertzen da. «Demokrazia interpretazio eta iritzi desberdinen aurkakotasun agonistikoa» den heinean (Mouffe, 2003: 22), gatazka, oro har, eta sozio-ingurumen gatazka zehazki, demokraziaren demokratizaziorako abagunea suposatzen du.

Ikerketa desberdinetan frogatu den moduan (Barcena eta Encina, 2006; CDCA, 2010; Martínez Palacios, 2009,2012) sozio-ingurumen gatazkak demokratizaziorako abaguneak dira. Ingurumen aferan dauden interes edo iritzi pluralen agertokiak izanik, sozio ingurumen gatazkek eraldaketarako testuinguru sozio politiko bat suposatzen dute. Aktore guztien parte-hartzerako abagunea dira, desberdintasunaren existentzia eta honen onarpena eta kogestiorako markoa sortzen dutelako. «Demokrazia sendotzeko aukera da gatazka, alegia, erabakitze eta antolatze estrategien transformaziorako parada» (Martinez Palacios, 2012:58).

Zentsu horretan, gatazkek oro har, eta sozio-ingurumen gatazkak zehazki, demokrazia ordezkatailearen izaera itxiarekin eta zehaztuarekin haustura bat suposatzen dute. Hau da, demokrazia ordezkatailean herritar eta ordezkarien arteko elkarguneak aurretik mugatuta daude, alegia, epe zehatzetan egiten diren hauteskundeak, noizean behin erreferenduma, botere eskualdatze eta honen pluralismoaren zenbait erakustaldi konkretu, etab. ziklo itxia aurkezten dute. Hala izanik demokrazia ordezkatailearen ereduak prozesu demokratiko itxia sortzen du. Ildo horretan gatazkek eta sozio-ingurumen gatazkek zehazki, haustura sortzen dute demokrazia liberal ordezkataileak duen izaera itxi eta mugatuan. Pluraltasuna erabiltzearen adierazgarri dira, eta, beraz, aukera egokiak dira demokrazian sakontzeko, mekanismo parte hartzaileak sortzeko, herritarren parte hartzea sustatzeko, sare demokratikoak bultzatzeko, ibilbide demokratikoa sakontasunez eraikitzeko. Prozesu honi, irteera demokratikoa edo demokrazia prozesuaren irteera zentrifugoa deritzogu (Barcena, Larrinaga eta Martinez, 2010:4).

Baina kontrako bulkada ere sor dezakete gatazkek, alegia, demokraziaren sakontzea mekanismo parte hartzaileen bidez albo batera utzi eta gehiago bultza dezakete Estatuaren eta botere faktikoen izaera errepresiboa, esparru demokratikoa itxiz. Prozesu honi larderiako irteera edo irteera zentripetoa deritzogu (Martinez Palacios, 2012:57-59.)

Gure aburuz sozio-ingurumen gatazkek, parte hartzen duten eragileen arteko harreman eta baldintza jakin batzuek (kaltetutako herriek, tokiko, eskualdeko edo estatuko administrazioek, enpresek eta enpresa elkarteek, talde ekologistek, alderdi politikoez, zientzialariek eta abarrek) eta aukera politikoa sor dezaketean egitura zehatz batzuek, mekanismo eta prozesu demokratikoak indartu dezakete.

Hala ere kontrakoa ere gerta liteke, hau da, gizarte eta ingurumeneko gatazkako dinamikaren aurrean, litekeena da instituzioek emandako erantzuna larderiatsua eta zapaltzailea izatea, eta, horrenbestez, gatazkak konpontzeko mekanismo demokratikoei ateak ixtea. Gure kasuan, Pedro Ibarak «erlaziozko demokrazia» deitzen duenaren dinamikan barneratu nahi dugu (2008: 23-26) «erregimen politiko honetan, erlazio eta espazio publiko batzuk daude — gatazkatsuak edo laguntzaileak— gobernarien eta gobernatuaren artean eta horiek baldintza iraunkor edo egiturazko baldintza onuragarriak sortzen dituzte, herritarrek eta gobernariak erabakitzen dutena, bat etor dadin».

Honez gain demokrazia kontzeptuaren prozesuzko aldea eta gatazkak berak duen papera azpimarratzen duen Barcenaren definizioa kontutan edukiko dugu ikerlan honetan. Demokrazia gizartea politikoki antolatzeko modu bat izateaz gain, bai norbanako eta bai talde legez izateko eta bizitzeko era bat da eta bere printzipio edo balore nagusien artean, eskuzabaltasuna, askatasunaren defentsa, berdintasuna dibertsitatean eta gutxiengo eskubideen errespetua, horizontaltasuna eta gatazka sozio-politikoaren irtenbide baketsua aurkitzen dira (Barcena, 2004: 23).

2.2.2. Sozio-ingurumen gatazkak

A. KONTZEPTUA DEFINITZEN

Sozio-ingurumen gatazken literaturan, autore bezainbeste sozio-ingurumen gatazken definizio daude. Adostutako definiziora hurbiltzea zeregin korapilatsua denez, hurrengo orrialdeetan gure azterketarako interesgarriak diren zenbait ikerlarien definizioak eta hauen elementuak aztertuko ditugu.

Sozio-ingurumen gatazken gaineko ikerketak Ekologia Politikoa¹⁶ edo Ingurumen Soziologiako¹⁷ jakintzagaien eskutik heldu zitzaizkigun 70ko hamarkadan (Lemkow, 2002). Autore batzuk sozio ingurumen gatazken sorrera hamarkada horretan kokatzen badute ere —adibidez Fontaine ikerlariaren arabera (2004:505) ingurumenaren inpaktuen gaineko (petrolio, meatze eta baso ustiatze jarduerak eraginda) lehen protestak 70eko hamarkadan egiten dira Europako eta Estatu Batuetako mugimendu ekologistaren eskutik— gure aburuz Ortiz eta Varearekin bat eginez (1995:19) «gizateriaren historia guztian zehar baliagai naturalengatik gatazkak existitu direla ondorioztatu daiteke».

Hala izanik ere, 1990ko hamarkadan gaiaren inguruko literatura heterogeneoa zabaltzen hasten da (Sanchez Vazquez, 2011:3) marko kontzeptual desberdinak lantzen direlarik. Ingurumen gatazkak, sozio-ingurumen gatazkak, gatazka ekologiko-distributiboak, ingurumen edukia duten gatazkak... ikuspegi eta ikuspuntu desberdinak izendatzen dituzten kontzeptu batzuk dira (Walter, 2009:7), askotan sinonimo bezala jorratzen badira ere. Gure ikerlanean

16 Enrique Left ikerlari eta irakasleak honela definitzen du ekologia politikoa «A la ecología política le conciernen no sólo los conflictos de distribución ecológica, sino el explorar con nueva luz las relaciones de poder que se entretienen entre los mundos de vida de las personas y el mundo globalizado. (...)La ecología política emerge en el hinterland de la economía ecológica para analizar los procesos de significación, valorización y apropiación de la naturaleza que no se resuelven ni por la vía de la valoración económica de la naturaleza ni por la asignación de normas ecológicas a la economía; estos conflictos socio-ambientales se plantean en términos de controversias derivadas de formas diversas – y muchas veces antagónicas– de significación de la naturaleza, donde los valores políticos y culturales desbordan el campo de la economía política, incluso de una economía política de los recursos naturales y servicios ambientales. De allí surge esa extraña politización de «la ecología». (Leff, 2003:18-19).

17 Ingurumenaren Soziologo Sarearen sortzaile eta koordinatzailea den Mercedes Pardo doktorearen ustez « La sociología medioambiental surge en Estados Unidos a mediados de los años 70 y tiene un hito especial con la publicación de un artículo por los sociólogos Catton y Dunlap (1978) titulado «Environmental Sociology: a New Paradigm» (Sociología medioambiental: un nuevo paradigma). Para estos autores, la visión global occidental del mundo está basada en un paradigma dominante que denominan «Paradigma del Excepcionalismo Humano» que contiene, entre otros aspectos, la idea de que los seres humanos no estamos sometidos a restricción alguna por parte de la naturaleza, ya que el mundo es vasto y nos aporta oportunidades ilimitadas, y, también, en la idea de progreso continuo de manera que para cada problema hay una solución. Para estos autores, esos supuestos son antiecológicos en su fundamento, y ese tipo de perspectivas están siendo cuestionadas por los cambios producidos en relación a los problemas medioambientales» (1996:42).

erabiltzen dugun sozio-ingurumen kontzeptuan sakontzeko kontzeptuaren inguruko ikuspegi aniztasuna azalduko dugu.

Hasteko ingurumen gatazka eta sozio-ingurumen gatazka bereizi behar ditugu. Sabatini ikerlari txiletarrak ingurumen gatazkak kanpoko faktoreak sortutako gatazka legez definitzen ditu. Hots, lurzoruaren erabileratik eratortzen diren «kanpokotasunetako» edo «kanpo-efektuetako» banaketaren inguruan sortutako gatazka; leku batean garatzen diren jarduera berriek sortutakoak, hain zuzen ere. Sozio-ingurumen gatazkak aldiz, ingurumen errekurtsioen kontrola (bereziki lurra, baina ura, mineralak, etab. ere izan daitezke) eta baliabide hauetara heltzeko sortzen diren gatazkak izango lirateke (Sabatini, 1997:52). Mota honetako gatazketan zailtasunak baliabideen jabetza definitzeko orduan agertzen dira, ingurumen gatazketan aldiz zailtasunak «kanpo efektuak» sortu dutenen onarpen eza agertzen dira.

Orellanak (1999: 331-345) ingurumen gatazka eta sozio-ingurumen gatazken bereizketa egiten duen beste autore bat da baina desberdintasunak beste parametroetan kokatzen ditu. Ingurumen gatazkak baliabide naturalekin zerikusia daukaten gatazkak dira. Bertan sortzen den oposizioa nagusiki kanpoko aktoreez osatuta dago, hots, gatazka gauzatzen den leku edo lurralde kanpoko eragileak, normalean gobernu kanpoko erakundeak eta ingurumen erakundeetako aktibistak. Ikuspegi honen arabera, sozio-ingurumen gatazka, proiektu jakin batek sortutako inpaktuek zuzenki eragindako komunitateak tartean sartzen denean suertatzen da. Desberdintasuna beraz, gatazkan parte hartzen duten aktoreetan kokatzen da oraingoan.

Hala ere ingurumen eta sozio-ingurumen gatazken arteko bereizketa hauek oso eztabaidatuak izan dira. Autore desberdinek adierazi duten moduan (Fontaine, 2004; Gudynas, 2014) dimentsio sozial gabeko ingurumen gatazkarik ez dago.

«En sentido estricto todos los conflictos siempre son sociales, en tanto es una dinámica de actores sociales en oposición. Esto hace que todos los conflictos sean siempre «sociales» (Gudynas, 2014:87)

Sozio-ingurumen gatazkak lantzeko erabili den beste kontzeptu bat «gatazka ekologiko distributiboa» (Martinez Alier, 1997) izendapena jaso du. Kontzeptu honek munduko iparraldeko gizarteen metabolismo hazkundera –gero eta material, energia eta ura gehiago kontsumitzea– Hegoaldean sortzen diren ingurumen gatazkekin lotzen du (Martinez Alier, 2004). Distribuzio edo banaketa ekologikoaren kontzeptuak ingurumen zerbitzuak eta baliabideak (merkatutuak, edo ez) erabiltzerakoan sortzen diren etekinen asimetria eta desberdintasun sozial, espazial eta denborazkoei egiten dio erreferentzia (Martinez Alier, 1997). Definizio honek ingurumen baliabide eta zerbitzuen etekinetan eta banaketan zentratzen da eta kokapen honek kritikak jaso ditu sozio-ingurumen gatazkak lantzen duten zenbait akademikoen partetik. Adibidez gaian aditua den Gudynasen aburuz (2014:85) zaila da ingurumen aferetan ardazten diren hainbat gatazka distributibo legez ulertzea, horiek ez direlako jorratzen baliabide edo zerbitzu moduan eta horietan ez delako etekinen banaketa lehiarik suertatzen.

Azkenik «ingurumen edukiko gatazkak» kontzeptua aipatu behar dugu. Folchi ikerlariak landu duen marko kontzeptual honetan ingurumen gatazka bezala ezagutzen ditugun gatazka gehienak ingurumen edukiko ardatz bat duten interes gatazkak direla argudiatzen da.

«No es un conflicto entre dos actores ‘por’ el medio ambiente, sino un conflicto de intereses entre dos actores, ‘en’ un medio ambiente específico, o dicho con otras palabras, una tensión entre intereses incompatibles, con el medio ambiente de por medio. En estos conflictos, ninguno de los involucrados asume, necesariamente, la postura ética de defender el medio ambiente porque eso sea justo, noble o bueno» (Folchi, 2001:91)

Ikuspegi honen arabera «ingurumen edukizko gatazkak» kontzeptua, ingurumen dimentsioarekin lotutako gatazken aniztasuna barne hartzen ditu eta ez soilik ingurumena babesten den gatazkak.

Definizio desberdin hauek gure ikerlanean erabiltzen dugun sozio-ingurumen gatazka kontzeptua kokatzera eramaten gaitu eta horretarako 2016ko Arne Naes¹⁸ katedra irabazi duen Gudynasen marko kontzeptuala erabiliko dugu (2014:87). Guretzat gatazka mota hauek, aurkakotasunen dinamika suposatzen dute, gizartea eta ingurumenarekin lotutako ekintza edo egoeren gaineko balorazio, hautemate edo esanahi desberdinetatik sortua. Prozesu hau ekintza kolektiboetan adierazten da eta oposizioko aktoreen arteko elkarrekintza eremu publikoan kokatzen da.

Zenbait analisi enpirikoek azaldu duten moduan (Gonzaga, 2007: 8) sozio-ingurumen gatazketan ez dute faktore ekosistemikoak soilik eragiten; faktore sozialak, interes ekonomikoak, politikoak, etab. ere presente daude. Hortaz, gatazka mota hauetan gatazka sozialak eta estrukturalak bat egiten dute. Gizakiaren jarrera eta jokamoldearekin zerikusia daukate, ez dira soilik ingurumen baliabideen gaineko gatazka, lurralde bateko baliabideen erabileran parte hartzen duten aktoreen erlazioak bere baitan ulertzen baitira. Gainera estrukturalak dira «globaltasunaren ezaugarriagatik gizakiarenetik haratago doazen kausak aurkitzen direlako» sozio-ingurumen gatazketan (Martinez Palacios, 2012:56).

B. AKTOREAK

Arestian aipatu dugun legez sozio-ingurumen gatazka ekintza kolektiboetan adierazten da eta oposizioko aktoreen arteko elkarrekintza suposatzen du. Aktoreen arteko harremanak aztertzeko eragile horiek kokatu behar ditugu, kontuan edukita gatazkaren aktorea «gatazkan papera edo rol bat duen edozein subjektu, indibidual edo kolektibo, publiko edota pribatua dela» (Aguilar, 2003: 27).

Aktoreen sailkapena garatzeko erabili daitezkeen irizpideak anitzak izanik, ikerlan honetan aktoreek proiektuarekiko eduki duten jarreraren oinarritu gara:

¹⁸ Naes catedra Osloko Unibertsitateak urtero ematen duen nazioarte mailako saria da. Sari honek garapena, ingurumena eta justizia globalaren problematika landu duten akademiko berriztatzaileak aitortzen ditu. 2007.urtean hasi ziren sari hauek ematen eta Eduardo Gudynas saria jasotzen duen lehen latinoamerikarra da (2016). Gudynas CLAES (Centro Latino Americano de Ecología Social) zentruko idazkari ejekutiboa da.

Gobernuak: gobernu lokala, autonomikoa, estatala, etab. izan daiteke. Aktore juridikoa izanik gatazketan jokatzeko duten rola oso garrantzitsua da. Zentzu horretan betetzen duten papera anizkuna izan ahal da, hots, batzuetan gatazka eragin duen proiektuaren eragile gisa agertu daitezke eta beste batzuetan aurka. Hau ageriko da administrazio lokala eta autonomikoa gatazkarekiko duten planteamendua desberdina denean. Abiadura Handiko Trenaren aferan adibidez, gobernu autonomikoa proiektuaren alde agertu bada ere badaude administrazioa lokal asko aurkako jarrera adierazi dutenak (besteak beste, Aduna, Abadiño, Arrasate, Legorreta eta Urretxu aipatu ditzakegu).

Proiektuaren sustatzaileak: enpresa pribatuak (bai maila lokalean aritzen direnak, bai korporazio globalen menpe daudenak), alderdi politikoak eta administrazio bera izan daitezke. Proiektuaren bultzatzaileak dira.

Proiektuaren kontra agertzen diren eragileak: kasu honetan eragile antolatutakoak eta ez antolatutakoak izan daitezke. Agente sozial eta politikoak dira: talde ekologistak, auzokide taldeak, issue-plataformak, alderdi politikoak, etab.

C. DINAMIKAK

Ikerlanean erabiltzen dugun definizioa zehaztu ondoren, sozio-ingurumen gatazken dinamikak aztertuko ditugu, hots, aktoreen artean ematen diren hartu emanak sortzen dituzten ondorioak. Hortaz oraingoan, gatazkaren sorrera eta garapen prozesuari dagokion azterketari ekingo diogu.

Gatazka zoriz sortzen den prozesua da. Agertoki edo momentu batean gatazka sor dezakeen faktoreek, beste batean ez dute zertan sortu behar. Weberrek «inputazio kausalaz» berba egiten du, ekintza sozial bat ez da soilik sortzen kausak deitutako fenomeno batzuetatik, »fenomeno kutsakorak» gehitu behar dira, ekintza bat ez delako era isolatuan ulertzen, baizik berorren testuinguruan sortzen diren ekintzekin batera (Weber, 1979:163).

Sozio-ingurumen gatazken sorreran ingurumen inpaktua duen proiektuaren bat egoten da normalean, zehazki, proiektu hori jendaurrean aurkezteko ekitaldia izaten da abiapuntua. Izan ere, «normalizazioa eta gatazka txanpon bereko bi aldeak dira» (Crespo, 1999:4), eta beraz, ingurumen politikek efektu bikoitza dute, alegia, pedagogikoa, gizarteari ingurumenaren aferan sozializatzea eta bestetik, sozio ingurumen gatazkak sortzea, politika zehatzen ondorio baitira gatazkak sortzen dituzten proiektuak (Barcena, Larrinaga eta Martinez Palacios, 2010:4).

Aurrekariak: Ingurumen gatazka sortu baino lehen, hots, proiektua publikoki azaldu aurretik, aurre-gatazka baldintzak sortzen dira. Proiektua garatzeko esparru juridikoa lantzen den unean, kontrako iritziak eta interesak sortzen dira. Memento horretan, auzokideak, talde ekologistak, eta oposizioko taldeak orobat, enpresekin eta administrazioarekin eztabaidan sartzen da. Aktoreen arteko eskaerak eta erreklamazioak egiten dira, eremu pribatuetan, eremu publikoan egin baino lehen.

Ondoren sozio-ingurumen gatazken dinamikak hiru modu desberdinetan adierazi daitezke (Gudynas, 2014:90-91):

Intentsitate baxuko gatazkak: Aktore kolektiboen arteko oposizioak bere burua adierazten du espazio publikoan, marko formalizatu eta instituzionalpean. Adibide bezala aipa daitezke prentsan zabaltzen diren erreklamazioak (elkarrizketak, abisuak...) Estatuaren baitan erreklamazioak egiteko sortzen diren komisioak, edo auzi-eske kolektiboak, etab. Estatuaren enpresak edo beste talde sozialak berriz, antzeko bideak erabiliz erantzuten dute. Gaur egungo intentsitate baxuko gatazketan, dinamika publikoa hedabide berrietan ere egiten da, internet, blogak, twitter, facebook, etabarrekoetan.

Intentsitate erdiko gatazkak: Kasu honetan, talde herritarrak, ekitaldi publikoekin edo tokian tokiko martxak eginez mobilizatzen hasten dira. Gutxienez oposizioko aktoreen talde batek protesta aktiboko praktikak bere gain hartzen ditu eta ikusgaitasun publikoa handiagoa da, baina bortizkeri fisikorik ez da suertatzen. Adibiderik ezagunena talde herritarrek pankartak eta karteekin plaza publikoetan egiten dituzten topaketak edo hiri edo herri batean mugatutako martxak edo manifestazioak. Mobilizazio hauek estatuaren baimena ohi daukate eta prentsa estaldura jasotzen dute. Intentsitate ertaineko gatazketan gutxienez oposizioko taldeetako batek ekintza horiekin bere eskaerak jakinarazteaz gain, atxikimenduak gehitu eta bere oinarri soziala handitzea bilatzen dute, sareak eta aliantzak ehuntzeko asmoarekin.

Intentsitate handiko gatazkak: Liskarrean dauden aktoreak ekintza kementsuagoak egiten dituzte eta bortizkeria fisikoko gertaerak sortu daitezke. Intentsitate handiko gatazketan suertatzen diren mobilizazioak tamaina eta iraupen handiagokoak dira, atxikimendu sozial eta politiko handia dituzten kale-agerraldiak edo manifestazio nazionalak, adibidez. Herritarren erresistentzia ekintzak mota honetako gatazketan kokatzen dira, eserialdiak, lanak galarazteko makineria aurrean jartzea, bide edo kale mozketak, etab. Muturreko kasuak ere hemen kokatzen dira, ekintzek bortizkeria adierazten dutenean, alegia. Bi aldeetatik eman daitezke, hau da, oposizioko protesta, ekintza zuzenera pasatu daiteke, enpresa baten eraikinen okupazioa, makineri apurketa, etab. Eta aldi berean estatuko aktoreak edo aktore enpresarialak bortxa ekintzak erabili ditzakete, manifestaldien kontrako errepresioa, atxiloketak, kolpatuak, zaurituak, etab. Garrantzitsua da gogoan izatea gatazkaren prozesuan ez dela aktoreen ekintzen arteko simetriarik eman behar, hots, oposizioko herritar taldeek intentsitate ertaineko gatazka fasean egon daitezke baina jasotzen duten erantzuna goi intentsitatekoa izan daiteke.

Sailkapen honen arabera, ikerlan honetan aztertzen diren bi sozio-ingurumen gatazkak, mota desberdinetakoak dira. Muskizko Koke planta intentsitate ertaineko gatazka da. Protestak, manifestazioak eta galdeketak burutu badira ere, Muskizeko herrian mugatuta egon dira


oposizioak gatazka honetan egin dituen ekintzak. Abiatura Handiko Trenaren gatazka aldiz intentsitate handiko gatazketan kokatzen da, mobilizazioak tamaina handikoak izan direlako, manifestazio nazionalak adibidez eta bortxa fisikoko ekintzak suertatu direlako, errepresio poliziala adibidez. Lan honen laugarren atalean azterketa honetan sakonduko dugu baina adierazgarria izan da, Abiadura Handiko Trenaren kasuan gatazkaren desaktibazioa sustatzeko oposizioeko aktoreen kriminalizazioaren erabilera.

D. TIPOLOGIAK

Sozio-ingurumen gatazken tipologia aztertzerakoan aniztasuna aipatu behar dugu, erabiltzen dugun definiziorako aldagaia kokatzen dugun eremuaren arabera, kategoria desberdinak agertzen baitira.

Gaiaren arabera, sailkapen ugari egin daitezke. Zein politika publikoen alorrean eragiten duenaren arabera, garraioa, hirigintza, hondakinak, energia, harrobiak, animalien babesa etab, aipatu dezakegu. Espainiar Estatu mailan egin diren ikerketek hiri ekologia eta lurralde antolamendua identifikatzen dituzte sozio-ingurumen protesten kausarik adierazgarrienak:

7. GRAFIKOA: Estatu espainiarrean 1988 eta 1997 urteen artean jasotako protesten kopurua gaika



Iturria: egileak berak egina Jiménez, 2005:113 datuetan oinarrituta

Aniztasun tematikoa aintzat hartuta Martinez Alierrek (2004: 22-24) sozio-ingurumen gatazken tipologia egiteko produktu bat lortzeko garatzen diren etapetan oinarritzen da, hots, energia eta materialak lortzen diren momentutik, ekoizten diren arte, sortzen diren sozio-ingurumen gatazkak. Horrela, bere sailkapena hiru taldeetan banatzen da:

- 1. Energia eta materialen erauzketaren gaineko sozio-ingurumen gatazkak:** metal, harrobi eta petrolio meatzaritza, lurzoruaren higadura eta degradazioa, plantazioak, biopirateria, ura eta gehiegizko arrantza.

2. **Garraioaren gaineko sozio-ingurumen gatazkak:** petrolio-isurtzeak, oliobideetan edo gasbideetako istripuak, hidrobideak, autopistak, portuak, abiadura handiko trenak.
3. **Hondakinen eta poluzioaren gaineko sozio ingurumen gatazkak:** hondakinen tratamendua, poluzioa, hondakin toxikoak. Gure kasuan hautatu ditugun bi sozio ingurumen gatazkak garraioa eta energia eta hondakinekin dute zerikusia.

Bestelako kategoria bat lurraldetasunaren arabera sortu daiteke. Modu honetan sozio-ingurumen gatazka globalak eta lokalak aipatu behar ditugu. Globalak Estatuetatik haratago suertatzen diren gatazkak dira, aldaketa klimatikoa adibidez. Gatazka lokalak aldiz, Estatuetatik udalerrira doazen banaketa administratiboan kokatzen diren gatazkak liratzeko. Dena den gaur egun sozio-ingurumen gatazkek izaera global eta lokalaren arteko harremanean garatzen dira prozesu osoaren zehar, izan ere, gatazkak *glokalak* dira gehien batean (Martinez Palacios, 2012:64). Kontzeptu hau Robertsonek asmatu zuen, hurbilekoaren eta globalaren arteko bereizketa garbiaren desagerpena azaltzeko, hots, lokal eta globalaren arteko elkarrekintza eta elkarrekiko mendekotasuna adierazteko (Robertson, 2003).

Hala izanik ere, sozio-ingurumen gatazken dinamikak esparru mugatu batean definitzen dira, hortaz, bada gatazken lurraldeari erreferentzia egiteko aukera. Gure kasuan gatazka lokalak aipatu behar ditugu, esparru horretan kokatzen baitira ikerlan honetan landu ditugun kasuak.

Azkenik, aipatuko dugun hirugarren sailkapena bizimoduen funtsezko alderdietan ardatzen diren gatazketan oinarritzen da, ongizatearen, bizitza komunitarioaren eta naturarekiko harremanen gainean ditugun ontologia edo mundu ikuskerak kontuan dituen (Gudynas, 2014). Kasu hauetan gatazkak galduta edo arriskuan hautematen den bizimodua berreskuratzeko edo etorkizuneranzko alternatibak eraikitzeke sortzen dira.


Ikerlan honetan aztertzen diren bi kasuak tipologia honen barnean ere banatu ditzakegu, bi kasuetan naturaren kaltetzea eta bizitokiaren kaltetzea, bizi kalitatea galtzearen erresistentziarekin lotuta baitago. Lan honen laugarren atalean azalduko dugun moduan, aztertutako kasuetan, ingurumen inpaktua duen azpiegitura baten aurrean herritarrek bizi kalitatea galtzearen arriskuaren hautematea dute, giza eta natura osasunean sortu daitezkeen ondorioengatik.

E. SOZIO INGURUMEN GATAZKAK EUSKAL HERRIAN

Euskal Herriak, azken hamarkadetan (1990etik 2010era arte) sozio-ingurumen gatazken hazkundea izan du. Honen oinarria ingurumen politika publiko baten ezarketarekin lotura dauka (Crespo, 1999:1; Beristain, 2010:24). Datu enpirikoak horren adierazgarri dira. TEA informeak (Transformation of Environmental Activism) 887 protesta¹⁹ kontabilizatu zituen Euskal Herrian

19 Nahiz eta gatazka eta protesta adiera desberdina eduki, adierazgarria iruditzen zaigu aipatutako ikerketa honek lortutako datuak. Arestian aipatu dugun moduan, gatazka, Mc Adam, Tilly eta Tarrow-i jarraikiz, «aldarrikatzaileen eta euren objektuen artean ematen den elkarrekintza episodiko publikoa da» honetan «gobernu batek aldarrikatzaileetako bat da, eta aldarrikapenen alde da» gainera «aldarrikapenak, egikarituak izatekotan aldarrikatzaile baten interesak hunkitzen ditu» (Mc Adam, Tarrow eta Tilly, 2005: 5) aktoreak, izaera iraunkorra eta definitua daukate, aldeak argi eta garbi bereizi daitezkeelarik. Konfrontazio jarrera ekintza transgresiboetan egikaritzen da. Protestan berriz, aktoreak ez dira erabat definitzarriak,

1990tik 1996ra (Barcena, Ibarra, Guarrotxena eta Torre, 2003: 200). Hurrengo grafikoan ikusi daitekeenez 1988tik 1997ra Euskal Herrian sortutako sozio ingurumen protestak 60-tik gorakoak ziren urtero.



Iturria: Barcena, Ibarra, Guarrotxena eta Torre, 2003: 201

Horrez gain, Parte Hartuz ikerketa taldeak burututako ikerketak²⁰ 2000-2007 urteen artean Euskal Herrian 108 ingurumen gatazkak zenbatu ditu.

3. TAULA: 2000 eta 2007. urteen arteko sozio ingurumen gatazkak Euskal Herrian

LURRALDEA	SOZIO INGURUMEN GATAZKEN KOPURUA	SOZIO INGURUMEN GATAZKEN KOPURUA (%)
Bizkaia	40	34,48
Gipuzkoa	29	25
Araba	18	15,51
Nafarroa	24	20,70
Iparralde	4	3,4
Lurralde guztiei eragiten dieten gatazkak	1	0,82
Guztira	116	100

Iturria: Egileak egina Parte Hartuz Ikerketa Taldeko datuetan oinarrituta


kutsu aldakorra eta lurrunkorra daukate. Protestetan erabiltzen diren ekintza ereduak konfrontazio maila baxuagoa dute. Beraz, ondoriozta daiteke gatazka guztiak direla protesta baina ez protesta guztiak gatazka.

²⁰ Ikerlan honetan Parte Hartuz ikerketa taldeak «ingurumena eta parte-hartzea» ikerketa (2008-2010) gauzatzeko erabili den kanpo lanaren zati bat partekatu da. Ikus, Bergantiños, Ibarra eta Martínez (argit.) (2011), *Participación, cultura política y sostenibilidad*. Hacer, Barcelona. 139. orr.

3. taulan antzematen den moduan, Bizkaia dugu sozio ingurumen gatazka gehien jaso dituen lurraldeak (%37,04). Honi jarraituz, Gipuzkoako Lurralde Historikoa aurkezten zaigu, izan ere, azken hamarkadetan (1980-2000) hiri hondakin gordinen gestiorako azpiegiturak planifikatu baitira, hots, errauskailuak, hiri-zabortegiak, etab. eta hauei guztiei gizarte zibiletik emandako erantzun soziala protesta indarrean egikaritu da. Parte Hartuz ikerketa taldeak zabalduetako datuei erreparatuz, Araban, gatazken izaerari so, beste tendentzia bat aurkitu dezakegu, izan ere, bai Bizkaian, bai Gipuzkoan, bai Nafarroan hondakin, garraio azpiegiturek, energia eta urbanismoaren hazkundeak dira protesta eta gatazken iturburuak.

Arabian berriz, energiaren produkzioarako azpiegiturek (nuklearra eta eolikoa) eta urbanismoaren gorakadak (golf zelaien sorrera) azaltzen zaizkigu gatazka nagusi, garraio azpiegiturak eta hondakin kudeaketarako oin-egiturak baztertuz. Ondoren Nafarroa eta Iparralde ditugu; hauek ere, gatazken iturburu garraio oin-egituren, energia produkzio eta hondakin kudeaketarako sortzen diren proiektuen inguruan aurkezten dira. Azkenik, bada lurralde guztiei eragiten dien makro-proiektu gatazka, hots, Abiadura Handiko Trena. Nahiz eta gatazka bat bakarria balitz kontabilizatu den, argitzekoa da lurraldez lurraldeko protestak sortu direla 1990. hamarkadatik, egia bada ere —ikerlan honen laugarren atalen azalduko dugun legez— 2000. urtetik inpaktu mediatiko handiagoa lortu dutela.

9. GRAFIKOA: 2000 eta 2007. urteen arteko sozio ingurumen gatazka Euskal Herrian



Iturria: Egileak berak egina Parte Hartuz Ikerketa taldeko datuetan oinarrituta

2.2.3. Sozio ingurumen gatazka eta hedabideak

Sozio-ingurumen gatazken azterketa jorratu ondoren, azken atal honetan hedabideak sozio-ingurumen gatazketan jokatzeko duten papera aztertuko dugu. Horretarako hedabideak ingurumen aferetan betetzen duten rola azterketan murgilduko gara, ondoren, sozio-ingurumen gatazketan zehazki hedabideak duten eginkizuna jorratzeko.

A. HEDABIDEEN EGINKIZUNA INGURUMEN AFERETAN

Giza komunikazioa oro har, eta mediatikoa bereziki, ingurumenari buruz dugun hautemate eta ingurumenarekiko harremana eratzeko darabilgun tresna da. Prozesu sinboliko horren bitartez errealtatea sortu, mantendu, berreraiki eta eraldatzen da; komunikazioaren bidez bitartekotzen direlako naturarekiko eta ingurumenaren arazoekiko ditugun sinismen, portaerak eta jarrerak (Cox, 2006:13).

Komunikazioa ingurumen kulturaren ulermenean eta eraikuntzan eragina daukan giza jakintza eta esanahien eraketa prozesua da. Martin Barberok (1992:11) azaltzen duen moduan, komunikazioak gizarte ereduaren konfigurazioan leku estrategikoa hartu du. Bere aburuz, bitartekaritza teknologikoen (hedabideek) jakintzaren estatutu kognitiboa eta kolektibitate baten arazoia aldatzen dutenean, gizarte baten kultura aldatzen da.

Hedabideek gizarte eraikuntzan eta esanahien transmisioan duten eragin ahalmenaz gain, kontutan hartu behar da informazio iturri legez jokatzeko duten papera, funtsezko ingurumen informazio iturria baitira sektore sozial zabaletarako²¹ (Ecobarometro 2011, Díez Nicolás, 2004; CIS, 2007). Walter Lippmanek azaltzen zuen moduan gure buruan sortzen diren kanpoko irudien iturri nagusia hedabideak dira. Bizi garen mundu hau zabalegia da berezko medioen bidez gertakarien zuzeneko informazio lortzeko. Beraz hedabideek eskuratu ezin dezakegun informazioa ematen digute eta horrek arrisku bat suposatzen du, gure buruan errealtatetik kanpo dagoen mundu bat eratzea, alegia, «gure begirada eta mentearen eskutik kanpo» dagoelako mundu hori (Lippman, 1946:29).

Horren haritik, zenbait egilek (Dunwoody eta Griffin, 1993; Hansen, 2001) azpimarratzen dute askotan ingurumen informazioa errealtatearen isla interesatua eta neurrigabea bilakatzen dela. Fenomeno hau ulertzeko ingurumen-auzien konplexutasuna ulertu behar dugu. Bartzuetan arlo baten gaineko ezagutza zientifiko nahikoaren gabeziari, denborarekin agertuko diren ezagutzeko eta baloratzeko gatzak diren zenbait ekintza eta omisioen ondorioak gehitu behar dizkiogu «azaldu behar badut, uko egiten diot kontatzeari» erredakzio askotan lotsa barik erabiltzen den araua da» (Montero, 2013:151). Modu honetan hedabideek zabaltzen duten ingurumen informazioa zatikatuta eta testuingurutik kanpo aurkeztu ohi da askotan. Gainera kontutan eduki behar dugu interes politiko eta ekonomiko zehatzek hedabideei eta bere kazaritarietari ezartzen dieten etengabeko presio eraginkorraren baldintzapean sortzen den ingurumen informazioa (Elías, 2002; Tellechea, 2002; Castells, 1998).

Hortaz hedabideek ingurumen aferetan jokatzeko duten papera ezin da era lineal batean ulertu, hots, arazo bat sortzen da eta eremu publikora eramaten da, prentsaren edukietan islatuz. Hedabideek ingurumen berri ekoizpenean parte hartzen duten faktore soziokultural, ekonomiko edo politiko anizkunek sortutako prozesu konplexuetan parte hartzen dute (Hansen, 1991: 454) eta hori agerikoa da ingurumen gaia istripu edo hondamendiekin zerikusirik ez daukanean. Ingurumen kontuak ez dira albiste bihurtzen soilik bere ezaugarri objektiboengatik,

21 2.3.1 atalean gai honen sakoneko analisia jorratzen dugu

baizik zentzua ematen dieten erlazio sozialek zeharkatzen dituztelako. Kazetari-jardueraren ekoizte-prozesuak dinamika sozial horien parte dira.

Kontuan hartzen baditugu herritarrek jasotzen duten ingurumen informazioa, bere informazio iturri nagusiak eta ingurumenaren aldeko portaera desiragarriren gabezi gehiengoduna —pertsona kopuru txiki soil batek ingurumenaren babesaren aldeko portaerak burutzen dituela aitortzen ditu bere eguneko jardueretan (Díez Nicolás, 2004)— ez da harritzekoa zenbait autoreek (Igartua, 2002) hedabideak ingurumenari buruzko diskurtso sozial desberdinak bultzatzeko orduan betetzen ari diren papera zalantzan jartzea. Prozesu konplexu hauetan hedabideek ingurumen gaiei buruz informatzeaz gain, bestelako zereginak burutu ditzakete. Calvo-ren ustez (1997:127-128) hauek dira ingurumen gaiak jorratzerakoan hedabideek bete beharko lituzketen funtzioak:

- Politikan eta ekonomian eragin ahal izateko ingurumen kontzientzia sortu.
- Ingurumen alorrean dauden arazo nagusiak zabaldu.
- Gobernuak, administrazioak eta instituzioak ingurumen alorrean sentikor bihurtu.
- Gizartean ingurumena zaintzeko grina piztu.
- Ingurumen eta industrializazioaren arteko orekaren beharraren kontzientzia publikoa sortu.
- Izaera informaleko ingurumen hezkuntzaren garapenean lagundu.
- Idazkera lañoa eta datu ulergarriak erabili, batez ere gutako bakoitzak ebaztera lagun dezakeen ingurumenaren defentsaren alderdien inguruan.
- Bai espazio aldetik, bai denbora aldetik, ingurumen arazoak osotasunean landu, eragiten duten elementu guztiak integratuz izaera sektorialeko jarrerak eta erabakiak har ez daitezten.
- Ingurumen inpaktuen ebaluazioa programa, proiektu eta planifikazioetan txertatzeko beharrezkoak.
- Pasaiaaren balioa adieraztea, ez bere alderdi estetikoan soilik baizik eta, garrantzi ekonomiko eta sozial handiko baliabidea legez.
- Gure zibilizazioan teknologiak jokatzen duen papera azaldu, alde positiboak eta mugak eta ondorioak.

Trellez ikerlaria gai hau jorratu duen beste egile bat da. Bere aburuz ingurumen gaiak lanterakoan hedabideek gauzatu beharko lituzketen helburuak hauek dira (Trellez, 1995:133 hemen, Solano, 2001:53):

- Ingurumen kontzientzia sortu, piztu.
- Ingurumenaren oinarriko ulermena bere osotasunean azaltzeko-gaiarekiko lotura duten arazoak eta gizadiaren presentzia eta funtzioa ingurumenean-ezaguerak sortzea.
- Jendearengan eta talde sozialetan ingurumenaren babesean eta hobekuntzan aktiboki parte hartzera bultzatzen dituen jarrerak sustatzea.

- Ingurumen arazoei irtenbidea aurkitzeko jendearen gaitasunak (banakoak eta kolektiboak) ezagutu eta landu.
- Gizartea eta naturaren arteko harreman orekatua lortzeko alternatiben sorkuntzan jendearen parte hartzea bultzatu.
- Baliabideak faktore ekologiko, politiko, ekonomiko, sozial eta estetikoaren arabera ebaluatzeko, ebaluazio gaitasuna garatu.

Hortaz, ingurumen informazioa erabakigarria izan daiteke esanahi bikoitzean: herritarren portaeran aldaketak sortzen –norbanakoan suposatzen duen kostuaren arabera– eta ekin-tza edo presio politikoan: hau izango litzateke ekologista taldeek bere presio kanpaina asko hedabideetara bideratu izanaren arrazoia (Cracknell, 1993).

B. HEDABIDEAK ETA SOZIO-INGURUMEN GATAZKAK

Ingurumen informazioa helarazteko eta ingurumenarekiko gure jarrera eta portaerak eraikitzeke hedabideen papera funtsezkoa izanik, sozio ingurumen gatazketan jokatzeko egin-kizuna erabakigarria da. Ingurumen soziologian aditua den Hanniganek (2006:79-94) sozio-ingurumen arazoen gizarte eraikuntzan hedabideak eta kazetariak berri ekoizleen funtsezko eragile moduan daukaten papera azpimarratzen du. Haiei esker pertsonen gehiengoak, arreta publikoaren edo kudeaketa politikotik, oharkabean pasatuko liratekeen ingurumen kontu desberdinak ezagutzen dituzte. Beste era batean esanda, hedabideen estaldura barik ingurumen aferak diskurtso publikoan eta prozesu politikoan sartzeko aukerak oso txikiak dira.

Lederach soziologoak ideia honetan sakontzen du hedabideek gaien berri emateaz gain gaiak moldatu eta formulatzen dituztela adierazten duenean (Lederach, 1991:6-7). Bake eraikuntza eta gatazketan aditua den akademiko honen ustez gatazkaren definizioa hedabideek eratzen dute eta baita publikoak gatazka ulertuko duen modua. Nolabait hau arreta jasoko duena zehaztuz eta arreta jasoko ez duena zehaztuz lortzen da; deskribatuko diren gertaerak eta pertsonak aukeratzekoan eta gaiak identifikatzekoan eta azaltzekoan. Lederachen aburuz hedabideen helburua informazioa objektiboki azaltzea eta publikoa informatzea da baina krisi egoera batean zeregin honen ezkutuko funtzioa gatazka eta gatazkako aktoreen ekintzak ulertzeko marko nagusia sortzea litzateke.

Ildo hau jarraituz Macassi ikerlariak sozio ingurumen gatazketan komunikazioak eta hedabideek bereziki duten eragina aztertu ditu zenbait lanetan (Macassi, 2009,2011,2015). Ikerlari honen ustez «gaur egun gatazken dinamiketako argi iluna komunikazioak eta bere eragileek sozio-ingurumen gatazketan jokatzeko duten rola da» (Macassi, 2015:118). Rol hau azterteaz bereziki garrantzitsua da, hedabideek gatazkei existentzia publikoa ematen dietelako, gatazkaren irudi publikoa eraikitzen dute eta hortan datza eragin honen garrantzia.

Dena den hedabide eta ingurumen gaietan aditua den Anderson soziologoak azaltzen duen moduan (Anderson, 1997: 107-135) ingurumen arriskuen eta gatazken definizioaren garrantzia ulertzeko hauen definizioa nork eta nola egiten duen aztertu behar da. Ikerlari honen aburuz adituek paper garrantzitsua jokatzeko dute ingurumen gatazken definizioan, askotan, beraiek

direlako arazoaren lehen deskripzioa egiten dutenak. Andersonek herrialde desberdinetan egin diren ingurumen berrien estaldurari buruzko ikerketak kontutan eduki ditu iturri ofizialak (zehazki gobernu departamentuak eta zientifikoak) hedabideengana heltzeko gaitasun gehiago dutela adierazteko, hots, eragile hauek sozio ingurumen gatazketan eragile pribilegiatuen lekua gozatzeko joera agerikoa litzateke. Horregatik politikari eta zientifikoek arazoaren «bertsio ofiziala» definitzen dute²².

Aldiz ingurumen presio taldeek (ekologistak, kolektiboak, tokiko taldeak) estatus hori lortzeko zailtasun ugari dituzte. Hala ere Andersonen arabera, ingurumen gaie buruzko ikerketek tokiko hedabideetan bestelako argazki bat formulatzen dute « they suggest that environmental pressing groups may well experience comparatively greater access at the regional level»(Anderson, 1997:135).

Hedabideek eta erakundeek arriskuen definizioa eta ingurumen albisteak sortzeko erabiltzen duten lehenengo informazio iturria, gehienetan adituak dira. Hortaz informazioa era hierarkiakoan doa: adituak –instituzioak– hedabideak eta azkenik gizartea. Sozio-ingurumen gatazketan eremu mediatikoak gizarteratze horretan betetzen dituzten funtzioak azaltzeko Macassi (2009:1-7) ikerlariak sozio ingurumen gatazketan hedabideen zereginak aztertzeo erabiltzen duen sailkapena jarraituko dugu. Hauek dira gure ustez, sozio ingurumen gatazketan hedabideek jokatzten duten papera aztertzeo ardatzak:

1. **Ikusgaitasuna eman:** Hedabideek gatazkei buruz informatzerakoan izate publikoa ematen diete gatazkei. Agenda mediatikoan agertzen dira eta modu honetan «publikoak» bilakatzen dira²³. Hiritarrak haien jabe egiterakoan, horren inguruko kezkek esfera publikoan komunikatzeko dinamikak eta aukerak ahalbidetzen dute. Hortaz dimentsio mediatikoak esfera publikoan jokatzten duen papera bereziki garrantzitsua da. Batez ere esfera publikoak, ingurumenari buruzko erabaki publikoetan eragina izan nahi duten eragile sozialen arteko lehian, jokatzten duen bitartekaritza eta negoziatiozio rola kontutan hartzen badugu (Cox, 2006:18-20).
2. **Hedabideek aldean eskariak eta posizioak kanalizatzen dituzte:** Eremu mediatikoa aktoreek gatazkan duten posizio ezagutarazteko, zabaltzeko eta markatzeo erabiltzen den tresnetako bat da (De Echave et al., 2009:211). Espazio mediatikoa gatazketan, aldean arteko adierazpen eremu nagusietakoa bilakatzen da. Gatazkan parte hartzen duten eragileek beraien interesak eta posizioak aurkezteko erabiltzen duten eszenatokia, hain zuzen. Macassik (2015:119) adierazten duen moduan motibatizio hauek nabarmenak dira gatazkan parte hartzen duen eragile soziala gutxiengoa

22 Ideia hau kazetaritzan newsmaking-ari buruzko ikerketek landu dute. Azterketa hauek agerian utzi dute esfera politiko-instituzionalak masa-informazioan gainordezkaturia daudela. Berriak sortzeko prozesuan, eragile hauek lehenetsuneko iturriak bilakatzen dira (Wolf,1987:249).

23 Ikusi marko teoriko honen 1.3 atala.

denean, gobernu instantzietara heltzeko ahultasunak dituenean, alegia. Kasu haue-
tan hedabideak erabaki hartze esferetara sartzeko daukaten kanal bakarra bilakatzen
dira.

Aldi berean iritzi publikoan eragina eta zilegitasuna lortzeko eta beraien helburuen
aldeko iritzi korronteak sustatzeko asmoarekin gatazkan parte hartzen duten eragi-
leek hedabideak erabiltzen dituzte. Ildo honetatik Strohomek (1999:59) adierazten du:
«Leaders of conflicts groups may set those media to gain attention, create and rein-
force an image of credibility, and mobilize resources such as time, money and commit-
ment for groups members and sympathetic others». Ikertzaile honen ustez eragileek
hedabideak denbora irabazteko, konponbideren edo interbentzioren bat atzeratzeko
darabilte, hortaz, benetako negoziazioa agertzen bada, indartsuagoak egongo dira iri-
tzi publikoan daukaten agertzea dela eta: «Communications channels long have been
used as tools in the struggle to gain and maintain power» (Strohm, 1999:59).

3. Hedabideek gatazkak kokatzen dituzte: Funtzio hau Ikerlan honen 2.1.3 atalean
azaldu dugun *framing* teoriarekin harreman zuzena dauka. Teoria honek informa-
zioaren enkuadreak erreparatzen dio, kokapenari; hedabideek erabilitako markoek
iritzi publikoan duten garrantzia eta hartzaileek gai publikoei emandako esanahian
duten eragina, alegia. *Framing* buruzko literaturan (Entman, 1993; Setmenko eta Val-
kenburg, 2002; Scheufele eta Tewksbury, 2007) arazoaren ingurua egiten den lehen
kokapenaren garrantzia nabarmentzen da. Gatazka bat aurrenekoz aurkezten den
moduak orientatuko du publikoaren hautematea gatazkarekiko eta ondorioz gatazka-
ren konponbiderako aukerak. Entman-en arabera markoek arazoak definitzeaz gain,
arazoen kausak aurkezten dituzte, arazoen iturriari buruzko epaiketak eginez eta ara-
zoentzako konponbideak proposatuz (Entman, 1993:51-58). Modu honetan hedabideek
albistek idazterakoan erabiltzen dituzten markoek, zentzu soziala eta kausalitatea
eranstean dute.

4. Hedabideek gatazken interpretazioa mugatzen dute: Orain arte azaldu dugun mo-
duan, hedabideek ikusgaitasuna ematen diete gatazkei, parte hartzen duten eragileen
posizioak eta eskariak bideratzen dituzte eta framen bidez gatazka kokatzen dute. On-
dorioz gatazkaren interpretazioa mugatzen dute. Hedabideek ez dute soilik albistek
framen bidez kokatzen, arazoa definitzen dute, kausalitatea eranstean dute, epaiketak
egiten dituzte eta eragileak estereotipatu (Macassi, 2009). Beste hitzetan gatazkaren
«irudi publikoa» definitzen dute. Entman-en aburuz (1993:52): «Hedabideek errealita-
tearen alderdi batzuk aukeratzen dituzte adierazpena indartzeko, honela arazoaren
definizio partikularra, interpretazio kausala, ebaluazio morala eta gertaera ebazteko
gomendia bultzatzen dute». Hortaz, ez dute soilik albistekaren ikuspegia sortzen, dis-
kurtsua antolatzen dute interpretazioa, kausen, ondorioen balorazioa eta gomendioen
gainean orientatzeko.

- 5. Hedabideek gatazken dinamiketan eragiten dute:** Hedabideek irudi publikoa definitzerakoan sozio ingurumen gatazken eboluzioan eragiten dute, Strohm-en arabera «hautatze prozesuen bidez, gatazkek azeleratu, moteldu, argitu edo birdefinitu dezakete» (Strohm, 1999:60). Hitz batez, hedabideak lagungarriak izan daitezke gatazkek garatzeko.

Hedabideek gatazketan jokatzeko duten papera aztertzerakoan egile batzuk, gatazketan parte hartzen duten eragileen inguruko informazioa ematerakoan, hedabideek gatazketan «parte hartzen» dutela adierazten dute (Botes, 1996:6-10). Funtsean, kanpoko esku-hartze honek gatazkaren dinamika aldatzen du, hedabideen asmoa edonolakoa izanda ere. Modu honetan hedabideak gatazken parte dira eta askotan gatazketan betetzen duten lana esku-hartze sozialeko forma bat da, bitartekoek eta erraztatzaileek egiten dituztenen antzeko forma hartzen duen lana, alegia (Botes, 1998:46). Gatazka aztertzerakoan, bertan parte hartzen duten eragileen identifikazioa egiten dute eta gatazkaren bi aldeak kokatzen dituzte. Gainera gatazkaren motibazioak azaltzen dituzte, zer nolako arazoak sortzen dira eta zer emaitza gerta daitekeen. Bitartekari eta bideratzaileekin gertatzen den moduan ikuspuntu guztiak plazaratzen dituzte.

Baina aldi berean lan hau egiterakoan normalean errealitatearen irudikapen bipolarrean oinarritzen dira, errealitatea txuri-beltz parametroetan azaltzea alegia, elkarrizketa-agendak erakutsi ordez (Hieber, 2001:131). Badirudi informazioa bi alderdi soilik dituela: bertsio bat eta bertsio hori ezeztatzen duen beste bertsioa. Horrela informazio ona ez da konplexutasunari arreta ipintzen diona, baizik eta kontraesanezko bi bertsiotan soilik sinplifikatzen dena. Yankelovichek esaten duen moduan (1991:75), eskema honek herritarren gehiengoarenak diren bitarteko posizioak kanpoan uzten ditu.

- 6. Hedabideak gatazken agertokia dira:** Hedabideen bitartez sozio ingurumen gatazkek publikoak bilakatzen dira. Ikusgaitasuna lortzerakoan erabaki-esferetan eragiteko aukera dute eta aldi berean, iritzi korronteen bidez, herritarren hautematean ere eragiten dute. Castellesen (2009) «Komunikazioa eta Boterea» lanaren ikuspegia jarraituz komunikazioa boterea bilakatzen da. Gehien eta hobeto komunikatzen duenak irabazten du bataila sinbolikoa eta gatazka da motorra bataila sinboliko honetan. Boterea komunikazio sareetan jokatzeko da, eta aktore guztiak baliatzen dira aukera komunikatiboez. Hortaz gero eta gehiago Castellesek azaltzen duen moduan, «politika mediatikoa» ematen da, hau da, politika hedabide nagusien bitartez egitea. Modu honetan hedabideek gatazken agertokiak bilakatzen dira.

Sozio ingurumen gatazken ikusgaitasuna hedabideen eta kazetarien esku soilean ez dago, baina azaldu dugun moduan, beraien papera afera honetan nabarmena da. Askotan gatazka sortzen duena ez da proiektua bera, proiektua egiterakoan egondako isiltasuna, informazioaren estaltzea eta «gardentasun falta» baizik (Aguilar, 2003: 25-33; Bristain, 2010: 36). Hedabideek ezin dute ezin ikusiarena egin gai hauen aurrean eta ezin dute ahaztu errealitate sozialeko bitarteko bezala daukaten erantzukizuna (González Alcaraz, 2012:128).

Hedabideek betetzen duten zeregin soziala herritarrari egiazko informazioa helaraztea da, herri edo komunitate baten aniztasunari erantzunez. Nahiz eta informazio objektibo eta neutral osorik, ezin da egon nekez, hedabideek deontologia informatzailea babestu behar izango lukete eta informazioa objektibotasunarekin, egiazkotasunarekin eta inpartzialtasunarekin tratatzera behartzen dituzten printzipio deontologikoak errespetatu.

Espainiako ingurumen hezkuntzako liburu zurian azaltzen den legez (1999:32) hedabide tradizionalak (prentsa, irratia eta telebista) paper garrantzitsua jokatzen dute ingurumen informazioa publiko zabalera hurbiltzen eta gai honen gaineko kontzientzia kolektiboa eratzen. Gida honek hedabideen funtzio soziala eta heziketa funtzioa jasotzen du, ingurumen arazoan konponbidean parte hartzeko gaitasuna eta aldaketa positiboak eraikitzen jokatu dezaketen papera azpimarratzerakoan.

Herritarren kontzientzia sozialaren parte garrantzitsu bat, hedabideek transmititzen duten munduko irudiaren baldintzapean dago. Kontuan hartu behar da zer eginkizun garrantzitsu betetzen duten hedabideek gizarte sektore zabal askorentzat, arestian aipatu dugun moduan, sektore horien oinarrizko informazio-iturria baitira ingurumen gaietan. Hedabideek iritzi publikoa gertaeraren gainean itxuratzen lagundu ez ezik, populazioaren portaera edo erantzunetan eragin dezakete. Autore batzuk (Neuzil eta Kovarik, 1996) aldaketa sozialaren norabidea kontrolatzen laguntzeko funtzioa erantsen diete hedabideei. Horrela, baldintza jakinen menpean, hedabideek aldaketa sozialak sustatu lezakete (Lema Blanco, 2007:487).

Sozio-ingurumen gatazken konponbidea ez dago hedabideen ardurapean baina hedabideek jendearengan konponbide bilaketa suspertzen ahalegindu beharko lirateke —behintzat giro egokia sortzen— soluzioaren bilaketa guztien zeregina izan dadin.

2.3. Ingurumen informazioa eta komunikazioa: eremu publikoa

Somos la primera especie que tiene la evolución en sus manos. Pero junto a ello está, como sabemos, el poder de autodestrucción. Que tomemos un ramal u otro depende en parte del conocimiento público de la ciencia. Es aquí donde los agentes más indicados para esa educación—la televisión, las películas y la prensa— nos ha fallado.
(Carl Sagan, hemen Calvo, 1990: 146)

The environment story is one of the most complicated and pressing stories of our time. It concerns the very future of life as we know it on the planet. Perhaps more than most stories, needs careful, longer-than-bite-sized reporting and analysis, now.
(Stocking eta Leonard 1990:42)

2.3.1. Hedabideak eta Ingurumena

Gure ikerlanaren ardatz teoriko kontzeptualaren lanketarekin bukatzeko azken atal honetan hedabide eta ingurumenaren harremanean sakonduko dugu. Gaia kokatu ondoren, ingurumen kazetaritza eta ingurumen komunikazioaren oinarriak aztertuko ditugu. Ingurumen komunikazioaren funtzioak eremu diskurtsibo publiko jakin batean burutuko dira. Ikerlan honetan eremu horren azterketan murgilduko gara. Horretarako, ingurumen komunikazioaren azterketa garatuko dugu, batez ere, politikagintzarekin zuzeneko zerikusia duten aldagaien eskutik.

Mundu mailan ingurumen gaien inguruko ardura XX. mendeko 60 eta 70-ko hamarkadan kokatu daiteke. Autore desberdinek azaltzen duten moduan (Martínez Valdés, 2003; Allan, Adam eta Carter, 2000) fenomeno Estatu Batuetan eta Kanadan hasi zen eta ondoren Europa zabaldu zen. 1962. urtean, Rachel Carson iparramerikar biologoak «*Silent Spring*» (Udaberri isila) idazlana argitaratu zuen. Bertan pestiziden, ekosistemen eta pertsonen osasunaren arteko loturak agerian utzi zituen, substantzia kimiko horiek jendearentzat dituzten arriskuez ohartaraziz. Lopez de Uraldek adierazten duenez liburu hori «ekologismo modernoaren jaiotzat hartu zen» (Lopez de Uralde, 2003:11).

Era berean 1969.urtean Kaliforniako Santa Barbara kanalean petrolio-ontzi batek eduki zuen istripuak —Kaliforniako kostaldeko 2000 kilometro karratuen kutsadura suposatu zuen— ingurumen gaien inguruko arreta piztu zuen hedabideetan. Urte bat geroago, 1970ean, Lurraren lehengo eguna antolatu zen Estatu Batuetan eta hortxe koka daiteke herrialde industrialen erakunde ekologista nagusien jaiotza (Lema Blanco, 2007:486; Lopez de Uralde, 2003:11; Rekondo, 2003: 3).

Horrela, ingurumen arazoaren estaldura mediatikoa handitu zen eta XX. mendeko 80ko hamarkadan ingurumen gaiak hedabideen agendan eta agenda politikoan agertzen hasiko dira (Vicente Mariño, 2009:2; Milsten, 2009: 345). Baina Alison Anderson soziologo britaniarrak azaltzen duen moduan, 90eko hamarkada arte ingurumen gaiak ez ziren garrantzi handiko gaiak bilakatu agendetan. Ikerlari honen aburuz bi faktoreengatik ematen da fenomeno hau: batetik ingurumenaren hondatzearen ziurtasun zientifikoak gero eta gehiago zirelako eta bestetik, publikoan ingurumen gaien gaineko interesa handitu egin zelako (Anderson, 1991: 473).

Dena den Nazio Batuen Erakundeak antolatu dituen Ingurumena eta garapena izeneko goibileraren guztietan (Lurraren Gailurra izenez ere ezagunak) planetaren etorkizunerako —ingurumenaren zaintzan— hedabideek gizartea kontzientziatzeko duten paper garrantzitsua aipatu da. Stockholm-en 1972. urtean Giza Ingurumeari buruzko Nazio Batuen Konferentzian lehenbiziko aldiz aipatu zen gai hau, 19. artikuluan hain zuzen:

«Es también esencial que los medios de comunicación de masas eviten contribuir al deterioro del medio humano y difundan, por el contrario, información de carácter educativo sobre la necesidad de protegerlo y mejorarlo, a fin de que el hombre pueda desarrollarse en todos los aspectos» (Nazio Batuen Informea, 1972:5)

Hogei urte geroago, 1992.ko Rio de Jaineroko Lur Gailurrean, gai honetan sakondu zuten. Nazioarteko agirian alde batetik hedabideen zeregina aitortzen zen, ingurumen gaitan publikoaren arreta bideratzeko egindako lanagatik, baina aldi berean beraien jardura erreakzioan oinarrituta zegoela kritikatu zuten, hau da, gertaera zehatz batzuetan oinarritzen zirela ingurumen gaiari buruz informatzeko (Rekondo, 2003:2). Urte berean Ingurumenarako Nazio Batuen Programak Ingurumen Egoeraren Informean hedabideen papera azpimarratu zuten berriz ere.

«Para hacer frente a los problemas ambientales es fundamental que los medios de comunicación dispongan de mejor información sobre la materia y después que la transmitan adecuadamente al público. El éxito de la comunicación ambiental no ha de medirse por la aceptación pública de las soluciones formuladas por los encargados de tomar decisiones; se alcanza cuando un público bien informado escoge las mejores soluciones con conocimiento de causa. Una de las funciones más importantes de los medios de comunicación es ampliar el público que participa en el debate sobre una cuestión concreta» (Ingurumen egoeraren Informea, hemen Fernandez Reyez, 2011:5)

Baina printzipio hauek betetzeko baliabiderik ez dira jarri eta kasu batzuetan egin dena oso eskasa izan da (Vilanova, 1996: 19). Herrialde industrializatu gutxi batzuek bakarrik ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea bermatzeko legegintza-neurriak hartu dituzte. Halaber ez dira esplizitatu informazio hau eskuratzeko mekanismorik ezta bermerik.

Hori da preseski, Aarhus-eko hitzarmenak bultzatzen duena (Danimarka, 1998), Aarhus hirian adostu zena «Ingurumen Informazioa Eskuratzeko, Publikoaren Parte-Hartzea eta Epai-keretara jotzeko» hitzarmenean hain zuen ere. 2005eko abendutik hona Estatu Espainiarrean indarrean dagoen erregelamendua. Oso garrantzitsua da, hitzarmenaren baitan hartutako betebeharrak Europar Batasunaren barruan garatzeko eta, horrezaz gain, konpromiso horiek betetze aldera mekanismo egokiak aurreikusten dituelako.

Informatzeko funtzio publikoa betebeharrak publiko gisa ageri da, eta horrek, funtzio publiko izateak, ez du esan nahi bakarrik, eta ez dakar bakarrik, herritarrek informazioa jasotzeko duten eskubidea erabiltzea. Izan ere, botere publikoek informatzeko betebeharrak dute, Legeak zuzenean hala agintzen duelako, eta ez da ezinbestekoa herritarrek informazioa eskatzea agintariak beren betebeharrak betetzeko. (Cubero et al., 2009:32).

Baina badirudi betebeharrak hori, oraingoz, hedabideak betetzen dutela. EAEn egindako azken Ekobarometroak azaltzen duenez hedabide tradizionalak dira—telebista, prentsa idatzia, irratia—herritarren informazio-iturri nagusiak, nahiz eta Interneteko foro eta gizarte sareen erabilpen gero eta handiagoa nabaritzen den, 15 urtetik 44ra bitarteko herritarrengan, bereziki²⁴. Herritarrek ingurumenari buruz duten pertzepzioa aztertzen duen azken Ekobarometro sozialak ondorioztatu duenez (2011), Euskadiko biztanleen % 69k informatuta edo oso informatuta ikusten du bere burua.

Ekobarometro sozialak Euskadiko herritarren premiak aztertzen ditu, ingurumen-errealitatea hizpide hartuta. Txosten horrek herritarrek kezkarritzat jotzen dituzten ingurumen-arazoei buruzko balorazioa eta postura ezagutzeko informazioa ematen du. Kaleratu den azken azterketaren arabera, herritarren % 85 kezkatuta edo oso kezkatuta agertzen da ingurumenarekin. Klima-aldaketa da EAeko herritarrek gehien kezkatzen dituen ingurumen-arazoa. Populazioaren % 63 kezkatuta edo dezente kezkatuta dago arazo horrek EAEn izan dezakeen eraginaz. Garraio bitartekoak dira, herritarren %18ren iritzian, gure gizartean ingurumen-arazo gehien eragiten duten eragile garrantzizkoenetakoak²⁵.

Aldi berean herritarren parte oso garrantzitsu batek uste du ez dela nahikoa egiten ari EAEn ingurumen-politiken arloan. Ildo horretan, egungo egoera ekonomikoa gorabehera, hamar herritarretatik ia zortzik uste dute politikariek ekonomia- edo gizarte-politikei hainbateko garrantzia eman behar lioketela ingurumenari eta, inkestatuen ia erdien iritziz, ingurumen-politikak indartu behar lirateke, lehentasunezkoak direlako eta aukera ekonomikoa eskaintzen dutelako etorkizunari begira²⁶.

24 http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/libro/ecobarometro_social/es_10130/adjuntos/2011.pdf (kontsulta 2015:12.10).

25 ibidem.

26 ibidem.

Herritarren ingurumenarekiko kezka maila zuzeneko lotura dauka jasotzen dugun ingurumenaren inguruko informazio motarekin. Ecobarometroak ingurumen-arazoei buruzko balorazioa neurtzea du eta horrek pistak ematen dizkigu baieztapen hau azaltzeko. Hau da, «ingurumen arazo» terminoak sortzen dituen interpretazioak. Mendiburuk azaltzen duen moduan «gaur egun, ingurumenaren eta gizakiaren arteko harremana, oro har, berri txarrez josita dago eta berriek kutsu dramatikoak izaten dute». Horregatik hain zabaldua dago «ingurumen... arazo» terminoa, «badirudi, ingurumena eta arazoa beti daudela eskutik helduta» (Mendiburu, hemen: Barcena, 2003:72).

Horren arrazoia ingurumen gaien tratamenduan dago, hots, orokorrean berez ingurumen gaiek, ez dute hedabideen interesa pizten istripu edo hondamendi garrantzitsuak gertatzen direnean izan ezik (Calero et al., 2008:5). Jakina ezbehar ikusgarriak, petrolio isurketak (Prestige, Exxon Valdez, Mar Egeo, Erika, etab), istripu nuklearrak (Harrisburg, Chernóbil, Fukushima, etab.), istripu kimikoak (Seveso, Bhopal), sumendi erupzioak (Monte Pinatubo, Monte St. Helens) edo eskala handiko baso suteak, badaukate berez kazetaritza interesa, ondorioz, estaldura informatibo zabala dute. Honen eraginez ingurumenari buruzko informazioa katastrofistatzat jo egin da gehienetan (Cracknell, 1993; Fernández, 1995; Humanes eta Cheng, 2002). Ingurumen informazioak oraindik ere neurri handi batean, biztanleriaren sektore zabalago baten arreta bilatzen du sarri askotan katastrofismoaz baliatuz (Montero, 1999:37).

EHUko irakasle eta ikerlari talde batek egindako «La construcción mediática de lo ecológico» ikerketak tesi hau baieztatu du. Azterketaren helburua ingurumenaren babesa, garapen sostengarria eta ondare naturalaren inguruan hedabideek eraiki eta zabaltzen duten diskurtsoaren analisisa egitea zen, zehazki prentsarena. Ikerketaren azterlan objektua 2007. urtean Balin egindako Ingurumen Gailurrari buruz publikatutako informazioa aztertzea zen. Ikerlari hauen azterlanak ondorioztatu zuen hedabideek katastrofismorako joera dutela ingurumenaren gaia jorratzerakoan (Llorente et al., 2009:314).

«El tratamiento informativo alarmista y catastrofista, centrado en el riesgo de grandes desastres naturales y en la urgente actuación en las esferas de decisión política y económica, pone el énfasis en la actuación heroica de sujetos abstractos, lejanos y con motivaciones que no son siempre explícitas» (Llorente et al., 2009:325)

Egoera hau, ingurumen gaiek hedabideetan jasaten duten egoera marjinalagatik ematen da, hots, ingurumen albistea ez bada alarmista nekez topatuko du bere lekua komunikabideetan (Montero, 1995; Rekondo, 2003). Aldi berean ingurumen gaiaren konplexutasunak eta kazetarien espezializazio ezak gai honen albisteen kutsu katastrofistarako joera bultzatzen du. Horrela, zabaltzen den ingurumen informazioetan zientifikoki frogatuta dauden arriskuak, ebaluatzeko bidean dauden edo zuzenean arriskuak ez direnekin zabaltzen dira (Rekondo, 2003:4).

«La información compleja, esa que debería atender a cuestiones como el cambio climático, se abandona porque no tenemos tiempo, ni capacidad (faltan especialistas), ni recursos para abordarla con garantías». (Montero, 2013:151)

Horregatik ingurumen gertaeren kazetaritza batetik ingurumen ikerketa kazetaritza batera pasatzea beharrezkotzat jotzen dute autore batzuk (Barcena 1998:187). Komunikabideak giltzarririk dira arriskuen hautemate soziala eraikitzeke orduan, hau da, hedabideek albisteak ateratzen dituzte eta jendeak horiek irakurri arriskuak era jakin batean hautematen ditu. Javier Etxebarriak (2012) Ikerbasque fundazioko ikerlariaren arabera, zientziak komunikabideekin elkarlanean hasi behar du, ikerketa zientifikoak helaraziz herritarrei, horiek benetako arrisku eta arazoak zein diren ikus dezaten eta berengan zer-nolako eragina izan dezaketen jakin dezaten.

Azken urteotan Estatu Espainiarrean ingurumen auziei buruzko albiste, kronika, iritzi artikulua eta erreportajeen kopuru handitzea antzeman da, batez ere eguneroko prentsan (Fernández Sánchez, 1995; Nombela, 1999; Fernández Reyes, 2004; Guijarro, 2004). Baina hala ere hazkunde informatiboak ez du zehaztasun zientifikorik suposatzen. Ingurumen albisteek ez dute ezaguera analitikorik eskaintzen baizik eta ezaguera nahasia, iritzi eta usteetan oinarritutako ezaguera, osatu gabeko informazioa hain zuen (Delval, 2011:11). Informazio honen bidez iritzi publikoa ingurumenarekiko sentikor bihurtzen badu ere, berez oso gutxi laguntzen du ingurumenari buruzko ezagutza eta ulermen maila handitzeko (Kinsey eta Wheatley, 1980; Gómez eta Cervera, 1993; Gil Quílez, 1999 hemen aipatua, Calero et al., 2006: 76).

2.3.2. Ingurumen kazetaritza eta Ingurumen komunikazioa

Ingurumen kazetaritzak ingurumen mezuak sortzen ditu. Ingurumen komunikazioak aldiz oinarri zabalagoak ditu. Atal honetan bi kontzeptu hauen definizioa, deskribapena eta konplexutasuna azalduko ditugu teoriko eta ikerlari desberdinen ikuspegiak landuz.

A. INGURUMEN KAZETARITZA

Mundu akademikoan Ingurumen kazetaritza zehazki zer den definitzeko aho bateko jarrerarik ez dago (Parratt Fernandez, 2006:110). Izendapenean ere arazoak ditugu termino zehatz bat aurkitzeko. Esteve eta Fernandez del Moral irakasleek (1998: 298) ingurumen kazetaritza gisa izendatu zuten alor hau baina Belenguerrek, akademiaren ikuspuntu batetik, zientzia ingurumen kazetaritza aipatzen du (2002:65). Eta batzutan kazetaritza zientifikoarekin lotzen bada ere Parratt Fernandez irakaslea eta ikerlariaren ustez gero eta gehiago desberdintzen da alor honetatik «porque no todo lo científico puede considerarse ambiental ni todo lo relacionado con el medio ambiente es necesariamente científico» (Parratt Fernandez, 2014:339). Ikerlari honen ustez Ingurumen kazetaritza izendapena nazioarteko eta iberoamerikako esparruan gailendu den deitura da. Beraz ingurumen kazetaritza kazetaritza espezializatu bat bezala ulertu dezakegu.

Beste autore batzuentzako aldiz ingurumen kazetaritza eta kazetaritza espezializatuaren arteko bereizketa egin behar da. Caminos Marcet katedratikoak esaten duen moduan definizio oso zehatz bat lantzeko argitu behar dugu ingurumen kazetaritza, kazetaritza espezializatuaren parte dela baina kazetaritzaren espezializazio guztiak ez dira izan behar kazetaritza espezializatua (Caminos Marcet hemen, Fernandez Reyes 2003:145). Beraz ingurumen kazetaritza definitzerakoan Fernandez Reyes-ek proposamen hau egiten du:

«Preferimos proponer que se trata del ejercicio o periodismo especializado que atiende la información generada por la interacción del hombre o de los seres vivos con su entorno, o del entorno en sí». (Fernandez Reyes, 2003:150)

Fernandez Sanchez kazetariak espezializazio hau definitzeko Estatu Espainiarrean berezko adostasun bat sortu dela adierazten du. Bere aburuz kazetaritza mota honek ingurumena eta naturarekin erlazioa duen gaurkotasuna lantzen du eta bereziki bere hondatzearekin zerikusia duten alderdiak lantzen ditu (Fernandez Sánchez, 1995). Ingurumen informazioa momentu oro gure bizitzan presente dagoen informazioa da eta modu batean edo bestean gizaki guztiengan eragina dauka. Horregaitik ingurumen informazioak gaurkotasun informatiboaren gai nagusia izango da eta eduki guztietan eragina edukiko du autore honen aburuz.

Bacchettarentzat aldiz ingurumen kazetaritza hedabideen bitartez ingurumenarekin zerikusia duten gaien lanketa litzateke. Autore honentzat ingurumena, gizakia eta planetako beste izaki bizidunek elkarbizitzen duten sistema natural eta sozialen multzoa da. Beraz Bacchetta kazetari eta ikerlariaren hitzak erabiliz ingurumen kazetaritza kazetaritzaren generorik zabalena eta konplexuena litzateke. Bere ustez funtsezko bost ezaugarri kontutan eduki behar dira kazetaritza mota hau definitzeko: 1) ikerketa kazetaritza da, 2) kazetaritza zientifiko mota bat da, 3) kazetaritza hezigarria da, pedagogikoa, 4) Giza ardura zehatz bat betetzen du eta 5) profesionaltasunez, arduraz eta objetibitatez gauzatu behar da baina militantzia ekologikoarekin nahastu barik (Bacchetta, 2002:1). Honela, ingurumen berriemaileek eduki anitzak eta zabalak landu behar dituzte, hots, naturarekin zerikusia duten gaiak baino haratago doazenak alegia, zabalegiak eta zientifikoegiak bilakatzen direnak askotan.

«En el periodismo ambiental entran innumerables asuntos con enorme trascendencia sobre el futuro del planeta y que suelen tener repercusiones en otros ámbitos informativos como el político, el económico, el local, el nacional, el internacional, etc.»
(Guijarro, 2008: 72)

70-ko hamarkadan Rubin eta Sachs iparramerikarrek ingurumen kazetaritza kontzeptuaren definizioa aztertzeko ingurumen informatzaileekin ikerketa bat burutu zuten. Erabilitako inkesten emaitzetan adierazi zuten, ia kazetarien erdiek gizakiek sortutako ingurunearekiko

mehatzuei buruzko informazio moduan definitu zuten Ingurumen kazetaritza. Heren batek aldiz, baliabide fisikoen (airea, lurra, ura) estaldura informatiboan oinarritutako kazetaritza zela adierazi zuten eta batzuk aspektu negatiboetan oinarritu ziren kazetaritza mota hau deskribatzeko, hots, ingurumenaren hondatzea, kutsadura, etab (Parratt Fernandez, 2014:339).

Ingurumen kazetaritzak jorratzen dituen gaien sailkapenak anitzak badira ere (Fernández 2001; Esteve eta Fernández del Moral, 1998), autore desberdinek (Fernandez Reyes 2002; Parratt Fernandez, 2014) aipatzen duten Fernandez Sanchez kazetariak sortutako zerrendari erreparatuko diogu. Ingurumen kazetaritzak lantzen dituen ingurumen tipologiaren zerrenda honi, arrisku naturalek sortutako gaiak gehitu behar zaizkio, hots, ekaitzak, zikloiak, lurrikarak, etab.

4. TAULA: Ingurumen Kazetaritzak lantzen dituen gaiak

HONDAKINAK	Hirikoak, industrialak, nekazaritzakoak, ospitalekoak, nuklearrak, lur kutsatuak.
URA	Ibaiak, urtegiak, sail ureztatutak, lur azpiko eta lur gaineko uren kutsadura, teknologia berriak, arazketak, gatzgabetzeko instalazioak, konfederazio hidrografikoak, isuriketa kanonak.
BASOAK	Suteak, basoberritzeak
KONTSERBAZIO EDO NATURAREN BABESA	Eremu babestuak, parke natural eta nazionalak, desagertzeko arriskuan dauden fauna eta flora espezieak, animalien trafikoa eta merkataritza, ehiza eta arrantza, biodibertsitatea, hegaztiak.
ITSASOAK	Itsas kutsadura, itsas baliabideak, arrantza baliabideen gainbehera, galzorian dauden espezieak, itsasoan kutsadura erradiaktiboa, hondakinen isuriketak.
KOSTALDEAK	Hirigintza arloko espekulazioak, hondartzen birsorkuntza.
LURZORUA	Hirigintza arloko espekulazioak, higadurak eta desertifikazioa.
ENERGIA	Ohiko energiak, energia alternatiboak, energia nuklearra, hondakin nuklearrak, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa.
GARRAIOA	Garraio bide desberdinen ingurumen-eragina, hiri trafikoari, beribilak, etorkizuneko ibilgailuak.
ATMOSFERA	Airearen kutsadura, ozono-geruza, berotegi-efektua, aldaketa klimatikoa.
HIRI ARAZOAK	Kutsadura, trafikoa, zarata, berdeguneak, ondare arkitektonikoaren degradazioa.
NEKAZARITZA	Abeltzaintza eta nekazaritza estentsiboa, nekazaritza ekologikoa, pestizidak, landa garapena, abelbideak.
TEKNOLOGIA BERRIAK	Industrial prozesuen birmoldaketa ekologikoa, ingurumen problematikaren inguruko ikerketa programen jarraipena.
INGURUMEN KUDEAKETA	Europar Batasuna, ingurumen administrazioa, Nazioarteko ingurumen erakundeak, Nazioarteko hitzarmenak...
ERAKUNDE EKOLOGISTAK	
GARAPEN SOSTENGARRIA	
TURISMOA	Ingurumenean eta baliabideen erabileran dituen eraginak, turismo ekologikoa.
INGURUMEN-INPAKTUEN IKERKETAN JARRAIPENA	
POPULAZIO ARAZOAK	Demografia, migrazioak

Iturria: Egileak berak egina Fernández Sánchez, 1995: 18-19-an oinarrituta

Ingurumen kazetaritzaren definizioa osatzeko informazio mota hau lantzeko erabiltzen diren ikuspuntu komunak aipatu behar ditugu. Arestian azaldu dugu ingurumen informazioa katastrofismoan oinarritzeko joera duela baina De Castrok kazetaritza mota honek erabiltzen dituen bestelako ohizko ikuspegiak aipatzen ditu (De Castro, 2009:5-7):

1. **Teknizismoa:** Askotan ingurumen informazioa lantzerakoan hizkera tekniko bat erabiltzen da eta mezuaren hartzaileengan ulermen eza sortzen du. Publiko hartzailearen kodigo kulturalak ez direnez erabiltzen mezuak ulertezinak bilakatzen dira. Biodibertsitate eta garapen jasangarria kontzeptuak adibidez edo hondakinen birziklatze planak, askotan halako lengoai teknikoarekin azaltzen dira. De Castroren aburuz komunean ematen den sinismen batengatik gertatzen da fenomeno hau: ingurumen gaien jakintza teknikoak menderatzea automatikoki gai horren trebetasun komunikatiboa dakarren sinismena hain zuzen.
2. **Katastrofismoa:** Ingurumen informazioa lantzeko erabiltzen den ikuspuntu honek beldurra oinarritzen diren mezu negatiboak erabiltzen ditu, ikuspegi apokaliptikoak eta errudunak jorratuz. De Castroren aburuz honen ondorioz inplikazio soziala baino audientzien desmobilizazioa errezten da.
3. **Propaganda:** Ingurumen informazioaren erabilera manipulatzailerak. Adibidez marketing edo publizitate kanpainetan «ekologikoa» edo «berde» kontzeptuen erabilera indiskriminatua edo hainbat instituzioek ingurumen gaiak lantzeko erabiltzen duten modua.
4. **Topikoak:** Pasadizozko eta azalezko ikuspegi erabileran oinarritzen diren mezuak, adibidez egun berezietan oinarritutako errepikapen automatikoen kanpainak, besteak beste, Lurraren Eguna, Ingurumenaren egun mundiala, Eguzkiaren eguna, Uraren eguna, eta Kotxerik gabeko eguna. Askotan bakarrik ikuskera estetikoak eta topikoak erabiltzen dira. Hartzailearen hunkiberatasuna mobilizatzeko kanpainetan adibidez, mezua zabaltzeko, paisai baten edertasunean soilik oinarritzen dira askotan.
5. **Errealismo falta:** Beste batzutan populazioari eskatzen zaiona oso zaila da gauzatea, batetik bere ardura ez delako (berez arazoa enpresa edo instituzio baten ekintza-aren esku dago) edo bestetik ez daudelako baliabiderik ingurumen aldeko erantzun bat emateko.
6. **Norabide bakarrekoa:** Askotan ingurumen informazio kanpainak ez dute parte hartzea, informazio eta argumentuen trukaketa jorratzen, hau da, komunikazioaren igoerle eta hartzailearen arteko elkarrizketa irekia lantzen.

- 7. Asetasuna:** Gaur eguneko gizartean informazio mezuak ditugu nonhai beraz sortzen ditugun mezuak hunkigarriak eta erakargarriak izan behar dira gizartera heltzeko.

Hortaz ingurumen kazetaritzaren berezkotasuna aniztasunarekin eta konplexutasunarekin lotura dauka; bai edukien aldetik, lantzen dituen askotariko gaiak, bai moduen aldetik, jorratzen dituen ikuspegiak ugariak baitira.

B. INGURUMEN KAZETARITZAREN ZAILTASUNAK

Hedabideek iritzi publikoan eragina duen » mundu berri posible» baten errepresentazioa erakitzen dute (Martinez eta Gomez, 2007:285) eta aldi berean mundu berri posible hori geldiarazten duen status quoa mantendu dezakete. Hiritarren ingurumen kontzientzia mailan hedabideek daukaten eragina onarturik (Fernandez, 1995: 27) gizakien eta ingurumenaren arteko harremanen aldaketetan hedabideek eduki duten eginkizuna azpimarratu behar dugu. Gonzalez Bernaldezek (2005) azaltzen duen legez, nekazal-artzain gizarte primitiboetan bizi ziren ehiztari-biltzaileek ingurumen eraginen inguruko kontzientzia maila handia zuten. Aldiz gaur eguneko gizarte modernoko hiritarrek biosferan beraien ekintzak sortzen dituzten ondorioen kontzientzia galdu dute eta hor kokatzen du hedabideen lana.

«El deterioro del entorno, refleja el desequilibrio que la ausencia de mecanismos correctores va produciendo. Y es justamente aquí en donde aparecen los medios de comunicación de masas como posibles «restauradores» de esa conciencia ecológica. Ninguna otra herramienta es capaz de alcanzar a tan amplios sectores de la sociedad para mostrarles lo que se oculta detrás de esa sencilla acción que, a veces, se limita a apretar un botón» (González Bernáldez hemen, Montero, 2015: 23)

Baina ingurumen kazetariak jasaten duten kritikarik zabalduena beraien inplikazio falta da, hots, gertaeren lekukoak direla soilik, salaketa, prebentzio edo jarrera pedagogikorik hartu gabe. Kritika honen aurrean bi joera bereiztu ditu Parratt Fernandez irakasleak (2006: 49). kazetarien artean. Batetik hedabideen eginkizuna informatzea dela eta beraz, heziketa lana bere esku ez dagoela pentsatzen dutenak. Eta bestetik pausu bat gehiago ematearen apustua egiten dutenak, hau da, ingurumen informazio kopurua handitzeak ez da nahikoa funtsezko ekarpenak sortzeko beraz bestelako inplikazioa behar da. Parratt Fernandezek ustez ingurumen errealtatearen informatzaile hutsak baino hezitzaile moduan parte hartzea litzateke logikoena. Bere aburuz gai jakin batzuetan (bakea edo ingurumen babesa adibidez) unibertsalki onartuta dago nolabaiteko jarrera hartzea.

Honela, hedabideen arduradunek bere hedapen boterea erabili beharko lukete herritarren ingurumen kontzientzia sortzen laguntzeko. Horretarako ingurumen informazioaren izaera hezigarria indartu beharko litzateke, hau da, hedabideen ingurumenari buruzko atal edo arlo finkoaz gain, sentsibilizazio atal eta programa zehatzak sortu beharko dira ingurumen hezkun-

tzako adituen laguntza eta parte hartzearekin (Parrat Fernandez, 2006: 57). Baina hedabideen jabe askok hezkuntza edo formakuntza erantzunkizuna ukatzen dute, hedabideen betebeharrak bakarrik objektiboki informatzea dela azpimarratzeko (Calvo, 1997: 60). Enpresa hauen helburua gero eta gehiago irabaztea da beraz ingurumen informazioa herritarren kontzientziarioan lagundu dezakeela zentzuzko ondorio izanik, ezin daiteke esan kazetariak edo hedabideak gizarte pedagogiaren helburuak proposatzen dituela (Fernández Sánchez, 1995: 28).

Ingurumen informazioak eragin handia du ingurumenaren pertzeptzio eta ulermenean. Hedabideek ingurumenaren irudi eta errealitate desberdinak planteatzen dizkigute, batzuetan kontrajarriak izan daitezkenak. Ezin baitugu ahaztu ingurumen berriek, hedabideetan ematen diren «presioak» jasaten dituztela²⁷. Hedabidearen jabea, enpresarioa edo holding enpresarialak portaera arau batzuk ezartzen ditu «bere» hedabidean iritzi publikoan eragin egiteko asmoarekin eta bere loby politiko-sozial papera mantentzeko. Castellesek «mediocracia» deitzen dio fenomeno horri «egiazki hedabideak ez dira neutroak, finantza talde garrantzitsuen menpe daude, aliantza politikoak dituzte eta maiz kidetasun ideologiko eta erlijiosoetan sustraituta daude» (Castells, 1995:13).

Komunikabideek eredu demokratikoetan iritzi publikoaren gotorlekua badira ere, kontutan eduki behar dugu hedabide bakoitzean kazetariak onartzen duten barne kode bat dagoela, gehinetan izkutuan eramaten dena (hots ez da publikoa, ofiziala) baina kazetarian «autosensura» maila desberdinak sortzen dituen (Tellechea, 2004:321). «Barne kode» hau ulertzeko ingurumen berrien ekoizpenean dauden mugak kontutan eduki behar ditugu²⁸. Allison Anderson soziologoak muga anitzak aipatzen ditu: «publizitate presioa, argitaratze politika eta hedabideen jabetzatik hasita, estilo arauak, albisteen kultura eta espazioa eta denboren mugetara heltzen dira» (Allison, 1997:56). Cox irakasle emerituak aldiz normalean berrien ekoizpenean eta bereziki ingurumen berriak ekoizteko bost muga aipatzen ditu: hedabidearen politika ekonomikoa, gatekeeping eta ingurumen gaien esleipena, berriak emateko irizpideak, hedabidearen markoa eta objektibitate eta oreka arauak (Cox, 2006:172-182).

Iruzkinez gain, ingurumen berrien ekoizpenean eragina eduki duen beste faktore bat ingurumen gaia lantzen duten kazetarien espezializazio falta da. Arazo honi aurre egiteko, kazetaritza espezializatu baten premia zegoela ikusi zuten zenbait kazetari, «Espainian ingurumen informazioa sustatzeko eta gure profesionalen prestakuntza eta espezializazioa sustatzeko» (Larena, 1999:11). Informazio eguneratua, zorrotza, zientifikoa, egiaztatua eta dagokion tes-

27 Madrilgo Prentsaren Elkartearen (APM-aren) 2016 Kazetari-Lanbideko urteroko Txostenak kazetarien % 57,2ak autozentsuratzeko dela aitortzen dutela adierazten du. Txostena 2016ko iraila eta urria bitartean 1.833 kazetariei egindako galdeketa batean oinarrituta dago. Kazetarien ehuneko 74,8k bere lanaren alde esanguratsuak aldatzeko jasaten dituzten «presioetara» makurtzen direla onartzen dute, kaleratua izateko beldurratik, batez ere langile autonomoek. 2012-an kazetarien %25,1ek inoiz ez direla presionatuta sentitu adierazten bazuen ere, 2016ko datuen arabera portzentaia 4 puntu jeitsi da eta APM.k salatzen duenez, presioen gaia urtero okertzen da. Txosten honen arabera, hedabidearen kudeaketa edo jabegoarekin zerikusia duten pertsonak dira presio hauek egiten dutenak eta maiz presioak, komunikazio korporatiboko profesionalen eremutik datoz.

28 Honen harira, Estatu Batuetako 287 kazetariei 2000ko martxoan egindako inkesta batetan kazetarien %41ek onartzen zuten talde korporatibo jakin baten interesei mesede egiteko albisteak argitaratzeari uko egin zietela. Korporazioen botere faktiko handiek—bereziki erregai fosilekin lotutakoak—, klima-aldaketaren estalduraren gaineko agenda mediatikok menderatzen dituzte eta indar handiz eragiten dute gailur globaletan eta ingurumen materiako gobernuen erabaki nabarmenetan (Gallegos, 2013:172)

tu inguruan kokatua zabaldu ahal izateko, 1994ko bukaeran APIA Ingurumen Informazio Kazetarien Elkarte sortu zen Estatu Espainiarrean. Estatu osoko ingurumenaren gaineko informazioaren eremuan lan egiten duten kazetariak biltzen ditu elkarte honek. Bere helburuak, informazio-dukien independentzia eta objektibotasuna zaintzea eta ingurumen-informazioa zorrotzasunarekin zabaltzea, bere bazkideen aritze profesionala babestea, elkarrizketa eta informazio iturrien eskurapena erreztea eta bere bazkideak izaera eta kontu profesionaleko gaitan ordezkatzeari dira. Elkarteak 200 kazetariz osatuta dago eta bertoko bazkideak honako komunikabideetan lan egiten dute:

5. TAULA: **Ingurumen Informazio kazetarien elkarteak osatzen duten hedabideak.**

AGENTZIAK	Agencia EFE, Colpisa, Ecomedia, Europa Press, Naturmedia, Servimedia.
IKUSENTZUNEKOAK	Antena 3 TV, Canal Natura/Vía Digital, Seasons, Canal Sur, COPE, Radio 5, Radio Intereconomía, Radio Madrid (SER), RNE, RTVE, Onda Cero, Onda Madrid.
EGUNKARIAK	ABC, El Correo de Andalucía, El Correo Español-El Pueblo Vasco, Diario de Cádiz, Diario de Sevilla, Diario Las Noticias de Castilla-La Mancha, La Estrella Digital, La Razón, Grupo Voz, Ideal, El Mundo, El País, El Periódico, El Semanal, Ideal.
ALDIZKARIAK	Arte de Vivir, Mi Jardín, Muy Interesante, Mujer Hoy, Quercus, Urbe, Warner Bulletin, Revista ONG.
ERAKUNDEAK	Colegio Oficial de Físicos, Colegio Oficial de Ingenieros Técnicos Forestales, Consejo de Seguridad Nuclear, Instituto Nacional de Meteorología, Ministerio de Medio Ambiente.
GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK	Ecologistas en Acción, Fundación Doñana 21, SEO-Birdlife, World Watch, Fundación Entorno, Instituto Jane Goodall, WWF España.
BESTE ERAKUNDE BATZUK	Agroprensa, AMB, CC.OO, EGMASA, Environment Watch for Western Europe, INFOPRESS, Agencia Seis, Troya Editorial, Natuweb, Plus.es, Hispania Service, Gabinete de Prensa Consejería M.Ambiente de Aragón, ARPAL, Sanchis y Asociados, Castellan-net...

Iturria: egileak egina, <http://www.apiaweb.org/quienes-somos/> web guneko informazioan oinarrituta (Kontsulta: 2016.07.23)

C. INGURUMEN KOMUNIKAZIOA

Ingurumen komunikazioak giza bizitzaren kalitatea hobetzeko —biosfera arriskuan ipini gabe— erabiltzen ditugun portaera, balore eta praktiken aldaketan eragiten dituzten prozesuen osaketan oinarritzen da (Barranquero, 2012:68-69). Beraz ez da bakarrik ingurumen mezuen transmisioa; perspektiba analitikoa —gertatzen dena ikertzea— eta esku hartzea nahastu duen disziplina baizik. Ingurumen komunikazioa ikerketa eta praktika profesionalerako eremu ireki bezala sortzen da. Komunikazio mota honek barneratzen hartzen ditu—sinbolikoki edo aktiboki— komunikazioaren baliabide eta berezko estrategiak ingurumenean esku hartzeko jardura multzoa (Vicente Mariño, 2009:2).

Ingurumen komunikazioko estrategiek paper erabakigarria jokatzen dute gure ekintzek ingurumenean dituzten ondorioak erakusten eta aldaketa horiek bakoitzaren eguneroko bizitzan nola txerta daitezkeen adierazten. Kontuan izan behar da estrategia horien eraginkortasuna zenbait faktoreren eraginpean geratzen dela: pertsonen ingurumen arazoaren jatorria ulertzen duen ahalmenaren, arazo hori konpontzeko beharrezko jokamoldearen eta jokamolde

hori garatzeko jarraitu beharreko urratsen eraginpean, hain zuzen ere (De Young, 1993:485-505).

Estrategia hauen erabileraren promozioa justifikatzeko gure gizarteak ingurumen arazoa konpontzeko klabe pertsonalean eta sozialean lan egiteko duen beharra ulertu behar da. De Castroren aburuz erronka erreal eta presazko honek eskala handiko aldaketarako konpromisoa hartzea eskatzen du. Eta aldaketa horrek, besteak beste, portaera sozial eta indibidualei eragin behar die (De Castro, 2009:17).

Beraz ingurumen komunikazioa gure ingurumenarekiko harremana eta ulermena hobetzeko erabiltzen dugun bitartekari pragmatiko eta arauemailea da. Hots, ingurumen arazoan eraikuntza komunikatiboa eta hauen gizarte erantzunen negoziazioa ikertzeko erabiltzen dugun baliabide sinbolikoa litzateke (Cox, 2006:12).Cox-en planteamendua jarraituz ingurumen komunikazioak bi funtzio dituen ekintza sinboliko mota bat da:

1. **Funtzio pragmatikoa:** Ingurumen arazoak konpontzen laguntzen du, hots, hezi, ohartarazi, limurtu eta mobilizatu egiten du.
2. **Funtzio eratzaila:** Ingurumena –natura– bera eta ingurumen arazoak ulertzeko moduak osatzen ditugu ingurumen komunikazioaren bitartez.

Bi funtzio hauek kontutan edukita, Cox-ek zazpi arlo bereizten ditu Ingurumen komunikazioaren azterketa eta praktikan (Cox, 2006:6-11):

1. Ingurumen erabakietan parte hartze publikoaren moduak.
2. Ingurumen gatazken kudeaketa eta konponbidea.
3. Ingurumenarekin lotutako mobilizazio kanpainak.
4. Ingurumen auzietan erabiltzen diren diskurtsoak,
5. Ingurumenari buruzko kazetaritzaren eta hedabideen jarduerak.
6. Arriskuaren komunikazioa.
7. Marketing «berdea» edo naturaren irudien osaketa herri-kulturan.

Hortaz ingurumen komunikazioak arlo asko jorratzen ditu. Giza komunikazioaren parte izanik (medioak, sinboloak...) giza aktoreek ingurumenean duten eragina eta jarrera aztertzen ditu. Beraz ingurumen komunikazioa tresna bat dela esan dezakegu, guk ingurumena nola ulertzen dugun eta naturarekiko gure harremana zein den ezagutzeko tresna. Pragmatikoa baino sinbolikoa ere bada, baliabide sinbolikoak erabiltzen ditugulako ingurumen arazoei aurre egiteko eta gizarteak ematen duen erantzuna aztertzeko.

Ingurumen gaietako masa komunikazioaren gaineko ikerketak, oro har, banakoek jasotzen duten, ulertzen duten, atxikitzen duten eta mezu partikularren arabera jokatzeko moduen azterketan oinarritu dira; beti ere komunikazioa, iturri elite batetik jendarteko kide bati zuzendutako informazioko fluxu lineal gisa ulertuz (Shanahan et al., 1997). Shanahan eta

McComas ikerlariak 90ko hamarkada bukaeran plazaratutako azterketan hiru arlo nagusi bereizi zituzten Ingurumen Komunikazioaren Ikerkuntzan (1999: 150-151):

1. **Edukien azterketetan oinarritutako azterketak:** Hedabideek daukaten ingurumenari buruzko ikuspegiarekin dute zerikusia.
2. **Ingurumen gaiak audientzietan zer nolako ondorioak dituen aztertzen dituzten ikerketak:** Batzuk gai zehatzen ondorioak aztertzen dituzte, beste batzuk aldiz, ingurumen kanpainak sortzen dituzten erantzun kognitiboak aztertzen dituzte.
3. **Hedabideen efektuak ingurumen ideologian eta hauen erlazioa kulturarekin:** Ikerketa hauek begirada kritiko batetik irudikatzen dira baina ez dute hurbilketa pragmatikorik lantzen ingurumen arazoak konpontzeko.

Gure aburuz ikerketa mota hauek ingurumen kazetaritzan oinarritu dira eta ez, ingurumen komunikazioan. Gure ikerlanean Cox-en (2006:6-11) lana jarraituz, ingurumen komunikazioaren analisisan sakonduko dugu, batez ere, politikagintzarekin zuzeneko zerikusia duten aldagaien eskutik:

- Ingurumen erabakietan parte hartze publikoaren moduak,
- Ingurumen gatazken kudeaketa eta konponbidea,
- Ingurumenarekin lotutako mobilizazio kanpainak,
- Ingurumen auzietan erabiltzen diren diskurtsoak,
- Ingurumenari buruzko kazetaritzaren eta hedabideen jarduerak.

2.3.3. Eremu publikoa, demokrazia eta ingurumen komunikazioa

Azken hamarkada hauetan ingurumenarekin zerikusia duten gaiak eremu publikoaren erdigunean kokatu dira. Fenomeno hau tokian tokiko mailan eta maila globalean eman da. Horra hor aldaketa klimatikoaren inguruko kezka kasua, arazo global gisa azaldu dena. Edota herriar eta taldeek ingurumenarekin lotuta dauden politika publiko zehatzak, lekutuak, ezbaia jartzen dituzten bakoitzean ingurumena tokiko gatazken abiapuntu bezala agertzen zaigu.

Fenomeno hau kokatzeko bi erreferente teoriko erabiliko ditugu. Batetik balore sistemen aldaketa eta bestetik bizi dugun aro modernoaren ezaugarritzen duen «arriskuaren» teoria soziologikoak.

Ingurumena mundu osoko herrialdeetako balio eta portaeren sisteman nabarmentzen den gaia da. Gure gizarte postindustrialetan ingurumen kontua gatazka politikoko lerro nabarmengarrien berrietako bat bilakatu da. Hots, gizakia bere ingurunearekin daukan erlazioari buruzko balio berriak iraultza kultural bat sortu dute (Anduiza, 2006:8). Europa eta EEBBtako

zientzia politikoak eta soziologia politikoak post-materialismoaren ikuspegia jorratu dute aldaketa hau azaltzeko. Postmaterialisten tesiaren arabera 80ko hamarkadan Europan gatazka sindikalak indarra galtzen hasten dira —kezka materialen asebetetzearen seinalea (etxebizitza, bazkaria, mantenua)— eta dimentsio «ez material» batzuk baliosten hasten dira (ingurumena, bizi-kalitatea, askatasun sexualak, giza eskubideak). Pentsamendu ildo honen ikerlari esanguratsuenetakoa den Inglehart politigoaren hitzetan «behar fisiologikoekin asetzeak helburu ez fisiologikoen edo post-materialisten inguruan enfasi handiagoa jartzera eramaten du» (Inglehart, 1991:23).

Inglehartek egindako azterketetan mendebaldeko herrialdeen gizartearen balore aldaketen ikerketa zehatza egiten da. Berak bi hipotesi planteatzen ditu:

1. **Eskasiaren hipotesia:** Gizabanako baten lehentasunek bere ingurumen sozioekonomikoa islatzen dute, hots, gauza nahiko urriei balio subjektibo handiagoa ematen zaio.
2. **Sozializazio hipotesia:** ingurumen sozioekonomikoaren eta baloraziozko lehentasunen arteko erlazioa ez da berehalako doikuntza (1991: 61).

Lehenengo hipotesiak oparotasunak balore postmaterialisten hedapena suposatzen duela planteatzen du; bigarren hipotesiak aldiz baloreen aldaketa moduari erreparatzen dio, gizabanako baten baloreak gradualki aldatzen dira eta aldakuntza era ia ikustezinean gertatzen da. Zientzia politikoko ikerlari honen ustez hein handi batean aldaketa horiek belaunaldi gazteagoak gizarte baten populazio helduago bat ordezkatzeko duenean gertatzen dira (1991:63).

Inglehart-en tesi postmaterialistaren ildoari jarraituz, mendebaldeko gizarte post industrializatueta balore postmaterialista guztietatik hedatuenetakoa bezala agertzen den balio postmaterialista «ingurumen»-balioa da, hain zuzen, gure eragina ekologikoki sostengatutako zentzuan orientatzen duen ideia bezala definitzen dena. Beraz gaur egungo mendebaldeko gizarte garaikideetako kultura aldaketaren esparruan ardatz axiologiko berri bat bilakatu da ingurumena (Abramsom eta Inglehart, 1995)²⁹

Dena den tesi post-materialistak kritika nahikotxo jaso ditu. Laburbiltzeko Riechmann eta Fernandez Buey (1995:30-42) iraskasleen kritika azalduko dugu. Autore hauen aburuz hasteko Inglehartek erabilitako metodologiari begiratu kritiko bat bota behar zaio. Baloreen aldaketen azterketa egiteko inkestak erabiltzeari hain zuzen. Akademiko hauen ustez egiaztatuko zailtasunak agerian agertzen dira jarrera-iritzi eta berekiko portaera koerenteen arteko erlazio zu-

29 Tesis post materialistak babesten dituten argudioetan sakonduz, Robert Jones, Riley Dunlap-ek (1991) eta S. Albrecht-ek (1995) bezalako teorilariak planteatzen duten «kontingentzia ekonomikoaren» hipotesia aipatu behar dugu. Autore hauek diru-sarrereren eta ingurumen kezken arteko erlazioa zuzenki proportzionala dela adierazten dute. Beste ildo teoriko batzuek tesi honen kontra agertzen dira. Ingurumen justiziaren arabera, ingurumenaren defentsa ez da behar materialak asebetuta daukaten pertsonen luxu bat. Amerika Latina honen adibide bat izan daiteke. Berton ingurumenaren defentsan lan egiten duten eragileen gehiengo baserritarra, txiroa eta indigenak dira beraz tesi post materialistek ez dute balio fenomeno hau azaltzeko (Guha, R. eta J. Martinez-Alier (1997)). Ikuspuntu kritiko honek ez du ukatzen mendebaldeko gizarteetan balore post-materialistek ingurumenaren kezka nabarmendu duenik baina uko egiten dio aberatsek behartsuak baino ekologistagoak lirakeen tesiari.

zena ezartzerakoan. Bestalde, Inglehartek ezartzen duen erlazio zuzena beharren eta balioen artean, nabarmenki konplexuagoa izan daiteke. Gainera Inglehartentzat balio postmaterialistak «kide izatea, autoestimua eta auto-errealizazioa bezala» zehaztuta geratzen dira eta nahiz eta balio postmaterialista bezala «ingurumena» sartzeak gogoeta zuzena iruditu arren, autore hauen ustez Inglehart-etik ateratzen den ondorengo interpretazio bat dirudi berak emandako datuen emaitza baino. Azkenik Ingleharten ereduaren arabera eliteak balio postmaterialistak erakutsiko lukete eta klase gutxietsiek aldiz aukera gutxiago edukiko lukete balio hauek erakusteko. Praktikan eliteen portaerak (balio batzuen isla nolabait dena) ez dute egiaztatzen gainerako populazioarena baino «ekologikoagoak» direnik. Gainera Hegoaldeko herrialdeetan sortutako mugimendu ekologista sendoak (bai indigenista, bai hiritarra) Ingleharten ikuspegi maslowtarra berriskustera eramaten gaitu.

Hala ere, marko esplikatibo honetan beste elementu bat aipatu behar dugu: gure gizarte garaikideak ezaugarritzen duen «arriskua».

Arriskuaren teoria soziologikoetan aro modernoaren ezaugarri berezkozat kontsideratu da arriskua (Beck, 1986; Giddens, 1990; Luhmann, 1991). Arriskua definitzerakoan perila eta arriskua bereizi behar ditugu. Perila kalte posible baten helduerari egiten dio erreferentzia, baina jasotzaileak ez dauka erantzunkizunik kalte horren sorreran eta ez dauka aukerarik iturburuan ekiteko. Arriskua aldiz, erantzunkizunarekin lotuta dago eta gizabanakoaren ekintzetatik jaiotzen da. Bereizketa beraz «leporatze edo egozte kontua» izango litzateke» (López Cerezo eta Luján, 2000: 23). Bi kasuetan egoera zehatz bategatik kaltea edo mina jasotzeko etorkizuneko aukeraz hitz egiten bada ere, kalte posible horien erantzunkizunean datza desberdintasuna. Gure erabakietatik at daudenean perila izango da, gure erabakien esku arriskua.

«Puede considerarse que el posible daño es una consecuencia de la decisión, y entonces hablamos de riesgo y, más precisamente, del riesgo de la decisión. O bien se juzga que el posible daño es provocado externamente, es decir, se le atribuye al entorno; y en este caso, hablamos de peligro» (Luhman, 2006:67)

Beraz erabakiak hartzen dituenaren ikuspegia agerian uzten du bereizketa honek eta hemen datza «arriskuaren gizartearen» tesiaren funtsa. Beck Soziologo alemaniarrentzako «arriskuaren gizarte» gizakiak berak sortutako arriskuen gizarte da. Industri garapenak aurrerapenaren izenean eta normaltasun giro batean sortutako arriskuak alegia. Oraingoan arrisku nagusien iturburua gizakia da beraz ezin naturari edo jainkotasun edo botere sakratuari egotzi erantzunkizunik. Gaur eguneko mundu arrazional zientifikoa zientzia eta teknologiaren arriskuen mehatxupean bizi den gizarte bat da eta arduradun bakarra gizakia da (Beck, 1998:89-92).

Arriskuaren gizarte fabrikatutako arrisku eta ziurgabetasunen gizarte da, hots, gizarteak berak «arrisku manufakturatua» sortutako arriskuen aroa (Giddens, 2000:33-48). Hazkunde ekonomikoan oinarritutako gizarteak ez ditu arriskuak eta ingurugiro arazoak kontutan hartu. Hortaz «arriskuaren gizarte» gizarte jasangaitza da, krisian dagoen gizarte bat hain zuzen.

Gure arriskuaren gizartean arazo politiko zentralak ondasunaren banaketa izateari utzi dio ingumen arriskuak eta arrisku teknologikoen banaketa izatera pasatzeko. Sempere eta Riechmann (2000:319) irakasleen aburuz arriskuaren gizartearen ezaugarriak 3 izango litzateke:

1. Kalte posible askoko izaera itzulezin eta «apokaliptikoa»
2. Giza erabakiekiko bere mendekotasuna (ezin zaio naturari egokitu arrisku ekologikoen ardura)
3. Arriskuak banatzen dituzten erabaki hartze prozesuen izaera iluna eta oligarkikoa.

Beckek horrela definitzen du arriskuen gizartea:

«La época del industrialismo en la que los seres humanos han de enfrentarse al desafío que plantea la capacidad de la industria para destruir todo tipo de vida sobre la Tierra y su dependencia de ciertas decisiones. Esto es lo que distingue a la civilización del riesgo en la que vivimos no sólo de la primera fase de la industrialización, sino también de todas las civilizaciones anteriores, por diferentes que hayan sido» (Beck, 1991: 31)

Modu honetan Beckek planteatzen diguna arrazionaltasun eredu baten gainbehera da. Gizarte industrialen instituzioek ezin diete aurre egin gizarteak berak auto sortutako arriskuei eta ondorioz gizarte horren beraren oinarri instituzionalak deusestatzen ari dira. Beck-en «arriskuaren gizartean», anibalentzia da nagusi eta ingurumenarekin lotutako aferetan islatzen da inon baino hobeto modernitateak bere ondorioekin topo egiterakoan egin beharreko auto-hausnarketa eta auto-kritikaren ezinbestekotasuna.

«En la sociedad del riesgo, las nuevas vías rápidas, las plantas de incineración de basuras, las plantas químicas [...] se enfrentan a la resistencia de los grupos de población directamente afectados. Esto, y no la satisfacción por ese progreso (como en la industrialización temprana), es lo que es ahora predecible. Las administraciones de todos los niveles se ven enfrentadas al hecho de que lo que planifican como beneficio para todos es percibido por algunos como una maldición. Esto desorienta a las administraciones y a los expertos de las plantas industriales y los institutos de investigación.»(Beck, 1994:23)

Beraz arriskuaren teoriak ezbaian jartzen du kontrol instituzional-teknikoaren forma tradizionalen eraginkortasuna garapen zientifiko-teknologikoari lotutako arriskuekiko. Rodriguez irakaskidearen arabera, sistemaren oinarri instituzionalen konfigurazioa eta gizarte honek auto-sortutako arriskuak ezaugarri berezkoak dira. «Hortaz, sistemaren parametro nagusiak al-

datzea beharrezkoa da arriskuaren kontrol eta kudeaketa onargarri bat lortu ahal izateko. Hau da, taktika aldatzearekin ez da nahikoa; goitik behera aldatu beharra daude joko-arauak»(Rodríguez, 2007:107).

Beck-ek gogoratzen digun bezala, garai erreflexibo honetan, modernitatean nagusitu den politikagintzak ezin ditu konpondu modernitateak berak ekarritako arazoak. Eta ziurrenik, ingurumenarekin lotutakoak dira arriskuaren gizarte industrialaren paradigmaren gehien nabarmendu diren erronkak. Bour eta Whitesideren arabera ingurumen erronken ezaugarriak bost kategorietan banandu daitezke: lehena, espaziala hau da lehen tokian tokikoak ziren arazoak gaur transnazionalak eta mugaz gaindikoak dira. Bigarrena bere ikusezintasuna, arazo batzuen presentzia nabarmena bada (hirien degradazioa, deforestazioa, ur kutsadura...) erradioaktibitatea, ura edo airearen mikropuluzioa edo ozono geruzaren desagertzea ez dira gure sentiduekin harrapatzen. Hirugarrenez, askotan *aurreikusenak* dira eta oharkabean agertzen dira. Laugarrena denborarekin lotuta dago eta inertzia eta itzulezintasunaren bidez agertzen dira. Ezin dira momentuan gelditu eta une batetik aurrera ez dute soluziobiderik, espezie eta biodibertsitatearen galpena adibidez. Eta azkenik, arazoaren kualifikazioa. Arazo ekologikoak kutsadurarekin lotzen dira eta irtenbide teknologikoak itxaroten dira euren konponbiderako. Baina gaur ongi dakigu, muga ekosistemikoak ditugula eta teknologia bera dela arazoaren parte. Teknologia berriekin soluzioak topa ditugu baina «Jevons efektua» edo errebotea dela medio, arazoak bukatu beharrean biderkatu egiten dira (Bourg eta Whiteside, 2010:10-19).

Hortaz arazoa ez datza soilik kudeatu beharreko gaien konplexutasunean, gai horiek kudeatzeko tresnaren ahulezian baizik: izan ere, Zubiagak (2002) gogoratzen digun moduan politika moderno «ziurrak» ezin baitu erantzun eraginkorrik eskaini «ziurtasunik gabeko» garai posmodernoan.

Autore batzuen ustez, egoera honi aurre egiteko, jendeaurreko hausnartze prozesuak behar dira, une bakoitzean xede horretarako egokiak diren erabaki politikoak har daitezten, demokrazia parte-hartzaile eta deliberatzaileak gizarte sostengarria lortzeko baliagarriak diren prozesuak bultzatu ohi baititu. Jakin badakigu sistema eta erabaki demokratikoak ez direla baldintza nahikoak ekosistemen sostengarritasuna lortu ahal izateko, baina sozio-ingurumen arazoak arazo politikotzat jotzen baditugu soluziobide eta planteamendu egokietara hurbildu gaituzke (Barry, 1996:118).

John Dryzek (2002) teorilari ekologista australiarrek demokrazia diskurtsiboa babestu du, sostengarritasuna lortzeko bide gisa. Berak azaltzen duenez, sostengarritasuna orokor bihurtu daitekeen interes komuna baldin bada —gizakiaren bizitzak ezinbestez behar dituen ekosistemen iraunkortasun osoa oinarritzat hartzen duen interes nagusi hori bada— orduan, demokrazia deliberatzaileak erabakiak sortu ahal izango ditu interes horren alde egiteko (Dobson, 1997: 137). Horregaitik funtsezkoa iruditzen zaigu herritarrek ingurumen eztabaidara hurbiltzeko eta bere jarrerak portaera itxuran adierazteko dituzten aukerei erreparatzea.

Modernitatearen hastapenetik, harreman estua dago demokrazia eta iritzi publikoaren artean. Iritzi publikoak, Sartorik (1992) azpimarratzen duen moduan, soberania popularra indarrean jartzeko beharrezkoa den eremua eskaintzen du. Finean, demokrazia, iritziaren edo iri-

tziak onartzen duen gobernu izango litzateke. Ildo beretik, Habermasek, duela berrogei urte baino gehiago (1962) iritzi publiko hori osatzeko beharrezkoa den «eremu publikoa» (Öffentlichkeit) aztertu zuen bere lan klasikoan, «Iritzi Publikoaren Historia eta Kritika». Eztabaida eta kritikarako eremu publikoa, arlo pribatu hutsa gaindituz eta estatuaren logikatik at osatzen dena, absolutismotik iraultza liberalera doan ibilbidea ulertzeko albora ezinezko aldagaia da. Filosofo eta soziologo alemaniarrentzat eremu publiko horretan «burgesa» «herritarra» bihurtu zen, herritar irakurle/kritiko, kontra-botere lana egingo zuen prentsa idatziaren eskutik. Habermasek «publizitateari» emandako balio normatiboa erabatekoa da: jarduera deliberratzaille askearen baitan burutzen diren eztabaida publikoetan bakarrik legitimatzen da botere politikoa.

Alabaina, hasierako eremu publiko ideal hura, inoiz indarrean egon bazen, aspaldian desagertu da eta, ondorioz, Habermasen ikuspegi normatiboaren ahulezia nabarmena da egungo errealitatearekin alderatuz gero: botere politiko-administratiboa mugatu beharko lukeen kontrol komunikatibo-demokratikoa indargabea baita aski indartsua merkatuaren edo erakundearen logikari aurre egiteko. Hedabide berrien sorrerarekin³⁰, eta, batez ere, Estatuaren edota oligopolioen kontrolpean dauden berri-agentzien gailentzearekin batera dator eremu publikoaren egiturazko aldaketa, Habermasen iritzian. Hala, eremu publikotik desagertu egin dira arrazoiak tresnatzat duten herritarrak, eta kultura integratzaile baten menpe, berrien eta aisialdiaren kontsumitzaile hutsak bihurtu dira. Eremu komunikatiboaren helburua, ondorioz, manipulaziotik erakusgarritasunera joango da, eremu publikoaren ardatza izan beharko litzatekeen eztabaida arrazionala alboratuz (Habermas, 1981).

«Masa hedabideen tresna elektronikoen komunikazio sare gero eta estuago hori, potentzialki askapenerako izan zitekeena, borondatearen osaketa deszentralizatuaren bitartez Estatuaren eta gizartearen kontrolerako tresna izan behar zuena, alegia, populazio despolitizatuaren leialtasuna ziurtatzeko bitarteko hutsa bilakatu da»
(Habermas, 1981:24)

Mouffek (2003) gogoratzen digun bezala, politikak ezin du antagonismoa gainditu. Arealgo oraindik, antagonismoa ezabatzerik egon badagoela pentsatzeak, deliberazio/komunikazio perfektuenaren eskutik bada ere politikotasunaren ukapena dakar. Eredu deliberatzaileak, eredu arautu guztiek bezala, definizioz, barneratze ahalmen ahula du. Zaila baldin bada ere, mahaian bildutakoen posizioa parekatzeko bitartekoak jarri daitezke, komunikazioa ahalik eta

30 Ramirez de la Piscina irakaskideak Habermasek erabili zuen termino horren baliagarritasuna kolokan jartzen du. Bere tesia garbia da: esfera publikoaren mugak dezente aldatu dira azken urteotan, informazio-teknologia berriek sortutako berrikuntzen kariatz (2007:49). Olverak kontzeptu horren berdefinizioa planteatu du (1999:33-34). Bere ustez, gaur egun, esfera publikoa hiritarrek euren iritziak eta usteak prozesatzen dituzten eremua da, Estatuari euren aldarrikapenak planteatzen dizkioten esparrua, masa-hedabideen bitartez informazioa jaso eta berrinterpretatzen duten espazio publikoa, alegia. Lursail komuna da esfera publikoa; iritziak landu, nortasunak eraiki eta adostasunak sortzen/birsortzen diren eremua. Fenomeno horiek prozesu komunikatibo interaktiboaren bidez osatzen dira.

parekoena izan dadin, baina ia beti mahaian eserlekua lortzeko mobilizaziora, protestara jotzen dute gizarte eragileek eta herritarrek. Kanpotik indarra egin ezean nekez zabaltzen baita eremu publikoaren atea. Ate horiek erdi zabalik mantendu behar izatearen garrantzia eremu publikoaren definizio berritzaileetan islatzen da.

Esaterako Coxek (2006:18) marrazten duen eremu publikoa "gizabanakoek beste gizabanako batzuekin, partekatutako kezka gaien edo komunitate zabalagoari eragiten dioten gaien gaineko komunikazioa jorratzerakoan —elkarrizketa, eztabaida edo liskarren bidez— sortzen den eragin eremua» orube egokiagoa eskaintzen du protesta barneratzen duen jarduera deliberatzaile horri. Eremu publikoa ez da soilik hitzen bitartez josten, ez da eremu ofiziala edo arautua bakarrik, ez da herritar guztiak biltzen dituen bilkura abstraktu eta monolitikoa... Bere iritzian, ingurumen komunikazio garaikidearen osagarri ezinbestekoak dira «ingurumen mobilizazio kanpainak (*environmental advocacy*): lobby lanak, salaketa judizialak, hauteskunde politika, iritzi publikoari egiten zaizkion zuzeneko deiak (heziketa kanpainak, publizitate ekimenak, dinamizazio komunitarioa, zuzeneko ekintza eta desobedientzia zibila...) edo merkatuari eta kontsumitzaileei begira egiten direnak (*green consumerism*, kontsumo boikotak, erantzukizun korporatiboa...).

Ingurumen komunikazioa eraikitzailea da. Izan ere, ingurumena –natura– bera ulertzeko moduak osatzen ditugu haren bitartez, eta, gainera, horrela «sortutako» arazoak konpontzeko ere balio du, bere pragmatikotasuna erakutsiz. Izan ere, ingurumen komunikazioa, ingurumen demokraziaren oinarritzko abiapuntua da. Informazio partekaturik gabe, alegia, komunikaziorik gabe, ez baitago demokrazian sakontzerik.

Castells-en (2009) edo Etxeberriaren (1994) lanetan azpimarratu den moduan, gizarte garaikideetan ezin daiteke egin demokraziaren inguruko hausnarketarik komunikazioaren aldagaiari arreta zuzena eskaini gabe. Mc Combs teorilariak haratago doa eta demokrazia garaikidearen analisisa ulertzeko agenda setting analisisa ulertzea ezinbestekoa dela esaten du (Leyva Muñoz, 1997). Teorilari estatubatuarren arabera, demokrazia orotan beharrezkoa den adostasun-eginkizuna hedabideek garatzen dute, akordioak egiten laguntzen baitiote gizarteari, zeren, hedabideek eraginda, jendea gai berberetz mintzo edo kezkatzen baita.

Hortaz, komunikazioa demokraziaren euskarria da, Greziako *agora* hartatik hasita —non komunikazioa etorkizun politikoa eztabaidatu eta erabakitzeko oinarria baitzen— demokrazia garaikideetako mass media edo masa hedabideetaraino.. Komunikazioa orokorrean eta hedabideak zehazki, politika eta gizartearen fundamentua dira, komunikazioa esfera publikoaren osagarria den heinean, demokraziaren osagarria delako (Sanchez Ruiz, 2005). Horregatik hedabideak esfera publikoaren administratzaile bilakatzen dira (Ortega, 2003:71).

Espazio publikoan hedabideen informazio etengabearen bidez, «errealitate ezagun komuna» eraikitzen ari da, gero inplizituki interakzio sozial guztietako oinarri bezala aurreuposatu daitekeena. Komunikazio sozialean «jakintza» edo «ezaguera» bezala funtzionatzen duen hori —bai gertaerak bai gertaeren gaineko iritziak— gauzatzen doaz eta honela gizartea bideratzen duen errealitatearen deskribapena, munduko eraikuntza bat, sortzen da (Vallespín, 2000:84). Errealitateak erakusten digu hedabideek gaur eguneko gizartean duten garapena, eremu pu-

blikoan duten lekua birpentsatzera bultzatzen gaituela, hots, zein lotura mota osatzen duten gure gizarteetan eta nola eragiten duten hiritar nortasunetan.

Ingurumenaren gaira ekarrita, esaterako, jarduera demokratikoan eragile zehaztugabe askoren arteko harremana bideratu beharrak ingurumen komunikazioaren garrantzia gaineratu du. Ingurumen komunikazioak betetzen dituen funtzioak, eremu diskurtsibo publiko jakin batean burutuko dira. Eremu horren azterketan murgilduko gara ikerlan honetan eta, bide batez, erradikalizatzeko demokratikoan sakontzeko eremu horrek izan beharreko baldintzen analisisian. Lan hori, kontra-eredu gisa hautatu ditugun bi aferen eskutik egingo dugu: Abiadura Handiko Trena eta Muskizeko Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen planta, Koke planta azpiegitura.

Hala, Robert Cox-en ekarpen teorikoa gure lan enpirikoan hartu dugun eredura egokitzuz, hemen defendatzen den solaskidetzara hurbiltzeko honako baldintzak bete beharko lirateke:

- Ingurumenarekin zerikusia duten egitasmoen abiapuntu gardena, politika publikoen ekimenaren jatorria, hasierako ekimena, jakina, ezaguna eta ahal bada, partekatua izan beharko litzateke, alderdien monopolioa saihestuz eta, era berean, interes edo presio talde korporatiboen ezkutuko eragina azaleraziz. Baldintza hau «komunikazio gardena» bezala definienezake.
- Erabaki publikoak hartzeko garabidean bildutako eragile guztiek bitarteko eta aukera berdinak izan beharko lituzkete, edo «komunikaziorako baliabide berdinak». Atal enpirikoan Cox-en baldintza honen jarraipena egiteko eremu publikoaren osaketari erreparatuko diogu, hedabide nagusien jarduera aztertuz. Hor zehaztuko dira eztabaidarako eremu publiko arrazional bat osatzeko egungo hedabideetan sortzen diren arazoak.
- Hirugarrenik, solaskidetzak deliberatzaileak, eragileen jarrerari dagokionean, eskakizun etiko bat aintzat hartzea eskatuko du: Elkarlana helburu duen solaskidetzak jarrera irekia, abegikorra eskatuko die bildutako eragileei: «arazoak konpontzera bideratutako jarrera», Cox-en hitzetan. Kontsentsua lortzeko eragileak diskurtso arrazionalak osatzen saiatu behar dira, arrazoiak elkar trukatzeko aukera emango dutenak: eztabaida parametro arrazionala burutzea ezinbesteko baldintza da.
- Laugarrenik, inklusibitatea: edozein ingurumen aferaren inguruan iritzia, interesa, edota kaltea duten eragile guztiak barneratu beharko lirateke politikagintza sarean (*policy network*). Eta denak bildu eta gero, politikagintza sare horretan hartutako erabakiak bihurtu beharko lirateke guztiok bete beharreko erabaki publikoak.

3. Diseinua eta metodologia

3.1. Oinarrizko diseinu metodologikoa

Gizarte-Zientzietan gai bat aztertze bide eta modu asko daude. Alabaina, bide horri hasiera emateko itaunak beharrezkoak dira; arazo edo kezka baten aurrean irtenbide egokiak bilatzeko, galdera aproposak egitea funtsezko eginkizuna bilakatzen baita. Errealitateak ez du berez erantzungo, hortaz, ihardesprenak topatu egin behar dira eta lan hori egiteko nola galdetu jakitea oinarrizkoa da.

Zeregin hori burutzeko gizarte-zientzietan eta orokorrean ikerkuntza lanetan erabiltzen dugun nahitaezko tresna, metodologia da. Etimologikoki *méthodos* dugu jatorrizko hitza, *meta* (luzeran) eta *hodos* (bidea edo prozedura) osotzen dutelarik. Metodoa helburu bat eskuratu ahal izateko garatu beharrezko prozedurari egiten dio erreferentzia, alegia, ibili beharreko bideari (Latorre et al., 1996:87). Izan ere, erantzunak non eta nola bilatu jakiteko gidaritza eskaintzen digu metodologiak.

Ikerketa zientifiko ooren abiapuntua oinarrizko ideia edo ustesistema baten baitan erakitzen da, eta garatzen den azterketa lana ideia hauen arabera moldatzen da. Paradigma gisa ezagutzen diren uste eta printzipio sistema hauek, komunitate zientifikoak arazoak enfokatzeko duen adierazpen modua da, hots, «gizarte jakin batean fenomeno sozialak interpretatzeko ikerlariak erabiltzen dituen marko teoriko-metodologikoak» (Vasilachis, 1997:79). Hortaz, mundu sozialaren azterketa antolatua aurrera eramateko erabiltzen dugun marko filosofiko eta kontzeptualari egiten dio erreferentzia (Khun, 1962). Finean, ikertzen den mundu erreala-ren konplexutasuna zehazteko modua litzateke,

«Un paradigma es una imagen básica del objeto de una ciencia. Sirve para definir lo que debe estudiarse, las preguntas que son necesarias responder, cómo deben preguntarse y qué reglas es preciso seguir para interpretar las respuestas obtenidas. El paradigma es la unidad más general de consenso dentro de una ciencia y sirve para diferenciar una comunidad científica (o subcomunidad) de otra. Subsume, define e interrelaciona los ejemplares, las teorías y los métodos e instrumentos disponibles» (Ritzer, 1993: 598)

Paradigma hauek ikertzailearen lana gidatzen dute bere suposizio ontologikoak (ikertutako errealitatearen izaera), bere suposizio epistemologikoak (ikertutakoaren eta ikertzailearen arteko erlazioa) eta bere suposizio metodologikoak (errealitate horretatik ezagutza lortzeko moduak) zehazterakoan. Ikerlan hau aurrera eramateko lehenengo eta behin gizarte zientzietako ikerketetan, eta zientzian orokorrean, oinarritzkoak diren hiru galdera hauek (Corbetta, 2010:8) kokatuko ditugu.

- 1. Galdera Ontologikoa:** *Gizarte errealitaterik badago?* Errealitate sozialaren izate eta existentziari buruzko galdera. Gizarte fenomenoaren benetakoa eta objektiboa den galdetzen du, hau da, jendeak dituen sinesmen eta usteak baino haratago errealitate sozialaren izaera eta formak egiazkoak diren edo ez.
- 2. Galdera Epistemologikoa:** *Gizarte errealitatea ezagutu daiteke?* Gizarte errealitatea (zer) eta ikerlariaren (nor) arteko harremanaz ari da eta harreman honen ondorioaz. Hau da, esanahia nola ekoizten den edo elkarren egindako pertzepzioen bitartez jakintza nola sortzen den (Zabaleta, 1997:14). Galdera honen bitartez azterketa egiteko erabiltzen den ikerketa perspektiba azaltzen da.
- 3. Galdera Metodologikoa:** *Nola ezagutu daiteke gizarte errealitatea?* Ikerketa burutzerakoan erabiltzen ditugun tresnak dira; gizarte errealitatea ezagutzeko maneiatzen ditugun ikerketarako teknikak hain zuzen.

Ikerlan honetan garatutako metodologia ulertzeko derrigorrezkoa da erabili ditugun paradigmei erreparatzea. Gure azterketa gaia oso konplexua eta multi dimentsionala da paradigma bakar baten bidez aztertzeko. Beraz ikerketa honetan hiru erabili ditugu: paradigma interpretatzailea, positibista eta post-positibista. Nahiz eta paradigma horien arteko mugak argiak izan ikerketa aurrera joan ahala paradigma hauek testuinguru eta modu askotan gurutzatzen dira. Erabilitako hiru paradigmatik (positibista, post-positibista eta interpretatzailea) arestian azalduko hiru galderen bitartez laburbiltzen dira:

6. TAULA: Ikerketaren metodologian erabilitako oinarrizko paradigmak

	ONTOLOGIA	EPISTEMOLOGIA	METODOLOGIA
POSITIBISTA	Badago Giza Errealitate objektibo bat, gizakien kanpo existitzen dena eta ezagutu daitekeena.	Ikertzailea eta ikergeia independenteak dira eta ez dago elkarren arteko eraginik.	Prozedura inдукtiboaren bitartez behaketa partikularra formulazio orokorrean bilakatzen da.
POST-POSITIBISTA	Badago giza errealitate bat baina bakarrik inperfektuki eta probabilitatikoki ezagutu daiteke.	Objektibitatea ideala da baina ezin da osotasunean lortu. Beraz ikergeia eta ikertzailearen arteko bereizketa eta interferentzia eza ezinezkoa da.	Orokorrean metodologia kuantitatiboa erabiltzen da (experimentuak, behaketa, edukiaren analisia...) Hala ere Metodologia kualitatiboa onartuta dago.
INTERPRETATZAILEA	Garrantziko errealitatea jendeak uste eta irudikatzen duen errealitatea da. Ikertzaile interpretatzailearen ardura giza jokabidea ulertzea da, baina ez ikertzailearen ikuspuntutik ulertzea, baizik eta aktorearen beraren erreferentzia eta ikuspuntutik.	Jakintza prozesu subjektibo baten bitartez sortzen da, eta prozesu horretan analisi holistikoa, osotasunezkoa, egiten da.	Gizarte-fenomenoen forma, eduki eta testuingurua mantendu —zeregin deskriptiboa— eta hauen kualitateak analizatu —zeregin interpretatzailea— egiten ditu, bi alderdi horiek narrazio baten itxuran aurkezteko. Fenomenoaren interpretazio kualitatibo eta holistikoa, hitz batean.

Iturria: Egileak berak eginda Corbetta (2010: 14-25) eta Zabaleta (1997: 42-56)-an oinarrituta

Azalpen hau azterketa garatzeko lagungarri eduki ditugun eredu mentalak erakusteko bazarrik zuzenduta dago. Atal honen helburua ikerketa hau egiteko erabili dugun metodologia-ren marko teoriko labur bat eskaintzea izan da.

3.2. Laginaren aukeraketa

Ikerlan honen metodologia azterketarekin jarraitzeko erabilitako laginaren hautaketaren zergatiak azalduko ditugu. Horrela, bi galdera nagusi egin ditzakegu:

1. Zergatik ingurumen politiken informazio azterketa operazionalizatzeko sozio-ingurumen gatazka aukeratu dugu?
2. Zergatik hautatu ditugu Abiadura Handiko Trenaren kasua (AHT laburdura erabiliko dugu ere) eta Muskizeko Fuel-Olioia Murrizteko Unitate planta (Koke planta erabiliko dugu ere) azpiegitura kasuak eta ez beste batzuk?

Lehenengo galdera erantzuteko gatazkaren kontzeptuari erreferentzia egin behar diogu. Arestian aipatu dugun moduan (ikus 2.2.1 atala) aktoreen arteko elkarrekintza publikoa suposatzen du, zehazki gatazka, politika publikoetan eragiten duten aktore guztien elkarrekintzaren hezuramitza da. Hortaz iritzi eta diskurtsoak kuantitatiboki gehiago dira baina batez ere, sozio-ingurumen gatazka politika publiko arautzaile baten erantzuna edo/eta erreakzio posiblea den heinean interesatzen zaigu. Sarreran aipatu dugun legez, ingurumen gatazka eta aferetako harreman informatiboetan sortzen diren gabeziak eta endekatze prozesuak agerian jarri nahi ditugu, eman daitezkeen aldaketak mahai-gaineratzeko eta horregatik sozio-ingurumen gatazken azterketa burutuko dugu, gatazka informazioa/eztabaidaren puntu gorenena dela esan genezakeelako.

Bigarren galdera erantzuteko materien mugapena kontutan eduki behar dugu. Laginaren mugapen estrategikoa izateaz gain, kuantitatiboki, esan dezakegu badirudiela Euskal Herrian dauden ingurumen politika publikoen erantzunak/erreakzioak, besteak beste, garraio eta energia alorretan kokatzen direla, (ikus 2.2.2 atalean E, Euskal Herrian 2000-2007 urteen artean sortutako gatazkek zer nolako gaitan duten sustraia). Argi dago, beraz kuantitatiboki materien aukeraketaren justifikazioa egiterik badela.

Horrela, bi perspektiba desberdineko sozio ingurumen gatazka aztertu nahi izan dugu. Gatazka horien gai-erroa diferentea da: Abiadura handiko Trenaren kasuan garraio azpiegitura eta Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen planta energia, eta hondakin eremuan kokatuta dago. Gatazka horien tamaina ere desberdina da eta hartzen duten markoa ere, izan ere, batetik empresa pribatuen logiken kontrako erresistentzia lokalak baititugu, Petronorreko Muskizeko Koke planta eta bestetik, AHTren kasuan, aurretik azaldu bezala, «administrazio batek arazo bati erantzuna emateko sortzen den *outputaren aurkeztea*» (Lascoumes eta Le Galès, 2007: 66)

Gure ikerlanerako aukeratutako bi azterketa kasuen hautaketarako marko espaziala ere kontutan eduki dugu. Euskal Herriko herrialde guztietan eragina duen proiektu bat hautatu dugu, Abiadura Handiko Trena eta herrialde eremua kontutan eduki dugu beste aukeraketarako, hau da, tokian tokiko gatazka, Koke planta hain zuzen. AHT lurralde guztiei eragiten dien makro-proiektu gatazkatsua da eta nahiz eta gatazka bat bakarra balitz kontabilizatuta egon,

argitzekoa da Euskal Herrian lurraldez lurraldeko protestak sortu direla 1990. hamarkadatik. Koke planta Muskizeko herrian kokatuta dago eta sozio-ingurumen gatazka honetan sorturako liskarrak eremu horren baitan egikaritu dira.

Aldi berean sozio ingurumen gatazken inguruan ematen diren informazio estrategiak aztertzeko prentsa idatzia aukeratzea ez da zorizko hautaketa izan.

Edozein iritzi eraikuntza prozesuan errealitate eta publikoaren arteko bitartekotzan idatzizko kazetaritzak paper protagonista betetzen du. Kazeten orrialdeetan ustekabeko gertakizuna kontakizun iraunkorra bilakatzen da. Prentsak gertaerak albiste bihurtzen ditu benetakoa eta errealitatearen arteko iruzkina gauzatuz «entre lo inteligible *per se*, y lo susceptible de ser explicado o comprendido» (Sánchez, 1998: 154).

Izan ere, jendeak esaten duena idazten duena baino espontaneoagoa dela kontsideratzen da. Hitz idatzia autorearen hausnarketaren produktua dela suposatzen da eta ikerkuntza mailan ere balio hori eman zaio. Postamek azaltzen duen moduan «en el mundo académico, la palabra impresa está investida de más prestigio y autenticidad que la palabra hablada» (Postman, 2001:25). Horregatik ikerlan honetan egiten dugun iturri mediatikoen azterketa lantzeko prentsa hautatu dugu.

3.3. Hipotesiak

Hipotesiak ikergai den fenomenoari buruz ikerlariaren ikuspuntua erakusten duten baieztapenak izanik (Juaristi, 2003: 25) ikerketaren garapenean oso garrantzitsuak izan dira, bai hasieratik bukaera arte emandako pausuetan, bai erabilitako tekniketan eta metodologian.

Gure ikerlana gidatzeko bi hipotesi mota bereizi ditugu: hipotesi erdi kausala eta hipotesi koerlatiboak.

Hipotesi erdi kausala:

H1 Proiektu baten aurrean gatazka sortzen da gaiaren inguruko iritzi osaketa/erabaki prozesuak ez direlako aski parte hartzaileak izaten. Batez ere izapiderearen hasieran. Egitasmoen abiapuntua ez da gardena, informazioa ez da nahikoa.

Hipotesi koerlatiboak:

H2: Egitasmoen ekimen fasea eragile instituzional eta interes talde indartsuen esku dago da eta, askotan, ezkutuan bideratzen da.

H3: Gaiaren inguruko informazioaren plazaratzea (*agenda-setting*) ez da egokia: informazio iturri monopolistikoak, informazio kanalen «kartelizazioa» eta kontraste eza, informazioaren kalitate eta eduki eskasa, pertsuasio/propaganda gisa bideratutako informazioa sortzen du.

H4: Egitasmoen bultzatzaileen eta beste eragile interesatuen edota herritarren arteko komunikazioa eskasa da, ez dago komunikaziorako kanal egokirik.

H4.1: Ez dago industria kutsakorren edo azpiegituren inguruko eztabaida publiko arrazionalik.

Hipotesi hauen bitartez ikerlanaren azterketa sakona bideratu dugu. Alde batetik aztertutako gatazkaren ekimenaren nondik norakoak, bestetik aukeratutako hedabideen informazio analisia eta azkenik parte hartzen duten eragileen diskurtso analisia.

Modu honetan aztertutako kasuen hastapenen analisia, aztertutako komunikabideen jardueraren analisia eta estrategia diskurtsiboen analisia beteko dugu. Horretarako egitasmoen arkeologia, aktoreen harremanak, prentsaren azterketa eta eragileen diskurtsoen analisia lan-du dugu.

3.4. Tresna Metodologikoak

Oro har, metodologikoki hiru aspektu landu ditugu ikerketa honetan:

1. **Jatorrizko datuen bilketa:** Elkarrizketa sakonak eragile sozio-politikoekin (instituzional eta gizarte eragileak).
2. **Dokumentala:** Egunkarien, liburuen eta aldizkarien, bilketa eta analisisia. Azterketa hemerografikoa.
3. **Eduki eta diskurtso analisisia, aukera politikoaren egitura eta eragile sozio-politikoaren soziogramak.**

Era berean, bi dimentsio desberdin jorratu nahi izan dira ikerlanean, dimentsio kuantitatiboa, datuen kuantifikazioarekin lotura duena eta dimentsio kualitatiboa, sakoneko elkarrizketen eta dokumentuen analisiaren azterketatik sortutako informazioaren tratamenduan datzana, hain zuzen ere.

Hortaz, izaera kuantitatibokoan artean, azterketa hemerografikoa garatzerakoan lortu ditugun datuak ditugu aipagarri. Erabilitako teknika kualitatiboen artean, bigarren mailako iturrien azterketa (egunkariak eta dossier teknikoak batez ere) eta azterketa kasu bakoitzeko aktore parte hartzaileei eginiko sakoneko elkarrizketak ditugu aipagarri.

Bigarren mailako iturriei dagokionez, aipatu bi azterketa kasutan, bereziki bi gertaera nagusiei lotuta agertu diren 20 memento estrategiko aukeratu ditugu; batetik, proiektuari bereziki eragiten dion administrazioaren erabaki bati lotura egondako momentuak, bestetik, mobilizazio sozial handiko mementoak izan ditugu kontuan. Hogei esparru informatibo horiek gatazka-aren hasierako etapa, tartekoa eta gaur eguneko, kontuan hartzen dituzte. Aukeratze eragiketa horrekin, gatazka-aren osotasunaren argazki fidagarria lortu nahi izan dugu.

Kasu bakoitzeko hogeit hamar momentu informatibo estrategiko horien azterketa sistematikoa egiteko, ale informatibo bakoitzeko dimentsio bikoitzeko analisisia jorratu dugu. Horrela, ale bakoitzeko, fitxa sistematikoa jaso dugu, non batetik, berorren egiturazko dimentsioan zentratu garen; alegia, alearen kokapena, orrialde kopurua, zutabe kopurua eta zein sekzioan kokatuta dagoen aztertu dugu, beteak beste. Bestetik, edukizko dimentsioan zentratu gara; honen bidez eginiko azterketan albistearen genesis, berriaren aurreikuspen maila, berriaren sorrera modua eta iturri informatiboak aztertu ditugu

3.4.1. Sakoneko elkarrizketak

Gure ikergaia aztertzeko sakoneko elkarrizketak erabili ditugu, fokatuak (gai bakarra sakonki aztertuta) eta zuzenduak (elkarrizketaren ekimen guztia, elkarrizketatuak zuzentzen, erabaki-

tzen eta zehazten du). Modu honetan eragile politiko, instituzional eta sozialei egindako elkarrizketa sakonak gure ikerlanean paper garrantzitsua jokatu dute informazio iturri eta analisi-rako material bezala.

Hautatutako azterketa kasu horien informazioa jasotzeko elkarrizketa deskribatzaileak gauzatu ditugu. Honela kasu bakoitzeko aldeko eta kontrako jarrerak ordezkatzeko bilatu dugu.

Sakoneko elkarrizketen bitartez gatazkan parte-hartutako aktoreen ezagutza, gatazkaren hasiera eta definizioa, aktoreen arteko harremanak eta beraien diskurtsoa eta komunikabideak eta eragileen arteko harremana besteak beste aztertu ditugu. Ikerlan hau burutzeko 20 elkarrizketa hauek jorratu ditugu:

7. TAULA: Ikerlana burutzeko egin ditugun elkarrizketak

	ABIADURA HANDIKO TRENA	KOKE PLANTA
Proiektuaren alde dauden eragileak	<ul style="list-style-type: none"> Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio Saileko goi kargu ohia: TAE1 Eusko Jaurlaritzako Herri Lan eta Garraio Saileko goi kargu ohia: TAE2 Eusko Jaurlaritzako Herri Lan eta Garraio Saileko goi kargu ohia: TAE3 Udaletxeko goi kargua: TAE4 Eusko Kaurlaritzako Herri Lan eta Garraio saileko goi kargu ohia: TAE5 	<ul style="list-style-type: none"> Petronorrekoko goi kargua: KAE1 Muskizeko Udaletxeko goi kargua: KAE2 Petronorrekoko Enpresa batzordeko kidea: KAE3 Petronorrekoko goi kargua: KAE4 Muskizeko Udaletxeko zinegotzia: KAE5
Proiektuaren kontra dauden eragileak	<ul style="list-style-type: none"> Ekologista taldeko kidea: TKE1 AHT Gelditu plataformako kidea: TKE2 Udaletxeko zinegotzia: TKE3 AHTren Aurkako Asanbladako kidea: TKE4 .Sindikato bateko kidea: TKE5 	<ul style="list-style-type: none"> Muskizeko auzo elkarteko kidea: KKE1 Muskizeko Udaleko zinegotzia: KKE2 Kokeren Aurkako Koordinadorako kidea: KKE3 Meatzaldea Bizirik taldeko kidea: KKE4 Ekologista Taldeko kidea: KKE5

Iturria: Egileak berak egina.

Aldi berean lau prentsa kazetariekin elkarrizketa informalak eduki ditugu:

- Berria kazetako ingurumen gaiak jorratzen dituen kazetaria
- Gara kazetako ingurumen gaiak jorratzen dituen kazetaria
- Deia egunkariko kazetaria
- El Correo egunkariko kazetaria

Elkarrizketa hauek egitura gabekoak eta modu informalean gauzatu dira, hots, ez dira grabatu. Gure helburua, ikerlanean aztertutako gaien inguruko informazio osaketa betetzea izan da.

3.4.2. Bigarren mailako Iturrien azterketa

Bigarren mailako iturrien azterketa ikerlan honen atal teorikoaren oinarriak gauzatzeko eta ikerketaren alde aplikatua jorratzeko erabili ditugu. Liburu monografikoak, artikulu akademi-

koak eta material digitalen azterketan murgildu gara gatazken deskribapen sakona egiteko eta ondorio substantiboak lortzeko.

A. AZTERKETA HEMEROGRAFIKOA

Aldi berean eta arestian aipatu dugun moduan prentsa artikuluen azterketa sakona gauzatu dugu, hots, azterketa hemerografikoa. Lan hau burutzeko fitxa metodologiko baten lanketaz baliatu gara. Fitxa honen bidez ikertu ditugun sozio ingurumen gatazkek edukitako oihartzun mediatikoa neurtu nahi izan dugu, alegia, nolako izan den ingurumen politika ezberdinen tratamendu informatiboa.

Jakina denez, faktore askok eragiten du albiste baten irakurketa. gertakariaren gaia, edo zertaz den albiste, izan daiteke faktorerik nagusiena. Baina beste zenbait faktoreek ere eragiten dute (Zabaleta, 1997: 343), hala nola, eduki hori aurkezteko estiloa, titularrak, zein orrialdetan dagoen, eta abar.

Fitxa hau egiteko masa-komunikazioaren ikerkuntzan landutako dimentsioak kontutan eduki ditugu. Alde batetik McCombs eta Wolfek egindako hamar dimentsioen sailkapenean oinarritu gara eta bestetik Idoiaga eta Ramirez de la Piscina ikerlari eta irakasleek egindako «Prentsa eta Euskal Gatazka» ikerketa burutzeko erabilitako fitxa metodologikoa eduki dugu eredu (Idoiaga eta Ramirez de la Piscina, 2002:40).

8. TAULA: Egunkarien irakurketa eragiten duten ezaugarriak

1	ORRIALDEA	Zein orrialdetan dagoen kokatua.
2	FORMA	Albiste, erreportaia, iritzizkoa, zerrenda
3	ESANAHIA GEOGRAFIKOA	Lokala, erregionala, nazionala, nazioartekoa.
4	ITURRIA	Erredakzioa, berriagintzia
5	GAIA	Politika, ekonomia, Gizartea, Euskal Herria
6	TITULARRAREN LUZE ZABALERA	Titularrak hartutako zutabe-kopurua eta altuera.
7	ARGAZKIA ERAMATEA	Albisteak argazki edo grafikorik zeraman edo ez.
8	TESTUAREN TAMAINA	Hazbetetan neurtua.
9	ESPazio OSOA	Testu eta titularraz bete (eta baldin bada, argazkiaz).
10	ORRIALDEAREN KOADRANTEA	Orrian non dagoen kokatuta.

Iturria: Egileak berak egina, McCombs 1996 eta Wolf 1991 oinarrituta

Horrela, hau da sortu dugun fitxa metodologikoa:

9. TAULA: **Fitxa metodologikoa:**

KOKAPENA					
Zenbakia	Hedabidea			Data	
TITULARRA					
EGITURA: DIMENTSIOA					
Orrialde osoa			Orrialdearen ¾		
Orrialde ½			Orrialde ½ baino gutxiago		
EGITURA					
SAILAK Kultura Gizartea Iritzia Euskal Herria Mundua Politika					
PORTADAN BAI PORTADAN EZ EDITORIALIK BAI EDITORIALIK EZ					
PROTAGONISTAK Bigarren Mailakoa:					
Titularraren karakterizazioa		Positiboa	Negatiboa	Neutroa	
IRUDIA					
BAI			EZ		
Irudiaren karakterizazioa		Positiboa	Negatiboa	Neutroa	
ALBISTEAREN ATALAK					
ALBISTEAREN GENESIA					
Gertaera		Adierazpenak		Bestelakoak	
Protesta			Elkarrizketa		
BERRIAREN EKOIZPEN MODUA					
Kanpoko (Agentziak, komunikatuak,...)		Barnekoa (barne ekoizpena)		Mixtoa	
ITURRI INFORMATZAILEAK					
Identifikatua	Instituzioa(aipatu)	Lider politikoa (aipatu)	Eragile soziala	Aurkako mugimendua	Besteak (aipatu)
Identifikatu gabeak					
KEY WORDS/HITZ GAKOAK					
Adierazpen Edukigarriak					

Jarraian, ikerketan erabilitako fitxa analitikoaren azalpen metodologikoa egingo dugu, erabilitako sail desberdinen deskribapena eginez.

KOKAPENA

Atal honetan sozio ingurumen gatazka bakoitzean aukeratu ditugun 20 gertaera komunikatiboak identifikatzen ditugu, bai denboran (noiz jasotako berria den) bai espazioan (zein komunikabideetan agertu den). Aukeratutako momentu komunikatiboen denbora kokapenari dagokionez, kasu bakoitzean desberdina izan da, aukeratutako 20 momentuen garapen kronologikoa kasu bakoitzaren arabera moldatu delako.

Egunkarien hautaketa egiterakoan, hots, espazio komunikatiboak aukeratzeko, Hego Euskal Herriko prentsaren ezaugarriak aintzat hartu ditugu. Euskal prentsaren berezkotasunak (Idoiaga eta Ramirez de la Piscina, 2002:32-33) lau oinarri sendoetan funtsatzen da:

- 1. Estatuko irakurketa indizearen batezbestekoaren gaintik dezente gorago egoitea:**³¹ 180 ale saltzen dira mila biztanleko Hego Euskal Herrian eta 105 Espainian,
- 2. Bere izaera bipolarra:** Euskal herrian kazeta nazionalistak edo abertzaleak eta ez nazionalistak edota konstituzionalistak ditugu.
- 3. Agenda propioa egituratzeko egin duen apustu:** Dema hori Euskal Herriak dituen berezitasun historiko eta kulturaletan oinarritzen da. Euskal Herrian jendarteko iritzia ez da Espainian bezala egituratzen, beste modu batera baizik (Azpillaga et al., 2001:6)
- 4. Bere izaera elebiduna.**

Berezitasun hauek kontuan harturik, hauek izan dira ikerlana garatzeko erabili ditugun egunkariak:

10. TAULA. AZTERKETA HEMEROGRAFIKOA EGITEKO ERABILITAKO EGUNKARIAK

EGUNKARIA	BOTALDI TIPOA	TALDE EDITORIALA
El País	Estatu espainiar maila	Prisa
Berria	EAE eta Nafarroan	Euskal Herriko komunikabide elkartea
Gara	EAE eta Nafarroan	Euskal Herriko komunikabide elkartea
El Correo (Koke plantaren kasuan)	Bizkaia LHkoan	Vocento
Diario Vasco (AHTren kasuan)	Gipuzkoa	Vocento
Deia	Bizkaia	Grupo Noticias

Iturria: egileak berak egina

³¹ Gure eremu geografikoan eguneroko prentsa irakurleen ehunekoa handia da. CIS-en 2015eko datuen arabera Hego Euskal Herrian hamar pertsonetik zazpi prentsa ohiko irakurleak dira, estatu espainolean aldiz portzentajea ehuneko %50ean kokatzen da batez beste.(CIS 2015)

Aukeraketa hau burutzerakoan Hego Euskal Herriko prentsaren izaera bipolarra bermatu nahi izan dugu, hots, abertzale (Euskal Herriko komunikabide elkarte eta Grupo Noticias) eta konstituzionalista, (Vocento eta Prisa) diren talde editorialak hautatuz (Idoiaga eta Ramirez de la Piscina, 2002:89). Izaera elebidunari dagokionez, Hego Euskal Herrian euskara hutsez idazten den egunkari bakarraren azterketa gauzatzea nahitaezkoa iruditu zaigu, alegia, Berria egunkaria. Gara kazeta berezitasun honen barnean sartu daiteke ere, gure eremuan ofizialak diren bi hizkuntzak erabiltzen dituelako. Euskal Herrian agenda propioa egituratzeko egiten den hautua kontuan harturik, Espainiar Estatuko eremua kontuan duen egunkari bakarra erabili dugu gure ikerlanean.

TITULARRA

Titularrak albistearen aurkezpena dira, albistearen informazioaren alderik garrantzitsuena, egokiena edo bitxiena adierazten dute publikoaren interesa pizteko (Fontcuberta, 1993:117). Titularrak sekulako garrantzia du egunkari bateko berri batean; jendeak lehenengo titularrak irakurtzen du, eta hau erakargarria bada, informazioa irakurtzeari ekiten dio, «titularrak lehen maila informatiboa betetzen dute eta haien esku dago, besteak beste, irakurleak albistea edo/ eta egunkaria irakurtzen jarraitzea» (Gomez Mompart, 1982:9-10). Ikerketa anitzetan frogatu den legez, askotan titularrak da irakurleak irakurtzen duen gauza bakarra. Esateko, Stamm eta Jacouboovith-ek ikertzaileek egindako ikerlanen emaitzek baieztatu dute, irakurleek bi aldiz gehiago irakurtzen dituztela titularrak, testu-unitateak baino (Stamm eta Jacouboovich, 1980:237).

Beraz azterketa hemerografikoa egiteko derrigorrezkoa iruditu zaigu titularraren karakterizazioa aztertzea. Horretarako hiru kategoriatan banatu ditugu: positiboa, negatiboa eta neutroa. Sailkapen hau egiteko egunkariak emandako titularrak zer nolako kutsua ematen dion berriari aintzat hartu dugu. Adibidez, komunikabide bakoitzaren ildo ideologikoa kontuan edukita, desberdinak izango dira titularrak berrien protagonisten arabera (proiektuen aldeko edo kontrako aktoreak).

DIMENTSIOA

Atal honetan berriaren informazioari baino, honen egiturari egiten zaio erreferentzia. Hau da, zenbateko espazioa ematen zaion sozio-ingurumen gatazka konkretu horri buruzko berriari (orrialde osoa, orriaren hiru laurden, orri erdia edo erdia baino gutxiago). Honela, egunkariak ematen dion garrantzia neurtu daiteke; zenbat eta dimentsio handiago izan, orduan eta garrantzia informatibo handiagoa izango du berriak.

Egiturari dagokionez honela bereizi ditugu atalak:

SAILAK

Sozio ingurumen gatazkari buruzko berria egunkarian non kokatua dagoen aztertzea eduki dugu helburu atal honetan, hots, zein sekziotan agertzen den (Kultura, Gizartea, Iritzia, Euskal

Herria, Politika). Horrela, egunkariaren estrategia informatiboaren analisirako esanguratsua den datu enpirikoa lortuko dugu, hau da, albistea politika sailean edo gizarte sailean kokatzeak esanahi desberdina du ikerlanaren azterketari begira.

PORTADA

Autore desberdinek azaltzen duten moduan (Tuchman, 1976; Gans, 1980; Fontcuberta eta Borrat, 2006) egunkariaren portada espazio informatibo nabarmendua da bertan aukeraketa eta hierarkizazio irizpideak argitasunez irudikatzen direlako. Zalantzarik gabe portada edukien aukeraketa, egunkari bateko eguneko kudeaketan apustu estrategiko nabarmena da. Garrantzi informatzaile handienak portadak erakartzerakoan, bere analisia derrigorrezkoa da azterketa hemerografikoa burutzeko. Beraz garrantzitsua da jakitea ikertutako momentu komunikatiboetan, zenbatetan agertu den sozio ingurumen gatazkari buruzko berria portadan, honela agenda politikoan duen garrantziaren berri izango dugu eta.

EDITORIALA

Dakigunez editorialak egunkariak bere jarrera politiko ideologikoa markatzeko erabiltzen dituzten tresna nagusia dira. Interpretazio eta balorazioaren bitartez gaurkotasunerako garrantzi berezia duen gai baten inguruan egunkariak duen iritzia adierazten duen kazetaritza generoa baita (Moreno, 2002:231). Hortaz albistearen interpretazioaren inguruan kazetak ematen duen iritzi zilegiarena izango litzateke.

Iritzi hau bi hartzaile desberdinei bideratuta dago. Batetik editorialak egunkaria irakurtzen duen irakurlegoari zuzentzen den mezua da, agintariak edo gizarte bizitzan eragina duten talde desberdinek egin dutena onartuz edo gaitzestuz eta zergatik ona edo txarra den azalduz (Gomis, 1988:18-19). Bestetik, editorialak formalki iritzi publikora zuzenduta badaude ere, funtsean Estaturekiko elkarrizketa harremana da. Kazetaritza erakundeek Estatuaren aparatu burokratiko buruei afera publikoak nola gustatuko litzaieken bideratzea esaten ahalegintzen dira edoterialen bidez (Marques de Melo, 1985:123).

Guzti hau kontutan edukita analisi hemerografikoan egunkariak berak sozio-ingurumen gatazkari buruzko hausnarketa egiten duen aztertu dugu, hau da, horren inguruan editorializatzen duen edo ez eta hau ikertutako ingurumen politikei buruzko estrategia informatibo-ideologikoa identifikatzeko baliagarria izan da.

PROTAGONISTAK

Azterketa hemerografikoa burutzeko albistea osatzen duten protagonistak eta bigarren mailako eragileak identifikatzea oso garrantzitsua iruditu zaigu. Modu honetan berria egiterakoan aztertutako sozio-ingurumen gatazkan parte hartzen duten eragileen presentzia neurtu dezakegulako.

IRUDIA

Gaur egun irudiaren garrantzia albisteetan paper protagonista lortu du. Norbert K pfer (1991:109-120) ikerlariak egindako ikerlanean argudio enpirikoak aurkitzen ditugu baieztapen hau frogatzeko. Batetik irudiak daukaten albisteak maiztasun handiagorekin irakurtzen dira eta bestetik aditze, ulermen eta memorizazioa askoz handiagoa da irudiarena testuarena baino.

«En la mayor a de los casos, el lector comienza a captar informaci n por una foto de gran superficie o por un titular (...) las ilustraciones se observan considerablemente m s que los textos (...) las im genes se pueden captar, entender y memorizar con una rapidez mucho mayor (...) las im genes fueron consideradas por m s del 80% de los lectores (...) los art culos con ilustraciones se lee mucho m s frecuentemente que los art culos sin  stas» (K pfer, 1991:113)

Hortaz albisteengan duen garrantzia agerikoa izanik, irudiaren karakterizazioari ere erreparatu diogu, positiboa, negatiboa eta neutro bezala sailkatuz.

ALBISTEAREN GENESIA ETA ELABORAZIOA

Atal honetan albistearen nondik norakoa ikertzea dugu helburu. Hau da, teknikoki nola identifikatzen den berria (gertaera batean oinarritzen da, protesta baten berri ematen du, adierazpen batzuk ditu hizpide, elkarrizketa formatoa dauka). Honela adibidez, ikertutako proiektuen kontrako protesta ekintzek zenbateko inpaktu mediatikoa daukaten neurtu dezakegu. Atal honen azterketaren bitartez komunikabideen informazioen abiapuntua non dagoen analizatu dugu.

Honekin batera, berria non eginda dagoen ere aztertzen dugu; hau da, egunkariak berak ekoizten duen emandako informazioa edo kanpoko agentzietatik hartutako informazioa den bereizteko balio digu.

ITURRI INFORMATIBOAK

Kazetaritza lan prozesuan iturri informatiboen kudeaketak funtzio zentrala betetzen du. Kazetari ekoizpen eta aukeraketa prozesuan iturri informatiboak oinarritzko osagaiak dira estaldura informatiboaren edukiak eta fokuratzeak modu erabakigarrian baldintzatzeko gai direlako (Casero eta Lopez, 2012:2) Iturri informatiboak diskurtso mediatikoren funtsezko elementuak bilakatzen dira, edukiak zehazteko eta estaldura informatiboaren joera tematikoa bideratzeko ahalmena dutelako. Beraz iturri informatiboen analisisa funtsezkoa da hedabideek errealitate soziala eraikitzeo duten kompetentzia mediatikoa aztertzeo.

Gure ikerlanean lau iturri desberdin identifikatu ditugu: eragile instituzionalak, aktore politikoak, eragile sozialak eta kontrako mugimenduak. Azaldutakoaren arabera informazio bat ematerakoan berebiziko garrantzia du zein aktoreen hitzak hartu diren kontuan eta zeintzuenak ez.

KEY WORDS

Atal honetan sozio ingurumen gatazkari buruzko albistean kazetariak berak azpimarratutako hitz edo esaldiak, edota erabili dituen hitz esanguratsuak identifikatzea dugu helburu. Honela, egunkari bakoitzak sozio-ingurumen gatazkaren zein aspektu edo aktoreri ematen dion garrantzi gehien aztertu ahal izan dugu; izan ere, komunikabidearen ildo editorialaren arabera hitz konkretu batzuk gehiago agertuko dira, edo zenbait aspektu azpimarratuko dira informazioa ematerako orduan.

3.4.3. Soziogramak

Ikerlanean erabilitako beste tresna metodologikoa soziogramak izan dira. Datuen analisirako teknika honen bitartez eragileen artean sortzen diren dinamiken deskribapen grafiko eta estatikoak lortzen dira. Modu honetan momentu historiko batean gatazkan parte hartzen duten eragileen arteko harremana aurkezten dute. Gure ikerlanean burutu dugun kasu azterketetan tresna baliogarria izan da, aztertutako kasuetan aktoreen arteko loturen analisi deskriptiboa burutu dugulako.

Landutako gaiaren arabera bi soziograma eredu desberdin sortu daitezke:

1. **Soziograma egozentrikoa:** talde edo eragile bat ardatza denean.
2. **Soziograma sozio-zentriko tematikoa:** gai soziala ardatza denean.

Gure ikerketarako soziograma sozio-zentriko tematikoa erabili dugu grafiko honen muina sozio-ingurumen gatazka bera delako. Horrela, alde batetik sozio-ingurumen gatazkaren aurrean garatutako jarrera kontuan izan dugu, abszisen ardatzean eta bestetik talde motari erreferentzia egin diogu, ordenatuen ardatzean. Hauek izan dira erabili ditugun argibideak:

- **Gatazkaren aurrean hartutako jarrera:** proiektua egitearen aldeko jarrera; jarrera diferentea, alegia, proiektuarekiko interesa bai baina inplikazio konkreturik ez duten taldeak; jarrera arrotza duenak, hots, proiektuarekiko jarrera pasiboa azaltzen dutenak, eta kontrako jarrera dutenak, hau da, proiektua gauzatzearen kontra azaltzen diren eragileak.
- **Talde mota:** talde instituzionala, alderdi politikoak, herri plataformak, mugimendu sozialak eta bestelako taldeak.

Soziogramaren analisiarekin lortu nahi duguna zera da: alde batetik gatazkaren unerik adierazgarritariko aktore-jarrera eta harremanen argazki estatikoa ateratzea eta bestetik gatazkan sortu diren eragile koalizioen identifikazioa egitea. Modu honetan gatazka prozesuen garapenaren ulermena ahalbideratu dugu.

4. Azterketa kasuen garapena

«Informazio bideragarririk gabe, ez dago demokrazia arduratsurik»
Florentziako Foro Soziala

4.1. Abiadura Handiko Trenaren Proiektua Euskal Herrian: Euskal Y-aren sozio-ingurumen gatazka

«Kapitalismoa abiaduraz elikatzen da»
(Susan Hanson, 2000:495)

«Cuando hablamos de transporte, no cabe duda de que la prisa se transforma directamente en insostenibilidad ecológica».
(Riechmann, 2003:28)

Abiadura handiko trenaren sozio-ingurumen gatazkaren azterketa kasua burutzeko, (AHT laburdura erabiliko dugu ere bai) lehenengo eta behin azpiegitura mega-erraldioen³² ezaugarriak azalduko ditugu. Sarrera gisa erabiliko dugun kokapen orokor honen ondoren, Euskal Herri osoan garatzen ari den proiektu honen analisi deskriptiboaren lanketari ekingo diogu. Izan ere, kokapen geografikoa, proiektuaren deskribapena eta kokapen historikoa jorratuko dugu, AHT Euskal

³² Mega-Erraldoiak kontzeptua erabiltzerakoan Flyvberg-ek (2014:6) lantzen duen definizioari egiten diogu erreferentzia: «Orokorrean «megaproiektuak» milaka milioien arabera neurtzen dira, «proiektu handiak» ehunka milioien arabera eta «proiektuak» milioi edo dozenaka miloi dolar».

Herriko hiru herrialde desberdinetan nola gauzatu den aztertze. Deskribapen analitikoarekin bukatzeko sozio-ingurumen gatazka honetan parte hartu duten eragileak eta beraien arteko harremanak landuko ditugu. Aurrerago azalduko dugun moduan, zehazki Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sare berria, Euskal Y-a edo Gasteiz-Bilbo-Donostia Linea, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuak batuko dituen abiadura handiko tren (AHT) sarea izango dugu ikergai. Horretarako aktoreen identifikazioa eta harremanak azaldu ondoren, analisi enpirikoan murgilduko gara. Azterketa hau garatzeko hiru esparru landuko ditugu: definizio konpartiturik dagoen edo ez aztertzea eta eztabaida-eremu publikoaren eta diskurtsoen analisia.

4.1.1. Azpiegitura mega-erraldioak eta AHT

Abiadura Handiko Trenaren proiektua ulertzeko, azpiegitura haundi hauen ezaugarriei erreparatu behar diegu. Azpiegitura klase hauek bereizten duten oinarritzko nolakotasuna aurrekontuekin zerikusia dauka, oso aurrekontu altuak behar baitute lanak burutzeko. Eraikuntza mota hauen tamaina handia izanik, denbora-aldi luzeetan eraikitzen dira eta aktore publiko eta pribatu askoren parte-hartzea suposatzen dute. Gainera halako proiektuek arrisku handiagoak eta konplexutasun maila altuagoak dituzte, bai teknologiko eta juridikoki eta bai ingurumenari dagokionez ere (Abedrapo, 2011:3; Flyvberg, 2014:6). Egoera honek tentsio instituzional garrantzitsuak sortzen ditu eta kasu askotan, erresistentzia soziala eta herritarren eta komunitateen oposizioa sortzen da (Burballa eta Temper, 2014:63).

Abiadura Handiko Trenaren kasuan inoiz Euskal Herrian eraiki den azpiegitura-lanik erraldoiena da. Hego Euskal Herrian bi eremutan zatitua dago: Euskal Autonomi Erkidegoan Euskal Y gisa ezagutzen den linea, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuak batzen dituen eta Nafarroako eremuan Abiadura Handiko Nafar korridorea, Aragoi eta Euskal Y-rekin lotura duena. Euskal Herriko Iparraldean aldiz, Lapurdiko lurraldean kokatuta dago proiektua, Hendaiatik Bordelera, alegia. EAEn diseinatu zutenetik 20 urte baino gehiago eta lanak hasi zirenetik 11 urte igaro dira, Nafarroan 2011.urtean hasi ziren obrak eta Lapurdin, ondoren azalduko dugun moduan, lanak ez dute hasierarik eduki.

Parte hartzaileei dagokionez instituzio publikoen artean, Europar Batasuna, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Foru Erkidegoko gobernua, Estatu Espainiarra (Sustapen Ministerioa), Trenbide-Azpiegitura Administrazioa ADIF (Espainiako Sustapen-Ministerioaren mendeko enpresa-entitate publikoa), RENFE eta ETS (Euskal Trenbide Sarea Eusko Jaurlaritzak 2004an sortu zuen Erakunde Publikoa), Frantziar Estatuko gobernua, RFF (Reseau Ferré de France, Frantziako Sare Trenbidea) eta SNFC (Frantziako Trenbideko Nazio-Sozietatea) aipatu behar ditugu. Eragile pribatuen kasuan, lanak esleitutako enpresak ditugu, besteak beste, Saitec, Sacyr, Construcciones Amenábar, Acciona Infraestructuras, Construcciones Moyúa, Construcciones y Promociones Balzola, Azvi S.A, Tecsá Empresa Constructora eta Altuna y Uria enpresak.

Euskal Herrian egin den garraio azpiegitura garestiena da, esate baterako, EAEn 10.000 miloi euroko inbertsioa suposatuko du (Antigüedad, 2016:5). Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza

Sailaren 33 urterako aurrekontua, edota Hezkuntza Sailaren 50 urterakoa, alegia. Nafarroako eremuan, linea berri honen eraikuntzarako aurreikusitako gastua 4.470 milioi euroetara heldu daiteke³³, Euskal Y-ekiko konexioa Ezkio-Itsaso-n, Gipuzkoa-n, egiten bada eta 3.470 milioi euro, Euskal Y-ekiko konexioa Gasteizen egingo balitz (Sustrai Erakuntza Fundazioa, 2016). Gaur egun arte Nafarroan egindako gastua ez da aurrez ikusitako guztizkoaren gaineko % 2tara iristen. Euskal Herriko Iparraldetik joaten den Bordele-Hendaia lineak 1200 milioi euroko gastua edukiko luke (CADE, 2016).

Ingurumen arrisku eta inpaktuak, aurrerago azalduko dugun moduan, anitzak izango dira: Euskal Y-aren kasuan, lurren okupazioa (400 Ha³⁴ baino gehiago trenbidearen plantak soilik), deserregulazio hidrológicoa (31 Km akuiferoren suntsiketa), energia kontsumoaren biderketzea (tren arruntak baino 6 bider gehiago kontsumitzen du), hondakinentzako hainbat zabor-tegiren sorrera (15.000 metro kubiko hondakin sortuko da Km bakoitzeko), balio ekologiko handiko ekosistemen kaltetzea (Aralar eta Udalaiz natur gune babestuen kaltetzea) eta Hego Euskal Herrian katalogatutako 12.500 landare eta animalia espezieri kalte zuzenak (AHT gelditu! Elkarlana, 2007).

Tentsio instituzionalei eta proiektuaren oposizioari dagokionez, AHTk kontrako jarrera instituzionala azaldu duten instituzio lokal anitzen oposizioa eduki du —Elorrio, Arrasate, Urretxu, Biriatu, Urruña, Azkaine... (ikusi 4.1.2 D atala)—, tokian tokiko oposizio lokalaz gain. Erresistentzia soziala, herritar taldeen oposizioa, AHT Gelditu Elkarlana, AHTaren kontrako Asanblada, Tren Sozialaren Sarea, Nafarroan Sustrai Erakuntza fundazioa eta Iparraldean CADE taldeetan egituratu da.

Ildo honetatik «Halabeharrezko eta Inposatutako mega proiektuen kontrako» erresistentzia transnationaleko plataformetako sare baten sorrera (Martínez-Alier et al. 2014; Ariemma eta Burnside-Lawry, 2014) gaur eguneko azpiegitura handien kontrako taldeek lokal/eskualde eskala hedatzeko saiakeraren erakusgarria da. Erresistentzia mota hauek modu desberdinetan identifikatu dira literaturan, adibidez prozesu neoliberalen aurkako erresistentziak (Robert, 2014), desjabetzearen bidezko pilaketa (Harvey, 2003) edo ingurumen-justizia globaleko agendaren parte gisa (Martínez-Alier et al., 2014).

Kontrako mugimendu hauen sorrera lotura zuzena dauka azken hamarkadan azpiegitura estrategikoen garapen prozesuetan ematen diren oztopo eta ahultasun nagusiak deskribatzen dituzten ebidentzia enpiriko kopuru adierazgarriaren bilketarekin. Esaterako Flyverg-en lanean (Flyvbjerg, 2014; Flyvbjerg et al., 2003) edo Altshuler eta Luberoff-ek (2003) errenta bilaketa

33 Nafarroako Gobernuaren web-orriaren arabera (2017ko otsailaren 4-ean kontsultatuta, baina 2010etik ez eguneratutako informazioarekin), Abiadura Handiko Korridore Nafarra, Zaragoza (Mugarri-Plasencia) eta Euskal Y artekoa, 1.842,5 milioi euroko erabateko inbertsioa suposatuko du. Baina 2013ko maiatzaren 29an Espainiako Sustapen Ministroak, Ana Pastor-ek, Diputatuen Kongresuan aitortzen zuen Nafarroan abiadura handiko eraikuntzarako, 2004arte egindako ikerketetan, aurreikusitako aurrekontua 3.853 milioi eurokoa zela, ikusi Kongresuko saioren egunkariaren 29.orr, hemen: http://www.congreso.es/public_oficiales/L10/CONG/DS/PL/DSCD-10-PL-116.PDF (kontsulta: 2017-02-04). 2013ko udaberriari aurreikuspen berriak egiten dira, hain zuzen aipatzen ditugunak, ikusi Luis Zarraluqui, garai horretako sustapeneko sailburu nafarraren adierazpenak hemen (kontsulta: 2017/02/04): http://www.diariodenavarra.es/noticias/navarra/mas_navarra/2013/06/07/zarraluqui_reconoce_que_tav_quot_una_carrera_largo_plazo_quot_120129_2061.html

34 Erreferentzi gisa, Ha 1 futbol-zelai baten baliokide da, bere harmailak barne.

portaera, kostuen azpi kalkulua, eskariaren gain kalkulua, erabaki-hartze prozesu baztertzai-leak eta hutsune sozialak eta ingurumen inpaktuak aipatzen dituzte. Hala ere, emaitza lazgarriak eta erresistentziak sortzen badira ere, egun, munduko edozein tokitan topatu gaitzke azpiegitura mota hauekin eta horien ondorioekin (Aguilera Klink, 2006: 153). Horixe bera azaltzen dute Flyvbjerg et al.-ek *Megaprojects and risk*, ikerlanean «nahiz eta gero eta azpiegitura gehiago ezarri diren munduaren zehar, gero eta argiago dago azpiegitura honen eraginak ez direla islatzen ekonomia hobeko batean, edota ingurumen kalitate hobekoan eta horrek herriarren azpiegiturakiko babesa lortzea zailtzen du» (Flyvbjerg et al., 2003: 6).

Azpiegitura mota hauetan garatzen den fenomeno hau, garraio azpiegitura handien proiektuetan agerikoa izaten ari da. Autore desberdinek frogatu dutenaren arabera Estatu Espainiarreko Abiadura Handiko Trenen linea bakar bat ere ez da sozialki errentagarria (Albalade et al., 2015; de Rus, 2011; Betancor et al., 2015) eta erkidego zientifiko kritikoa bat dator horrekin, (Bermejo et al., 2016:12). ADIFeko presidentek berak berretsi du (ABC, 2014/10/09): «Irudimen asko bota behar da bere sozietate publikoak burututako inbertsioek, zergadunek merezi duten produktibitatea izan dezaten. Ez dauka zentzurik 24 milioi bidaiariren (gaurko eskaria) AHT bat. Ez du zentzurik eta ez da iraunkorra». Estatu Frantziarrean diagnostiko berbera egin zuten 2013.urtean eta ondorioz, aurreikusita zeuden hainbat Abiadura Handiko Trenen garapena 2030 urtera arte atzeratzea erabaki zuten. Hauen artean Bordele Hendaia linea, Euskal Y-ren ibilbidearen konexioarekin elkartu behar zena. Jean-Marc Ayrault momentu horretan Estatu Frantziarreko lehen ministroak adierazpen hauek egiten zituen: «El anterior gobierno conservador dijo una mentira al haber dado a entender que se podrían hacer inversiones de más de 250.000 millones en los próximos 20 años. Es irreal técnica y financieramente» (El País, 2013/06/27).

Politiko frantsesaren adierazpenetan agerian agertzen dira Abiadura Handiko Tren proiektua zalantzan jartzeko dauden arrazoi ekonomiko, tekniko, politiko eta sozialak. Frantziako administrazioak kontutan eduki ditu eta azpiegitura honen eraikuntza aurrera eramateko planak geldiaraztea erabaki du.


4.1.2. AHT: Sozio-ingurumen gatazkaren deskribapen analitikoa

A. KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Euskal Herriari dagokionez, inoiz pentsatutako azpiegitura planik handiena litzateke pertsonak eta merkantziak garraiatzeko sortu nahi den abiadura handiko trenbide sare hau. Izan ere, administrazio desberdinek abiadura handiko lerroetan 426 kilometro eraikitzea aurreikusten dute 25 metro inguruko zabalera duten plataformaren bidez. Hiru Lurralde Historikoetatik pasatuko den trenbide sareak honako ibilbidea izanen du:

1. IRUDIA: Abiadura Handiko Trenaren egitasmoa Euskal Herrian

↓ **AHT eta hiriburuak**



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu, ADIF, RFF(Sakanako AHT gelditu Elkarlana :2013-12-13)

Horietatik 194 km. Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sare berriari dagozkio, hots, bere itxuragatik «Euskal Y» bezala ezaguna den ibilbideari. Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sare berriak, lurralde honetako hiru hiriburuak batuko dituen Abiadura Handiko Tren (AHT) sarea da, Gasteiz-Bilbo-Donostia linea, alegia.

Abiadura Handiko Nafar Korridoreak 214 km-ko luzera dauka eta lau zatitan banatuta dago (Nafarroako Gobernu, Garapen Ekonomikorako Lehendakariordetza,2017). Aragoitik Nafarroara doan Plasencia de Jalón-Castejon tartea, (82, 3 Km. horietatik 45,0 Km. Nafarroako eremuan), Castejon-Iruñerria eremua (65,2 Km), Iruñerria (24,0 km. horietatik 12,5 km. Iruñeko Trenbide-Kiribilaren ezabapenari eta geltoki berriari egokitzen zaio) eta Iruñerria-«Euskal Y»a lotuko duen zatia. Luzaroan zehazteke egon den tartea izan da, baina 2013an oraingo trenbidearen ibilbidea mantentzea erabaki zuen Nafarroako Gobernuak, Europako zabalera duten trenak ibili ahal izateko errei bat erantsita (Argia, 2013.05.13).

Beste 70 km. Lapurditik barrena igaroko litzatekeen Dax eta Behobia arteko abiadura handiko lerro berriari dagokio, Hendaia-Bordele zatia, alegia.

B. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Abiadura Handiko Trena Japonian jatorria duen garraio mota bat da, hiri handiak hegazkinarekin lehiakorrak diren denboretan lotzeko pentsatuta dagoena. Azpiegitura mota hauek distantziaren eta denboraren ideia klasikoaren birplanteamendua behartzen dute Flivbjerg et al., -ek azaltzen duten moduan «distantzien hilketa» (Flivbjerg et al., 2003:1) suposatzen baitute. Izan ere, abiadura handiko egiturek hori bera bilatzen dute, hots, distantziaren eta denboraren ideia klasikoaren hilketa. Horrela «zero-friction society» kontzeptua, «distantziaren politika, distantzia beraren ezabatzea», gero eta gehiago erabili dezakegun terminoa da, hots, gizaki garaikideen helburuetako bat egitura erraldoien bidez espazioarekiko independente izatea da, hortaz, distantziaren marruskadura indarrarekin bukatzean datza. Distantziaren erailtze horrek garatzen duen eszenatokiari marruskadura zero sozietatea deitu ahal diogu (Flyvbjerg, 2003:2-3). Europako hiri nagusiak AHTen bidez elkartzeko diseinuari Europako metroa izendatzea honen adibide izan daiteke. Juan Jose Ibarretxe Jaurlearitzako lehendakari ohiaren hitzetan esaterako: «Obra bat baino gehiago da abiadura handiko trenna, etorkizunari aurre egiteko ezinbesteko ilusioa da, Euskadi Europako metroarekin lotuko duena» (Petxarroman, 2011:41).

Euskal Trenbide Sare berria Europaz haraindiko «Oporto-Madril-Gasteiz-Dax-París-Lille garraio esparruko hirugarren proiektuaren barruan dago. 1994ko abenduan Europar Batasunak Essengo Goi bileran Europar Batasunak mugaz gaindiko trenbide-loturen defizitak aztertu, eta lehenetsi beharreko 14 proiektu finkatu zituen. Gailur horretan onartutako hamalau proiektuetatik 8 trenbide azpiegitura berriak eraikitzeke dira (CE, 2005).

XX. mendearen bukaeratik Europako garraio-politikaren baitan bidaiarientzako abiadura handiko trenbide-sare europarra osatzen ari zen (TRE-T) bi ardatzetan oinarrituta: hazkunde ekonomikoa bultzatzea, barne merkatuaren garapena sustatzeak eraginda, eta Estatu kideen lurralde, gizarte eta ekonomia arloko kohesioa lortzea (Bermejo eta Hoyos, 2016:9).

«Europako garraio sareak (RTE-T) barne merkatuak behar dituen azpiegiturak osatu nahi ditu arintasunez jarduteko, eta Lisboako Agendak hazkundeaz eta enpleguaz ezarritako helburuak erdiesteko. Gainera, horrek irisgarritasuna hobetzen lagunduko du, eta lagungarria izango da, halaber, ekonomia, gizarte eta lurralde arloko kohesioa bultzatzeko (...).Horrez gain, ingurumen-babesaren eskakizunak aurreikusten ditu» (CE,Liburu Berdea, 2009)

Hortaz, Eusko Jaurlearitzak azaltzen duenaren arabera (EJ, 2010:20), daukan posizio geostrategiko eta mugaz gaindikoagatik, Euskal Y-a kate-maila oinarritzko eta funtsezkoetako bat dugu Europako garraio-politika honen barnean. Euskal trenbide-sare berriak, bi arrazoirenga-

tik dauka lehenetasuna: izaera mistoa duelako eta mugaz gaindiko garraiorako izango delako. Horregaitik Eusko Jaurlaritzaren aburuz, «Euskal trenbide-sare berria, Y-a funtsezkoa da europarentzat eta euskaldunontzat» (EJ, 2010:21).

Baina Bermejo eta Hoyos ekonomisten ustez (2016:20) «ebidentzia zientifikoak erakusten du gezurra direla abiadura handiko trenbide-sare europarraren sorrera eragin zuten premisak, hau da, hazkunde ekonomikoa bultzatzea; lurralde, gizarte eta ekonomia arloko kohesioa; eta iraunkortasuna». Ikerlari hauek literatura zientifikoan ematen den adostasun maila handia aipatzen dute adieraziz, herrialde industrializatueta garraio-azpiegiturako sare berrietan egiten diren inbertsioek oso ekarpen txikia egiten diotela hazkundeari eta enplegua sortzeari, jada sare zabalak dituztelako (SACTRA, 1994; 1999). Eta Europako Ingurumen Agentziari egiten diote erreferentzia, trenbide sare honek garraio-sistemaren iraunkortasunari egiten dion ekarpena zalantzan jartzeko:

«Mugikortasuna garraio merkeago eta azkarrago baten bidez elikatzea egungo hiri-sakabanaketaren prozesuaren indar eragilerik handienetakoa da, eta horrez gain, horren ondorioz, sistema ekonomikoa eta soziala garraioari lotuagoa dago, zeren ahalegin handiagoak behar baitira, osasunean eta ingurumenean sortzen diren eragin kaltegarriak eragozteko edo murrizteko» (EEA, 2007)

Abiadura handiko trenbide mota honek gehieneko eta gutxieneko abiadura orduko 230 kilometro pertsonen garraioarentzat eta orduko 90 kilometrokoa merkantzientzat izanen da hurrenez hurren (EJ, 2010:12). Europako abiadura handiko trenen eredueta jarraitzen den abiadura litzateke, Nafarroako Gobernuaren Garapen Ekonomikoko presidenteordea, Manu Ayerdiaren hitzetan: «Vamos a ese concepto de estándares europeos, con velocidades de 200-230 km/h para pasajeros y de 80-100 km/h para mercancías» (Diario de Navarra 2017/02/01).

AHT-a ez denez ohiko tren bat ezin zaio tokiko orografiari egokitu, mendi-ibarrak egokitu behar zaizkio trenari eta horren ondorioa argia da: tunel eta zubibide asko beharko dira. Orotara 121 tunel egingo dira (144 km) eta 113 zubibide. Beraz azpiegitura honek 2.500 bat hektarea lur hartuko ditu (trenbide eta hondakinak kontutan edukita) 4.200 futbol zelai bezainbeste (AHT gelditu! elkarlana, 2007) eta haietako gehienak nekazaritza lurak eta basoak izango dira. Lur mugimenduen bolumenta ere nabarmena izango da. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Euskal Y-ak ibilbide erdia baino gehiago lur barnetik egingo du, alegia, 104, 3 kilometro egingo ditu lurpean, 80 tunel, ibilbide osoaren %60,6. Eusko Jaurlaritzaren arabera horrek ingurumenean gutxiago eragiten du, espazio gutxiago okupatzen duelako (EJ, 2010:12). Baina Araba, Bizkai eta Gipuzkoan azken 20 urteotan azpiegituren eraikuntzetan mugitu den lur kopuru adina astinduko dute. Tunel kilometro bakoitzeko 200.000 metro kubiko hondakin sortzen da (berez 100.000 metro kubiko material ateratzen da, baina trinkotasuna galtzean bikoiztu egiten du bere bolumenta). Orotara 25 milioi metro kubo hondakin sortuko dira Hego Euskal Herrian eta arazoa kudeatzeko Euskadin 64 zabortegi aurreikusten dituzte. Guzti hau aurrera eramateko

porlan eta harri kopuru handia behar da, Euskal Y-a egiteko 6,8 milio tona porlan beharko dute, esaterako (Petxarroman, 2011:46-47).

Hegazkinarekin lehiatzeko sortutako garraioidea izanik tren arruntak baino 6 bider energia gehiago kontsumitzen du. Izan ere, abiadura handitzeak, kontsumo energetikoaren hazkunde esponenziala dakar. Ikerketa desberdinek frogatu duten moduan (Kemp, 2004), 225 kilometro orduko abiadura hartzen denean bidaiari bakoitzeko kontsumo energetikoa hegazkin edo automobil moderno baten parekoa da. Hortaz AHT-ak gehienezko igorpen sortzailea gisa bigarren lekua hartzen du, hegazkinaren atzetik, gainerako garraioideetatik urrunduz, «de hecho, el AVE presenta una emisión por plaza ofrecida que es sólo un 20 por ciento menor a la del avión» (Estevan, 2005:77).

Eusko Jaurlaritzak aldiz, bestelako datu batzuk erabiltzen ditu azpiegitura honen eraikuntza defendatzeko. Beraien arabera, azken belaunaldiko trenak hegazkinak baino 15 aldiz gutxiago kontsumitzen dute bidaiari eta kilometroko; automobilak baino 8 aldiz gutxiago, eta autobusak baino 3 aldiz gutxiago. Azpiegitura hau eraikita, egunean 425 tona CO₂ gutxiago isuriko da, eta karbono monoxidoa, sufre dioxidoa eta antzeko beste batzuk % 0-80 artean gutxituko dira, 27.000 litro erregai gutxiago erabiltzearen ondorioz (EJ, 2010:15). Honen harira berriki Bueno, Capellan Perez eta Hoyos ikertzaileek Euskal Y-aren proiektuaren gainean egindako azterketak frogatzen dute, baita bidaiari eta salgaien eskari mistoko agertoki baikorretan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriak ez lituzkeela konpentsatuko eraikuntzari loturiko kargak 55 urte igaro baino lehen, energia kontsumoari dagokionez, ezta 100 urte igarota ere, CO₂ isurketei dagokienez (Bueno et al., 2016:31-44).

Emaitza horiek bat datoz egin diren antzeko beste analisi batzuekin (Åkerman, 2011; Chester eta Horvath, 2010), hortaz, ikertzaile hauen aburuz, azpiegitura horrek ez lituzke inoiz konpentsatuko eraikuntzaren berotegi-efektuko gas isurketak, ezta energia-kontsumoa ere, European eta EAEn klima-aldaketaren aurka borrokatzeko politiketan proposatutako denboraldietan. Horren ondorioz, «berotegi-efektuko isurketak murriztea eta energia aurrezte ez daitezke argudiotzat erabili Euskal Y-a eraiki eta abian jartzearen alde» (Bueno et al., 2016:44).

Abiadura Handiko Trenen zirkulazioak, bere abiadura dela eta, zarata eta dardara maila altuak sortzen ditu, hots, eragin akustikoa izango du igarotzen dituen herrietan. Euskal Y-aren proiektuaren arabera AHT-ak 79 eta 94 dezibelio arteko zaratak sortuko ditu eta Espainiako Sustapen Ministerioak berak 70 dezibelio jotzen ditu onargarritzat (Petxarroman, 2011:48). Eusko jaurlaritzaren aburuz abiadura handiko trenak 30 dezibel igortzen ditu 35 distantzia-metro-tara (EJ, 2012). Baina esaterako, frantziar abiadura handiko trenak 84 dezibelio igortzen ditu 200 km orduko abiaduran eta 91 dezibelio 300 km orduko abiaduran (Van Wee et al., hemen, Guillamón 2009:82).

Lau geltoki nagusi edukiko ditu AHT-ak, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean hain zuzen (EJ, 2016; Nafarroako Gobernua, 2016). AHT Gelditu Elkarlanaren arabera (2007) Euskal Herriko 683 udalerrietatik %17 zeharkatuko ditu, eragin zuzena sortzen: Gipuzkoako udalerrien %40; Lapurdikoen %32; Bizkaikoen %15; Nafarroakoen %15; eta Arabakoen %6.

11. TAULA: **Abiadura Handiko Trenaren datuak Euskal Herrian**

	EUSKAL Y	NAFARROAKO KORRIDOREA	LAPURDI	OROTARA
IBILBIDEAREN LUZERA	194 Km	190 Km (Gipuzkoan "Euskal Y"-arekin lotura barne).	42 Km (1992ko aurre-ikerketak).	426 kilometro
KILOMETROAK GAINAZALEAN	73Km; ibilbidearen %37,6.	143,5 Km; ibilbidearen %75,5.	35,5 Km; ibilbidearen %84,5	278 Km.
KILOMETROAK TUNELEAN	104 Km, 80 tunel.	37 Km, 26 tunel («Euskal Y»arekin lotune alternatibo ezberdinak barne).	3 Km, 4 tunel (1992ko aurre-ikerketak).	144 Km, 121 tunel.
KILOMETROAK ZUBIBIDEETAN	17 Km, 71 biaduktu.	9'5Km, 36 zubibide («Euskal Y»arekin lotune alternatibo ezberdinak barne).	3'5 Km, 6 zubibide (1992ko aurre-ikerketak).	30 Km, 113 zubibide.
LUR OKUPAZIOA	671 hektarea eta hondakindegiek beste 518 hektarea	750 hektarea eta hondakindegiek beste 150 hektarea	Kilometro bakoitzeko 9 hektareako aurreikuspena. Orotara beraz, 319,5 hektarea.	2.500 hektarea (trazatua eta hondakindegia)
LUR MUGIMENDUAK	33 milioi m ³ .	35 milioi m ³ .	---	---
HONDAKINEN KOPURUA	16 milioi metro ³ .	9 milioi metro ³ .	---	---
ZUZENEAN ERAGIN UDALERRI KOPURUA	47	48 (horietatik 4 Gipuzkoan).	17 (1992ko aurre-ikerketak).	112

ITURRIA: Egileak egina, Eusko jaurlaritza (2010), Nafarroako Gobernua (2016), AHT gelditu! Elkarlana (2007), Petxarroman (2011), Barcena eta Larrinaga (2009), CADE (2016) oinarrituta.

Ikusi dezakegunez, datu kontrajarriak dira nagusi AHT-ren proiektuan. Instituzioek erabiltzen dituzten datuak eta ekologistek eta kontrako mugimenduko elkarteek erabiltzen dituztenak ez datoz bat. Egitasmoaren deskribapena egiterakoan gai berdinak lantzen badituzte ere, hots, ingurumen inpaktuak, teknikoak, ekonomikoak eta sozialak, azaltzen dituzten ondorioak desberdinak dira.

Abiadura Handiko Trenaren sustatzaileek proiektu honek sortuko dituen onura ekonomiko, tekniko eta sozialak azpimarratzen dituzte, Europarekiko edukiko duen lotura nabarmenduz. Gainera «ingumenarekiko errespetua» bermatzeko, legeriak agintzen duena baino gehiago egin dela adierazten dute: «Euskal trenbide-sare berria diseinatu eta eraikitzekean, araudiak ingurumena zorrotz errespetatzeko eskatzen duen arren, araudiak berak esaten duena baino haratago joatea erabaki du Eusko Jaurlaritzak» (EJ, 2010:41).

Aldiz, kontra dauden eragileek proiektu honek ingurumenean edukiko dituen eragin kaltegarriari ematen diote garrantzia, atzeraezinak izango direla nabarmenduz. «Txikizioa gelditu» kontrako mugimenduak erabiltako lelo bai izan da (Argia, 2005.04.10) eta horrela laburbildu daiteke AHTren kontra agertzearen arrazoi nagusia. Baina ez da bakarra, izan ere, arlo tekniko, soziala eta ekonomikoa ere aipatzen dute, egitasmo honen bideragarritasun eza salatzen.

Hortaz badirudi, AHTren aldeko eta kontrako ikuspuntu kontrajarrien oinarria, proiektuaren deskribapenean kokatu daitekela.

C. KOKAPEN HISTORIKOA

Abiadura handiko trenbidearen aldeko apustua garraio sistema gisa, Europako Batasunean (EB) eta «European Round Table of Industrialists» (ERT) taldean dauka iturburua. Talde hau Europako 50 enpresa transnazional nagusiak biltzen duen *lobby*-a da³⁵. Hauek 1984. urtean *Missing Links* txostena argitaratu zuten, Europako lur-garraioko mugaz harandiko azpiegituren gaurkotzearen gainean egindako analisia hain zuzen. Horrela EBk garraio azpiegiturretan inbertsio handiak egitea erabaki zuen. Izan ere, bai AHT eta bai beste hainbat garraio azpiegitura handi ekonomia-hazkunde globala bultzatzeko eta merkatu bakarra sendotzeko ezinbestekotzat jo izan baitituzte 1986tik hona (Bermejo eta Hoyos, 2016:9).

Urte horretan Estatu espainiarra Europako Ekonomi Erkidegoan sartzen da eta Europako Batzordeak Espainiako Ministro-Kontseiluari «Europako abiadura handiko trenetako sare-rantz» txostena ematen dio proposamenak egin dezaten sare horretan bertakotzeari begira. Honen ondorioz, Espainiako Gobernuak, 1986an Estaturako trenbide plana martxan jartzen du, Andaluziako trenbide sarearen ibilbidea egiteko helburu zehatzarekin. Baina epe luzerako helburua Estatu espainiar osora luzatzea dugu.

Helburu hau Euskal Herrian 1989. urtean burutzen da, Espainiako Gobernuak Nafar Gobernuarekin (urtarrilaren 11ean) eta Eusko Jurlaritzarekin (otsailaren 27an) bi erkidegoetan Abiadura Handiko Trena gauzatzeko akordioak sinatzen dituztenean.

Ipar Euskal Herrian aldiz, 1990. urtean Jose Antonio Ardanza EAE-ko lehendakariak eta Akitaniako Eskualde Batzordeko presidente M. Jean Tavernierrek Lapurditik barrena Abiadura Handiko trenbide lerro berria eraikitzeko azterlana sustatuko dute TGV sare frantsesa eta *Euskal Y*-a lotzeko balioko lukeena hain zuzen.

Ikerketa honen analisirako egitasmoaren sorreran aipatzen diren bi berezitasun azpimarratu nahi ditugu. Batetik kontutan hartu behar dugu egitasmoa jorratearen erabaki estrategikoa, elite ekonomiko eta politiko txiki batek hartzen duela, biztanleriaren gehiengoaren iritzia aintzat hartu barik, hots, herritarren parte hartzerik gabe. Ondoren azalduko dugun legez, AHT-ren egitasmoaren historia bere izaeraren nahiz jorratu duten moduaren erakusgarri da.

Bestetik «kanpo zertifikazioak, «kanpo aktoreek eskuko aktoreen eta euren aldarrikapenen balidazioa egitea» (McAdam, Tilly eta Tarrow, 2005: 351), jasotzeko eduki duen erraztasuna nazioarteko eszenatokian abiadura handiko trenarekiko aldeko jarreraren seinale izan da. Aipatutako ERT-k egindako Missing Link delako txostena, lehenengoa izan da baina ez bakarria, EBtik jaso baitira proiektuarekiko zertifikazio adierazgarrietarikoak, esaterako : Missing Network txostena 1991n, edo 2005eko azaroan, Europako Batasuneko Goi Komisionatuak azpiegituraren alde egiten duen informea dira adierazgarri.

Nabarmena iruditu zaigu Merkataritza Ganberek prozesuan eduki duten proiektuaren aldeko lobby papera. Euskal Merkataritza Ganberek Burgos, Baiona eta Bordeleko Merkataritza

35 ERT (Europar industrialen mahai ingurua) Europar jatorriko enpresa multinazional garrantzitsuetako sektore industrial eta teknologikoko 50 exekutibo eta presidente biltzen duen foroa da. Enpresa hauek, Europa osoan zabaldua daude eta 2.250 milioi euro baino gehiagoko diru-sarrerak dituzte. <http://www.ert.eu/> (kontsulta 2016-09-14).

Ganberekin batera 1999ko otsailean «Atlantikoko Trenbide Ardatz Transeuropearreko Merkatal Ganberen Nazioarteko konferentzia (CEFAT) sortu zuten. Hauen helburua Portugaleko iparraldetik Akitaniararte, Gaztela eta Leon eta Euskal Erkidego Autonomotik zeharkatzen duen, abiadura handiko trenbide ardatz bat barneratzen duen komunikazio korridore multimodal baten sorrera sustatzea zen. Abiadura handiko trenbide ardatz hori bultzatzeko konferentzia honetan Portugaleko Ganbara eta elkartek eta Galiziako, Gaztela eta Leongo, Asturiaseko, Kantabriako eta Euskadiko 33 Merkataritza Ganberek eta Akitaniako 10 Ganbarek parte hartu zuten. Bilboko ganbarako presidentearen hitzetan:

«El que tantas Cámaras tuvieran un papel protagonista en el impulso de estas actuaciones no es una casualidad. La trascendencia en el desarrollo del territorio de los nuevos corredores ferroviarios era tan evidente que las Corporaciones camerales no podían sentirse ajenas a este hecho». (Corres, 2014:4)

AHT-aren proiektuaren agente zertifikatzaileen profila aldagai ekonomikoen esku egon dira, horrela, Europa mailan enpresa nagusiak eta talde industrialak dira bereziki aipagarri.

EUSKAL TRENBIDE SARE BERRIA: EUSKAL Y

Proiektuaren jatorria eta hastapenak

Arestian aipatu dugun legez, azpiegitura honen hastapenak 1986. urtean kokatu dezakegu, Espainiako estatua Europako Batasun Ekonomikoan sartu zen urtea hain zuzen. Urte horretan Europako Batzordeak «Abiadura Handiko Trenen Europar Sarerantz» izenburupeko txostena plazaratu zuen eta Europar Batasun Ekonomikoko estatuei proposamenak egitea eskatu zien. Testuinguru horretan, Euskal Y-aren egitasmoaren hasiera kokatu behar dugu, 1988ko uztailaren 4an, RENFEko presidentek eta Enrique Antolin Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburuak «Euskal Herrirako Trenbide Alternatibak» azterlana egiteko Lankidetzak Akordioa sinatuko baitzuten.

1988ko abenduaren 9ko Ministroen Kontseiluaren akordioaren bidez, PSOEn gobernua Estatuan Abiadura Handiko trenbide linea berriak egiteari bultzada eman zion. Akordio horretatik eratorriko da 1989ko otsailaren 27an Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzako, EAJko eta PSE-EEko ordezkariak EAE-n AHT-a eraikitzeke sinatutako hitzarmena ere. Modu honetan, 1989. urtearen amaieran «Euskal Herrirako Trenbide Sare Berrirako Aurreproiektua» egiteko mandatu emango du Garraio Sailak, 1991eko maiatzean burutuko dena hain zuzen. Urte honetan ERT-k *Missing Networks* txostenaren bidez azpiegituraren eraikipen urgentea aldarrikatzen du.

Hartan, 1993an, Josu Bergara Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailburuak eta Jose Alberto Zaragoza, Lan Publikoetarako Estatu Idazkariak urtarrilaren 22an Euskal Y-aren behin-betiko egitasmoaren idazketa berehalakoan hasteko eta 18 hilabeteko epean bukatzeko aurreikuspenarekin akordioa sinatu zuten. Honen ondorioz, 1993ko apirilean AHTaren Aurkako Asanblada sortu zen, izaera autonomo, antikapitalista eta antidesarrollista duen taldea.

Arestian aipatu dugun zertifikazio ekonomikoaren ildotik, aipagarria iruditzen zaigu Gipuzkoako Komertzio Ganbarak urte horretan ateratako komunikatua: «Euskal Y-ak estrategikoa izaten jarraitzen du, uko-ezina eta bere aldeko apostua egiten dugu baldintzarik gabe» (Diario Vasco, 1993/01/14).

1994.eko abenduan Essengo Europako Kontseiluak 2010. urterako bukatu beharreko «Sare Transeuropeoen Lehentasunezko Zerrenda» onartuko du. Bertan Madril-Gasteiz-Dax egitasmoa jasoko da. Bi urte geroago, 1996.urtean, Espainiako gobernuak GIF (Gestor de Infraestructuras Ferroviarias) gero ADIF deituko dena, sortzen du. Horrela 1997ko otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Gidalerroen behin betiko onarpena gauzatu zuen. Hortaz, 1998ko urrian, bai EJ-ko Garraio Sailak, bai Sustapen Ministerioak proiektuaren informazio publikorako epea irekitzen dute. Opositoreek informazio publikoa «baldintza onartezinetan burutuko dela» diote «informazio publikorako epea udako oporretan gauzatzen da, abuztuan» (AHTren aurkako Asanblada, 2008: 11). Aguilera Klinkek azpiegitura baten sorreraren aurrean, administrazioak parte hartzearekiko jarrera erakusten duten adierazleak aztertzerakoan, informazio epea noiz jartzen den aipatzen du. Autore kanariarraren aburuz «udan jartzeak, parte hartzea sustatu ordez, desinformazioan sakontzen du» (Aguilera, 2006: 160).

2. IRUDIA: Euskal Y-a



Iturria: http://www.euskalyvasca.com/eu/co_trazado_det.html <kontsulta: 2016.11.14>

2000ko azaroan, Ingurumen Ministerioak Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sare berriaren ingurugiro inpaktuaren deklarazioa onartuko du, Euskal Yaren proiektua bideragarritzat joz. Horrela, 2001ko urtarrilean EJKo Garraio eta Herri Lanen Sailak aurkeztutako proiektuaren behin betiko onarpena gauzatzen da. Aldi berean, urte honetan Abiadura Handiko Trenaren aurkako talde eta erakundeen koordinadora sortuko da: AHT Gelditu! Elkarlana, talde ekologistak, lokalak eta gehiengo sindikala bilduko duen plataforma, besteak beste ELA eta LAB. Otsailean 41/2001 dekretua onartuko da, EAeko eremuan Trenbide sarearen Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana behin betiko onetsiko duena, hain zuzen.

Honen ondorioz Euskal Y-aren kudeaketa 2002.urtean martxan jarriko dira. Alde batetik Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoako ia zati osoa bere kabuz atera zuen lehiaketara eta bestetik Sustapen Ministerioak GIF (ADIF) en esku utziko du proiektuaren kudeaketa hartarako 3.000 milioi euro inguru baliatuta. Baina hurrengo urtean Europako batzordeak Sare Transeuroparren garapena aurreikusitakoaren oso azpitik dagoela berretsiko du (1994an lehentasunezko jotako egitasmoen %20 baino ez baitago egina).

Horiek horrela, Europako Batzordeak *Quick Start* izeneko zerrendan jasotako eta «berehala burutzekoak» izango diren hainbat azpiegitura handi sustatzeko ezohiko inbertsio plana aurkeztuko du. Zerrenda hartan, ordea, ez da jasoko Dax-Gasteiz linea, AHTa barneratzen duen egitasmoa. Alabaina, 2004an, Eusko Jaurlaritzak Euskal Trenbide Sareak (ETS) sortzen du; honen helburua «trenbide arloko azpiegiturak eraikitzea eta administratzea» (EHAAK 2004-6-02, 103 zenb 10720 orr) izango da. Era berean, 2004aren bukaeran, Tren Sozialaren aldeko Plataforma sortu zen, AHT Gelditu! Elkarlaneko talde handien bultzadaz, indarra trenaren ikuspegi sozialean jartzeko, plataformaren aburuz Euskal Y-ak izango ez lukeena. Hurrengo urtean, 2005ean Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako gobernuak Euskal Y-aren finantziazioaren inguruan akordioa sinatzen dute proiektua martxan ipintzeko. Garai horretakoak dira PSE-EEko eurodiputatu Barbara Dührkop-en adierazpenak: «Euskal Y-a ez egiteak 50 urteko atzerapena ekarriko luke hazkundera, garapenean eta aurrerakuntzan» (Berria, 2005-10-15) eta garai horretako ere, Europako Batasuneko Goi Komisionatuak azpiegituraren alde egiten duen informea.

Esleipenak, obren hasiera eta herri kontsultak eta gatazkaren gaizkotzea

2006ko apirilean, Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak Euskal Yaren finantziazioaren gaineko hitzarmena sinatuko dute, 4.200 milioi euroko kostua aurreikusiz (hiriburuetarako sarbideak eta geltokiak alde batera utzita). Horrela abiadura handiko Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sare berria eraikitzeko Elorrio, Atxondo eta Abadiñoko lurren desjabetze prozesua hasten da eta Sustapen Ministerioak Bilbo-Gasteiz arteko hainbat zatiren desjabetzeak eta lanen esleipenak aginduko ditu. Aldi berean Eusko Jaurlaritzak 2007ko aurrekontuetan islatuko diren 243 milioi euro sartuko ditu Euskal Y-a egiteko. Abenduan proiektu honen bi azpiatal berriren esleipena onartuko dituzte, Eskoriatza-Aramaio eta Aramaio-Arrasate azpiatal berriak adjudikatuko ditu sustapen Ministerioak. Horrela, urrian Arabako Luku herri txikian lanak hasiko dituzte ofizialki. Esanguratsua iruditu zaigu Eusko Jaularitzaren proiektu estrategiko honen lanen hasierari publikoki emandako errekonozimendu mugatua. Barcenak

aipatzen duen moduan (2009:275): «Al contrario de lo que suele suceder con las grandes obras de infraestructura, que se coloca la primera piedra oficial, se reúnen todas las autoridades competentes y se le da bombo y platillo en la primera plana de los medios de difusión, con la Y vasca nada de esto ocurrió».

Aldi berean esleipenak aurrera doazen bitartean eta lanak hasten diren unetik, herri kontsultak egiten hasiko dira EAeko udalerrri desberdinetan. Esaterako uztailean Urbinako auzokideen %94ak parte hartzen duten galdeketa, %100k AHT-ari ezetz esaten diote. Ondoren, Arabako 20 kontzejuetan ACOVIk, Gasteizko Kontzejuen Elkartearen deituta AHT-aren inguruko herri-galdeketa egingo dute. Oraingoan partaidetza txikiagoa da, %33a eta parte hartzaileen %90ek AHT-aren kontra bozkatuko dute. Urte bukaeran Itsasondoko Udalak AHT-ari buruzko Herri Kontsulta deitzen du eta berriz ere ezetzak irabazten du.

2007.urtean Euskal Y-koa egiteko zatien esleipen eta lanen baimenekin jarraituko dute: Arrasate-Elorrio eta Abadiño-Durango zatiak, Ordizia Itsasondo atala eta Zornotza Lemoa eta Zornotza-Zornotza zatiak esleituko dituzte. Ministroen Kontseiluak Zornotza-Lemoa, Galdakao-Basauri eta Arrazua/ Ubarrundia-Legutio zatiko lanak baimenduko ditu. Era berean herri kontsulta gehiago egingo dira, Euskal Y-koa pasatzen den udalerrri hauetan: Atxondon, Alegin, Angiozarren, Aramaion³⁶ eta Elorrión, hain zuzen, eta orotan ezezkoa nagusi aterako da. Urte honetan EAEn udal hauteskundeak burutuko dira eta Euskal Y-koa pasatzen den 47 udalerrietatik 18tan ANV eta hauteskunde-elkarte independenteek irabaziko dute, Euskal Y-koaren proiektuaren aurka agertu diren alderdiak, alegia.

Bitartean Euskal Y-ak Euskal Enpresariaren Zirkuluaren babesa jasoko du eta sindikatu nagusien errefusatzeari. 2007ko otsailean euskal sindikatu nagusiak, ELA, AHT-aren kontrako mobilizazioak egingo zituela iragarri zuen bere aburuz proiektua antidemokratikoa zelako. ELA, gain, LAB, EHNE, STEE-EILAS, HIRU, ESK, CGT et CNT sindikatuak AHT-aren kontra kokatuko dira.

Urte honetan, AHT Gelditu! elkarlanak EHUko irakasle talde batekin batera AHT-ari buruzko informazio mailari buruzko informea burutu zuen, *AHT-aren inguruko iritzien azterketa*, Euskal Y proiektuak kaltetzen dituen udalerrietan bizi diren biztanleei egindako inkesta. Ikerlan honetan agerian geratu zen herritarrek Abiadura Handiko Trenaren inguruan informazio maila baxua zutela, hala ezen portzentaje esanguratsu batek ez zekien bere udalerritik pasatuko zela ere³⁷. Horrela, AHT Gelditu! elkarlanak, AHT-aren aurkakoen bilgune izan nahi duen webgunea sortuko du eta urte honetan zehar, aldizka, milaka pertsona biltzen dituzten, pro-

36 Aramaio alkateak herrian Abiadura Handiko Trenaren gaineko galdeketa egitearren prebrikazio delitua eta epaileekiko desobediencia delitua egotzita 2010.urtean epaitua izan zen Gasteizko Zigor arloko 2. zenbakiko Auzitegian. Zazpi urteko inhabilitazio zigorra ipini zioten prebrikazio delitua egotzita. Arabako Auzitegiak 2011.urtean atzera bota zuen zigorra eta absolbitu egin zuen. Epaiketaren garaian Euskal Herriko 32 udalek babesa helarazi zioten (Berria, 2011-02-15).

37 Herritarrei AHTren inguruan duten informazioaz galdetuta % 75 informazio gutxi edota informaziorik ez duela erantzun zuen. AHT-aren udalerrietatik igarotzea aurreikusia dagoela badakiten galdetuta, proiektuak kaltetuko dituen udalerrietako biztanleen herenek baino gehiagok (% 35) ez du horren berririk, eta bostetik hiruk (% 62) adierazi zuten ez dakitela beren udalerrian zein izango den trenaren ibilbidea; % 19k adierazi zuten ezagutzen dutela beren udalerriko zein tokitatik igaroko den AHT, eta beste % 19k gutxi gorabeherako ideia bat bazutela http://www.ahtgelditu.org/dokumentuak/aht_iritziak_inkesta2007.pdf (kontsulta: 2016-12-28)

testa egiteko manifestazio nazionalak antolatuko dira: Hego Euskal Herriaren lau hiriburuetan (Gasteizen esaterako 7000 pertsonen parte hartzearekin) eta Arrasaten Euskal Y-koaren gune geografikoan, 2007ko abenduan 15.000 pertsona batu ziren.

3. IRUDIA: Arrasateko Manifestazio nazionalerako deialdi kartela



Iturria: AHT Gelditu! Elkarlana, 2017

Euskal Y-koaren obren garapena aurrera jarraituko dute. Ordizia-Itsasondo zatiko obrak 2008ko hasieran abiatuko dituzte eta martxoan tarte bizkaitarraren desjabetze izapideekin hasi ziren, Zornotzako ibilbideari dagokion atalean. Baina urte honetan, Alonso et al., (2014) azaltzen dutenaren arabera, sozio-ingurumen gatazka honek bizi izan duen tentsio unerik altuena gertatu zen. Proiektuaren kontrako mugimenduak deitua, hots, AHT Gelditu! Elkarlana, martxa bat konbokatu zen AHTaren lanak egiten ari ziren Arabako Urbina herrian. Milaka pertsonak, gehienbat gazteak, martxan parte hartu zuten eta bukatzerakoan desobediencia zibileko ekintza baten saiakera suertatu zen. Oraindik ez errailik, ez hormigoirik ez zegoen lanen ezpondan eserialdi bat egiten ahalegindu ziren baina Ertzaintza ekintza hau geldiarazten saiatu zen. Autore hauek azaltzen dutenez, ezpondara igo ahal izan ziren gutxiei gogorki jo ondoren, goma-pilotak bota zituzten lanak baketsuki okupatu nahi zutenen kontra. Ondorioz dozenaka pertsona zaurituak eta atxilotuak izan ziren eta Madrileko Auzitegi Nazionalera 8 ak-

tibista bidali zituzten. Madrilgo epaileak atxilotuak euskal auzitegietara bidali zituen bueltan. Modu honetan Urbinan sozio-ingurumen gatazka honen gaizkotzea suertatu zen.

Eta egoera are gehiago okertu zen ETak bere gain hartzen duenean induskailu baten kontrak sabotajea. Baina gogorrena abenduan helduko da ETak Ignazio Uria Mendizabal enpresaria Azkoitian hiltzen duenean AHTaren obrekin duen loturagatik. Honen ondorioz sozio-ingurumen gatazka «euskal sindromea» deritzon fenomenoan eratorri zen (Casado da Rocha eta Perez, 1996:58) disidentzia eta kritika politiko-sozial guztia indarkeriako ekintza eta estatu arrazoiarekin lotzea, ETaren helburuekin paralelismoa edo zeharkako jarduerak betetzen dituen oro kriminalizatzeko. Egoera honek eztabaida eta hausnarketa sakona suposatu zuen AHT-aren kontrako mugimenduaren baitan eta ondorioz, aktibista batzuek mugimendua utzi zuten batez ere ETaren oldarka-sartzearen ondorioz borroka aktibista galdutzat eman zutelako (Barcena eta Larrinaga, 2009:1). AHT-aren kontrako mugimendua komunikatu baten bidez, atentatu hilgarritik bereizi zen, herriko parte-hartzea, mobilizazio, desobedientzia zibila, herri-galdeketak eta udal-erakundeetatik egindako oposizioa aldarrikatuz. Halaber, mugimendua aniztasun ideologikoaren aitortza eskatu zuten eta mugimendu sozial zabal, ireki eta desberdina kriminalizatzeko ahalegin guztiak arbuiatu zituzten (AHT Gelditu! Elkarlana, 2008).

2009ko udaberrian Euskadiko Alderdi Sozialistak Eusko Jaurlaritza bere esku hartzen du eta lanen kudeatzaileak aldatzen dira. Patxi López lehendakariaren agintaldian (2009tik 2012raino), Gipuzkoako trenbide tarte guztiak eraikitzeke lanak abiatu ziren. ETak 2009an Euskal Y-koaren kontrako azken atentatu burutuko du, Madrilan, Ferrovial Agromán enpresaren egoitza nagusiaren aurrean furgoneta-bomba bat eztandarazi zuenean. AHT-aren kontrako mugimendua manifestaldiak egiten jarraituko du eta urte honetan EAE-n proiektuaren gainean burutuko den azken herri kontsulta egingo da Legorretan. Ezezkoa garaile aterako da berriz ere.

12. TAULA: Euskal Autonomi erkidegoan AHT-aren gainean egindako Herri Kontsultak

UDALERRIA	DATA	PARTAIDETZA	ALDE	KONTRA	ZURIA/NULOA
URBINA	2006/07/16	%94	%0	%100	%0
GASTEIZ KONTSEJUAK	2006/10/29	%33	%4	%90	%6
ITSASONDO	2006/12/03	%44	%10,8	%88,8	%0,4
ATXONDO	2007/03/25	%40	%0	%99	%1
ALEGIA	2007/04/01	%31	%4,5	%94,5	%1
ANGIOZAR	2007/07/01	%84	%2	%94	%4
ARAMAIO	2007/09/30	%54	%1,48	%97	%1,33
ELORRIO	2007/12/02	%37,54	%3,8	%95,26	%0,94
ANOETA	2007/12/02	%36,15	%1,1	%98,1	%0,08
LEGORRETA	2009/02/15	%35	%9	%87	%4

Iturria: Egileak egina Barcena, 2009:277 oinarrituta.

2012tik aurrera lanak motelduko dira Espainiako Gobernuak egin beharreko lanetarako diru baliabideak %40 gutxitu baitzituen. Iñigo Urkullu Eusko Jauraritzako lehendakariak prest agertu zen Espainiako Gobernuaren ardurapeko zatiak (Arabakoa eta Bizkaikoa) ere bere gain hartzeko. Jauraritzak dagoeneko 2010etik 2013ra %40 handitu zituen Euskal Y-ra bideratutako diru kopurua. 2014ean Ana Oregi, Eusko Jauraritzako Ingurumen eta Lurralde Politika sailburuak, Abiadura Handiko Trenaren ardatz atlantikoarekin «konpromiso serio, sendo eta atzera bueltarik gabekoa» hartzeko eskatu zien Espainiako eta Frantziako Gobernuei. Horrela, 2014ko abenduan Abiadura handiko trenaren gainerako lanen plangintza bateratu bat 2015ko urtarri-lean aurkeztea adostu zuten, Ana Pastor Espainiako Sustapen ministroak eta Ana Oregi Eusko Jauraritzako Ingurumen eta Lurralde Politikarako sailburuak.

Adierazgarria da 2015.urtean Euskal Y-koaren gainean Euskadiko herritarren iritzia eta informazio maila ikertzeko De la Peña eta Castañosek egindako ikerlanaren emaitzak. Ikerlari hauen analisia Euskobarometroko 2010 eta 2014ko datuetan eta 2012an Eusko Jauraritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako azterlanean oinarrituta dago. Emaitzak argi erakusten dute denborazko ikuspuntutik, Euskal Y-arekiko babesak apurka jaitsi dela, % 77tik % 64tara pasatuz 2010tik 2014era, ehunekoetan 13 puntu gutxiago suposatzen duelarik. Jakina, arbuiatzeari buruzko datuak balantzako beste aldean aurkitzen dira, progresiboki handituz, populazioaren % 36rengan kokatu arte 2014ean.

Informazioaren gaineko analisiaren arabera ikerlari hauek ondorioztatzen dute, euskal herritarren gehiengoak abiadura handiko proiektuaren oinarrizko ezaugarriak ez dituela ezagutzen. Elkarrizketatuen %31-k soilik informazio asko edo informazio nahikoa dutela adierazi dute. Laginaren bi herenek aldiz, informazio gutxi edo inongo informaziorik daukatela aitortzen dute. Datu hauek bateragarriak dira arestian aipatutako 2007an EHUko ikerlari talde batek AHT Gelditu Elkarlanerako egindako ikerketarekin, hots, euskal herritarrek AHTaren gaineko ez jakintasun maila handia nabarmena da. Gainera ikerlan honen emaitzen arabera EAEn Euskal Y-koaren kontra posizionatzen diren herritarrek, alde daudenen baino informazio gehiago dutela adierazten dute. De la Peña eta Castañosen aburuz begi-bistako da proiektu honekiko herritarrek duten informazio gabezia eta ondorioz ezjakintasun maila nabarmena eta ondo argumentatutako eztabaida publiko baten falta (De la Peña eta Castaños, 2015:26).


4. IRUDIA: AHT-ren obrak



Iturria: AHT Gelditua! Elkarlana (2017)

Lanekin jarraituz, 2016an Bizkaiko zenbait gunetan eraikuntza lanak hasi barik zeuden, Hernani-Astigarraga zatiak urte eta erdi zeramatzan geldirik eta azkenez onartu egin da, atal horretan abiadura handiko linearik ez dela egongo, hirugarren linea egingo baitzaio egungo trenbideari. Bergarako lotuneko lanak egin behar zituzten enpresei kontratua eten zitzaien, eskatzen zituzten gain-kostuak legearen arabera onartezinak zirelako (lotune horrek bost tarte hartzen ditu: Angiozar, Kobate, Elorrio-Bergara, Zumelegi eta Elorrio-Elorrio). Azkenik 2017ko urtarrilean Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Azpiegituretako sailburuak Abiadura Handiko Trenaren obren amaiera data 2023an kokatuko du eta Frantziarekin konexioa, nahiz eta abiadura handiko ez izan, Espainiarekin baino lehenago iritsiko zela iragarri zuen, 2019 edo 2020 ean kokatuz.

5. IRUDIA: Euskal Yren lanen egoera Euskal Autonomi Erkidegoan, 2016.



Iturria: Berria http://www.berria.es/paperekoa/1860/008/001/2016-12-22/gobernuen_arteko_beste_sintonia_baten_zain.htm (kontsulta:2017/02/22)

Euskal Y-koaren gainean egin diren azken akordioak 2017an izan dira. Batetik, Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuako Sustapen Ministerioak adostutako akordioa politikoa, Abiadura Handiko Trenak hiriburuetan izango dituen behin betiko sarbideak ezartzeko. Dena den, ez dute epe eta aurrekontu zehatzik aipatu. Gainera Espainiako Gobernuarekin adostutakoaren arabera, Gipuzkoako zatia finantzatzeko dirua Jaurlaritzak aurreratuko du, eta, ondoren, Kupoaren bidez berreskuratuko du diru hori. Bizkaiko eta Arabako lanak, berriz, Sustapen Ministerioak kudeatuko ditu zuzenean. Hala eta guztiz ere, Jaurlaritzak AHT-aren Arabako eta Bizkaiko obren eskumena eskatu du lan berriak bultzatzeko helburuarekin Euskal Y-koa egiteko lanetara diru gehiago bideratzeko prest agertu delarik.

Bestetik, 2017ko maiatzaren 3an EAJk Rajoy-en Gobernuaren aurrekontu orokorrak sostengatzeko adostutako akordioaren bidez Euskal Y-koa sostengatzeko lortutako diru inbertsioa lizateke. 2017tik 2013ra Espainiako Gobernuak 3.380 euroko inbertsioa egingo du EAeko hiru hiriburuak lotzen duen Abiadura Handiko Euskal Trenbide sarerako.

NAFARROAKO KORRIDOREA

Nafarroako Korridorea Nafarroako Foru Aldundia zeharkatuko duen Abiadura Handiko Trenda. Hegoaldean Aragoirekin bat egingo du, Aragoitik Nafarroara doan Plasencia de Jalón-Cas-

tejon tartearen bitartez, alegia. Iparraldean, Euskal Y-arekin edukiko du lotura eta Nafarroako Gobernuak adierazitakoaren arabera, oraingo trenbidearen ibilbidea erabiliz egingo da, Europako zabalera duten trenak ibili ahal izateko errei bat erantsita (Diario de Noticias de Navarra 2017.02.01).

Arestian aipatu dugun moduan, Ministroen Kontseiluaren akordioaren bidez, Estatu espainiarreko PSOeren gobernuak 1988ko abenduan Estatuan Abiadura Handiko trenbide linea berriak sustatzea erabaki zuen. Akordio horren ondorioz, 1989ko urtarrilaren 11n Nafarroako Gobernuak eta Garraio Ministerioak Nafarroan Abiadura Handiko egitasmoa aurrera eramateko akordioa sinatu zuten.

Baina Sustapen Ministerioak Nafarroako Abiadura Handiko Korridoaren azterlan informatiboa (aurreproiektua) 2000.urtean jorratzen hasiko dira, Zaragozatik Iruñerainoko linea aztertzeko. Ondoren 2004. urtean Castejoitik Iruñera doan Abiadura Handiko Nafar Korridorea, behin betiko onartuko da.

6. IRUDIA: AHT-aren Ibilbidea Nafarroako Foru erkidegoan



Iturria: Sustrai Eraikuntza fundazioa,2017

2006.urtean Nafarroako Gobernuak kanpaina berri bati ekingo dio, *Euskal Y*aren finantzia-zioaren inguruan PSOEk EAJrekin lotutako akordioaren parekoa lortze aldera eta irailean Eusko Jaurlaritzak Sustapen Ministerioari eskatuko dio AHT Nafarroarekin lotzeko. Baina 2006ko abenduan, Espainiako Senatuak Euskal Y-a eraikitzeke ezarritako ordainketa sistema ezeztatu zuen. Horrela, Nafarroako Korridorearen eraikuntza zehaztu gabe geratuko da.

2007ko udazkenean, Espainiako presidentek Jose Luis Rodriguez Zapatero eta Nafarroako presidentea Miguel Sanz akordio batera heldu ziren, urte amaiera baino lehenago Nafarroako Korridorearen eraikuntza adosten zuen agiri bat sinatzeko. Alabaina hiru urte geroago arte ez zuten akordiorik gauzatu. Tarte honetan proiektuaren aurkako herri ekimenak burutu ziren ere, azpimarratzekoa, 2009.urtean Sakanako bi udalerrietan egindako herri-galdeketak. Bietan ezezkoa garaile atera zen.

13. TAULA: Nafarroako udalerrietan egindako Herri Kontsultak

UDALERRIA	DATA	PARTAIDETZA	ALDE	KONTRA	ZURI/NULO
LIZARRABENGOA KONTZEJUA	2009/05/10	%97	%0	%100	%0
ARBIZU	2009/05/17	%46	%2	%96	%2

Iturria: Egileak egina Barcena 2009:277 oinarrituta

Espainiako Gobernuak Euskadirekin hitzartutako sistema berbera adostu zuen Nafarroako Foru Erkidegorekin 2010.urtean. Nafarroak bere gain hartzen zituen Castejon eta Iruñearen arteko trenbidearen obrak. Bere autonomia fiskala betez, erkidegoak estatuari egiten dion bere ekarpenean lanetako kostua deskontatuko luke. 2010eko hitzarmenak Iruñerako abiadura handiaren helduera 2015erako aurreikusten zuen. Aldi berean 2010.urtean Sustrai Erakuntza Fundazioa sortu zen ingurumenaren aurkako, eta bide batez, jendartearen aurkako proiektu anitzei aurre egiteko. Dena den, Abiadura Handiko Trenaren gainean dihardute bereziki, makroproiektu hori Nafarroak datozen urteetan jasango duen ingurumen, ekonomia eta jendarte arloko desorekaren erakusle nabarmenena dela uste dutelako (Sustrai Erakuntza Fundazioa 2010).

2010eko ekainean AHT-ari desobedientzia egiteko mugimendua sortuko da «MUGITU! AHT gelditzeko», AHT-aren proiektuaren «inposatzeari aurre egiteko» helburuekin eta gizartearen garraioaren eta eredu sozialaren inguruko «benetako» eztabaida sustatzeko. Desobedientzia zibilaren bitartez «herrien erabakiaren ahalmena errespetatu dadila» eskatzen zuten. Ez da elkarre edo plataforma bat izango, baizik eta erantzukizun pertsonala onartuz, bortizkeria erabili gabe protesta ekintza publikoak egiteko deialdi soziala. Horrela 2011ko urrian zortzi aktibista Pirinioetako Lan Komunitatea garraioaren inguruan Okzitaniako Tolosan egiten ari ziren nazioarteko bilera eten zuten, AHTa eta TGVren kontrako kartelak erakutsiz eta lau aktibistek,

bi tarta jaurti zizkioten Nafarroako Gobernuko presidentea zen Yolanda Barcinari, «Barcina AHTren pastel osoarekin geratuko da», lelopean³⁸.

2011 eta 2015 urteen bitartean Nafarroak Castejón eta Marcillaren artean 15 kilometro plataforma eraiki zituen. Horretarako Erkidegoak 72 milioi euro gastatu ditu zeinetako oraindik Administrazio zentralaren aldetik 45 ordaintzeke daude.

Nafarroako korridorea Euskal Y-a lotzeko Nafarroako Foru Erkidegoko eta Euskal Autonomi Erkidegoko arduradunek adostutakoaren arabera, Iruñetik, Ezkio-Itsasoraino joango litzatekeen trenbide berri bat eraiki beharko zatekeen. Horretarako Aralar eta Aizkorri mendilerroen artean tunel bat eraiki behar zuket. Baina 2013ko maiatzean Nafarroako Foru Erkidegoko Gobernuko Herri Lanetarako kontseilari Luis Zarraulquik jakinarazi zuen AHT eremu guztietan eraikitzea ekonomikoki ezinezkoa zela, eta hirugarren bide baten alde egingo zutela. Horrela Iruñea eta Castejon arteko trenbidea bakarrik abiadura handikoa izango da, EAEko Euskal Y-rekin eta Aragoiko bidearekin lotura duten trenbide sareetan oraingo trenbide zatiak erabiliko dituzte, hirugarren errei bat jarrita. Europako zabalera duten trenek trenbide horietatik ibili ahalko dira, nahiz eta abiadura handian ez izan.

Oposizioak ez zuen begi onez ikusi aldaketa hau, talde sozialistarentzat adibidez, hasierako proiektua hirugarren errail batean eta abiadura handiko 70 kilometrotan oinarritutako beste batekin ordezkatzeari irragarria zela adierazi zuen. Ordutik proiektuak izena aldatu zuen Prestazio Handiko Trena bilakatuz. Urte honetan Nafarroako Auzitegi Gorenak herritarrek abiadura handiko tren proiektuari buruz informazio publikoa jasotzeko eskubidea ez betetzeagatik eta informazioa ezkutatzeagatik Nafarroako Gobernuak zigortu zuen. Sustrai Erakuntza fundazioak jarritako helegiteari arrazoia eman zion epaitegiak, eta onartu zuen gobernuak ez zuela errespetatu edozein herritarrek egitasmo horren inguruan informazioa jasotzeko duten eskubidea. Nafarroako Gobernuak AHTari buruzko proiektuaren inguruan duen ingurugiroko informazio guztia eman behar izan zion Sustrai Erakuntza Fundazioari, auzitegiak aginduta.

2015.urtean Auzitegi Gorenak proiektuaren Iruñeko eskualdeko Ingurugiro Eragin Adierazpena iraungita zegoela adierazi zuen, beraz, honen ondoren emandako pausu tekniko zein administratiboak teknikoki ulergaitzak eta etikoki arduragabeak zirela ebatsi zuen. Aldi berean Nafarroako Gobernuak, Estatuak Castejón-Plasencia Mugarriko (Zaragozako) konexioa geldituta zuen bitartean lanak ez zituela aurreratuko erabaki zuen. Horrela, 2016rako Nafarroako Aurrekontu aurreproiektuak ez du inongo gasturik aurrez ikusiko. Horren ordeztu, Euskal Y-koaren loturarako hirugarren errailaren azterketa bideratu zuen, Euskal Y-koa eraikitzen ari zirelako.

2016an, azpiegituran 86 milioi euro gastatuta zeudelarik, Nafarroako Foru Erkidegoko Kontuen Ganberak adierazi zuen oparoaldian proiektatutako azpiegitura dela, geroztik garaiak erroztik aldatu direla, eta Nafarroako Foru Erkidegoak trenbidearen lanak aurrera eramatea-

³⁸ Nafarroako gobernuko presidente Yolanda Barcinari tartak botatzeagatik abiadura handiko trenaren aurka, Espainiako Auzitegi Nazionalean epaituak izan ziren fiskalak bost urteko espetxe zigorra eskatu zuelarik Mugituko lau kideentzat. 2013an Espainiako Auzitegi Nazionalak bi urteko espetxe zigorra ezarri zien hiru aktibistei eta laugarrenari urtebeteko kartzela zigorra(Berria:2013-11-28).

rren Espainiar Estatuarekin egindako hitzarmena «osatugabea eta zaharkitua» dela, «bertze garaietako» proiektu bat zela ondorioztatuz.

Azkenik 2017ko urtarrilean Manu Ayerdi Nafarroako Gobernuako Garapen Ekonomikorako presidenteordeak eta Iñigo de la Serna Espainiako Gobernuako Sustapen ministroak Trenbide korridorea osatzea eta hitzarmen berri bat lantzea adostu dute. Horretarako berrikusi egingo dute 2010ean Sustapen Ministerioak eta Foru Gobernuak sinatutako hitzarmena, De la Sernaren arabera zaharkituta geratu baita eta berme juridiko guztiak ez ditu betetzen. Sustapen Ministerioak berretsi du Zaragoza (Espainia) eta Castejon arteko zatian azterketa lanak hasiko dituztela eta Iruñea eta Euskal Y-a lotuko lituzkeen zatian ere. Adifek ikerketak egingo ditu, bi helburu nagusirekin: bata, Nafarroako korridoreak nazioarteko trenbide zabalerarekin bat egin dezakeen ikusteko; eta, bestea, Iruñea eta Altsasu artean beste bide bat egin daitekeen jakiteko.


Egitasmoaren helburua Iruñea 'Euskal Y'arekin eta Zaragozarekin lotzea da, hots, Nafarroak Euskal Y-aren eta Mediterraneoaren arteko lotura egitea litzateke bi gobernuen asmoa, baina ez dute zehaztu ez diseinurik, ez aurrekonturik, ez lanak hasteko eperik. Bai adostu dute ordea, Espainiako Gobernuak Nafarroako Gobernuak orain arte egindako lanengatik zorraren ordainketa bere gain hartuko duela, 45 milioi euroko zorra, alegia. Oraingoz lanak aurrez ikusitako ibilbide guztiaren %6,5etan egin dira.

Dena den AHT gelditu! Nafarroak prentsa ohar baten bidez 2017ko apirilean jakinarazi du UPN nafar alderdiak oposiziotik, PPrekin Madrilen Alesbes eta Erriberriren arteko lanen berrastea eta Iruñea -Euskal Y-ren tartearen informazio publikoaren abiarazpen prozesua negoziatu dituela. Plataformak salatu duenaren arabera, Nafarroak behar duen tren ereduren inguruko eztabaidaren gaintik jauzi egiten ari da eta beraien ustez, UPNk botatako hordago honek balio beharko luke mugikortasun eta tren beharrei buruzko benetako eztabaida bat zabaltzeko.

LAPURDIKO TRENBIDE LERROA

Ipar Euskal Herriari erreparatuz 1990. urtean Jose Antonio Ardanza lehendakariak eta Akitaniako Eskualde Batzordeko presidente M. Jean Tavernierrek Lapurditik barrena Abiadura Handiko trenbide lerro berria eraikitzeko azterlana sustatu zuten. Trenbide lerro honek TGV sare frantsesa eta Euskal Y-a lotzeko balioko lukeen abiadura handiko lerroa litzateke. 1992an behin ikerlana amaituta, egitasmoak polemika piztuko zuen Ipar Euskal Herrian; urte bereko abenduaren lehen egunetan hasiko dira loratzen Abiadura Handiko linea berriaren aurkako lehen elkarteak.

7. IRUDIA: AHTren Ibilbidea Lapurdi eta Estatu Frantsean



Iturria: <http://www.diariovasco.com/sociedad/201606/07/francia-impulso-definitivo-conectara-20160607002152-v.html> (kontsulta: 2016.11.23)

Aipagarriena mugimendu ekologistak antolatutako Collective de Associations de Défense de l’Environnement, CADE izeneko konfederazioa. Iparraldeko kasuan abiadura handiko trenbidearen oposizioa interes sozial anitzeko aliantza bilakatu da, bertan ekologistek, politikoek, sindikalistek, auzokideek, eta baserritarrek bat egin dutelarik.

2006 Frantziako Estatuak Lapurdin TGV lerro berria eraikitzeke egitasmoari bultzada berria emateak aurkako jarrera indartsua eragingo du berriro ere Ipar Euskal Herrian. Horrela hainbat herritan Administrazioak kontsulta prozesu bat antolatu zuen gizartearen gehiengoaren iritzia jasotzeko asmoarekin. Nondik pasatu behar dira Abiadura Handiko lineak, jada existitzen diren eta gutxi erabiltzen diren trenbideetatik edo ibilbide berri batetik? Eztabaida publi-

koaren ardatza hori izan da eta debate instituzional interesgarria sortuko du, gizarte zibilaren parte hartzearekin eta nazioarteko adituen dokumentuen ekarpenekin.

CADE -k eztabaidetan parte hartzea erabaki zuen, jendearen partaidetza suspertuz eta abiadura handiko trenbidearen oposizioa ikusgai eginez. 6.000 pertsonak (Iparralden 300.000 bizi dira) deitutako bilera desberdinetan parte hartu zuten.

Geroago udal-hauteskunde deialdia aprobetxatuz Uztaritzen eta Mugerren bi herri kontsulta egin zituzten 2008ko martxoaren 9an. Bietan AHT-aren kontrako jarrera garaile atera zen.

14. TAULA: Lapurdiko udalerrietan egindako Herri Kontsultak (2008)

UDALERRIA	DATA	PARTAIDETZA	ALDE	KONTRA	ZURI/NULO
MUGERRE	2008/03/09	%63,11	%8,6	%90,3	%1,1
UZTARITZE	2008/03/09	%59,53	%7,95	%92,05	%2

Iturria: Egileak egina Barcena 2009:277 oinarrituta

2009.urtean Michele Alliot-Marie Barne eta Garraio ministroak, AHT-aren linea berriaren azterketak atzeratzea erabaki zuen. «Herritarren eta elkarten mobilizazio itzelari esker lortu da lehen emaitza hau», adierazi zuen CADEk. Izan ere, elkarte honen arabera, oposizioak deituta milaka lagun kalera atera ziren AHT-aren kontra egindako bi kale agerraldi jendetsuetan. Baionan 12.000 pertsona bildu ziren 2009.urtean eta 2010.urtean Hendaia eta Irunen artean buruturako manifestazioan 20.000 pertsonen parte hartzea gauzatu zen. Mobilizazio hauetan gertatutako xehetasun deigarrienetako bat, proiektuaren kontra zeuden alkate, (batzuk Frantziako nazio banda jantzita zeramatzatzen) zinegotzi eta ordezkari politiko-instituzionalen lehen ilarako presentzia izango da.

8. IRUDIA: AHTren Aurkako manifestazioa Baionan



Iturria: <http://info.kazeta.eus/euskalherria/azken-urteotako-manifestaziorik-handienetarikoa-egin-dute-baionan-aht-berriari-ezetz-erraiteko> <Kontsulta: 2017.02.17>

2010.urtean CADEk antolatuta, AHTari buruzko erreferendumak egingo dituzte berriro ere Ipar Euskal Herriko 8 herritan. Horrela, Azkainen, %94k ezezkoa bozkatuko du, ondoko herrian, Urruñan, %90,8koa izango da bozka hori. Biriatun %96,3koa, Ahetzen %91,76koa, Arbonan %86koa, Arrangoitzen %91,3koa eta Senperen %92,19koa. Basusarrin ere gehiengo zabala lortuko dute AHT berriaren kontrako elkarteek. Hartara, boto-emaielen %88,02k ezetz bozkatuko du eta %11,98ak baietz. Basusarrin 1885 herritar azaltzen ziren erroldan. Horietarik 755k parte hartu zuen herri kontsultan.

2011ko urtarrilaren hasieran Bordeleko Akitaniako Prefekturan ospatu zen Gidatze Batzordean (Comité de Pilotaje) Bordeleren eta Baionaren arteko Abiadura Handiko trenbide berrietako behin betiko ibilbidea onartu zen. Baiona eta Hendaiaren arteko ibilbidea ere ezarri zen baina bere eraikuntza Ipar Euskal Herrirako sortutako Trafiko behatokiak hartutako erabakiaren menpean utzi zuen prefektuak. Bertan zeuden 12 alkate eta 60 euskal hautetsiek Bordele eta Hendaiaren arteko ibilbidearen kontra protesta egin zuten. Azkenik 2013.urtean Frantziako Gobernuak Bordele eta Hendaia-ren arteko AHT-aren trenbide eraikuntza gutxienez 2030era arte atzeratzea erabaki zuen. Hortaz Ipar eta Hego Euskal Herriko abiadura handiko trenaren lotura, Euskal Y-koarekin eduki behar zuen lotura hain zuzen, geldituta egongo da 2030era arte bederen.

Hortaz Abiadura Handiko Trenaren proiektua Euskal Herrian abiada desberdinetan erakitzen ari den egitasmoa da. Euskal Y, Nafarroako Korridorea eta Lapurdiko trenbide lerroa proiektu bakarra osatzen dute baina epeetan eta azpiegituraren eraikuntzari dagokionez, desberdintasunak somatzen dira.

EAEko azpiegitura publikorik handiena eraikitzeke epeak ez dira bete, 11 urte darama obretan Euskal Y-koa. Arestian aipatu dugun moduan, Eusko Jaurlaritzak 2017ko urtarrilean obren amaiera data 2023an kokatu du eta Frantziarekin konexioa, nahiz eta abiadura handiko ez izan, Espainiarekin baino lehenago iritsiko dela iragarri du, 2019 edo 2020 ean kokatuz. Lapurdiko abiadura handiko lerroa Euskal Y-koarekin edukiko duen lotura 2030era arte atzeratuta baitago.

Gainera Euskal Y-koa Nafarroarekin edukiko duen abiadura handiko lotura kolokan dago, hirugarren errailaren azterketa bideratu baitu Nafarroako Gobernuak. Dena den Nafarroa eta Euskal Y-aren arteko lotutak gaur egun ez dauka zehaztuta ez diseinurik, ez aurrekonturik, ez lanak hasteko eperik. Beraz, Abiadura Handiko Trenaren egitasmoa Euskal Herri mailan proiektu deskoordinatu bat dela antzeman daiteke.

A. AKTOREEN IDENTIFIKAZIOA ETA ELKARREN ARTEKO HARREMANA

Atal honetan sozio-ingurumen gatazka honetan parte hartu duten aktoreak identifikatuko ditugu eta beraien arteko harremana nolakoa izan den azalduko dugu.

AKTOREEN IDENTIFIKAZIOA

Arestian aipatu dugun moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sare berria, Euskal Y-a edo Gasteiz-Bilbo-Donostia Linearen azterketari ekingo diogu datozen orrialdeetan. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuak batuko dituen abiadura handiko tren sarearen (AHT) proiektuak, gure herrialdean eman den sozio-ingurumen gatazkarik nagusia izan da. Ikerlan honetan azaldu dugunaren arabera, gure herrian mobilizazio maila eta ingurumeneko gaiekin

lotura dituzten protestak nabarmenak dira. Baina azken urteotan, AHTk jo du goia, beharbada horixe izan baita kanpainarik luze eta garrantzitsuena Euskal Herriko sozio-ingurumen gatazken istorioan (Gorostidi eta Barcena 2016:41).

Ikerlan honen diseinu eta metodologia atalean (3.4.3 atalean), gure azterlanean soziograma tematikoaren aldeko hautua egin dugula adierazi dugu. Hori dela eta sozio-ingurumen gatazka honetan parte hartzen duten aktoreak identifikatzeko sozio-ingurumen gatazkaren aurrean garatutako jarrera kontuan edukiko dugu. Aldi berean talde motari erreferentzia egingo diogunez, oraingoa ere eragileak izendatzeko tankera desberdinetako taldeen sailkapena erabiliko dugu:

15. TAULA: **Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sare berriaren ALDE agertu diren eragileak:**

TALDE MOTA	IZENA	ZEREGINA
TALDE INSTITUZIONALAK	Europar Batasuna	Diru-laguntza eta oniritzi politikoa eskaini du.
TALDE INSTITUZIONALAK	Estatu Espainiarreko Gobernu. Sustapen Ministerioa.	Araba eta Bizkaiaren arteko zatia, Arrasate Elorrio eta Bergara herrien arteko lotunea eta Bilboko eta Gasteizeko sareak bere esku gelditu dira, ADIF (Administrador de Infraestructuras Ferroviarias) elkartearen bitartez egingo ditu.
TALDE INSTITUZIONALAK	Eusko jaurlaritza: Herrilan eta Garraio saila	Proiektua sustatu politikoki eta ekonomikoki. Gainera Euskal Y-koaren lanen obren zati bat bere esku dago Sustapen Ministerioarekin lortutako akordio baten bidez.
TALDE INSTITUZIONALAK	Administrazio Lokalak	EAJ eta PSOEren esku dauden Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sare berria zeharkatzen dituzten udalerrak.
TALDE POLITIKOAK	EAJ, PSOE eta PP	Hiru alderdi hauek abiadura handiko trenbide sare berriaren alde agertu dira eta babesa eskaini diote.
SINDIKATUAK	UGT CCOO ⁴⁹	Abiadura handiko Gasteiz, Bilbo, Donostia lineaaren alde agertu dira.
TALDE ENPRESARIALAK	Enpresarien Zirkulua Euskal Merkatal Ganbarak, Confebask	Euskal Y-koaren proiektuari babesa eta sostengua eskaini diote.
ENPRESA ENTITATE PUBLIKOA	ADIF, Euskal Trenbide Sarea	ADIF Sustapen Ministerioaren menpekoa den enpresa-entitate publikoa da. Trenbide Azpiegitura Administrazioa eta trenbide-sektoreko dinamizatzaile nagusia da. ETS Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan Sailearen menpe dagoen Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publiko bat da. Euskal trenbide-sareko azpiegitura kudeatzailea

Iturria: egileak egina

Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sare berriak talde instituzional nagusien babesean jaio eta garatu da. Europar Batasunak politikoki eta ekonomikoki bultzatu duen proiektua da eta bai Gobernu zentralak, bai Eusko Jaurlaritzak ere, proiektu honen aldeko apustua egin dute hastapenetatik.

Aldi berean trenbide linea berria zeharkatzen duten EAJk eta PSOEek bere esku dituen udalerrietako babesa jaso du. Proiektua diseinatu zutenetik, 20 urte, eta obrak hasi zirenetik 10 urte pasa direnean, talde politikoen artean EAJ, PSOE eta PP abiadura handiko trenbide berriaren

39 CCOO sindikatua bera eta bere ingurumen saila ez da nabarmendu egitasmo honen aldeko jarreran, bere zuzendaritza alde agertu bada ere.

alde agertu dira momentu oro. Sindikalgintzan ere sostengua jaso du UGT eta CCOO sindikatu-partetik. Azken sindikatu honetako zuzendaritza alde agertu bada ere, sindikatua bera eta bere Ingurumen saila ez da nabarmendu kontrako jarreran.

Talde enpresarialen bultzada zertifikazio ekonomikoen bidez gauzatu da, Enpresarien Zirkulua, Confebask eta Euskal Merkataritza Ganbarek Euskal Y-koa garapen ekonomikorako abagune gisa ikusten baitute jarduera ekonomikoa bultzatzeko eta denontzako aberastasuna sortzeko lagungarria. Sustapen ministerioaren menpe dagoen enpresa publikoko erakundea, ADIF, proiektuaren sustazatile nagusietako bat izan da ETS, Euskal Trenbide Sarea, erakundearekin batera euskal trenbide sare berriaren kudeatzaile nagusia delarik.

16. TAULA: **Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sare berriaren KONTRA agertu diren eragileak.**

TALDE MOTA	IZENA	ZEREGINA
TALDE INSTITUZIONALAK	Administrazio Lokalak	Aduna, Abadiño, Anzigozar, Antzuola, Aramaio, Arrasate, Atxondo, Elorrio, Eskoriatza, Gaztelu, Izurza, Legorreta, Lenitz Gatzaga, Legutiano eta Urretxu kontrako jarrera instituzionala erakutsi dute.
ALDERDI POLITIKOAK	EH Bildu: Sortu, Aralar, EA eta Alternatiba Elkarrekin Podemos: Podemos, Equo eta Ezker batua	Elkarrekin Podemos-en barnean dauden, Podemos, Equo eta Ezker Batua, proiektuaren kontra daude. EH Bildu osatzen duten Sortu (Ezker Abertzalea) Aralar, EA eta Alternatiba kontrako jarrera daukate.
PLATAFORMAK ETA HERRI MUGIMENDUAK	AHT Gelditu Elkarlana	Abiadura Handiko Trenaren aurkako koordinadora da. Euskal Herriko hamaika sindikatu, mugimendu sozial, talde ekologista, alderdi politiko, udal, kaltetu talde eta norbanako biltzen ditu bere baitan
PLATAFORMAK ETA HERRI MUGIMENDUAK	Tren Sozial sarea	AHT gelditu Elkarlana plataformako talde guztiak, AHTren Kontrako Asanblada izan ezik, bultzadaz sortzen da, indarra trenaren ikuspegi sozialean jartzeko.
PLATAFORMAK ETA HERRI MUGIMENDUAK	AHTren kontrako Asanblada	Lurraren defentsa eta egungo gizarte kapitalistak daraman hazkunde ekonomikoaren aurkako posizioa hartzen du ardatz Euskal Y-aren aurka agertzeko.
MUGIMENDU SOZIALAK	Ekologistak Martxan, Eguzki eta tokiko talde ekologistek	Talde Ekologistek ez dute begi onez ikusi Euskal Y-koaren proiektua.
SINDIKATUAK	ELA, LAB, EHNE, STEE, EILAS, ESK, CGT, CNT	EAEko gehiengo sindikala abiadura handiko trenbide sarearen kontra egon da.

Iturria: egileak egina

Euskal Y-koaren kontra agertu diren eragileen aniztasuna nabarmena izan da sozio-ingurumen gatazka honetan. Talde instituzionalei so, 2007ko udal hauteskunde ondoren PNV-EA koalizioaren esku zeuden udalerrri asko ANVren esku egotera pasatu ziren, AHTaren kontrako protesta bozka moduan ere ulertu daitekeen aldaketa. Horrela, Gipuzkoan 13 udalerrri, Bizkaian lau eta Araban bakarra, abiadura handiko euskal trenbide sare berriaren kontrako jarrera instituzionala azaldu duten instituzio lokalak bilakatu ziren (El Pais 2007/6/02). Gainera beste zenbait udalerrietako zenbait zinegotzik kontrako jarrera azaldu zuten: Alegia, Anoeta, Arakil, Astigarraga, Bergara, Bilbo, Donostia, Durango, Galdakao, Hiriberri, Irun, Iruñea, Itsasondo, Lemoa, Lezo, Olaberria, Ordizia, Zizurkil, Zornotza eta Zumarraga) (Berria 2007.1.16).

Fenomeno hau ulertzeko alderdi politikoek proiektu honekiko eduki duten jarrera kontuan eduki behar dugu. EH Bildu-ren kasuan ezker abertzalea (orain Sortu, lehen Batasuna) proiektuaren kontrako jarrera eduki du momentu oro eta Alternatibak ere bai. Aralarrek kontrako jarrera edukita ere Trenbide Sozial sarearen baitan kokatu da beti, AHT Gelditu! Elkarlanaren Plataformaren parte izan delarik ere. EA-ren kasua aipagarria da, aldeko jarrera zeukanean ardura politikoak zituzten zenbait pertsona, besteak beste, Mikel Mintegi, Arabako Ingurumen Diputatua, Martin Aranburu, Kongresurako Bizkaiko zerrendaburua edo Pedro Berriozabal, Legutioko alkatea (2009.urtean), partiduaren iritzi ofizialarekin bat egiten ez zuten goi karguen isla bilakatu ziren, partiduan bertan AHT-aren gaineko eztabaida bazegoela frogatuz. Alderdiak proiektuaren aldeko apustua egin batzuen ere, EH Bilduren koalizioaren baitan sartu zenetik kontrako jarreraren kokatu da.

Elkarrekin-Podemos alderdia osatzen duten taldeek kontrako jarrera erakutsi dute., Podemos eta Equo sortu zirenetik kontra agertu dira eta Ezker Batua, Eusko Jaurlaritzan parte hartu zuenean ere (2001-2009) kritikoa agertu da proiektuarekiko. 2002an Ezker Batua-Berdeak alternatiba bat proposatu zuen, Bermejo irakasleak proposaturiko «euskal U»-a, alegia. Dena den Ezker Batuaren jarrerak AHT gelditu Elkarlanaren kritikak jaso zituen AHTaren aurka dagoenaren itxurak egiten zituela adieraziz: «Administrazio autonomiko neoliberalarekin duen aliantzak argi uzten du aurka dagoela dioen interesekin konplizitate osoa duela» (Berria: 2009-02-11).

Sozio-ingurumen gatazka honetan herritar plataformek, kontrako jarreraren jokatu duten paper protagonista nabarmena izan da. AHTaren kontrako Asanblada sortutako lehen taldea izan zen, abiadura handiko proiektuaren aurkako herritar multzoa, alegia. Honen bereizgarria izaera autonomoa eta antikapitalista da, desarroilismoaren kontrako talde horizontala eta asanblearioa. 2001.ean AHT Gelditu! Elkarlana jaioko da, talde politiko, sozial, sindikal, norbanako, asanblada eta abarren arteko elkarren arteko koordinadora izango delarik. Plataforma honen xedea AHTren egitasmoaren kontrako jarrera duten talde anitzen lotura gunea koordinatzea izango da, berez, proiektuaren aurkakotasuna baita elkartzen dituen arrazoi bakarra. Azkenez 2004.urtean Trenbide Sozialaren aldeko sarea sortuko da AHT-aren aurka dauden ia eragile denek osatzen dute, eta euren berezitasuna betiko trenaren aldeko apustua egitea da. Horregatik AHT -aren kontrako Asanbladaren kritikak jasoko ditu: «Trenbide Sozialaren Aldeko Sareak elkarrizketa instituzionalean oinarrituriko estrategia proposatzen du, trenbide ereduari buruzko negoziazioaren bidetik. Ondorioz AHT -ari egiten dion kritika partziala da oso, eta bere eztabaida trenbide ereduari atxikia da soilik» (AHT gelditu! Elkarlana, Berria 2004).

Euskal Autonomi erkidegoan herritar plataformen oposizioak jokatu duten lana bertan parte hartu dutenen kritikak jaso ditu ere bai: «ez gara gai izan eztabaida iraunkorra elikatzeke, ezta mugimendu sendo, eraginkor, zeharkako eta eraldatzaile bat eragiteko ere, AHTren aurkako mobilizazio eta protesta urteei jarraipena emateko modukoa, iraunkortasunarekin bat, eta egiazko aldaketan itxurarekin» (Antigüedad 2016:8). Ildo beretik AHTren kontrako mugimenduan parte hartu duten Barcena eta Larrinaga irakaskideak egindako kritika.

«Son muchas y variadas las organizaciones políticas, sindicales, sociales o ecologistas que se oponen a esta obra pero la unidad de acción es difícil (...) el sectarismo es una enfermedad bastante extendida en el mundo sociopolítico vasco y las vacunas contra el mismo escasas en Euskal Herria, con lo que la generación de lugares de unidad de acción más allá de los núcleos locales es una difícil tarea» (Barcena eta Larrinaga 2009:6)

Herri plataformaz gain talde ekologistak Euskal Y-koaren oposizio taldeetan kokatu dira bai Ekologistak Martxan, bai Eguzki eta baita ere tokian tokiko talde Ekologistak (besteak beste, Basauriko Sagarrak, Mutrikuko Natur Taldea). Sindikalgintzaren papera afera honetan adierazgarria izan da gehiengo sindikalak abiadura handiko euskal trenbide sare berriaren aurka egon baita, hots, ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE, CNT eta CGT sindikatuak. Bereziki aipagarria ELAk eduki duen papera, euskal gizartean gehiengo duen sindikatu den heinean AHT-aren kontra eduki duen jarrera nabarmena izan delako. Trenbide sare sozialaren alde agertu da momentu oro eta adibide legez ELAko zuzendari nagusia izandako Jose Elorrietaren adierazpenak aipatuko ditugu. 2008an Tolosako Leidor Aretoan Abiadura Handiko Trenak (AHT) baduela alternatibarik adierazi zuen, trenbideak modernizatu eta egokitzeko eta «jende xehearentzako tren bat» sortzeko eskaria eginez eta gai horren inguruan «kontzientzia kritikoa» sortu behar zela iragarri (Eguzki: 2008-07-05, hemen: <http://eguzki.org/2008/07/05/aht-kritikatu-du-elorrietak-eta-jende-xehearentzako-tren-bat-eskatu/> <kontsulta: 2017.04.12>


AKTOREEN ARTEKO HARREMANA

Aktoreen identifikazioa burutu ondoren aktore hauen arteko harremanei erreparatuko diogu. Horretarako eragileen arteko elkar eraginen soziograma landu dugu, gure ardatza sozio-ingurumen gatazka baita. Horrela absziden ardatzean gatazkaren aurrean eduki duten jarrera kokatu dugu:

1. **Aldeko jarrera:** proiektua begi onez ikusten duten taldeak, sostengua ematen diotenak.
2. **Jarrera diferentea:** proiektuarekiko interesa daukate baina ez dute inolako inplikazio zehatzik gauzatu.
3. **Jarrera arrotza:** proiektuarekiko jarrera pasiboa erakusten duten taldeak.
4. **Kontrako jarrera:** proiektua ez dela burutu behar uste dute, hots, proiektua egitearen aurka azaltzen diren eragileak.

Ordenatuen ardatzean aldiz talde motak kokatu ditugu: talde instituzionala, alderdi politikoak, herri plataformak, mugimendu sozialak eta bestelako taldeak, sindikatuak eta talde enpresarialak.


9. IRUDIA. SOZIOGRAMAREN ARGIBIDEAK



Iturria: Egileak berak egina

Soziograma honekin, Euskal Yaren proiektuan zer esana izan duten aktore guztien jarrera eta hauen arteko harremanen argazki estatikoa ikusi daiteke. Irudia 2016ko errealitateari egiten dio erreferentzia. Grafiko honetan, abiadura handiko Euskadiko Trenbide Sare berriaren sozio-ingurumen gatazkan parte hartu duten eragile desberdinak kokatzen dira. Gatazkaren prozesuaren garapenaren ulermena ahalbideratzeko, sozio-ingurumen gatazkan sortu diren eragile koalizioen identifikazioa eratu dugu. Ikusi daitekeenez, kasu honetan bi aktore bloke kontrajarri eta identifikagarri daude. Aldi berean nabarmendu behar dugu haien artean bitartekaritza espezifikorik ez dagoela.

10. GRAFIKOA: **Soziograma: AHTren aktoreen arteko elkar eraginaren soziograma orokorra. EAE**



Iturria: Egileak berak egina

Grafikoan argi geratzen denez, 2 multzo desberdindu daitezke. Alde batetik, proiektuaren aldeko jarrera dutenak, non instituzioak, Europako Batzordea, Eusko Jaurlaritza eta hainbat instituzio lokal antzeman daitezke. Aldi berean EAJ, PSOE eta PP alderdi politikoak koka ditzakegu; eta beste aldetik, kontrakoetan ezkerreko alderdi abertzaleak, EH Bildu (Sortu, Aralar, EA eta Alternatiba) eta ez abertzaleak, Elkarrekin Podemos (Podemos, EQUO eta Ezker batua) eta talde ekologistak eta mugimendu sozialak agertzen dira. Gezien bidez azpimarratzen denez, bi bloke hauen arteko kanal komunikatiboak etenda egon dira; hau da, ez da eragile desberdinen arteko harremanik egon. Honela, egoera gatazkatsua, inkomunikazioa eta espazio deliberatibo ezak izan dira nagusi Euskal Yaren proiektuaren garapenean.

Hala ere, aipatu behar da egon badirela kontzientzia bilatzea zuten proposamen formalak. Horien artean, Ezker Batua-Berdeak azaldutako eta R. Bermejok proposaturiko «euskal U»-a dugu. Euskal Herriko trenbide sare sozialak ere bestelako trenbide sare proiektu bat proposatu zuen. AHT egitearen aldeko jarduerak geraraztea eskatzen batzuen ere, trenbide praktiko, eraginkor eta gizarte, ekonomi, energi eta ekologi ikuspegitik bideragarri baten alde agertu zen, hots, trenbide sare berri bat eraikitzearen alde zegoen, Euskal Y-aren alternatiba izan zatekeen trenbidea, alegia. Honela zioen Euskal Herriko Tren Sozialaren sarearen protokoloak:

«Eraginkortasuna, eskuragarritasuna eta kostu proportzionatua kontuan harturik, pertsonentzat eta salgaientzat beharrezko den eguneroko garraioaren zati garrantzitsu bat bere gain hartzeko gai izango den trenbide sarea»(Tren Sozialaren Aldeko sarea, 2006.04.25, hemen: <http://www.aralar.eus/eu/Albisteak/20060425/aralarrek-tren-sozialaren-aldeko-sarearen-protokoloa-sinatu-du> <kontsulta:2017.02.09>).

Antzeman daitekeenez, aldeko agenteek, zertifikazio ekonomiko, instituzional eta politikoak jaso dituzte eta kontrakoek sozialak bereziki.

4.1.3. AHT: Sozio-ingurumen Gatazkaren Analisi Enpirikoa

A. DEFINIZIO KONPARTITUAREN ANALISIA

Egitasmoaren analisi deskriptiboa gauzatu ondoren, analisi enpirikoa jorratuko dugu. Atal honekin hasteko AHTren sozio-ingurumen gatazkaren hasiera eta definizio landuko dugu, hots, sozio-ingurumen gatazka honen hastapena edo hasieraren analisia egingo dugu definizio konpartiturik egon den edo ezaztertzeko. Horrela, sozio-ingurumen gatazka honetan parte hartu duten aktoreak identifikatu nahi izan ditugu, nolako izan den bere harremana eta zein izan den proiektuari buruzko informazioak egin duen ibilbidea, aktoreen artean egondako desberdintasun informatiboak azalarazteko.

Proiektuaren hasiera eta sustatzaileak

Aktore gehienek proiektuaren hastapena 80. hamarkadan kokatzen dute. Honela dio eragile sozial

batek: «AHTren egitasmoari EHN 1989an urtean eman zitzaion hasiera. Espainiar gobernua urte hartan Espainia osoak AHTak bultzatzeko hartu zuen erabakiei oso lotuta» (TKE4). Euskal Yaren proiektua aurrera eramateko lehen akordioak 80ko hamarkada bukaeran kokatu arren adierazgarria iruditu zaigu trenbide sare berri honen gaineko ideia Jaurlaritzako Herri Lan eta Garraio Saileko goi kargu ohi baten aburuz, Merkataritza Ganbaren esku kokatu izana hamarkada bat lehenago:

«La primera noticia de la Y vasca nace en el año 1975 de las cámaras de comercio fundamentalmente de la Cámara de Comercio de Bilbao. Era un proyecto cuyo objetivo era la interconectividad de las tres capitales»(TAE2)

Proiektuaren sustatzaileei dagokionez ere, denek egiten dute bat Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Gobernua azpimarratzeko orduan, Europako proiektuei lotuta. Honela adierazten du aktore instituzional batek: «era un proyecto que, vamos a decir, primero se hizo la línea de alta velocidad Madrid-Sevilla que fue la primera y teóricamente está aprobado la idea de hacer la Y vasca, estaba avalada por la Unión Europea como un segundo proyecto prioritario»(TAE4). Hau da, proiektua Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Gobernutik jaiotzen da; honetan aktore guztiak bat datoz eta ondoren Europar Batasuneko babes politiko eta ekonomikoa jasotzen du:

«El Gobierno vasco retoma esta historia sobre todo cuando es incluido en las redes transeuropeas. Y la inclusión del enlace a Bilbao porque en un principio lo que se incluye es el Vitoria-Dax, el trazado Vitoria-Irún-Dax pero en colaboración del ministerio con el departamento de transportes, que entonces estaba Josu Bergara en Bruselas se consigue que con la aprobación definitiva de 14 proyectos de redes transeuropeas, que lo aprueba Jaques Delours, incluir el eslabón Vitoria Dax con enlace a Bilbao. Y digamos que es la aprobación política de este proyecto que es en el año 93-94. Es muy importante ese dato» (TAE5)

Gobernuak, europarrak, espainiarrak eta Eusko jaurlaritza, egitasmo honen sustatzaileak izango dira: «Nolabait dira gobernu instituzioetan hartzen diren erabakiak» (TKE3). Hortaz, ez zen egon proiektuaren definizio partekaturik, instituzioen sostenguearekin jaio zen, baino ez zen gizarteratu eta aktore sozialekin adostu.

«El ante proyecto de la Y vasca, esta terminado en el año 91 y en Lakua tenían un monton de informacion, carpetas de obras, de fabricas, y el proyecto detallado, a escala 1:5000 que segun decian tambien, contenia toda la declaracion, toda la informacion necesaria ambiental, para hacer la declaracion impacto ambiental, o sea habian adelantado, un monton de estudios por su cuenta, esperando con una expectativa de realizar la Y vasca, a corto plazo. Y todo eso fue acompañado de una forma, por el gobierno español por sus intereses, en ese momento, el PSOE también estaba en Jaurlaritza. Y todo estaba decidido» (TKE2)

Honen harira 1989ko otsailean Eusko jaurlaritzaren eta Gobernu espainiarren arteko akordioaren berri ematen duten hiru albiste hauetan (ikusirudiak) bai Egin, Diario Vasco eta ere bai Deia-ko portadetan irakurri dezakegu Euskal Yaren egitasmoa 1997rako prest egongo dela iragartzen dutela.

10. IRUDIA: Deia, Diario Vasco eta Eginen portadak (1989-02-28)



Proiektuaren aktoreen aldeko eta kontrako izendapena:

Aktore guztiek identifikatzen dituzte zeintzuk diren proiektuen alde eta kontra daudenak; hala ere, instituzioen aldetik zailtasun gehiago ikusten dira argi identifikatzeko zeintzuk diren kontra dauden herri plataformak.

Egitasmoaren aurka dauden aktoreak aipatzerakoan deigarria da aktore instituzionalek ez dutela aipatu AHT Gelditu! Elkarlana, AHTren kontrako Asanbalda edo Trenbide Sozial Sarea. Gehiago sindikala ere identifikazio honetatik at geratu da. Euskal Yaren oposizioa bi taldetan banatu dituzte elkarrizketatutako eragile instituzionalek. Alde batetik oposizio politikoa, ezker abertzalean kokatu dute:

«Con un cierto rechazo de algún otro sector de este país, Herri Batasuna y los movimientos periféricos a Herri batasuna» (TAE3), «Kontra ba bueno izan degu batez ere, eta oraindik horrela dago, ezker abertzalea beti agertu da kontra alde batetik politikoki bere posizioa hori izan delako» (TAE1)

Eta beste aldetik talde ekologistak: «baita ere ba ingurumenaren lelopean ba bueno kontra egin dutenak. Bi sektore horiek hor egon dira beti» (TAE1), «Hay una oposición digamos del campo de los movimientos medioambientalistas, ecologistas, etc.» (TAE2).

Aldeko aktoreak identifikatzeko orduan elkarrizketatutako guztiak bat datoz Europar Batasuna, Eusko Jaurlaritzaren, Espainiako Gobernua eta alderdien artean EAJ, PP eta PSOE seinalatuz. Eragile instituzional batek honakoa adierazten du alderdi hauen arteko adostasuna mailaren inguruan: »políticamente había una unanimidad que había que optar por el ferrocarril» (TAE4).

Baina aldi berean beraien arteko tentsioak ere mahai gaineratu dira, Eusko Jaurlaritzako Herri Lan eta Garraio saileko goi kargu ohi baten adierazpenetan:

«El Partido Nacionalista nunca se posiciono en contra obviamente ni el Partido Popular tampoco pero bueno en el primer gobierno de Aznar yo tuve también ...en fin yo quería avanzar mucho más rápido pero hubo un freno ahí. Ese freno que tuvo en el primer gobierno de Aznar que fue en año 94 al 98 pues bueno, ahí no tuve el entusiasmo ni del Gobierno de Aznar ni de nuestro socio en el gobierno que era el partido nacionalista. Eso es la historia y eso es así»(TAE3)

Aktoreen identifikazioa gauzatzeko eragileek ikuspuntu desberdinak jorratzen dituzte. Euskal Yaren kontra dagoen eragile ekologista batek horrela azaltzen du kontrako jarrera duten eragileak nortzuk diren: «PSOE, PP, EA eta EAJ kenduta beste guztiek mesfidantzak edo aurkako jarrerak eduki dituzte» (TKE3). Aldeko jarrera duen eragile instituzionalak aldiz, aldeko jarrera eduki dutenak identifikatzeko hitz hauek erabiltzen ditu: «Bueno ba nik uste det alde egon dela edozein esango genuke, hiritarren parte handi bat» (TAE1).

Nabarmenak dira beraz, aldeko eta aurkako jarrera dutenen ikuspuntu kontrajarriak. Bi alderdietako eragileentzat, bai alde bai kontra daudenentzat, gehiengoa bere esparruan kokatzen da. Kontrakoek gehiengo sindikala eta soziala eta alderdi ezkertirrak proiektu honen kontrako jarrera eduki dutela azpimarratzen dute eta aldeko aktoreek euskal hiritarren gehiengoa. Hortaz identifikazio prozesuan gabeziak antzeman ditzakegu, hots, edozein hartu emanerako oinarritzkoa den lehen urratsa, eragileen arteko elkar aitotza, ez baita betetzen.

Aktore desberdinek nondik izan zuten proiektuaren berri eta nola inplikatu ziren

Atal honi dagokionez, elkarrizketetan agerian geratu denez, desberdintasun nabariak daude eragile instituzional eta aktore sozialen artean. Euskal Y-ari buruzko informazioa lehen eskukoa da eragile instituzionalentzat, kasu honetan instituzio nagusiak direlako proiektuaren sustatzaile nagusia eta egitasmoaren aldekoa. Horrek egiten du elkarrizketatutako aktore instituzionalek proiektuei buruzko informazioa beraien zuzenean jasotzea (edo alderdiaren bitartez); honela adierazten du AHTaren proiektuan parte hartu zuen kargu politiko batek:

«Yo cuando entro de responsable el proyecto ya estaba en marcha. Pero yo llevaba ocho años en el parlamento y era el portavoz del partido en temas de transporte. Por lo tanto yo conocía exactamente que es lo que se estaba haciendo porque en las comparencias del consejero en el parlamento nos traía la información».(TAE2)

Eragile politiko-instituzional hauek egitasmoaren sorreran egon dira askotan, eta horrela izan ez denean, proiektuei buruzko informazio eta detaileak eduki dituzte, ezinbestekoa delako hauen parte hartzea proiektuek aurrera egin ahal izateko.

Egitasmo honen ezagupena askoz ere beranduago ematen da elkarrizketatutako eragile sozialetan artean, informazioa ia gehienetan komunikabideen bitartez jasotzen dutelako:

«Nondik enterau ginen? Pentsatik. Halako informazioa beti agertzen dira komunikabide idatzietan, telebistan ateratzen dira, esaten akordioak egon direla eta goitik, Bruselatik, Europatik eta Eusko Jaurlaritzak etortzen dira»(TK5)

Ezin dugu ahaztu, mugimendu batzuk behin proiektua definituta dagoenean sortu direla, honek daukan defizit informatiboarekin. Desoreka informatibo honetan aktore sozialak dira kaltetuak, kasu batzuetan zailtasun asko izaten baitituzte instituzioei informazioa eskatzera-koan; eragile batek esandakoa da honen adierazle:

«Las decisiones estaban, super tomadas, el proyecto estaba ya muy definido, ze izan zen oso proiektu, oso prozesu sekretista, benetan. Ta igual agudizado tambien con el conflicto de la autovia. Coincidia con el año noventa, estaba en pleno momento la autovia Irurzun Andoain en conflicto, eso igual, eso, aumentó mas su secretismo. Baina benetan que las decisiones fueron tomadas, en ese sentido sin ninguna participacion, ni participacion ni informacion publica, o sea, del 1988 al 1991 bueno, adelantan mogollon, eso no existe oficialmente» (TK2)

Nahiz eta informazioa lortzeko zailtasun handiagoak eduki, orokorrean eragile sozialetako jendea da gehien inplikatu dena, aurka egin nahi zion ingurumen politika horri aurre egiteko plataforma edo mugimendu sozialean sartzeko punturaino.

Aktoreen arteko harremanak

Aktoreen arteko harremanak aztertzerakoan desberdintasun nabariak somatzen dira eragile instituzional eta eragile sozialetan artean. Eragile instituzionalen gehiengoak harremanak eduki dituztela nabarmentzen dute; mota desberdinetakoak, bilerak, debateak eta beraien jarrera irekia izan dela azpimarratzen dute: «Harreman asko izan ditut eta debate askotan egon naiz»(TAE1). «Era difícil pero la relación siempre hubo, no negué a nadie una entrevista, una reunión»(TAE4),

Aldi berean, eragile hauek, oposizioaren indar ahula nabarmentzen dute, modu horretan harreman eza justifikatzeko. Adierazgarria Eusko Autonomi Erkidegoko sindikatu nagusia, ELA, aipurik ez izatea:

«La oposición ha sido una oposición muy focalizada, no ha sido una oposición, diríamos, de distintos segmentos sociales o políticos, no., estaba muy focalizada en determinado segmento que puede ser Herri batasuna, LAB y todos los grupos o asociaciones que giran alrededor de ellos. Pero tampoco, sin mucha fuerza »(TAE2)

Bestaldean eragile sozialen erantzunak ditugu eta hauek harremanik ez dela egon nabarmentzen dute: «Oso gutxitan izan dugu aukera nolabait alde eta kontrakoan aldeko eztabaida, datuen eta irizpideen kontraste bat egiteko. Ez da harremanik izan, egon da alde batetik jarrera irmo bat aurrera ateratzeko eta beste alde batetik ezetza. Baina besterik ez» (TK3). Esanguratsua iruditu zaigu proiektuaren kontrako jarrera duten elkarrizkatu batzuek, aktoreen arteko harremanak aztertzerakoan egiten duten diagnostikoa: «Harremana benetan hori da: inposaketaren eta errepresioaren harremana»(TKE1). Abiapuntua, harremana, berdintasun gabeko botere erlazio moduan azaltzen dute: «Guk argi eta garbi daukagu,ez garelara sartuko inongo elkarrizketetan beraiekin,ez badute abiadura handiko trena gelditzen. Harreman horiek gainera oso deserosoak eta inposatzaileak dira»(TKE4). Horrela harremanen ukazioa agertzen da:

«Ni ez negoke batere elkarrizketaren alde, gatazkaren konponbide bezala...horrek eskatuko luke gizarte bat non, botere ekonomiko, politikoa, guztiak, sozialak eta... indar banaketa benetan horizontalagoa eta benetan egon beharko luke, horrela, horrelako proiektuak ezinezkoak lirateke»(TKE2)

Eragile sozialek instituzio nagusien aktoreen jarrera azaltzerakoan jarrera prepotentea eduki dutela adierazi dute, deskalifikazioa eta kasu batzuetan kriminalizazioa erabili dutela adieraziz:»Son unos ruralistas, atzeraka begiratzen ari direnak...hasiera nik uste beraien jarrera hori dala, deskalifikatzea» (TKE5). Ikerlana hau burutzeko egindako dokumentazio analisian eta elkarrizketen bidez lortutako informazioa aztertzerakoan esan dezakegu Eusko jaurlaritzako eragile instituzionalek, goi kargu ohiak, eztabaidaren ukazioa erabili dutela argudio legez beraien jarrera azaltzeko.

«Es como si a mi me empiezan a hablar de algo sanitario, lo desconozco, igual el sentido común, si es que tengo algo, puedo decir algo, pero no más. De cada cosa tiene que hablar fundamentalmente los que tienen que opinar, es que no puede opinar cualquiera. Del tiempo opina todo el mundo y no debería, de lo demás tiene que ser menos no?»(TAE3)

Bai eragile sozialek bai instituzionalek «beligerante» berbarekin deskribatu dute behin baino gehiagotan beste aktorearen jarrera eta batzuetan era positibo batean erabili dute:

«Kontrako dagoena bai. Posizio beligerante batean egon da eta ez zentzu txarrean. Baizik eta nire posizioa defendatzen dut eta mantentzen dut eta egingo det manifa bat eta egingo det ez dakit zer eta egingo det badakit zer. Alde dagoenak aldiz ez du hori egin (...) Baina herri honetan aldeko plataformarik ez det ezagutzen»(TAE1)

Eragile sozialek herri mobilizazioa erabili dute proiektuen kontrako jarrera azaltzeko:

«Ba Gasteizen egon ginen, enkartelatuak, kanpoan denbora guztian. Guggenheimen kateatu egon ginen, Hiru egun ziren eta egon ginen etengabe kalean. Ba Amann iritsi zenean, le entregamos una calabaza, (...) beste baten saiatu ginen tarta bat botatzen»(TKE2)

Manifestazioak, kale agerraldiak... mobilizazio mota desberdinak erabili dituzte eta proiektuen aldeko eragile batzuk jarrera hau gutxietsi dute «Ha habido muchas protestas porque pasaba por un sitio que le perjudicaba a un señor que era propietario»(TAE5).

Honen harira aipagarria iruditu zaigu, instituzioko eragileek oposizioaren eskaerak edo asmoak identifikatzerakoan eduki duten jarrera. Batzuetan ezjakintasuna agertu da, eta beste batzuetan deskalkifikazioa, kontrako mugimenduen argumentuetan edota planteatutako deba-teetan sartu gabe. Honen lekuko, 2 aktore instituzionalen adierazpenak:

«Ba kontra daudenek zehazki ez dakit zer proposatzen duten»(TAE1) «Las cosas en contra, fue bastante demagógico, se va a destrozar el paisaje, nos van a romper Euskadi, el medioambiente va a estar muy dañado»(TAE2)

Aipatzekoa ere harremanen inguruan berba egiterakoan dimentsio pertsonalak daukan garrantzia. Eragile sozialek instituzioetako eragileak pertsonalizatzen dituzte behin baino gehiagotan, beraien arteko harremanetan jokatu duten papera azaltzeko: «Amann (Alvaro Amann, Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan Sailburu ohia) viene como una cara mucho mas sensata. Él tambien manifiesta su preocupacion, por los impactos que pueda tener. O sea tiene otro talante»(TKE5).

Iritzi desberdinen arteko eragileen hartu emanak aztertzerakoan berriz ere ikuspuntu desberdinen analisisa egin behar dugu. Orokorrean eragile instituzionalek hartu emanak egon direla baieztatzen dute «Han habido multitud de reuniones, cientos de reuniones con ayuntamientos, uno por uno con asociaciones, con ecologistas, con asociaciones vecinales...En fin, con todo tipo. Reuniones comarcales...en fin que se ha hecho todo lo posible»(TAE2). Eta orokorrean eragile sozialek hartu emanak ez direla egon adierazten dute:

«Oso eskasak izan dira. Lehenengo eta behin desenkuentro bat egon da, ikusten dut nire buruen ehunka aldiz pankarta batekin bilkura instituzional edo kongresu instituzional baten kanpoan esaten ez gaude ados proiektu honekin baina oso oso gutxitan gertatu da aldeko eta kontrako eragileen arteko eztabaida, hogeitau huetan birritan ETBn. Gehiagorik ez » (TKE3)

Eragileen arteko harremanak azaltzerakoan desberdintasunekin topatzen gara aldeko eta kontrako eragileen diskurtsoetan. Aldekoek oposizioa gutxitzen dute, harremanetarako aukera momentu oro zabalik eduki dutela azpimarratuz. Kontrako eragileek aldiz, baieztapen hauek ezeztatzen dituzte, harreman eza nabarmentzeko. Diskurtso kontrajarri hauek eragileen arteko harremanen egoera deskribatzen dute, orokorki eskasa izan dela eza dezakegarrik.

B. EZTABAIDA-EREMU PUBLIKOAREN ANALISIA


Atal honetan komunikabideen jardueraren analisiaren lanketan murgilduko gara, eztabaida-eremu publikorik irekirik ote dagoen aztertzeko. Lehenengo eta behin hedabideak eta eragileen arteko harremanak jorratuko ditugu. Azterketa honen bitartez eragile desberdinen estrategia informatiboak identifikatu nahi izan ditugu, nola ailegatu den euren mezua gizartera hedabideen bidez eta komunikabideek duten jarrerari buruzko iritzia aztertu nahi izan dugu, guzti honek iritzi publiko informatua eta informazioaren gardentasuna ahalbidetu duen ala ez ikusteko. Horretarako analisi hemerografikoa ere gauzatuko dugu.

Arestian aipatu dugun moduan gure azterlanean prentsaren analisia jorratu dugu, ikertutako sozio-ingurumen gatazketan suertatzen diren estrategia informatiboak lantzeko. Prentsa hautatzerakoan Arana, Amezaga eta Azpillaga irakaskideek nabarmentzen duten ezaugarria kontutan eduki dugu, hots, «egunkari idatziek pisu espezifiko handia dutela Euskal Herrian». Euskal ikerlari hauen aburuz bi arrazoi nagusi daude fenomeno hau azaltzeko: «batetik erregio eta estatu mailako proiektiozko talde multimedial sortzeko oinarri izan direlako» eta bestetik, «toki, probintzia zein nazio mailako egunkari ugari editatzen direlako» (Arana et al.,2008:27).

Gainera, oso kontuan hartzeko irakurle kopuruak lortzen ditu, CIESen⁴⁰ datuen arabera 2015ean 872.000 irakurle zituen prentsak Euskadin. Gehien saltzen diren egunkarien zerrendan, Vocento taldeko El Correok eta Diario Vascok lehenengo eta bigarren postua lortzen dute eta hirugarren postuan Noticias Taldearen barnean dagoen Deia egunkaria dago. Ondoren Marca kirol-egunkaria agertzen da eta laugarrenez Egin egunkariaren lekua hartzeko 1999an jaio zen kazeta, Gara, alegia. Zerrenda jarraituz PRISA taldeko El Pais eta 2003ean Egunkaria-ren itxiera ondoren sortutako Berria egunkaria topatzen ditugu. El Mundo Deportivo eta Noticias Taldearen, Noticias de Álava eta Noticias de Gipuzkoa ixten dute gehien saltzen diren egunkarien zerrenda.

40 CIES hedabideen audientzia ikerketetan espezializatua dago. 1984tik EAEko eta Nafarroako hedabideen audientzia ikerketak egiten ditu <http://www.ciessl.com/audienciamedios.htm> (kontsulta: 2017-02-09).

11. GRAFIKOA: Euskadiko Prentsaren Irakurleen datuak, 2015 (milakoetan)



Iturria: Egileak berak egina, CIES-ek plazaratutako azken datuetan oinarrituta (2015)

HARREMANAK KOMUNIKABIDEEKIN

Oro har, eragileen eta komunikabideen arteko harremanetan desberdintasun nabariak ikusten dira eragile politiko instituzional eta eragile sozialen artean. Euskal Y-aren kontra dauden aktore sozialek, elkarrizketetan aditzera eman dutenaren arabera, zailtasun gehiago izan dituzte irakurle gehien dituzten hedabidetara iristeko. Honela adierazten dute batzuk: «Oso komunikabide gutxi erabili ahal izan ditugu». (TKE2).

Euskal Yaren aldeko eragileek aldiz, harreman ona izan dute pisu gehien duten hedabideekin (Vocento, Noticias Taldea, Prisa). Aktore politiko instituzional batek honela azaltzen du komunikabideekin izandako harremanak: «Yo creo que hubo una apuesta clara de los medios de comunicación, de todos, públicos y privados, por empujar el proyecto y eso es importante»(TAE3). Eragile sozialek, ordea, oihartzun askoz txikiagoa eduki dute komunikabide hauekin. Nahiz eta prentsurrekoak egin eta komunikabide guztietara bidali informazioa, gero hedabide nagusiek ez dute publikatzen, edo espazio oso murrizta eskaintzen diote:

«Ikusten duzu Euskal Herrian dagoen azpiegitura, obra potenteena dela, aurrekontuen aldetik inportanteena dena, ez dela diskutitzen komunikabideetan, bueno informazioa ematen da, informazio ofiziala, gobernutik datorrena baina mobilizazioak, akanpadak, kontzentrazioak, kongresu alternatiboak, denetarik egin da, liburuak idatzi dira eta komunikabide ofizialetan, mainstring edo nagusiak diren horietan egon den jokamoldea da: hori egingo da, hori egin behar da eta zuek ez duzue arrazoirik»(TKE4)

Euskal Y-aren aurka agertu diren eragile sozialek harreman estuagoa izan dute tokiko hedabideekin, hau da, herriko komunikabideak, eskualdekoak, irrati libreak eta oro har, gehien irakurtzen ez den prentsarekin, Gara eta Berria batez ere. Kontrako mugimenduko eragile hauek

askotan komunikabide indartsuen kontrako jarrerarekin aurkitu direla adierazten dute, eta horrek eragin du euren mezua medioetan ez agertzea; batzuetan «intoxikazio» kontzeptua ere agertu izan da. Hau da, kontrako mugimenduen informazio gutxi emateaz aparte, hainbatetan nagusi diren hedabide hauek beraien aurka jo dutela adierazi dute, manipulazioa erabiliz:

«Grupo Noticias, Correo... guzti hauek azken finean herri mugimenduarekiko intoxikazio besterik ez dute aurrera eraman. Herri mugimenduak informazio bat zabaldu dutenean, zuzenean jotzen dute, aurkaritzara. Informazioa guztiz desitxuratzeko eta beraien interesen, hots, abiadura handiko trenaren aldeko interesen, menpera jartzeko informazioa desitxuratu hori»(TKE1)

Hortaz, eragileen izaerak badu bere garrantzia hedabideekin izango duten harremanean. Aktore instituzionalek errazago dute komunikabide nagusietan agertzea: «Tuvimos mucha relación porque uno de los grandes preocupaciones que teníamos era como llegaba la información de este proyecto» (TAE5).

Aktore sozialek, ordea, zailtasun handiagoak dituzte; bestelako kanal komunikatiboetaz baliatzen dira, herri edo eskualde aldizkariak, «Hitza»⁴¹ bezalako egunkariak, irrati libreak... honela, kontrako mugimenduen mezua maila lokalean ezaguna da, baina EAE mailan, nagusi den prentsak duen pisua kontuan hartuta, gutxiago iristen da, eta normalean Gara eta Berria dira euren mezuak gehien ateratzen dituztenak. Sozio-ingurumen gatazka honen analisisian antzematzen daiteke, gehien saltzen den prentsa, aldeko aktore instituzionalekin lerrokatzen dela eta kontrako mugimenduek tokiko komunikabideetan eta Gara eta Berrian dutela euren erreferentzia.

HEDABIDEETAN PROIEKTUARI BURUZ AGERTU DEN INFORMAZIOAREN NOLAKOTASUNAK

Oro har, aktore guztiek ikusi dute euren mezua gizarteratu dela, nahiz eta desberdintasunak egon zenbateko intentsitatearekin. Hor paper oso garrantzitsua jokatzeko du gehien irakurtzen den prentsa eta hori Euskal Y-aren kontra dauden eragile sozialentzat oztopoa izan da; ez, ordea, Euskal Y-aren alde dauden aktore instituzional eta politikoentzat.

Elkarrizketetan agertutakoaren arabera, egunkari nagusiak (Vocento eta Noticias taldekoek) planteatutako proiektuen alde agertu dira, instituzio eta alderdi politiko nagusiekin bat eginez:

«Los medios de comunicación yo creo que eran favorables en general y por tanto veían esto (AHTa) como una oportunidad histórica de no quedarnos retrasados» (TAE4)

41 *Hitza* izenburua duten agerkariak EKTk argitaratzen dituen eskualdeko egunkariak dira. EKT euskarazko egunkari nazional bat sortu eta eskualdeetako egunkariak sustatzeko helburuarekin sortu zen, 2003an, Egunkaria kazetaren itxieraren ondorioz. Ildo horretan, EKTren baitako Bertako Hedabideek eraginda, hainbat eskualdetan Hitza egunkariak sortu dira azken urteotan, tokian tokiko euskara elkarteekin eta gizarteeragileen laguntzarekin. Iturria: <http://www.hitza.eus>, <http://www.berria.eus/berrialdea/proiektuak.php> (kontsulta: 2017/02/15)

Gara eta Berriaren kasuan, Euskal Yaren kontra egon diren aktore sozialen diskurtsoei lekua eskaini diete: «Garan adibidez, zegoen gehigarria ingurugiroari buruzkoak garai hartan, astero bat eta oso inportantea zen gehigarri hura, asteroko Garan, lehen Eginen, informazio eta egiten zen lana trasladatzen zen. Inportantea zen gehigarri hori. Ta gero Euskaldon Egunkaria» (TK4). Sozio-ingurumen gatazka hau eman den epealdi luzea kontutan edukita elkarriketatuek Egin eta Euskaldunon Egunkaria ere aipatzen dute, hots, Garak eta Berriak ordezkatu zituzten kazetak.

Normala denez, egunkari bakoitzak bere ildo ideologikoa eta linea editoriala jarraitzen du. Ikusitakoaren arabera, honek badu bere eragina sozio-ingurumen gatazka bati buruz informatzeko garaian; batez ere eragile sozialek esandakoaren arabera, eurekin bat ez zetozen kazetak (gizartean eragin eta irakurle gehien dituztenak) ez dituzte beraien mezuak plazaratu, edo argitaratu dituztenean oso leku gutxi utzi zaie, aldeko aktoreei uzten zitzaiena baino askoz murriztagoa. Horregatik bere mezua, bere informazioa zabaltzeko premia argi geratu da aztertutako kasu honetan:

«Egiazko informazioa zabaltzea herritarrengan, eta hori izan da gure helburuetariko bat, izan ere argi dago herritarrengan, informazio zabaltzen dugun heinean herritar hori Abiadura Handiko Trenaren aurka dagoela» (TKE1)

Adierazpen hauekin bat egiten du mugimendu ekologistatik elkarriketatutako beste eragile baten, arestian aipatu dugun EHUK egindako inkesta lana aipatzen duelarik: «EHutik egindako inkesta hori, jakiteko herritarrek zer zekiten AHTri buruz, gehiengo luze batek esaten zuen zeukan informazioa eta zeukan ezagutza AHTaren kontrako aldetik zetorrela» (TKE3).

Kontuan eduki behar dugu AHTaren proiektuan, eragile instituzionalek hedabide guztietan ordaindutako publizitatea erabili dutela eta horrek presentzia mediatikoa eman diela. Egunkarietan instituzioek beraien mezuak emateko iragarkiak sartu dituzte, baita erakusketak antolatu eta foiletoak banatu. Honela adierazten du eragile instituzional batek:

«Publicidad institucional pagada porque evidentemente hicimos muchísimas páginas de periódico, anuncios en radio, exposiciones itinerantes, folletos...en fin, todo lo que en aquellos momentos se podía hacer y eso naturalmente, el objetivo era, que esto fuese calando en la población que lo viesan como un proyecto fiable y de futuro para el país vasco, para Euskadi» (TAE5)

Mugimendu sozialetatik instituzioen lan hau «propaganda» bezala ikusten da eta onartzen dute sekulako indarra daukala, gizarte guztira ailegatzen delako. Euskal Yaren kontrako eragileen kritika honako adierazpenetan irakurri dezakegu:

«Politikari eta lobby ekonomikoek ere beraien lana egiten saiatzen dira. Alde batetik, bai intoxikatzen eta kriminalizatzen eta bestetik baita ere propaganda ustela zabaltzen. Intoxikatzeak eta kriminalizatzek badauka helburu zehatz bat eta hori da herri mugimenduaren deslegitimazioa» (TKE1)

Herri mugimenduen deslegitimazio hori egiteko hedabide nagusiak erabiltzen dituzte, hauek duten presentzia sozialaz baliatuz.

Kontrako mugimenduko aktoreek, aldiz, prentsan azaltzeko eta gizarteari euren mezua eta aldarrikapenak helarazteko beste estrategia komunikatiboetara jotzen dute. Hitzaldiak, kanpaldiak, eztabaidak, prentsaurrekoak edota manifestazioak erabiltzen dituzte beraien aldarrikapenak gizarteratzeko. Ekintza hauek normalean komunikabideetan oihartzun bat izaten dute eta horregatik erabiltzen dituzte. Eragile sozial batek honela adierazten du: «Nik uste Gara eta Berria izan zirela tresna nagusiak. Eta gero komunikabide txikiago horiek». Deia eta Correon agertutakoari buruz honakoa esaten zuen: «Oso gutxi; noizbehinka ateratzen dira egiten ditugun protestak, baina oso gutxi. Gehiago igual informazio ofiziala» (TKE2).

Orokorrean, elkarrizketatutako aktore gehienentzat proiektuei buruzko informazio nahikoa atera da komunikabideetan. Beste gauza bat da zer nolako informazioa atera den, eta zer nolako tratamendua eman zaion prentsaren aldetik. Hor desberdintasunak nabariak dira aldekoen (instituzioa nagusiak) eta kontrakoen artean (mugimendu sozialak eta kontra dauden instituzio lokalak).

Proiektuen alde dauden aktoreentzat egunkarietan agertutako informazioa nahiko orekatua izan da; hau da, gutxi gora behera aldekoen eta kontrakoen iritziak era berean atera dira. Kontra dauden herri mugimenduetan agertzen den kexa orokortu bat «zentsura» edo «manipulazioarena» izan da. Honen erakusle honako esaldiak: «Grupo Correo, El Pais, medio hoiek bai gure mezua zabaldu dute, baina bestetik kriminalizatzen, gure mezua intoxikatzen saiatu dira» (TKE4).

Elkarrizketetan agertzen denez, kontra dauden mugimenduek arazoak izan dituzte nagusi diren egunkarietan agertzeko, eta ez da izan informazioa bidali ez dutelako. Lehen aipatu bezala, «manipulazioa» kasu askotan aipatzen da, eta nahiz eta kontzeptu hau subjektiboa izan, antzeman daiteke oro har, gehien irakurtzen den prentsan instituzio, enpresa eta alderdi handien mezuak babestu eta argitaratu dituztela batez ere. Proiektuaren alde dauden instituzioek eta alderdi politikoek mugimendu sozialek baino errekurtsio gehiago dituzte, bai ekonomikoak, bai komunikatiboak (prentsa bulego indartsuak). Honen erakusle dira instituzioek komunikabide guztietara bidaltzen dituzten ordaindutako iragarkiak, egiten dituzten kanpaina informatiboak edota erakusketak. Zaila da kontrako herri mugimenduentzat desoreka estruktural honi aurre egitea; Euskal Yaren aldeko aktore instituzional batek honela azaltzen du fenomeno hau:

«Si es cierto que los que estaban en contra decían que no tienen ni la capacidad ni los medios suficientes para hacer una campaña negativa. Puedo admitir eso pero ¿ eso es así, no? Eso pasa aquí y en cualquier sitio» (TAE5)

Orokorrean prentsak publikatzen dituzten informazioetan, desoreka dagoela antzeman daiteke, batez ere indar gehien daukatenetan, normalean eragile instituzionalen alde (hauek horrela ikusten ez duten arren). Nahiz eta kontrako mugimenduen ekintzek (manifestazioak, hitzaldiak, protestak...) lekua izan egunkarietan, ezin dute instituzioen informazio ofizialarekin lehiatu. Eragile sozialak tokiko komunikabide txikiagoetan gehiago agertzen dira, baina behin maila lokaletik aterata indarra galtzen du kontrako mugimenduaren oihartzun mediatikoak.

PRENTSAN AGERTUTAKO INFORMAZIOAK JENDEAREN IRITZIAN IZANDAKO ERAGINA

Elkarrizketatutako aktore ia guztiak bat datoz prentsan agertutako berri eta informazioek eragina izan dutela jendearen iritzian: «Si, si obviamente eso es así. Yo creo que sí. Los medios fueron muy importantes en esos momentos» (TAE4). Hau da, egunkariak argitaratutako informazioak garrantzi handia du iritzi publikoa sortzerako orduan. Kazetek emandako berriak milaka lagunetara iristen dira, eta kasu batzuetan herritar hauen informazio iturri bakarrak dira. Eusko Jaurlaritzako goi kargu ohi batek honela azaltzen du eragin horren garrantzia: «Si, yo creo que es muy importante la información que se traslada porque los medios son el instrumento para socializar un proyecto» (TAE2). Horregatik du hainbesteko garrantzia lehen aipatutako desoreka informatiboak, aktore instituzional eta sozialen artekoa, diskurtso ofizialek egunkari handietan askoz presentzia gehiago izaterakoan, euren mezua errazago iristen da herritarrengana herri mugimenduena baino, oztipo gehiago aurkitzen dituen. Eragile sozial batek honela azaltzen du fenomeno hau:

«Noski komunikabideek kriston eragina dutela abiadura handiko trenaren iritzi horretan, jendearengan sortzen den iritzi horretan, ba bai indar handia dutelako herri mugimenduak zabaldu dezakeen mezua moztu eta bere legitimazioa guztiz ezabatzeko eta bestetik erabiltzen dituzten intoxikazio kanpaina horrek abiadura handiko alde, ikusten delako zelako baliabide handiak dituzten hori aurrera eramateko»(TKE5)

Ikerlan honen marko teoriko kontzeptualean azaldu dugun moduan, gaur egun gure gizartean hedabideek duten pisua eta jokatzeko duten papera (instituzio eta herri mugimenduen eta herritarren arteko kanal edo bitartekoak dira) normala da iritzi publikoan hauetan argitaratzen denak eragina izatea. Hala ere, honek ez du esan nahi hedabideak herritarren iritzia sortzeko iturri bakarra direnik edota euren iritzia guztiz bideratzen dutenik. Dena den, gaur egungo informazioaren gizartean bizi garelarik, komunikabide nagusiek gizartean duten barneratze maila aintzat hartuta, herritarren iritzia egituratzeko orduan, sozio-ingurumen gatazka honi dagokienean, pisu gehiago izango dute instituzio eta aldekoen diskurtsoek herri mugimenduenak baino, azken hauek oihartzun mediatiko txikiagoa eta desitxuratuagoa dutelako. Eragile instituzional batek honakoa adierazten zuen honi buruz:

«Cuando una información sobre una infraestructura sale en las páginas que tienen asignadas en un medio, trasciende y sale en otras páginas, bueno portada puede ser, pero en otras páginas eso quiere decir que de una forma se le dio importancia desde los medios y trasladaron los mensajes» (TAE5)

AZTERKETA HEMEROGRAFIKOA


Sakoneko elkarrizketen bidez eta dokumentazioaren analisiarekin lortutako informazioa osatzeko, sozio-ingurumen gatazka honen gainean egin dugun azterketa hemerografikoa jorratu dugu jarraian. Metodologia atalean azaldu dugun moduan (3.4 atala) bereziki bi gertaera nagusiei lotuta agertu diren 20 memento estrategiko aukeratu ditugu; batetik, proiektuari bereziki eragiten dion administrazioaren erabaki bati lotura egondako momentuak, bestetik, mobilizazio sozial handiko mementoak izan ditugu kontuan.

17. TAULA: **Euskal Y-koaren sozio-ingurumen gatazkaren 20 gertaera**

	DATA	GERTAKIZUNA
1	1989/02/28	Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak Euskal Y-a egiteko akordioa sinatzen dute
2	1993/01/14	Gizpuzkoako Merkataritza Ganbarak Euskal Y proiektua estrategikotzat jotzen du
3	1996/02/08	Eusko Jaurlaritzako Herri Lan sailburuak, Jose Antonio Maturanak, onartzen du Euskal Y-ak ez duela Ingurumen Inpaktu Azterketarik
4	2006/24/4	Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan abiadura handiko tren (AHT) «elkarlanean» egiteko hitzarmena sinatu zuten
5	2006/06/11	Milaka lagunek hartzen dute parte Donostian AHTren aurka egindako manifestazioan
6	2006/07/17	Uribana Herri galdeketa
7	2006/11/28	Euskal Yren informazio sarean, aurkezpena.
8	2007/03/07	Abiadura handiko Trenaren Inguruko eritzien inkesta plazartzatzen dute EHUKo irakasle talde batek
9	2007/12/03	Elorrio eta Anoetan Herri Kontsultak
10	2007/12/16	AHTren aurkako manifestazioa Arrasaten
11	2008/03/12	ETAk Ignazio Uria Mendizabal enpresaria hiltzen du
12	2009/12/17	Legorreta eta Tolosa arteko obrak inauguratzen dira
13	2010/10/24	AHTren Aurkako manifestazioa Hendaia-Irun
14	2011/12/02	Andoain eta Hernani arteko obrak inauguratzen dituzte
15	2012/09/30	Estatu Espainiarrak %40an murrizten ditu AHTren inbertsioak
16	2014/11/03	Eusko Jaurlaritzak AHT-a bideratzeko konpromisoa eskatzen die espaniar eta frantses gobernuari
17	2016/06/16	Bergarako lotuneko obrak kontratua deuseztatu dute
18	2016/10/18	Espainiako Gobernuak Euskal Y-koari bultzadaez ematea erabakitzen du
19	2017/03/01	AHTaren sarbideak adostu dituzte
20	2017/05/03	EAJk Rajoyren aurrekontuak babestuko ditu. AHTaren lanak 2023an amaitzeko egutegia

Iturria: Egileak egina


Titularren karakterizazioa



Titularrak albistearen aurkezpena dira, horregatik egunkarietako berrietan atalik garrantzitsuena, eta karga ideologiko gehien daukana titularra izan ohi da. Publikoaren interesa pizteko albistearen informazioaren alderik garrantzitsuena, egokiena edo bitxiena adierazten dute. Aztertutako berrietan zer nolako titularrak argitaratu diren sailkatu nahi izan dugu, lantzen dugun sozio-ingurumen gatazka honetan prentsak jokatu duen papera jorratzeko.

Horrela, titular neutroak aztertutako egunkari guztietan topatu ditugu. Dena den gehien erabili dituen, Diario Vasco kazeta izan da, hots, karga ideologiko edo baloratibo gutxien sartu duena. Aldiz Gara gutxien erabili dituen izan da, bere titularreran izaera positibo eta negatiboko titularrak erabili dituelarik ein handi batean. Aipagarria sozio-ingurumen gatazka honen azterketa hemerografikoa egiterakoan El Pais-en eta Garan bakarrik topatu ditugula titular negatiboak. Grafikoan ikusten denez titular positiboak egunkari guztiek erabili dituzte, gainera, El Pais izan ezik danak kopuru bertsuan.

Hedabidea eta dimentsioa




Egunkariak Sozio-ingurumen gatazka hau lantzerakoan erabili duten espazioa neurtzerakoan, dimentsioa alegia, Diario Vasco eta Gara aipatu behar ditugu.

Kasu honetan, garrantzi mediatiko gehien eman dioten bi kazetak izan baitira. Kontutan eduki behar dugu Diario Vasco Gipuzkoako eremuan soilik zabaltzen dela, herrialde honetan gehien irakurtzen den kazeta izanik. Gara aldiz, Euskal Herria osoan irakurtzen den egunkaria da, hortaz esan dezakegu, prentsaren partetik Gipuzkoako irakurleek Euskal Yaren gaineko informazio gehien jaso duten herritarrak izan direla.

Berriak Gara egunkariaren eremu berdina konpartitzen du eta Euskal Yaren aferari espazio zabala eskaini dio, besteak bezain beste ez bada izan ere. Aztertu dugun Espainiar Estatuko eremua kontuan duen egunkari bakarrarentzako, El País-entzako alegia, garrantzi mediatiko afera iruditu zaio Euskal Y-ren kasua. Dimentsioaren arabera Deia, espazio gutxien eskaini dion egunkaria izan da, hots, atentzio informatibo gutxien eskaini duena, kontutan edukita zenbat eta dimentsio handiago izan, orduan eta garrantzia informatibo handiagoa izango duela berriak.

Hedabidea eta saila




Iturria: Egileak egina

Edozein gertaera komunikatibo ikertzeko derrigorrezkoa da kokapena aztertzea, hau da, ingurumen gatazka hauek egunkari ezberdinek non kokatu dituzten analizatzea, hots, zein sekzio-tan informatu izan duten hauei buruz. Lehenengo ondorio orokorra argi ikusi dugu. Aztertutako zazpi egunkarietatik lauk Euskal Herria sekzioan kokatu dituzte euren informazioak.

Ikusten dugunez sozio-ingurumen gatazka hau kokatzerakoan hiru atal erabili dituzte aztertutako hedabideak: Euskal Herria, Gizartea eta Politika. Aztertutako egunkari guztiek Deia izan ezik, Euskal Herria sailean jarri dituzte Euskal Yaren gaineko albisteak. Egunkari honek Gizartea eta Politika atalean kokatu ditu berri guztiak eta Garak ere Gizartea atalean albiste batzuk argitaratu ditu. El Diario Vascok, izaera konstituzionalista duen egunkaria alegia, Politika atala erabili du ere AHTren berri emateko. Hortaz, estrategia informatiboegi begira, eremua izan da egunkariak kontutan eduki duten marko nagusia.

Hedabideak eta Portada




Iturria: Egileak egina

Egunkariaren portada espazio informatibo nabarmendua da, aukeraketa eta hierarkizazio irizpideak neurtzeko ezinbesteko tresna baita. Portadako testuak funtsezkoak dira hedabide baikoitzak egiten duen aukeraketa tematikoa erakusten diotelako irakurleari (Marin, Armentia, Caminos 2014: 178).

Portadak erakartzen ditu garrantzi informatzaile handien dituzten albisteak. Horregaitik azterketa hemerografikoa garatzerakoan portadaren analisiari erreparatzea derrigoorezko baldintza da, honela agenda politikoan duen garrantziaren berri izango dugu eta.

Gure azterketan aipatu behar dugu El País, izan ezik beste egunkari guztietan Euskal Y-aren gaineko albisteak portadetan agertu direla. El Paisek estatu mailako eremuan zabaltzen den kazeta bakarra izanik, adierazi dezakegu Euskal Y-aren kasuan, euskal prentsak dituen ezauzgarrien nolakotasunaren betetzea. Hau da, agenda propioa egituratzeko egiten duen apostua aztertutako afera honetan, argi ikusi dezakegu.

Hedabidea eta editoriala



Iturria: Egileak egina


Arestian aipatu dugun moduan, editorialak egunkariak bere jarrera politiko ideologikoa markatzeko erabiltzen dituzten tresna nagusia dira. Gaurkotasunerako garrantzi berezia duen gai baten inguruan egunkariak duen iritzia adierazten dute. Ikertutako sozio-ingurumen gatazkari buruzko estrategia informatibo-ideologikoa identifikatzeko editorialen azterketa beharrezkoa da.

Hortaz, editoriala, albistearen interpretazioaren inguruan kazetak ematen duen iritzi zilegiaren litzateke, bertan egunkariak bere jarrera politiko ideologikoa erakusten dutelako.

Euskal Yaren kasuan, El País izan da kazeta bakarra ez duena aztertutako albisteetan editorialik egin. El País-en eremua estatu espainiarra izanik ulergarria izan daiteke fenomeno hau. Euskal Y-koaren aferak Deian eta El Diario Vascoren editorialetan aldiz, garrantzi nahikotxo eduki dute. Garan gai honen inguruko editorialak plazaratu badituzte ere, beste egunkariekin alderatuz editorialen kopurua txikiagoa izan da. Berriaren kasuan, gogoratu behar dugu kazeta honetan ez dela editorialik idazten.

Hedabidea eta Irudia

17. GRAFIKOA: Hedabidea eta irudia




Iturria: Egileak egina

Aztertutako egunkari guztiek irudiak erabili dituzte Euskal Y-koaren inguruko albisteak idatzerakoan. Kontutan eduki behar dugu, irudiak daukaten albisteak maiztasun handiagoarekin irakurtzen direla. Horregaitik ulergarria da aztertutako egunkari guztiek Euskal Y-arekin zerikusia duten albisteak plazaratzerakoan irudiak erabili izana.

Deia kazeta izan da errekurtsio hau gutxien erabili duena. Diario Vasco egunkaria aldiz, irudiaren erabileran nabarmendu den kazeta izan da. Aldi berean egunkari guztiek albiste batzuetan ez dituzte irudirik ipini. Honen arrazoia albistearen dimentsioarekin lotu dezakegu, hots, gero eta dimentsio gutxiago gero eta aukera gehiago irudirik ez edukitzeko. Kasu honetan, Deia izan da irudi gabeko albisteaz gehien baliatu dena.

Hedabidea eta albistearen genesisia




Iturria: Egileak egina

Administrazioaren erabaki bati lotutako gertaera eta mobilizazio sozial handiko jazoeren araberako hautatutako albisteak izanik, ez da arraroa lortu dugun emaitza, hots, aztertutako egunkariak Euskal Yaren aferaren berri emateko erabili duten informazioen abiapuntua, «gertae-rak» izatea nagusiki.

«Protestak» ere berrien muina izan dira ikertutako sozio-ingurumen gatazka honetan, kontrako protesta ekintzek inpaktu mediatiko nabarmena eduki dutela esan dezakegularik. Baina gertaerekin aldaratuta, hauek oihartzun gutxiago izan dute egunkariak emandako albisteetan. Mugimendu sozialek eta proiektuen kontra dauden mugimenduak izanik protesta ekintzak erabiltzen dituztenak, beraien gertaera informatiboak gutxiago azaleratu direla antzeman dezakegu.

Hedabidea eta berria egiteko era




Iturria: Egileak egina

Albisteak non eginda dagoen neurtzeko bi irizpide eduki ditugu kontuan: egunkariak berak ekoizten duen emandako informazioa edo kanpoko agentzietatik hartutako informazioa den. Aztertutako egunkarietan Deia, barneko lana erabili duen arren, Euskal Y-aren berri emateko kanpoko agentzien lana erabili duen bakarra izan da, hots, naponko errekurtsuetara jo duen bakarra. Bestelako egunkariak, Berria, Gara, Diario vasco eta El Pais-ek soilik barneko lana erabili dute abiadura handiko trenbide sare berriaren berri emateko. Hortaz albiste hauek garatzeko eduki duten inplikazio maila altua izan da, beraien kabuz egin baitute informazioa biltzeko lana.

Hedabidea eta iturria

20. GRAFIKOA: Hedabidea eta iturria



Iturria: Egileak egina

Hedabideek errealitate soziala eraikitzen duten konpetentzia mediatikoa aztertzeko, iturri informatiboaren analisia funtsezkoa da, diskurtso mediatikoren oinarritzko elementuak bilakatzen baitira. Iturri informatiboaren bidez, edukiak zehazten dira eta estaldura informatiboaren joera tematikoa erabakitzen da.

Euskal Yaren kasuan nabarmendu behar dugu aztertutako albiste askotan aurkako mugimenduko iturriak soilik egunkari guztiek erabili dituztela. Kontutan edukita mobilizazio sozial handiko gertaerak azaltzen dituzten albisteak hautatu ditugula ere, joera hau ulergarri da. Baina aldiz, adiministrazioaren erabakiei lotutako albisteetan iturri instituzionalak soilik sortutako berriak Diario Vasco, El País eta Deiaren kasuetan eman da. Albisteak idazterakoan, Gara eta Berriak iturri instituzionalak eta Euskal Y-aren kontrako mugimenduaren iturriak erabili dituzten bakarrak izan dira, hots, albisteetan bi aldekoen iritzia plazaratu dituzten bakarrak. Berriak sortutako albisteetan bi mota hauetako irurriak gehien erabili dituen kazeta izan da.

Aldi berean, El Pais-ekin batera iturri instituzionak eta eragile politikoek iturriak batera, erabili dituzten bakarrak izan dira. Azpimarratzekoa mota guztietako iturriak erabili dituzten bi kasetak izan direla ere bai. Hortaz, iturrien araberako analisisian, oreka hoberen lortu duen egunkaria Berria izan da.

C. MARKO DISKURTSIBOEN KOKAPENA ETA ANALISIA

Atal honetan eragile deberdinen diskursoen analisisia gauzatuko dugu ikergai dugun sozio-ingurumen gatazka honetan marko diskurtsibo komunik dagoen aztertzeko.

MARKO DISKURTSIBOEN KOKAPENA

Abiadura Handiko Trenaren diskurtsoa aztertzeko azpiegitura honen inguruan sustatu diren marko diskurtsiboei erreparatu behar diogu. Proiektu honen alde agertu diren eragileek bi ikuskera nagusi landu dituzte marko diskurtsiboa eratzerakoan (Garcia Mejuto, 2015:138-150). Alde batetik, garraio azpiegituren plangintzen ikuskera teknokratikoa aipatu dezakegu. Garraio printzipio teknokratikoetan oinarritutako diskurtsoak, adituak jartzen ditu (batez ere ingeniariak) garraio-azpiegitura politikaren garapen zentroan eta hein handi batean azpiegitura-garapena garraioaren ikuspuntutik lantzen da. Hortaz, ez zaio horrenbesteko garrantzia ematen ingurumen arloari ezta ikuspuntu ekonomiko edo sozialari. Horrela, marko diskurtsiboa garraio azpiegituren zentraltasunean oinarritzen da, garapen ekonomikoaren garrantziari aitorpena egiten bazaio ere. Funtsean azpiegituraren plangintza garraioaren arazoari aurre egiteko dagoen beharrezana legez ulertzen da. Marko honen erabileraren adibide, Euskal Autonomi Erikidegoko garraio sistemaz aritzen diren dokumentuetan topatu dezakegun «defizita» kontzeptuaren erabilera nabarmena izan daiteke. Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldeko Sektore Planaren behin betiko onarpenaren erabakiak, horrela dio:

«Gaur egun Euskal Herrian dauden trenbideei begira, RENFEk ustiatzen dituen zerbitzuek XIX. mende amaieran eraiki zirenean ezarritako trazadura berberei eusten diete; egun, ordea, ez dira oso egokiak eta zenbaitetan eskas geratzen dira gaur egun trenbideek eskaini behar duten mailari erantzuteko orduan» (Eusko Jaurlaritza, 2001: 53)


Euskal Trenbide sare berriaren dokumentuak (EJ,2010: 1-23) garraio arazoei erreparatzen die: «Dauzkagun trazaduren ezaugarri mugatuei, gainera, burdinbideetan bi zabalera desberdin izateak dakarren arazoa gehitu behar zaio; Sarearen saturazioa». Mugikortasuna funtsezko garraio arazo legez azaltzen da, etengabe hazten ari den eskaria dela argudiatuz bi ikuspuntu desberdinak erabiliz. Batetik, barrura begira: «2007an EAEko biztanleek eragindako joan-etorriak % 11,4 hazi dira 2003koekin alderatuta, eta bestetik, kanpora begira: «1986an Europan sartu ondoren, pertsonen eta ondasunen mugimendua esponenzialki hazi da». Horrela proiektua eskari berrien eta beharrezanaren diskurtsoan oinarritzen da, ondorioztatuz: «Euskadik egungo sarea hobetzeko eta trenbide-kilometro gehiago eraikitzeko premia du».

Beste aldetik, garraio-azpiegituren plangintzen garapen ikuskera agertzen da. Marko diskurtsibo honek Abiadura Handiko Trena garapen ekonomikoaren politiketarako garrantzizko tresna legez ulertzen du. Zehazki produkzio eta garapen ekonomikorako baldintzak sustatzeko funtsezko garraio azpiegitura moduan lantzen da, lehiakortasunarekin lotuz. Eusko Jaurlaritzako euskalyvasca.com web gunean hau adierazten dute:

«Euskal Y-ak eragin handia izango du Euskadiko ekonomian eta hazkunde ekonomikoa lortzeko bide garrantzitsua izango da. Alde batetik, lanpostu zuzen ugari sortuko ditu (6.900 baino gehiago) eta, bestetik, Barne Produktu Gordina urtero %1,30 igoko dela aurreikusi dute» (EJ, 2017)

Euskal Yaren aldeko eragileek garraio azpiegitura berri hau garapen ekonomikoarekin: «Gaur egungo garraio-sistema modernoa da herrialde ekonomiaren garapena sustatzen duena» (EJ, 2005:2) eta garraio defizitak konpontzeko ideiarekin: «gaur egun ez dago distantzia ertain eta luzeetarako alternatibarik errepidearentzat eta Euskal Y-ak hutsune hori bete nahi du» (EJ, 2010:8) lortzeko, azpiegitura berri hau eraikitzeko beharra justifikatzen du. Finean, diskurtso honek, garraio azpiegitura hau «sortzearen egokitasuna sozializatzer laguntzen du» (Martinez Palacios, 2011:165).

21. GRAFIKOA: Euskal Yaren aldeko marko diskurtsiboa osatzen duten elementuak



Iturria: egileak egin Martinez Palacios (2011:165) oinarrituta

Euskal Yaren kontra agertu diren eragileek aldiz bestelako marko diskurtsiboa erabili dute azpiegitura hau kritikatzeko. Azpiegitura mega erraldoien aurkako diskurtsoetan agertzen den dimentsio ekologista (Linnros eta Hallin, 2001), egitura honen kontrako eragileen diskurtsoan

funtsezko lekua betetzen du; horrela dio AHT Gelditu! Elkarlaneko web guneak (2017), AHT-ren aurkako arrazoiak azaltzerakoan:

«Konponezinezko kaltea egingo dio Ama Lurrari: Barrera efektua, zarata ikaragarria, paisaiari eraso bortitza, lurren okupazioa, akuiferoen suntsiketa, energia kontsumoaren biderkatzea, hondakinentzako hamaika zabortegiren sorrera, balio ekologiko handiko ekosistemen kaltetzea...»(AHT Gelditu! Elkarlana, 2017)

Gainera arestian aipatu dugun Euskal Trenbide Sare berriaren aldeko diskurtsoan erabiltzen den oinarrizko argudioari, hots, garraio arazoak konpontzeko tresna dela, aurre egiten dio bestelako diskurtsoa kontrajartzen:

«AHT-k ez ditu egungo trafiko eta garraio arazo larriak konponduko. Izan ere, batetik, hirietan bakarrik geldituko da eta ondorioz ez ditu eskualde barruko joan-etorriak (eguneroko joan-etorrien %97) ahalbidetuko. Eta bestetik, ez dio gure errepideetan gora eta behera dabilen kamioi kopuruaren urteko hazkuntzari ere aurre egingo»(AHT Gelditu! Elkarlana, 2017)


AHT-ren kontrako eragileen diskurtsoak gaur eguneko globalizazioaren garapen eredu kapitalistari kritika egiten dio. Marko diskurtsiboan agerian dagoen alter globalizazio jarrera honek (Della Porta eta Piazza, 2007) «Euskal Y»a neoliberalismoaren adibide esanguratsu legez aurkezten du:

«AHT, gero eta desoreka ekologiko eta ezberdinkeria sozial eta genero ezberdinkeria handiagoak bultzatzen dituen eredu ekonomiko eta soziala indartzera dator»(AHT Gelditu! Elkarlana, 2017)

Hortaz azpiegitura honen aldekoek erabiltzen duten garapen ekonomiko eta lehiakortasun nozioen aurrean, aurka dauden eragileek azpiegitura honen ondorioz sortuko diren desberdintasun ekonomiko eta sozialei erreparatzen die: «AHT-k lurralde desorekak areagotuko ditu»; «Guztiok ordainduko dugu baina, aurreikusitako ibilbide eta salneurriak aintzat harturik, gutxi batzuek soilik erabili ahal izango dute»; «AHT-k errentaren banaketaren eta gastu sozialaren murrizketa eragingo du» (AHT Gelditu! Elkarlana, 2017).

Kontrakoen marko diskurtsiboaren kokapenarekin bukatzeko azken elementu diskurtsiboa aipatu behar dugu, «inposaketa» kontzeptua alegia: «AHT inposizioaren sinonimo da». Egitura honen aurka dauden eragileek egitasmo honen informazio gardentasun eza salatzen dute. Instituzioek «estrategikotza» jotzen duten proiektu hau «herritarren eta udalerrien interesak, nahiak eta borondatea aintzat hartu gabe» jorratzen dutela adierazten dute.

22. GRAFIKOA: Euskal Yaren aurkako marko diskurtsiboa osatzen duten elementuak



Iturria: egileak berak egina

DISKURTSOEN ANALISIA

Plano diskurtsiboan aldeko eta kontrako eragileek, gutxienez hiru aldagai nagusi erabili dituzte:

1. Garapen ekonomikoa, Euskal Yaren aldeko eragileek nabarmendu dutena eta kontrakoek aurkatu. Taulan honi erreferentzia egiten dioten adierazpenak horrela identifikatu ditugu: G1, G2, G3, G4, G5, G6 eta G7
2. Ingurumen inpaktuak, aldekoek trenaren egokitasuna justifikatzeko eta kontrakoek trenak sortzen dituen ondorio larriak salatzeke erabili dute. Kasu honetan osasunari osasunari ez diotenez errereferentziarik egiten, horrela identifikatu ditugu adierazpenak: I1, I2, I3, I4, I5,
3. Parte hartzea⁴², aldeko eragileek garatu den elementu bat dela azaltzen duten bitartean, kontrakoek parte hartze eza aldarrikatzen dute. Taulan diskurtsoen azterketa gauzatzeko erabili ditugun adierazpenak, modu honetan adierazi ditugu: PHf1, PHf1, PHf2, PHf3, PHf4, PHf5, PHf6, PHf7 eta PHf8.

Elementu hauen deskribapen sistematikoa 18. taulan jasotzen dugu:

42 Parte hartzea aipatzen dugunean Ibarra proposatzen duen definizioan oinarritu gara: «La participación, sin mas adjetivación (y excluida la participación electoral) hace, por el contrario, referencia a transformaciones en el seno de la sociedad y mas específicamente en la sociedad civil. En la democracia participativa lo que se discute es sobre quien decide. Trata sobre la transformación del poder. Y en la participación a secas, sobre quién —y cómo— exige el que se tomen determinadas decisiones políticas. Trata sobre la presión al poder». (Ibarra, 2009:76).

18. TAULA: **Diskurtsoen analisia Euskal Yaren sozio-ingurumen gatazkan.**

AZTERKETARAKO ALDAGAIA		EUSKAL YAREN ALDEKO DISKURTSOA	EUSKAL YAREN KONTRAKO DISKURTSOA
ERAGILEAK		<ul style="list-style-type: none"> •Eusko Jaurlaritza •Europako batzordea •Euskal Merkatal ganbarak •Euskal enpresarien Zirkulua 	<ul style="list-style-type: none"> •AHTGelditu Elkarlana •AHTren kontrako Asanblada •Tren sozialaren sarea • Talde Ekologistak
GARAPENA ETA AURRERAKUNTZA		<p>G1: «Herri honen garapena trena hartzea da» (JJ Ibarretxe, El País,2008.08.28)</p>	<p>G5: «Lokalismoetatik haratago joatea eta globalizazioaren implantazio bat, hau da, herri txikiak garatzeari oztopo bat ezartzea eta makro hiri edo makro ekonomi zentruak ezartzea, hau da, ekonomi eredu zehatz baten adibidea da, eta hori da abiadura handiko trenarekin benetan bilatzen dena».(TKE1)</p>
		<p>G2:«Europara konektatzen gaitu eta eta kokatuko gaitu posizio kompetitibo on batean» (TAE1)</p>	<p>G6: «Azpiegituretan inbertitzeak ekonomia hobetzen duela uste da, eta esperientziak erakusten du ez dela horrela. Noski, oinarritzko azpiegitura behar da, baina hortik aurrera, hipermugikortasunak arazo ekonomikoak sortzen ditu» (R. Bermejo, Argia 2005.04.10)</p>
		<p>G3: «Facilita la movilidad, un desarrollo económico muy importante y conexión» (TAE3) G4: «Uno de los elementos esenciales que garantiza la competitividad de los territorios lo constituye la dotación de infraestructuras que faciliten la movilidad de personas y mercancías» (Euskal Merkatal Ganbarak, Deia, 2016.12.14)</p>	<p>G7: «AHT-ren egitasmoaz harago, instituzioetatik inposatzen ari zaizkigun garraio, lurralde antolaketa eta gizarte ereduak ezbaian jarri eta horien eraldaketa sakona gauzatzeko behararen aldarrikapena» (AHT helditu! Elkarlana Sortze adierazpena», http://www.ahtgelditu.org/norgara/index.php?Hizk=eu <kontsulta: 2017.3.23></p>
INGURUMENA ETA OSASUNA		<p>I1: «El objetivo primordial de este proyecto es hacer un transporte sostenible» TAE2</p>	<p>I4: «Obrak berak kalteak sortuko ditu urean eta lurtean. Udalaitez mazizoa, kasuko, erreserba estrategikoa da uraren ikuspegitik, eta erdiz erdi harrapatuko du. Tunel pila egingo dituzte, alegia, milaka metro kubiko lur atera eta lekuz aldatu behar dira. Gero eta lur gutxiago daukagu, are gutxiago nekazaritzakoa. Etengabe ari gara lurra asfaltatzen. Batez ere azpiegiturekin eta komertzioegune handiekin. Europan azpiegiturek betetzen duten lurraren ehunekoaren ia bikoitza hartzen dute hemengoek, eta oraindik proiektu gehiago daude egiteko!»(I. Antigüedad, Argia 2005.04.10)</p>
		<p>I2: «Trenak ez du atmosferara gas kaltegarriak botatzen eta energia elektrikoarekin modu eraginkorrean ibili daiteken garraio bide bakarra da, beraz, energia berriztagarriak erabiliko dituen bakarra» (www.euskalyvasca.com) <kontsulta:2017.3.23></p>	
		<p>I3: «Ingurumenari egin diezaiokgun kalterik handiena: errepidearentzat alternatibak ez eskaintzea» (EJ,2010:15)</p>	<p>I5: «AHTk kalte konponezinak eragingo ditu ingurumenean» (AHT gelditu! Elkarlana 2007:5)</p>
PARTE-HARTZEA	DIMENTSIO FILOSOFIKO- IDEOLOGIKOA ⁴³	<p>PHf1: «Parte hartze prozedura, nola esango genuke,normalizatu bat edo reglamentu bidez egindakoa edo,Frantzian egiten den bezala,ba hemen ez da egon,hemen ez dagoelako ohiturarik edo ez delako egon»(TAE1)</p>	<p>PHf5: «Izan ere herri honetan asko hitz egiten dute herri honen erabakitze eskubideaz, baina herri honetan ezer baino murriztuagoa dagoena da, herriaren erabakitze eskubidea (TKE1).</p>
		<p>PHf2:«Si es cierto que todavía adolecemos de una práctica de gestión de conflictos. Y sin embargo ha habido ya ejemplos de aplicación de metodología de ese tipo. Y yo creo que si es necesario mejorar y hacer todo un esfuerzo en estos temas de participación social»(TAE3)</p>	<p>PHf6: «Exigitzen dugu: Ireki dadila eztabaida tekniko, sozial eta politikoa azpiegitura honen inguruan, herritarren partehartze, informazio eta erabakitze prozesu batekin batera, guztion artean erabaki dezagun zer egin proiektu honekin»(AHT gelditu Orain manifestua, Ekologistak martxan 2015.06.11)</p>
		<p>PHf3: «Era honetako azpiegiturek egin behar diren edo ez erabaki behar den esparrua EAE da, eta esparru hau ordezkatzen dueña legebiltzarra da. Honetan, %80-a baiezkoa eman du eta, beraz, hiritarren gehiengoak babestu duen erabakia hartu dugu, hotz, azpiegitura egitea» (N.L de Guereñu El correo 2007.12.23)</p>	<p>PHf7: «Gehiengo sozial eta sindikalak AHT gelditzea eskatzen du, baina PNV, UPN, UMP eta PSOE-k zuzenduriko administrazioek entzungor egiten jarraitzen dute» (AHT gelditu! Elkarlana, http://www.ahtgelditu.org/aurkakoarrazoiak/?Hizk=eu <kontsulta:2017.3.23></p>
		<p>PHf4:«Aspaldi erabakitako zerbait denez,nik uste dut orain parte hartze prozesu bat ezin dela martxan jarri erabakitako zerbait geldiarazteko.Edo,ez litzateke prozedura egokia nire ustez»(TAE1)</p>	<p>PHf8: «AHT herritarrei hitza eta erabakia lapurtu eta afera ekonomiko, politikoa, sozial zein kulturalen gaineko erabaki ahalmen osoa politikoa profesionalen eskuetan jartzten duen demokrazia ereduaren adibide da» (AHTren Kontrako Asanblada, 1.Bideoa, 3.12min)</p>

Iturria: egileak berak egina, Martinez Palacios (2011:151) oinarrituta eta ikerketaren zehar egindako elkarrizketetatik, prentsa idatzitik eta eragileek idatzitako komunikatu eta barne dokumentuetan oinarrituta.

Garapena eta aurrerakuntza aldagaiei dagokionez, bi diskurtso kontrajarriekin topatzen gara aztertutako kasu honetan. Aldeko eragileen diskurtsoaren oinarria garapenean kokatuta egon da. Horrela, J. Ibarretzek, EAEko Gobernuaren lehendakaria 1998-2009 tartean, «herri honen garapena trena hartzea da» dioen bitartean (G1), Euskal Yaren Kontra dauden eragileek instituzioen diskurtsoa kapitalismo neoliberalarekin lotzen dute, «kalteei» egiten diote erreferentzia. Hots, aldekoen diskurtsoan garapena eta mugikortasunaren diskurtsoa lantzen duten bitartean: G2, G3, et G4, konektibitatea eta lehiakortasuna bezalako kontzeptuak erabiliz, opozizio mugimendutik onura ekonomikoak baino, desberdintasun ekonomikoko egoerak sortuko direla azaltzen dute: G5 eta G6.

Diskurtsoen azterkatarako erabili dugun bigarren aldagaian ere desberdintasunak ageri dira, aldeko eta kontrako artean. Instituzioek, garapen sostengarriari egiten diote erreferentzia trenbideen sustentagarritasuna azpimarratzeko eta sortuko duen kutsadura baxua nabarmenduz: I1 eta I2.

Horrela azpiegitura honen eraikuntza ingurumenaren aldeko apustu legez aurkezten dute: I3. Aldiz Euskal Yaren kontrako mugimenduen diskurtsoa proiektu honek ingurumenean sortuko dituen kalte konpoezinetan oinarritzen da: I5, azpiegitura sortzeko egin behar diren lur mugimenduak, zonalde naturalki aberatsak jasoko dituzten ondorioak (Udalaitz mendia), besteak beste, azpimarratzen dituzte: I4.

Sozio-ingurumen gatazka honetan parte-hartzea eragileen diskurtsoan agertu den kontzeptua izan da. Baina agerian geratu da Garridok (2005:62-63) bereizten dituen bi jarrera-diskurtso dikotomikoak landu direla:

Proiektuaren alde dauden eragileek izaera «funtzionala» edo operatiboa duen nozioarekin bat egin dute, hots, herritar-parte hartzea legitimazio politikorako tresna legez ulertzen dena.

Kontrako eragileetan aldiz parte hartzea gizartearen errotiko parte hartze aktiboaren alde agertu dira, «berezko parte-hartzearen balioa» bultzatzen duena, alegia. Horren adibide PHf4 eta PHf6 diskurtsoetan topatu dezakegu.

Aldi berean diskurtso kontrajarriekin topatzen gara proiektu hau martxan jartzeko erabakiaren zilegitasuna aztertzerakoan.

Diskurtso parte-hartzailearen dimentsio filosofikoan aldeko eta kontrako eragileek bat egiten badute ere parte hartze prozedura ezaren ohitura falta azaltzerakoan, horrela irakur dezakegu PHf1, PHf2, PHf3 eta PHf4 adierazpenetan, proiektuaren erabakiaren zilegitasunaren diskurtsoan alderatzerakoan ikuspuntu desberdinak aurkitzen ditugu.

Aldeko eragileen artean parlamentarismoak sortzen duen legitimitatea erabiltzen dute, PHf3 diskurtsoan agertzen den legez. Horrela Eusko Legebiltzarraren bidez sortzen den ordezkagarritasunean oinarritzen dute aurkako eragileek erabiltzan duten «inposaketa» salaketari aurre egiteko argudioa.

Azpiegituraren kontra dauden eragileek aldiz, proiektua gelditzeko zilegitasuna gehiago sindikal eta sozialean oinarritzen dute, PHf7ren adierazpenetan irakurri dezakegun moduan. Hortaz proiektuaren alde eta kontrako eragileek, bakoitzak defendatzen duen jarrera ordezkagarritasunean oinarritzen badute ere, bi gune desberdinetatik sortzen dute diskurtso hau.

Aldekoek ordezkari politiko formalaren praktikan kokatzen dute, legebiltzarra alegia, eta kontrakoek gizarte zibilaren ordezkari dute abiapuntu. Hortaz, arestian aipatu dugun Ibarren (2009:76) parte hartze definiziotik gertuago agertzen dira azken hauek, erabaki politikoak hartzerakoan, nor eta nola eskatzen diren ideiaren gainean oinarritzen baita. Horren adibide PHf4 eta PHf8 adierazpenak.

Finean sozio-ingurumen gatazka honetan, esan dezakegu arteko eta kontrako eragileen artean loturarik eduki ez duten diskurtso paraleloak sortu direla. Item diskurtsibo ia berdinak garatu dira baina elkarrekiko ezeztatzaileak direnak: «garapen ekonomikoa eta lehiakortasuna ekarriko du» versus «errentaren banaketaren eta gastu sozialaren murrizketa eragingo du»; «egitasmo honekin garraio sostengarria bermatzen dugu» versus «ingurugiroari kalte larriak egingo dizkio», «hiritarren gehiengoak babestu duen erabakia hartu dugu» versus «herritarrei hitza eta erabakia lapurtu zaie» eta antzekoak. Horrenbestez, esan genezake jorratu diren diskurtsoak bata besteari aurkatzeari bilatu dutela eta honen ondorioz, esparru dialogikorik ez dela sortu.

4.2. Petronorren Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen Proiektua, Koke edo FMU Planta

La concepción de la energía es cultural. Son radicalmente distintas las sociedades que consideran el petróleo como un recurso, que las que lo hacen como la sangre de la Tierra. O, dicho de otro modo, las que parten de un antropocentrismo depredador, frente a las que comprenden la interrelación ecosistémica profunda.
(Fernandez Duran eta Gonzalez Reyes, 2014:21)

Sozio-ingurumen gatazka honen azterketa kasua gauzatzeko Petronorren Fuel-olioa Murrizteko unitatearen plantaren (Koke planta edo FMU planta izendapena erabiliko dugu ere bai) analisi deskriptiboa eta analisi enpirikoa burutuko dugu. Sarrera gisa, Euskal Herriko egungo egoera energetikoari erreparatuko diogu, lantzen ari garen sozio-ingurumen gatazka honen alorra, energia alegia, gure lurraldean kokatzeko. Ondoren analisi deskriptiboaren lanketa jorratuko dugu kokapen geografikoa, proiektuaren deskribapena eta kokapen historikoa aztertuz. Analisi deskriptiboarekin bukatzeko sozio-ingurumen gatazka honetako eragileak identifikatu eta deskribatuko ditugu, beraien arteko harremanak soziograma baten bitartez lantzeaz gain. Analisi enpirikoa aldiz, hiru ardatzetan banatuko dugu. Gure lehenengo muina interes publikoaren definizio konpartituaren azterketa izango da. Bigarrenik, informazio analisia, hots, eztabaida-eremu publikoaren azterketa eta prentsaren jardueraren lanketa eta azkenik, marko diskurtsiboen kokapena eta sozio-ingurumen gatazka honetan sortu diren diskurtsoen analisia jorratuko dugu.

4.2.1. Energiaren esparrua Euskal Herrian

Hego Euskal Herria lurralde industrial da. 80ko hamarkadan bizitako birmoldaketak industria siderometalurgiakoa eta ontziolak ia desagerrarazi bazituen ere, EAE eta Nafarroa gizarte oso industrializatuak izaten jarraitzen dute gaur egun, «bertako energia primarioaren biztanleko kontsumoa, estatuko baino nabarmen handiagoa» izanik (Urkidi et,al. 2016:180).

Europako energia kontsumoaren batez bestekoa gainditzen du EAE eta Nafarroako kontsumoak, Hego Euskal Herriko ekoizpenaren eta energiaren errealitatea oso lotuta baitago industriarekin. Hori dela eta erregai fosilekiko mendekotasun handia du, gas naturalarekiko eta petrolioarekiko nagusiki. Gainera gero eta energia gehiago kontsumitzen da eta atzerriko mendekotasuna Europako handienetakoa da. Gas naturalaren kontsumoa, adibidez, munduko iparraldeko gainerako herrialdeetan handienetakoa da (Bueno 2014, Nafarroako Gobernu 2016, Energiaren Euskal Erakundea 2016).

Energiaren esparrua lantzeko hainbat zentral nuklear eraikitze proiektuak abiarazi ziren Euskal Herrian 1970eko hamarkadan baina euskal gizartearen parte handi batek, ez zuen begi onez ikusi energia nuklearra sortzeko hautua eta oposizio gogorra eduki zuen egitasmoak. Ondorioz proiektua bertan behera gelditu zen eta bestelako sorkuntza elektrikoaren azpiegitura handiak egin ziren.

Hartara, Hego Euskal Herrian ekoizle handiak dituen industria eta energia eredia garatu da. Bilboko edo Abrako superportua EAeko energia gune nagusia da. Bertan «Bahia de Bizkaia»-ko energi azpiegiturak daude: «Bahia de Bizkaia Gas» gas natural likidotua (GNL) birgasifikatzeko instalazioa eta «Bahia de Bizkaia Electricidad», birgasifikazio lantegiaren aldamenen kokatua dagoen ziklo konbinatuko zentral elektriko. Euskal Herriko petroliogintza enpresarik handiena ere bertan dago, Petronor alegia, petrolio produktu desberdinak findu eta merkatu-ratzen dituen. Ingurune horretan, Bilboko portuko kanpoaldean, Santurtziko ziklo bateratua dago eta gune horretatik kanpo, Zornotzan, Boroako zentral termikoa. Nafarroan ziklo bateratutako bi zentral daude Castejon.

19. TAULA: **Energia gune nagusiak Hego Euskal Herrian**

PROIEKTUA	SUSTATZAILEA	POTENTZIA	CO ₂ ISURKETAK
PETRONOR	Petronor	800 MW	2.,400.000 miloi Tona (2008ko datuak)
BAHIA BIZKAIA	Iberdola, Repsol, BPA moco, EVE	800 MW	2.600.000. Tona urtean
SANTURTZI	Z.K. Iberdola	375 MW	150.000. Tona urtean
BOROA	ESB-Irlanda	800 MW	2.600.000. Tona urtean
CASTEJON	Iberdola	800 MW	2.600.000. Tona urtean
CASTEJON	Hidrocantábrico	400 MW	1.300.000. Tona urtean

Iturria: Egileak egina, Barcena (2005:28) oinarrituta. Petronorreko datuak: (Petxarroman, 2011:86)

Ipar Euskal Herrian, Frantziako estatuaren administrazioaren mende egonik, bestelako ereduak garatu zituzten, udal mailan oinarritutako energia eredia, hain zuzen. Eredu hau bigarren mundu gerraren ondoren ezarri zen, udal bakoitzak «Tokiko Banaketa Enpresak» (ELD) martxan ipini zituen bere sorkuntzarako bideak garatuz. Horrela enpresa transnazionalerikiko lotura ekiditen zuten eta energia galerei aurre egiten zieten, energia premiak asetzeko behar zena besterik ez ekoiztuz. Gaur egun aldiz, enpresa handiek irentsi dituzte tokiko enpresa hauek, oraindik ere orduan sortutako udal enpresaren bat gelditzen bada ere. Gainera Frantziako Estatuko Mix energetikoan (ekoiztako edo inportatutako energia) energia nuklearrak duen toki nabarmena kontutan eduki behar dugu (Urkidi et al., 2016:178).

Izan ere, gaur egun Euskal Herriko energia sistema administrazio eta ekoizpen sistema baten baino gehiagoren mende dago. Hego Euskal Herriko energia sistema gas naturalean eta petrolioan oinarritzen den sistema dela esan genezake. Garraioaren sektorea petrolioan oinarritzen da ia erabat eta gas naturala industrian baliatzen da batez ere. Lapurdik, Nafarroa Beherak eta Zuberoak aldiz, uranioarekiko mendekotasun handiagoa du. (Bueno, 2014; Zubialde, 2014).

Dena den Espainiako zein Frantziako administrazioaren mende egonik ere, bietan energia sistema pribatizatua dago. Eredu hau, oligopolio energetikoa sortu du, hots enpresa gutxi batzuen mende egotea energia sistema. Ekologistas en Acción taldeko energia alorreko Irurzun arduraduranak adierazten duenez, mundu mailan suertatzen den egoera da:

«Energiaren munduko ezaugarri nagusietako bat da baliabideen ustiaketa oligopolio handi baten kontrolpean dagoela. Espainiako Estatuan bost enpresak partekatzen dute elektrizitate sorreraren %80, eta ia banaketa osoa» (Irurzun, Argia 2013.09.29)

Espainiako oligopolioa osatzen duten enpresa horietako batek, Iberdrolak, Bilbon dauka egoitza soziala eta Espainiako findegirik handienetarikoa, Petronor, Euskal herrian kokatuta dago ere bai. Enpresa honen kapital nagusia, akzioen %86a, Repsolen esku badago ere, gainerako %14a, lehen BBK orain pribatizatutako Kutxabank aurrezki kutxarena da.

Hala ere Euskal Herrian garatu den beste energia sistema aipatu behar dugu, hots, energia iturri berriztagarriak sustatzen dituzten kooperatibak. Energia mota hau naturaren ziklo eta abiadura berean berritzen da, agortzen ez diren iturriak baitituzte: eguzkikoa, eolikoa, hidraulikoa, geotermia eta biomasa. Energia berriztagarriak lantzen dituzten kooperatiba hauek Europan 2.400dik gora dira eta REScoop⁴⁴ (Renewable Energy Source Cooperative) kooperatiben federazioa osatzen dute. Euskal Herrian Goiener S. Coop., I-Ener, Energia Gara eta Barrizar mota honetako kooperatibak dira.

Bestelako eredu bat martxan ipintzeko saiakerak egiten ari badira ere, gaur egungo Euskal Herriak erregai fosilekiko mendekotasun handia du. Kontsumitzen den energia gehiena kanpotik dator eta kontsumitzen den energia kopurua oso handia da eta eta gainera, handituz doa (Urkidi et al., 2016:179). Esaterako, azken 30 urteotan urtero eta biztanleko 2 tona petrolio balio-kide kontsumizetik, 3,5 kontsumitzera igaro gara 2008an, hots, biztanleko energia kontsumoa bikoiztu egin da (Zubialde, 2014).


Datuei erreparatuz, (Nafarroako Gobernua 2016, EEE 2016, Espainiako Gobernua 2013) EHn kontsumitzen dugun energia primario gehiena erregai fosiletan eta energia nuklearrean du sorburua eta %92 inportatu egiten dugu. Hortaz, EHn kontsumitzen den energia primarioaren %8 baino ez da bertan sortzen, iturri berriztagarrietatik nagusiki.

Autohornikuntza maila aldiz, oso txikia da. Tasa honek lurralde baten kontsumitzen duen energiarekin alderatuta zenbat energia ekoitz dezakeen adierazten digu, energia subiranotasun maila, alegia. EAeko autohornikuntza maila %7 inguru da (EEE, 2016), hortaz, ia erabatekoa da EAeko energia mendekotasuna. Nafarroako berriz txikiagoa da, subiranotasun maila %20tik behera (Nafarroako Gobernua, 2006) kokatzen baita, ekoizpen handiena parke eoli-

44 REScoop webgunean hórrela definitzen dute beraien proiektua: « REScoop energia berriztagarrien kooperatiben laburdura da, eta energia berriztagarri edo eraginkortasun energetikoen proiektuetan parte hartzen duten herritar jabeak diren negozio modeloei erreferentzia egiten dio. REScoop-ek ekimen komunitario energetikoak batzen ditu» (Iturria: www.recoop.eu) <kontsulta: 2016.01.28>

koetan egiten delarik (Bueno, 2014). Iparraldeko autohornikuntza tasa are txikiagoa da, %1,5 (2004). Grafikoan ikus daitezenez Espainian Euskal Herrian baino adierazle hobek dituzte ia %30ra heltzen baita bere subiranotasun energetikoaren tasa. Euskal Herrian gaitasun txikia daukagu, ez da %20era iristen. Europar Batasunean, %50 inguru da autohornikuntza-tasa, eta oso kezkatuta azaldu da EB, behin baino gehiagotan, hurrengo hamarkadetan tasa hori %25era jaits baitaiteke (Bueno, 2014).

23. GRAFIKOA: **Energia primarioaren Autohornikuntza Tasen arteko konparazioa**




Ituria: egileak berak egina Urkidi e,t al., 2016:184 datuetan oinarrituta

Datu hauen bitartez argi esan dezakegu Euskal Herriko atzerriko energia mendekotasun maila nabariadela, Espainiako Estatukoa baino handiagoa. Gure lurraldean bertako ekoizpenarekin hornitzeko ahalmen txikia dugu, buruaskitasun (autosufizientzia) energetikoa ez baita %20ra iristen. EKOPOL ikerketa taldearentzat, (EHUko ekonomia ekologikoa eta ekologia politikarako ikerketa taldea) atzerriko mendekotasun honen arrazoi nagusiak hauek dira:

«Lurralde txikia da egoera sozioekonomikoa kontutan hartuta; azken hamarkadetan gas kontsumoari begira ezarritako energiaren arloko politikak; eskuragarri dituen baliabideen tipologia eta gabezia (energia baliabide zein baliabide materialak edo nekazaritzakoak), barne eskaria kontutan hartuta eta EAEko eta Nafarroako ekonomiaren izaera industrial markatua, horrek egiten baitu kontsumoa ohikoa baino askoz handiagoa izatea» (Urkidi et al., 2016:185)

Euskal Herriak inportatzen duen energiaren iturburua lau multzotan banatu daiteke. Energiaren Euskal Erakundearen datuen arabera (2016) EAera inportatutako energia guztiaren %70,7 petroliodun produktuak dira, %21,4 gas naturala, %7,6 inportatutako energia elektrikoa da eta %0,3 ikatza. Nafarroan inportatutako energia nagusia gas naturala da %44 eta gerturik batez ere garraiorako erabiltzen den petrolioak jarraitzen dio.

24. GRAFIKOA: EAEko energia inportazioak (%)



Iturria: egileak berak egin Urkidi et al. 2016:186 oinarrituta

Euskal Herriko Iparraldean Frantziako sarea erabiltzen dute hornikuntza elektrikoa gartzeko. Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoako herrialdeek erabiltzen duten elektrizitate gehiena (%84,6) zentral nuklearretan ekoizten da. Bertako matrize energetikoa energia nuklearrean oinarritzen da eta inportatutako uranioa da bertan erabilitako erregaia (Zubialde, 2014).

Hartara, esan dezakegu, orain dela hamarkada bat Eusko Jaurlaritzak (3E-2005) eta orain dela hamarkada bi, Nafarroako Gobernuak (1996) ezarritako planifikazio energetikoak, huts egin dutela. Hego Euskal Herriak behar duen elektrizitate ia guztia (% 82 EAEn; % 100 Nafarroan) bertan ekoiztea aurreikusten zuten plan haiek, eta politika energetiko berri baten adierazle zirenak, ez dira bete. Are gehiago Buenoren arabera (2014) gaur egun EHko administrazioek energiaren esparruan eginiko aurreikuspenak ez datoz bat Europar Batasuneko jarritako irizpideekin. Izan ere EBren jomuga energia primarioaren kontsumoa jaitea eta energia berriztagarriak areagotzea da eta baita ekonomia oro har eta bereziki sistema elektrikoa deskarbonizatzea. EAEk eta Nafarroak aitzitik, elektrizitatea ekoizteko gas naturalaren aldeko apustua egin dute, mendekotasunaren, kontsumoaren eta CO₂ igorpenaren aldeko hautua eginez.

Hurrengo hamarkadetarako administrazio autonomikoek duten energia ikuspegiari buruzko kontakizun honen bidez laburtzen du Buenok (2014) Hego Euskal Herriko administrazioen energia politika:


«Helburu hirukoitza du azken hamarkada honetako politika energetikoak: lehiakortasuna, horniduraren bermea eta ingurumenaren zaintza. Euskal administrazioentzat, hornidura bermatzea da gure energia-politikaren giltzarria. Herri txikia da gurea, eta txikia du bertako ekoizpenarekin hornitzeko ahalmena ere (handiagoa, hala ere, Nafarroan EAEn baino, non erabateko baita energia-mendekotasuna). Etorkizunean gerrikoa estutu beharrean izango garela badakigun arren, energia-baliabideen urritasunak ez gaitu behartuko gure kontsumoak asko murriztera hornidura bermatzeko gai baldin bagara. Dena dela, herri txikia izanik, segur aski ez dira askorik nabarmenduko gure energia-gorabeherak European eta Mendebalde osoan izango den eskari jaitsiera orokorra kontuan izanik.» (Bueno, 2014:23)

4.2.2. Koke planta: Sozio-ingurumen gatazkaren deskribapen analitikoa

A. KOKAPEL GEOGRAFIKOA

Muskiz Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatuta dagoen 7.600 biztanle inguruko udala da. Kantabriarekin mugatuz Euskadiko mendebaldeko kostaldean dago, Enkarterriko eskualdean, Meatzalde bezala ezagutzen den gunean, alegia. Bilbo metropolitarraren mugakidea izanik, Bizkaiko hiriburutik 22 kilometrotara kokatzen da.

11. IRUDIA: Muskizen kokapen geografikoa



Iturria: GoogleMaps

Bertan 220 hektareako azalera duen Petronor findegia dago. Findegi honek 894.000 m³ gasolio gordin, 1.279.000 tona lehengai, 922 m³ produktu burutu eta 254.600 m³ tarteko produktu gorde ditzake (Petronor, 2017). Aztertuko dugun Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen Planta, Koke Planta, 15,7 hektareako lurzoru okupatzen ditu eta San Julian auzotik 500 metrotara kokatuta dago. Azpiko argazkian, Petronor findegiaren irudian, eskumako aldean, San Julian auzoaren zati bat ikus daiteke.

12. IRUDIA: Petronor eta San Julian auzoa



Iturria: <http://www.cecotrans-biz.com> (kontsulta: 2017.02.19)

B. PROIEKTUAREN DESKRIKAPENA

Petronor findegiak, fintze prozesuari beste urrats bat gehitzeko asmoarekin, FMU Fuel-olioa Murrizteko Unitateak eta kogenerazio elektriko unitate bat eraiki zuen fuel olioari —findegiaren produkzioaren %25— irtenbidea emateko asmoarekin. Koke planta izenarekin ere ezagutzen den azpiegitura, fuel olioaren erreduzitzeko unitatea da, berez. Soberan duen produktua murriztu eta bestelako gai batzuk ekoizten dituzte, besteak beste, propanoa, butanoa eta batez ere gasolioa. Prozesu horretatik petrolio kokea ere ateratzen da, porlan fabrikek erregai gisa erabil dezaten.

Azpiegitura honen helburua fuel-olioaren kontsumoaren murrizketaren arabera, fuel olioaren ekoizpena murriztu eta gasolioaren eskaerak duen eboluzioaren arabera, egokitzen diren bestelako erregaiak sortzea litzateke. Gaur egun fuel astunak gero eta eskabide gutxiago du merkaturan eta Europar Batasunean debekatuta dago erregaitzat erabiltzea. Koke plantan fuel-olioa fabrikatzeko erabiltzen den petrolioaren osagai astunenak eraldatzen dira, merkaturan eskaera handiagoa duten produktu arinagoak lortzeko: gas likidotuak (propanoa, butanoa), 1.400.000 tona gasolio urtero eta nafta, 140.000 tona urtero. Gainera produktu solido berri bat sortzen da, petrolioaren kokea, alegia, 700.000 tona urtero eta barneko erabilerarako kokizazio gasa 140.000 tona urtero (Kokearen Aurkako Kordinadora, 2013). Eraldatze hori petrolioaren «konbertsio» terminoan oinarritzen da eta horretarako, gordinen dauden pisu molekular handiko molekulak hausten dira oso tenperatura handian berotuz, 500°C ingurura (Petronor, 2017).

Aldi berean Koke plantaren barruan kogenerazio unitate bat ere dago, findegiak behar duen elektrizitatea ekoizteko, 45 megawatt sortzeko ahalmena baitu. Produkzioaren %70 barne eskaria hornitzeko erabiltzen da, eta gainerako %30 saltzen da. Horrez gain, desulfurazio unitateak ere daude, sufre komertziala egiteko, 73.000 tona urtero.

20. TAULA: Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen datu teknikoak

LEHENGAIA	HUTSEAN DESTILATUTAKO UNITATE TATIK ERATORRIKO AZPIPRODUKTUAK	250 T/H
LORTUTAKO PRODUKTUAK	Kokizazio erregaiko gasa	17,9 T/h
	Propanoa eta butanoa	11 T/h
	Nafta	26 T/h
	Gasolioa	111 T/h
SALMENTARAKO AZPIPRODUKTUAK	Koke	88 T/h
	Sufrea	6,8 T/h
	Elektrizitatea	18 MW/h

Iturria: Egileak berak egina, <http://petronor.eus/eu/findegia/instalazioak/urf/> <kontsulta:2017.01.17> eta Koke Aurkako Kordinadora 2011: Proyecto URF Petronor, datuetan oinarrituta

Petrolio-kokea petrolioaren fintze prozesuaren azkeneko azpiproduktua da. Ikatzen anitzeko da, solidoa eta beltz kolorekoa. Petrolio-kokeko kontsumitzaile tradizionalak zentral termoelektrikoak, industria zementu-fabrikak eta sektore zeramiko edo adreilu-fabrikaziokoa izan dira. Hala ere, azken urteotan bere kontsumoa nabarmenki jaitsi da, zentral termoelektrikoetan bereziki (Ekologistak Martxan, 2013:3).

21. TAULA: Petroleo kokeren ezaugarriak

EZAUGARRIAK	BALOREA
ERRAUTS NEURRIA	%0,6
SUFRE NEURRIA	%5,9
HEZETASUN NEURRIA	%0,3
IKATZ NEURRIA	%89
BERO AHALMENA	33.727KJ/Kg

Iturria: Egileak berak egina, Ekologistak Martxan, 2013:3, datuetan oinarrituta

Petronorren Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen planta Petronorren industria-komplexuaren gaurko instalazioen barruan kokatuta dago. Proiektu hau sortzeko euskal industrian egin den inbertsiorik handiena egin zuen Petronorrek: 850 milioi euroko kostua izan zuen plantak, baina zifra 1.006 milioira igo zen ingurumen neurrietan inbertitutako 156 milioiak kontuan hartuta

(Berria, 03.04.2013). Europako Bankuak eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren finantzaketa jaso zuen, inbertsioa, berrindustrializazio programaren barruan kokatuta baitago.

Petronorren datuen arabera eraikuntza egiteko 1.500 langile behar izan ziren hilero-hilero, 36 hilabeteko lanak, 2009ko martxotik 2013ko apirilera; zortzi milioi lanordu guztira. Erakunde publikoetako zein enpresetako ordezkari andana bildu ziren Petronorren koke plantaren inaugurazio ofizialaren ekitaldian, besteak beste, Jose Manuel Soria Espainiako Industria ministroak, Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako bozeramailea eta gaur egun Espainiako erregea den Felipe VI.

13. IRUDIA KOKE PLANTA



Iturria: Petronor http://petronor.eus/es/categoria_multimedia/urf/ <kontsulta:2017.01.28>

C. KOKAPEN HISTORIKOA

1968ko azaroaren 30ean Petroleos del Norte S. A (Petronor) enpresa sortu zen, petrolioaren produktuak eta horien deribatuak fintzeko eta merkaturatzeko helburuarekin. Urte berean, Muskizen, petrolio findegi bat eraikitzen hasi eta 1972an, Iberiar Penintsulako ahalmen handieneko findegia martxan jarri zuten. Kostatik oso gertu eraikitzen da, Muskizeko Barbadun ibaiaren bokalean, padura zona batean. Hasiara baten findegiak 6 milioi tona gasolio gordin prozesatzen zituen baina hamarkadaz hamarkada berritzeko eta handitze-ko prozesuan izan da etengabe, bere instalazioak 14 alditan handituz. Hartara, gaur egun 11 milioi tona baino gehiagoko negozio-bolumena duen gune petrokimikoa da (Petronor, 2017).

14. IRUDIA: Petronor findegiaren kokagunea



Iturria: Turruntero Elkarte eta Greenpeace

80ko hamarkadan Planta Katalitiko bat gehitu zioten findegiari. Instalazioa 1985 urtean abiarazi zen eta proiektu honek Meatzaldeko ingurunean Petronorren aurkako lehenengo protestak piztu zituen. Handik gutxira, 1986.ean berunik gabeko gasolina ekoitzi zuen Estatu Espainiarreko lehen findegia bilakatu zen Petronor eta 1987an, lehen gasolindegiz-zerbitzuak jarri zituen martxan. Gaur egun 370 gasolindegiz inguru kudeatzen ditu Repsolek Estatu Espainiarrean (Petronor, 2017).

90ko hamarkadan zehar, auzokide eta ekologisten partetik aldizkako eta errepikakorrek diren salaketak jasango ditu Petronorrek bereziki emisio atmosferikoengatik eta Barbaduneko itsasadarrera egindako zuzeneko isurketengatik (Meatzaldea Bizirik, 2014). Isurketa hauek 1999ko uztailean findegitik 4 kilometrotara dagoen Punta Luzeroko portuko Terminal ondoan eraikitako itsaspeko hustubide bat egiterakoan bukatu ziren, zuzenean kantauri itsasora botatzen baitituzte. Hamarkada honen bukaeran, 1999an, Petronorrek Iberdrolarekin batera (%50), ziklo konbinatuko planta termiko bat eraikitzeke asmoa erakusten du, IGCC izenarekin eza-gutu zen gasifikazio integratuko ziklo konbinatua, alegia. Ekimen honen helburua fuel olio gas erregai bihurtzea zen, energia elektrikoa ekoizteko lehen energia gisa erabiltzeko. Fuel olio birziklatuaren bidezko elektrizitate ekoizpenerako planta honen bidez, 946 megawatteko potentzia instalatua lortu nahi zen, nahiz eta sarera 824 soilik atera, gainerakoa barruko funtzionamendurako beharko zelako (Meatzaldea Biririk, 2014:41).

2000.urtean egitasmo honen kontrako oposizio pizten da Muskizeko eta Abanto-Zierbenako biztanlerien artean. Ondorioz, IGCC-aren kontrako mugimenduaren jaiotza emaitza duen erantzun herritarra suertatzen da. Abantoko Plataforma Antitermikoak koordinaturik IGCC-aren eraikitzea galarazteko auzokideek egindako lana anitza izan zen: egitasmoaren aurkako sinaduren bilketa, jaiak eta mobilizazioak eta mozioak aurkeztu zituzten udaletxetan; finean, findegiarekiko herriaren ondoeza erakusteko helburua zuten ekintzak izan ziren (Meatzaldea Bizirik, 2014:42-48).

Gainera 2001. urtean Iberdrolak proiektua uzten duela iragarriko du baina honek ez du eraginik izango Petronorren asmoetan. Orduko kontseilari ordezkaria zen José Manuel de la Senek adierazpen hauek egin zituen: «Iberdrola tiene otras prioridades que respetamos, pero nosotros continuamos con el proyecto» (El País, 2001.06.28). Baina ondoren proiektuak beste oztopo batekin egin zuen topo. IGCC-a proiektuaren ezarpenerako petrokimikak Muskizeko bere findegiaren alboko lur batzuen birkalifikatzea behar zuen, bertan eraiki nahi baitzen

planta berria. Alabaina, Abantoko udaletxeko alderdi guztiak, lurrak udal horren esku zeuden, instalazioaren eraikuntzaren kontra agertu ziren. Horrela, 2004ean Petronorrek proiektua bertan behera utzi zuen. Greenpeace erakunde ekologistarentzat IGCC plantari uko egiteak ingurumenerako «garaipentzat» jo zuen, «urtean 4,8 eta 5,5 milioi tona bitarteko CO₂-etako emisioen igoera bat» suposatzen baitzuen ekologisten esanetan (Greenpeace, 2004).

2006.urterarte Petronorrek ez zuen bestelako proiekturen aurkezpenik egin. Urte honetan fuel-olioa murrizteko unitatea baten eraikuntza asmoa publikoki aurkezten badute ere, enpresak IGCC plantaren egitasmoa bertan behera utzi zuen urte berberean, 2004ean alegia, bestelako proiektu bat gauzatzeko asmoa jorratzen hasi zen. Enpresako arduradunek adierazten duten moduan: : «Hemen 2004an landu zen ideia» (KAE1). Hortaz, egitasmoa publikoki aurkeztu zenerako proiektua oso landuta zegoen. Zehazki 2006ko urtarrilean Muskizko udalean Petronor eta udaletxean ordezkaturata zeuden alderdi politikoen arteko bileran, proiektuaren lehen azalpenak ematen dira. 2006ko ekainaren 28an Petronorrek Eusko jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzan «Fuel olioa Murrizteko Unitate berrien» izeneko egitasmoaren lehenengo izapideak egiten hasiko da eta uztailean proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterketa aurkezten du. Enpresak petrolio-koke fabrika baten eraikuntza planteatzen du, petrolioaren merkatuaren bilakaerak ezarritako beharrei erantzuteko, hots, gero eta astunago eta dentsuago den petrolio gordina prozesatzea.

Proiektuaren lehen berri hauek, ardura sortzen dute Muskizeko zenbait eragile eta elkartean. Ondorioz, beraien artean kontaktuan jartzen hasiko dira eta egitasmoaren gaineko informazio bilketa prozesua abiatzen dute.

2007ko martxoan Fuel-olioa Murrizteko Unitatea eraikitzen hasteko lizentzia lortzen du Petronorrek, egitasmoari hasiera ofiziala emanez, horrela definitzen baitu FMU planta: «2007an ofizialtasunez hasitako asmo handiko proiektua» (Petronor, 2013:2). Koke planta abian jartzeko lanen baimena ematen den unetik, herritarren protestak hasiko dira. Maiatzean Koke plantaren aurkako lehenengo manifestazioa egingo da Muskizen, «Muskiz bizirik! Coquerik ez!» lelopean. Proiektuaren kontrako jarduerak handituko dira eta hainbat ekintza egingo dituzte, ekitaldi informatiboak, salaketak.... Horrela, kokeren aurkako oposizioko mugimenduak gora egingo du herrian eta 2007ko urrian, Kokeren Aurkako Koordinadora jaioko da. Plataforma honek hiru ardatzetan oinarritzen du Koke plantaren aurkako jarrera: herritarren osasunaren arriskua (osasun publikoa izan da argudio errepikaria egindako jarduera eta komunikatu guztietan), metatze efektuak (koke plantari, findegia, lau kilometrotara dagoen zentral termikoa, A-8 autopista... gehitu behar zaio) eta jasandako ingurumen karga kuota (eskualdea urteetan jasandako ingurumen hondatzea) (Meatzaldea Bizirik, 2014: 230).

Muskizen FMU plantarekiko dagoen kontrako jarreraren adierazlea, maiatzak 27ko udal hauteskundeetan emaitzak izango dira. Momentu horretararte, Muskizeko udala Eusko Alderdi Jeltzalearen esku egon da tradizionalki. Hauteskunde emaitzetan goranzko joera eduki du; 2003ko hauteskundeetan adibidez, 5.700 boto-emaitzen 2000 bozka lortu zituen, 13 zinegotzitik 8, alegia. Alabaina 2007ko udal hauteskundeetan jaitsiera nabarmena izan zuen, 1400 bozka eskuratu zituelarik, 6 zinegotzi. EA eta PSOeren itunaren ondorioz, Eusko Alkartasunak 4 zine-

gotzi eta PSOEk 3 zinegotzi lortu zituzten, alkatetza gabe geratuko da. Eraitza horietan eragin handia eduki zuen EAJ-k Koke plantarekiko edukitako jarrera, alde agertu baitzen eta Eusko Alkartasunak aldiz, instalazioaren kontra. EAren hauteskunde-programak «koke plantarik ez» zioen, eta herri kontsulta egingo zela hitz ematen zuen. Hortaz badirudi koke planta izan zela arrazoi nagusia Franco hil ostean lehenengoz Muskizeko alkatea EAJkoa ez izateko.

Bere hauteskunde programan betetzeko, EAko alkateak Koke plantari buruzko herri galdeketa egingo zuela iragarri zuen 2007ko irailean. Hala era, azaroak 13an egindako udaleko osoko bilkuran aukera baztertu zen, herri galdeketaen alde Eusko Alkartasunaren lau zinegotziek bakarrik bozkatu baitzuten (Meatzaldea Bizirik, 2014:231).

Alabaina, Koke plantaren oposizioak lanean jarraituko du eta 2008ko urtarrilean Muskizeko Udalaren osoko bilkura berezi batek Kokeren Aurkako Koordinadorak eraikuntzaren aurka aurkeztutako mozio bat onartuko du. Udaletxerarte egindako martxa herritarrak mozioa sostengatu zuen. Auzotarren mobilizazioak ugaritzen dira, hitzaldi desberdinak antolatzen dituzte batez ere osasun arloa lantzeko, besteak beste, «Nuestra salud en peligro» martxoan eta «Coque y salud humana» apirilean, haurren onkologa den Joseph Ferrís i Torjada mediku katalanarekin (Kokeren Aurkako Koordinadora, 2017).

Garai honetan, Petronorren Ingurumen Baimen Bateratuaren (IBB) prozesua abian jarriko da. Europar legedi berriari men eginez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak —ar-tean EAren esku— Petronorren Ingurumen Baimen Bateratuaren (IBB) behin-behineko espedientea bidali zuen Muskizko Udaletxera, han azter zezaten.

Udalak txostena lantzeko kontratatutako bi aholkularitzek, zirriborro hartan hutsune handiak topatu zituen. Epe laburrean beste txosten bat heldu zitzaion, koke plantaren IBB eta Ingurumeneko Eraginaren Ebaluazioa. Udalak aholkularitzaren eskuetan utzi zuen azterketa hau ere eta emandako argudioei erreparatuz, alegazioak aurkeztu zituen. Ez ziren bakarrak izan. Abanto-Zierbenako udalak eta Kokeren Aurkako Koordinadorak ere alegazioak egin zituzten, azken hauek 7.000 sinadura baino gehiagoren babesarekin. Jaurlaritzak ez zituen alegazioak onartu eta 2008ko maiatzaren 6an findegiaren behin betiko IBB-a onartu zuen. Erabaki honen aurrean Kokeren Aurkako koordinadorak manifestazioa deialdia egin zuen ekaina hasieran eta 1.200 pertsonen parte hartu zuten.

15. IRUDIA: Kokeren Aurkako koordinadorak deitutako manifestazioaren kartela



Iturria: Kokeren Aurkako Kordinadora <http://coordinadoraanticoke.blogspot.com.es/2008/06/> <kontsulta: 2017.02.15>

Onarpen hau jaso ondoren, Petronorrek hiru baimen eskaera igorri zizkion Muskizeko udalari: bat findegi osorako, ordura arte ez baitzeukan, beste bat koke planta eraikitze eta hirugarrena plantaren jardunerako. Findegirako baimenak Abanto-Zierbanako udalari ere eskatu zizkion (enpresa udal horretako lurretan ere kokatuta baitago) eta udal biek petrolio fintzerako jardura lizentzia onarpena eman zieten. Koke plantaren gaineko baimenak aldiz, Jaurlaritzak proiektuari falta zitzaizkion baimenen ebazpena eman arte eten zituen Muskizeko udalak. Uda honetan, 2008ko uda, alegia, Meatzaldea Bizirik elkarte ekologista jaioko da Kokearen Aurkako Koordinadoraren segida modura eta bide batez hari izaera legala emateko.

Bitartean Petronorrek aldaketak egingo ditu enpresan. Alde batetik Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako Industria sailburu izandakoa eta Eusko Alderdi Jeltzaleko EBBko presidente ohia, Petronorreko presidente izendatuko dute. Eta bestaldetik, komunikazio esparruan, EAJ-ko Euskadi Buru Batzarreko komunikazio departamentuaren zuzendari ohia, Luis Aranberri, «Amatiño», Petronorren sartzan da komunikazio departamentuaren arduradun karguarekin. Kokeren aurkako mugimenduarentzat izendapen hauek lotura zuzena zeukaten Muskizeko herrian FMU plantarekiko zegoen oposizioarekin. Enpresa arduratuta zegoen proiektu honek piztutako aurkako jarrerekin eta horren adibide estatu mailan finantza albiste eta gai ekonomiko eta gaurkotasun politikoetan espezializatua den El Confidencial kazeta liberalak idatzitakoa:

«Repsol necesitaba a alguien como Imaz al frente de Petronor. Para el ex político vasco éste no va a ser un camino de rosas, porque la contestación social en el País Vasco empieza a poner en peligro los planes de expansión de la petrolera. En efecto, el nombramiento de Imaz está directamente relacionado con el proyecto de construcción de una nueva planta de coque en la localidad vizcaína de Muskiz» (El Confidencial, 2008.97.07)

Repsolek 2014ean EAJko presindete ohia kontseilari delegatu izendatu zuenean, Vocento taldeko El Correo egunkarian ere analisi berdina irakurri dezakegu,

«Petronor fue la puerta de entrada de Josu Jon Imaz en el grupo Repsol, en el verano de 2008. Aceptó entonces la oferta que le hizo Antonio Brufau para asumir la presidencia ejecutiva de Petronor en un momento crítico. La refinería vasca, (...), tenía entre manos una inversión multimillonaria pero había generado en su entorno una fuerte contestación e incluso no pocos enfrentamientos con la corporación municipal de Muskiz. Algo había cambiado en el ADN de una empresa que en el pasado se había distinguido precisamente por establecer una relación muy estrecha con su entorno (...) y que comenzaba a generar más enemigos que amigos. Brufau encargó a Imaz que le diese la vuelta a la situación»(El Correo, 2014.05.5)

Josu Jon Imaz Petronorreko presidente legez hartutako lehen erabakia marketin emozionalarekin dauka zerikusia, Athletic Club futbol taldea babesteko hitzarmena sinatu baitzuen. Hitzarmen honen aurkezpenean, lotura berri hau bi erakundeek Bizkaian duten errotze sakonaren ondorioa zela nabarmendu zuten biek. Bi denboralditarako lortutako akordioaren bidez jokalariek Petronor enpresaren ikurra eramane zuten beraien elastikoetan. Bilboko kirol talde horren 110 urteko bizitza luzean jantzetan publizitatea ezarri zuen lehen enpresa izan zen Petronor. Enpresaren web gunean azaltzen duten moduan, une historikotzat jotzen dute akordio hau: «Bilboko Athleticekin jokalarien elastikoetan babesle agertzeko sinatutako hitzarmena izan da Petronorren historiaren beste une azpimarragarri bat» (Petronor, 2017). Gainera, presidentearen aldi behingo agerpen publikoak handituko dira, aurreko kudeaketa teknikoaren aurrean gizatiarragoa den eredu bat ezarriz, hots, findegiak aurpegia eta begiak edukiko ditu industriaren sustapenean Petronorrek duen paperaren balioa azpimarratzeko.

Koke plantaren baimenen inguruko erantzuna azaroan heldu zen. Petronorrek Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzaren onarpena jaso zuen Muskizen koke planta eraikitzeko. Aldeko Ingurumen Inpaktuko Adierazpena egin zuen Sailburuordetzak eta fuel-olioa murrizteko unitatearen Ingurumen Baimen Integratua eman zion enpresari. Proiektuaren aldeko eragileentzat, erabaki honek aurrera pausu handia suposatu zuen, Jaurlaritzaren baimena edukita oso zaila baitzen Muskizeko udalaren ezetza jasotzea. Garai horietan Bizkaiko ahaldun nagusia

zen Jose Luis Bilbaoren adierazpen hauetan laburbildu dezakegu aldekoen iritzia : «Me alegra que el Gobierno vasco haya dado el visto bueno al estudio de impacto ambiental de este proyecto. No entiendo mucho de estas cosas, pero sí estoy convencido de que si no se hace la nueva infraestructura, Petronor cerrará a medio plazo» (El Correo, 2008.11.24).

Proiektuaren aurkako eragileek erabakiaren kontra manifestazio deialdia luzatu zuten aza-roan eta Eusko Alkartasunak, Ezker Batua-berdeak eta Ezker abertzaleak batu ziren koke plan-taren aurkako martxara, *Gure osasuna ez da negozio bat* lelopean. Bertan 2000 pertsonak parte hartu zuten, Muskizeko alkatea barne. Gainera, Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen inguruko herri galdeketa egiteko sinadura bilketa abian jarri zuten. Horrela, Meatzaldea Bizirik ekologista tal-deak herri galdeketa burutzeko 1.200 sinadurek bermatutako proposamena aurkeztu zion Mus-kiz-eko udalari. Aldiz, abenduak 11an egindako osoko bilkuran udaletxeak berriro uko egiten dio koke plantaren gaineko galdeketa bat burutzeko aukerari, gehiengo osoa ez baitzen lortu: alde EA-ko 4 bozka, aurka PSE-ko 3 eta EAJen 6 abstentzioekin (Meatzaldea Bizirik, 2014:232).

16. IRUDIA: Herri galdeketa erantzunaren salatzeko kanpaina



Iturria: Kokeren Aurkako Koordinadora, 2017.

2009ko Otsailaren 10ean, Muskizeko Gobernu-Batzordeak FMU planta eraikitzeke zein ha-ren jardunerako baimenak ematea erabaki zuen. Momentu horretararte Eako alkatea eta zi-negotziak proiektuaren kontra agertu batziren ere, ingurumen zinegotzia zena, Marcos Cucó izan zen aldeko bozka eman ez zuen bakarra. Gonzalo Riancho, Muskizeko alkateak, honela defendatuko du hartutako erabakia: «Mahai gainean geneukan Jaurlaritzako Ingurumen Sai-laren txosten bat, Petronorrek baldintza guztiak betetzen zituela esaten zuena. Ezin genizkion baimenak ukatu, prebarikazioa izango zen bestela. Nik ez dut gustuko FMU planta, baina lehe-nik eta behin legea bete behar dut» (Argia, 2009.12.06). Udalaren baimenak jaso ondoren Pe-tronorrek Koke planta eraikitzen hasiko da.

Horiek horrela, Kokeren Aurkako Koordinadorak 2009ko martxoan herri galdeketa antola-tuko du. Hainbat auzoetan mahaiak ipini zituzten martxoak 23tik 28rako epealdian eta galde-ra bakarra erabili zuten herri-kontsultan: Ados al zaude Muskizen Koke planta jartzearekin?.

1.204 pertsonen parte hartu zuten, udal hauteskundeetan botoa emateko eskubidea zuten %20,61k alegia eta ezezkoa garaile atera zen bozkatu zutenen %96,76k ezetzaren alde egin baitzuten eta %1.99k baiezkoaren alde (Kokeren Aurkako Koordinadora, 2017).

22. TAULA: Muskizeko Udalean Koke plantaren gainean egindako herri galdeketa

DATA	PARTAIDETZA	KONTRA	ALDE	ZURIA	NULO
2010/03/23-28	1.204	1.165	24	4	11

Iturria: Kokeren Aurkako Koodinadora 2017

Herri galdeketa emaitzek ez zuten Koke planta eraikitze planik gelditu. Urrian Petronorrera heldu ziren FMU plantak izango zituen kokizazio-kamerak. Egitura metaliko itzelen garraioa aprobetxatuz Kokeren Aurkako Koordinadorak «hileta-martxa» bat antolatu zuen protesta egiteko.

17. IRUDIA: FMU plantaren Kokizazio-kameren garraioan egindako protesta



Iturria: Kokeren Aurkako Kordinadora, [<kontsulta: 2017.02.17>](http://coordinadoraanticoke.blogspot.com.es/2009/)

Fuel olioaren Murrizteko Unitatea eraikitze lanek aurrera jarraituko dute eta protestak ere bai. Hamaika ekintza egingo dira, azpimarragarriak, 2010ko urtarrilean kokeren aurka antolatutako giza katea, gizabanakoek elkarri eskuak emanez osatutako ilara batek Petronorreko instalazioak inguratu zituen. Eta apirilean, Bizkaiko mugimendu ekologistak Lurraren eguna ospatzeko «Muskizetik Amazoniara, gure Lurra defenda dezagun» leloa aukeratu izana, bai Euskal Herrian bai planeta osoan bizi dugun eredu energetikoaren inpaktuak sinbolizatzeko. Halaber, azaroan, kogenerazio elektrikoko unitatea egiten bukatuko dute (Meatzaldea Bizirik, 2014:233).

2011. urte hasieran, Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Espainiako Gobernuak (PSOE) beste 30 urtez Petronorren findegiaren jarduna luzatzea hitzartu zuten. Ekonomia Jasangarriaren Legearen alde bozkatzearen truke, lege horretan bertan xedapen bat sartzea adostu zuten jeltzaleek PSOErekin. Alderdi biek, zehazki, Jasangarritasun Legeari zuzenketa bat ezartzea erabaki zuten, Itsasertzeko Jabari Publikoa okupatzen duten findegiei beren kontzesioak luzatzeko aukera emanez.

Azkenik 2013ko apirilean fuel-olioa murrizteko planta berria inauguratu zen, Asturiaseko printzipe Feliperen (gaur egun errege) bizitarekin. Muskizen 1500 sinadura lortu ziren bisita horren aurka, planta ilegal bat inauguratzera zetorrela salatuz eta inaugurazio egunean Muskizko Kultur Etxearen aurrean Meatzaldea Bizirik talde ekologistak deituta, koke plantaren aurkako elkarretaratzea egin zen (Meatzaldea Bizirik, 2014:234). Ordudanik gaur egun arte (2017), FMU plantaren aurkako protestak eta ekintzak egiten jarraitu dute.

Sozio-ingurumen gatazka honen garapenean 2008az geroztik Meatzaldea bizirik-ek eta Izate Ingurugiroaren taldeak justizia administrazioan zazpi prozedura ireki zituzten Petronorren aurka. Zehazki prozedurok honako hauen aurka aurkeztu ziren: fintzeko jarduera lizentziaren aurka, koke eta kogenerazio planten udal lizentzien aurka eta findegia beraren zein fuel-olioa murrizteko unitatearen (FMU) —koke planta bezala ezaguna dena— Ingurumen-Baimen Bateratuen aurka (IBB), behin-behinekoak eta eraginkorrak direnak (Meatzaldea Bizirik, 2014, :230-234).

Kasu guztietan, justizia administrazioak Petronorren aldeko epaia eman du. Azkena 2016ko martxoaren 1ean Auzitegi Gorenak emandakoa da, ez baitzuen onartu Meatzaldea Bizirik talde ekologistak aurkeztutako helegitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2014ko uztailearen 18an emandako epaiaren aurkakoa. 2011ko abenduan Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak ezarritako Koke Plantaren Ingurumen-baimen Bateratuaren aurkako prozeduran eman zen, hain zuzen, epai hori. Gainera, azken epai honetan, Auzitegi Gorenak, talde ekologista judizioko kostu guztiak ordaintzera behartu du.

D. AKTOREEN IDENTIFIKAZIOA ETA ELKARREN ARTEKO HARREMANA

Sozio-ingurumen gatazka honen analisi deskriptiboarekin bukatzeko bertan parte hartu duten eragileei erreparatuko diogu. Horretarako Petronorrek Muskizen eraikitako Fuel-olioa Murrizteko Plantak sortutako sozio-ingurumen gatazka honetan parte hartu duten aktoreak identifikatuko ditugu. Ondoren, beraien arteko harremanak aztertuko ditugu nolakotasunak azaltzeko helburuarekin.

AKTOREEN IDENTIFIKAZIOA

Arestian aipatu dugun moduan, eragileak izendatzeko parte hartzen duten talde motari erreferentzia egingo diogu. Gure azterketaren oinarria, azaltzen dugun sozio-ingurumen gatazka rekiko duten jarrera izango da.

23. TAULA: **FMU plantaren ALDE agertu diren eragileak:**

TALDE MOTA	IZENA	ZEREGINA
TALDE INSTITUZIONALA	Estatu Espainiarreko Gobernuak, Industria Ministerioa eta Ingurumen Ministerioa	Baimenak emateko izapideak egin behar ditu.
TALDE INSTITUZIONALA	Eusko Jaurlaritzak:	Kokeren planta martxan jartzeko azken baimenak, bere esku daude.
TALDE INSTITUZIONALA	Bizkaiko Foru Aldundia	Proiektuaren alde agertuko da
TALDE INSTITUZIONALAK	Muskizeko Udala	Proiektua planteatu zenean kontra agertu bazen ere 2009.urtean baimenak eman zituen martxan ipintzeko.
TALDE POLITIKOAK	EAJ, PSE, PP	Proiektuaren alde agertuko dira eta babesak eskainiko diote
TALDE POLITIKOA	EA	Maila nazionalen, egitasmoaren alde agertu dira momentu oro. Maila lokalean, Muskizen, egitasmoa aurkeztu zenean kontra agertu bazen ere, azkenean beharrezkoak ziren baimenak ematea erabaki zuen, aldeko jarrerarekin bat eginez.
TALDE ENPRESARIALA	Petronor (REPSOL YPFren filiala da)	Koke plantaren sustatzailea

Iturria: Egileak egina

Petronorrek egitasmoa aurkeztu zuen momentutik babes instituzionala jaso du Fuel-olioa Murrizteko Unitate Plantak. Estatu espainiarreko Industria Ministerioak (PP) begi onez ikusi zuen proiektua eta horren seinalea Jose Manuel Soria, 2013an Espainiako Industria ministroa zenak, plantaren inaugurazio egunean egindako adierazpenak: «Berrindustrializazioan aurre-rapausoak ematen lagunduko du koke plantak eta, beraz, lehiatzeko gaitasuna berreskuratzen». Findegiaren ibilbidea ere txalotu zuen: «45 urtetan enpresa eredugarria izan da Bizkaian, Euskadin eta Espainian» (Berria:2013.04.04). Aldi berean, Espainiako Gobernuak mota hauetako inbertsio industrialei eskaintzen dien «babesa» eta «kemenak» adierazi zuen. Horren adibide, Ingurumen Ministerioarekin batera, Petronorrek planta martxan jartzeko behar zituen baimenen izapideak bideratu izana da. Gainera, arestian aipatu dugun moduan, 2012an Espainiako Gobernuak Petronorri beste 30 urtez findegia martxan edukitzeko baimena eman zion.

Eusko Jaurlaritzak egitasmo honen alde agertu da momentu oro. Petronorrek Koke plantaren proiektua aurkeztu zuenetik sostengua adierazi dio Petronorri. Josu Erkoreka, Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak, eredugarritzat jo zuen egitasmoa inaugurazio egunean: «Petronorren inbertsio honek bihurtutako gerturatzeko gaitu, berreskuratzeko hasiera eta hazkundea ekarriko duen joera aldatetara» (Berria 2013.04.04). Proiektua martxan jartzeko ezinbestekoak ziren baimenak emateko erabakia, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak hartu zuen.

Bizkaiko Foru Aldundiak beti mahaigaineratu du Petronor dela EAEko diputazioen diru-kutxan ekarpen handiena egiten duen konpainia. Bizkaiko Aldundiko foru ogasunari 750 milioi euro ematen dizkio urtean. Petronorren web gunean adierazten dutenez (www.petronor.es/es) 2012-2013 urteetan adibidez, Petronorrek 1.615 milioi euro baino gehiago ordaindu zizkion Bizkaiko Ogasunari, hau da, 650 euro bizkaitar bakoitzeko urtero. Hortaz Bizkaiko Foru Al-

dundiak Petronorri babesaren eskaini dio Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen plantaren egitasmoa aurrera eramateko.

Arestian aipatu dugun moduan, Muskizeko udala tradizionalki Eusko Alderdi Jeltzaleen «feudo» bat izan da baina Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen plantaren aurkako iritzien esku-tik herritarren artean sortu zen ezinegon 2007ko udal hauteskundeetan islatu zen. Ondorioz, EAko Gonzalo Riancho alkate izendatu zuten, PSE-EEren babesarekin, 1999. urtetik alkatea zen Gualberto Atxurraren (EAJ) kaltetan. Azaldu dugun legez, udal gobernu berriak koke plantari buruzko galdeketa iragarri zuen, eta Petronorren egitasmoari obra lizentziak eta jardueraren lizentziak emateari uko egin zion mozio batean. Hilabete batzuk geroago eman zizkion, hala ere. Berriz ere honek ondorioak eduki zituen udal hauteskundeetan 2011. urtean EAJk alkatetza berreskuratu baitzuen, 2007an ateratako bozka kopuru berdinarekin. EAk bi zinegotzi lortu zituen, (Bilduren koalizioaren parte ez den Euskadiko udal bakarra izan da), Ezker Abertzaleak (Biltzen) 3, PSOEk 2 eta «Por Muskiz bai» hautagaitza independenteak zinegotzi bakarra lortu zuen. EAk alkatetza galtzen badu ere, Koke plantaren babesle nagusiekin, EAJrekin, partekatuko du udal-boterea.

Hortaz Muskizeko udala hasiera batean egitasmoaren aurka agertu bazen ere, aldaketa bat edukiko du bere jarreraren Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen planta eraikitze baimenak eman baitzituen.

Alderdien aldeko jarrera azaltzeko EAJ, PSE eta PP aipatu behar ditugu. Jeltzaleak Koke plantaren babesle nagusia izan dira, bai udal mailan, bai gobernu mailan eta bai maila pertsonalean ere (gogoratu Euskadi Buru Batzarretik atera zirela bai Amatiño, Petronorreko komunikazio arduraduna, bai Josu Jon Imaz, Petronorreko presidentea 2008tik 2015arte). EAJk beti defendatu du Petronor Euskadiko enpresa garrantzitsuetako bat dela eta Euskadiko diru-kutxan zergadun nagusietako bat. Beraz, argudio hauekin FMU plantaren aldeko jarrera mantendu dute beti. PSE-PSOE egitasmoaren alde agertu da bai maila lokalean, autoan eta estatalean. PPK udal ordezkariak eduki barik, Koke plantaren aldeko jarrera erakutsi du momentu oro.

Hiru alderdi hauek 2008an, Koke plantaren kontrako mugimenduaren indarra agerian zegoenean, Koke plantaren aldeko jarrera erakusgarri egin zuten. Beraien babesaren ikusgai egiteko, alderdien arduradun politiko nagusiek, Iñigo Urkullu (EAJ), Patxi Lopez (PSE) eta Antonio Basagoiti (PP) findegia bisitatu zuten.

Arestian azaldu dugun moduan, udal mailan EAk kontraesanak eduki ditu Koke planta martxan jartzeko prozesuan zehar. Nahiz eta Muskiz-en tradizionalki FMU plantaren kontra agertu diren, sektore batzuek ez dute jakin edo ez dituzte jasan nahi izan, alde kokatutako alderdi aparatuen bateko presioak. Udalaren jarrera azaltzerakoan aipatu ditugun iritzi aldaketak, maila lokalean alderdiaren zatiketa suposatzen zuen. Marcos Cucó, Fuel-olio Murrizteko Unitatearen baimenak ematearen aurka bozkatu zuen EAko zinegotzi bakarrak, ingurumen zinegotzia zenak, gaur egun Ezker Abertzaleko (Biltzen) taldean dago.

Eusko Jaurlaritzan, Ingurumeneko erantzukizuna, funtsezkoa Koke plantaren baimenen onspenerako, EA-k eraman du 2009ra arte. Maila lokalean egitasmoaren kontra egon arren, Euskadi mailan EA Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen alde egon den alderdia izan da. 2008ko

apirilean, Koke plantaren gaineko eztabaidaren goreneko mailan, Ingurumen eta Lurralde antolamendu sailburuak, EAko Esther Larrañagak bere alderdiaren ordezkariak batekin (besteak beste, EAko presidentea zena Unai Ziarreta eta Muskizeko alkate ohia, Gonzalo Riancho) Petronorreko instalazioak bisitatu zituen, alderdiaren babesaren erakusgarri.

Proiektu honen sustatzailea Petronor enpresa izan da. Egitasmoa aurkeztu zuenetik Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen plantaren eraikuntzara lotu du findegiaren jarraipena Petronorrek. Planta berria egin ezean, Muskizko findegia hamar urte baino lehenago ixtearekin mehatxatu zuen, 2008an, Jose Manuel de la Senek, Petronorreko ordezkariak. Josu Jon Imazek, ondoren presidentea bilakatu zenak, baimen guztiak lortu arte publikoki egindako adierazpenetan ideia berdina azpimarratzen zuen. Kontutan eduki behar dugu, Muskizeko herriak duela 40 urte baino gehiagotik Petronorrekiko duen lotura ekonomikoa; lana ematen dien 950 zuzeneneko langileetatik heren bat baino gehiago udalean bizi direla kalkulatzeko baita.

Hortaz bere lanpostua galtzeko beldur diren enpresako langile gehienagoa FMU plantaren alde agertzea ulergarria da, egitasmoa findegiaren jarraikortasunarekin lotu baitu Petronorrek. Gogoratu behar dugu IGCC egitasmoarekin mehatxu hau bera egin zuela.

24. TAULA: **FMU plantaren KONTRA agertu diren eragileak:**

TALDE MOTA	IZENA	ZEREGINA
ALDERDI POLITIKOAK	EH Bildu, Ezker Batua, Por Muskiz bai	Egitasmoaren aurkako jarrera politiko instituzionala erakutsi dute.
PLATAFORMAK ETA HERRI MUGIMENDUAK	Kokeren aurkako koordinadora	Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen kontrako koordinadora da. Muskizeko bizilagunak biltzen ditu bere baitan
PLATAFORMAK ETA HERRI MUGIMENDUAK	Meatzaldea Bizirik	Meatzaldeako eskualdean sortutako elkarte ekologista Kokearen Aurkako Koordinadorari izaera legala emateko.
MUGIMENDU SOZIALAK	Turruntero Elkarte, Plural Anitzak Elkarte	Auzokide Taldeak
MUGIMENDU SOZIALAK	Ekologistak Martxan, Eguzki, Greenpeace, Izate, Kima Berdea	Talde ekologistek egitasmoaren kontrako jarrera eduki dute eta kontra dauden Muskizeko bizilagunei babesa erakutsi diete

Iturria: Egileak egin.

Ezkerrean kokatzen diren alderdi politikoei egitasmo honen aurkako jarrera eduki dute. Bai EH Bilduko koalizioko alderdiek, bai Ezker Batuak ez dute begi onez ikusi Koke plantaren eraikuntza eta kontrako jarrera politiko instituzionala erakutsi dute. FMU plantaren aurkako protesta manifestazioetan parte hartu dute eta deialdietan parte hartzeko gonbidapenak luzatu dituzte. Adibide legez Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen planta inauguratu zenean EH Bilduk aterako prentsa-oharra:

«EH Bilduk dei egin nahi die herritar guztiei Muskizko bizilagunei inposatu zaien koke plantaren aurka eta Espainiako printzearen bisitaren kontra antolatuko diren

mobilizazio guztietan parte hartzera. Proiektu horrek korporazio handien interesei bakarrik erantzuten die eta inolaz ere ez enpleguaren sorrerari edo eskualdearen beharretara egokitutako garapen ereduari. Petronorrek, inposizioaren bidez, sistema ekonomiko injustua eta ingurugiroaren aurkakoa ezarri nahi du poltsiko gutxi batzuk loditzearen truke». Iturria: <http://ehbildu.eus/eu/albisteak/93-eskaintza/irtenbidea/2058-petronorren-koke-planta-ren-inaugurazioa-inposizio-segida-baten-azken-urratsa-da> (kontsulta: 2017.03.25)

Kokeren aurkako Koordinadora 2007an jaio zen egitasmo honi aurre egiteko. Hasiera batean herri plataforma baten legez sortu zen, auzo elkarte, sindikatu eta elkarte politiko sozialen elkargune eta koordinazio topalekua baitzen. Denboraz, elkarte koordinadora batetik Koke plantaren aurkako borroka dinamizatzen duten pertsonen koordinadora batean bilakatu zen. FMU plantaren kontra garatu diren mobilizazio, ekintza informatibo, proposamen, herri eta instituzio ekimenen antolatzaile eta bultzatzailea izan baita.

2008an Koordinadorak «Meatzaldea bizirik Ekologista Taldea» sortu zuen, Meatzaldeko auzo elkarte, koordinadorari izaera legala emateko eta Koke plantaren kontrako legezko ekimen desberdinak garatzeko. Petronorrekin erlacionatutako arazoek gaineko dibulgazio eta sentsibilizazio kanpainak egingo ditu, besteak beste «Meatzaldea Bizirik» izeneko aldizkaria argitaratuko du.


Muskizeko hainbat Auzo elkarrekin ere kontrako jarrera irmoa eduki dute egitasmoa aurkeztu zenetik. Nabarmena San Julian auzoko Turruntero elkarrekin egindako lana, udaletxean ehunka kexa aurkeztu baitzituzten. Koke planta bere auzotik 500 metrotara kokatuta dago eta eraikitzeko lanak hasi zirenetik zarata handia jasan behar izaten dutela salatu zuten, baita gaez ere (Meatzaldea Bizirik, 2014:155).

Talde ekologistek elkartasuna adierazi diete Kokeren Aurkako Koordinadorari, beraien kontrako jarrerarekin bat eginez. Sozio-ingurumen gatazka honen hastapenetatik beraien laguntza oso garrantzitsua izan da. Udal eta herrialde mailan, Izate edo Kima Berdea moduko taldeek, koordinadoran parte hartze zuzena eta aktiboa eduki dute. Euskal Herria mailan. Eguzki edo Ekologistak Martxan taldeek, bereziki azken hauen Zor Ekologiko batzordeak, Koordinadorekin jarduera ugari antolatu dituzte eta nazioarteko trukeak ere bai. Adibidez Argentina-ko «Rio de la Plata»-ko Dock Sud izeneko komunitatearekin (petrolio birfindegiarekin batera Koke planta bat ere dute) eta Ekuadorreko aktibistekin egindako esperientzien hartu-emanak, Yasuni Parkean Repsolek egindako petrolioren ustiaketaren eraginak ezagutzeko. Badajozen 2010ean «Findegiak Ez» Plataformak antolatutako lan jardunaldietan ere parte hartu zuten. Greenpeace taldeak ere publikoki Koke plantaren aurkako jarrera erakutsi du

AKTOREEN ARTEKO HARREMANA


Sozio-ingurumen gatazka honetan parte hartu duten eragileen deskribapena bete ondoren, beraien arteko harremanak azalduko ditugu eragileen arteko elkar eraginen soziograma bat erabiliz. Arestian azaldu dugun legez, absziden ardatzean egitasmoarekiko jarrera kokatu dugu, ordenatuen ardatzean aldiz, talde motak. Horrela identifikatu ditugu

25. IRUDIA: **Soziogramaren argibideak**



Iturria: Egileak berak egina

26. GRAFIKOA: **Soziograma: Koke plantaren aktoreen arteko elkar eraginen soziograma orokorra.**



Iturria: Egileak berak egina

Petronorren FMU plantaren sozio-ingurumen gatazkaren deskribapen analitikoarekin bukatzeko, gatazka honen zabaltasuna eta konplexutasuna ulertzeko egin dugun soziograma aurkezten dugu orainoan.

Grafiko honetan Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen Plantaren sozio-ingurumen gatazkan parte hartu duten eragile desberdinak kokatu ditugu. Soziograma honekin, Koke plantaren proiektuarekiko eduki duten jarreraren eta beraien arteko harremanen argazki estatikoa ikusi daiteke. Plazaratzen dugun irudia, ikerketa hau burutzerakoan egindako da, hots, FMU planta inauguratzerakoan suertatutako egoera, 2013ko apirilaren 4a, hain zuzen.

Arestian azaldu dugunaren arabera, sozio-ingurumen gatazka honetan bi jarrera aldaketa egon dira. Batetik Muskizeko EAK jasandakoa; hasieran kontra agertu bazen ere, azkenean proiektuaren aldeko jarrera edukiko du. Eta bestetik, honen ondorioz, Muskizeko udalak bizi izan duen jarrera aldaketa ulertu daiteke, hots, proiektuaren aurka egoteagatik (EAK alkatetza eskuratu zuen 2007an arrazoi honegatik) egitasmoa aurrera eramateko behar ziren baimenak ematera pasatu baitzen (EAK 2011ko udal hauteskundeetan alkatetza galdu zuen). Hortaz gure soziogramak Koke planta inauguratzerakoan eragile hauen aldeko jarrera erakusten du.

Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen plantaren sozio-ingurumen gatazkan sortutako portae-
ren jarduera aztertzeke, prozesuaren garapenean eratu diren eragile koalizioen identifikazioa egin dugu. Agerian geratu da, bi eragile bloke kontrajarri eta identifikagarri daudela eta haien artean bitartekaritza espezifikorik ez dagoela.

Soziograman ikusi dezakegunez, eragileak bi taldetan desberdintzen dira. Multzo batean, proiektuaren aldeko jarrera dutenak daude, hots, enpresa sustatzailea, instituzioak eta alderdi politiko nagusiak. Aldiz, kontrako jarrerako multzoan, ezkerreko alderdiak, talde ekologistak eta mugimendu sozialak agertzen dira. Gezien bidez irudikatzen den moduan, bi bloke hauen artean ez da hartu-emanik egon. Koke plantaren garapenean egoera gatazkatsua, inkomunikazioa eta espazio deliberatibo ezak izan dira nagusi. Eragileen arteko informazio elkartrukerik ez da bideratu eta kanal komunikatiborik ez dira sortu.

4.2.3. Koke plantaren sozio-ingurumen gatazkaren analisi enpirikoa

A. DEFINIZIO KONPARTITUAREN ANALISIA

Sozio-ingurumen gatazka honen analisi enpirikoa gauzatzeko jorratuko dugun lehen atala definizio konpartituaren azterketa izango da. Horretarako gatazka honen hastapenaren analisisa burutuko dugu, parte hartu duten aktoreak identifikatuko ditugu eta beraien arteko harremanen nolakotasunen azterketari erreparatuko diogu. Aktoreen artean egon diren desberdintasun informatiboak azalarazteko, proiektuaren gaineko informazioak egin duen ibilbidea aztertuko dugu.

PROIEKTUAREN HASIERA ETA SUSTATZAILEAK:

Egitasmo honen sustatzailea izendatzerakoan, bai alde eta bai kontra dauden eragile guztiek Petronor enpresa identifikatzen dute proiektu honen bultzatzaile nagusitzat: «Este proyecto lo empezó a tramitar Petronor» (KAE5). Hortaz, kasu honetan, enpresa pribatu baten ekimena izango litzateke sozio-ingurumen gatazka honen abiapuntua. Hortik abiatuta, instituzioak, alderdiak eta eragile sozialak alde edo kontra agertuko dira, baina formalki inizatiba pribatutik sortutako proiektua da.

Proiektu honen hastapena kokatzerakoan, eragile guztiek bat 2004 urtea aipatzen dute. Petronorreko goi kargu batek honela finkatzen du denboran proiektuaren sorrera: «Hemen 2004an landu zen ideia»(KAE1).

Egitasmo honen hasiera mugatzeko, bai Koke plantaren alde eta bai kontra dauden eragileek IGCC proiektua aipatzen dute. Arestian azaldu dugun moduan, Petronorren proiektua hau bertan behera geratu zen eta Koke plantaren egitasmoa honen ondorio zuzena litzateke. Honela azaltzen du eragile sozial batek:

«El proyecto de Coke se incia cuando ellos iban a hacer una termica de residuos de petroleo en Las Carreras con Iberdrola y ese proyecto no salió. Y entonces ellos tienen como un plan b que es hacer una planta de Coke en Muskiz (KKE3)

Petronorreko enpresa-batzordeko kide batek adierazpen hauek berrezten ditu eta aldi berean enpresaren bideragarritasunarekin lotzen du proiektu honen jaiotza:

«Hubo negociaciones, se planteó el proyecto al comité, también como continuación porque anteriormente había habido un proyecto que era el IGCC que se vino abajo y todo esto se plantea como la salida necesaria para la continuidad de la empresa» (KAE3)

Adierazgarria iruditu zaigu aldeko aktoreen partetik, egitasmoaren hastapena definitzerakoan, Petronorren bizi iraupena bermatzeko beharrezkoa den proiektu legez deskribatzea Koke planta. Enpresako goi kargu batek honela azaltzen du ideia hau:

«Gaur egun findegiek ekoizten dutenaren %25 fuel astuna da. Fuel honek gero eta eskabide gutxiago du merkatuan eta, hain zuzen ere, debekatua dago erregaitzat erabiltzea Europako Batasunean. Fuel hori murrizten ez baldin bada, findegiak ez du etorkizunik, ez baitago ekoizpenaren %25a urtero-urtero biltegitan gordetzerik. Irtenbide bakarra fuel hori murrizteko unitate berezia eraikitzea da» (KAE4)

Hortaz, egitasmoaren sustatzaileek Koke planta enpresaren etorkizunarekin estekatzen dute, proiektu honi hasieratik garrantzi estrategikoa emanaz. Argudio hau, aurrerago ikusiko dugun moduan, aldekoen jarrera eraikitzeo oinarri sendoa izango da. Dena den, aipatu behar dugu, bertan behera gelditu zen IGCC egitasmoaren proposamena aurrera eramateko, Petronorrek argudio berbera erabili zuela. El Pais-ek 2002an Petronorreko kontseilari delegatuaren adierazpenak honela jasoko ditu: « El consejero delegado de Petronor, José Manuel de la Sen, recalcó ayer que la planta IGCC es fundamental para el futuro de la refinería de Muskiz» (El Pais, 2002.6.27)

PROIEKTUAREN ALDEKO ETA KONTRAKOEN IDENTIFIKAZIOA:

Eragile guztiek proiektu honen alde eta kontra daudenen izendapena egiterakoan ez dute arazorik eduki aktoreak identifikatzeko. Baina, elkarrizketatuen artean, desberdindu beharra dago aldeko eta kontrakoen arteko pertzepzioa.

Kontrako eragileentzat argi dago zeintzuk diren proiektuaren aurka daudenak; Kokeren Aurkako Koordinadora, maila lokaleko eta nazionaleko ekologista taldeak eta auzoko elkarteak ere aipatuak izango dira: «Hemen herri honetan bazegoen mugimendu bat, ziren mugimendu oso lokalak, auzokoak» (KKE2).

Alderdi politikoei erreparatuz, Ezker Abertzalea, Aralar, Ezker Batua eta hasiera batean EA aipatzen dute, honela azalduz : «EA taldea, bueno EA, hori garai hartan, ze gero aldaketa batzuk egon ziren» (KKE2). Gogoratu behar dugu egitismo honen proposamena publikoa egiten denean, Elkarrekin Podemos eta EH Bildu ez zirela existitzen. Hortaz, alderdi politikoak identifikatzen dira eta ez koalizioak. Azaldu dugun moduan, EAren jarrera hartze aldaketak, aipamen berezia jaso du gure elkarrizketatuen artean:

«EA era el único que nos prometía que el Coke no, que nos apoyaba. Estaba también la izquierda abertzale, pero como estaba ilegalizada, no podía; eso fue lo que provocó que posiblemente muchos de los votos fueran a EA y saliese. Cual fue el desengaño general, que ni lo escrito en la propaganda electoral se ha cumplido» (KKE1)

Muskizeko udaletxearen jarrerarekin gauza bera gertatzen da. Hasieran EAk alkatetza irabazten duenean, proiektuaren kontra kokatzen badute ere, ondoren eduki zuen jarrera aldaketak aldekoen eragileen multzoan identifikatzea sortzen du. Horrela azaltzen du udaletxeko goi kargu ohi batek aldaketa jarrera hau:

«Yo lo que siempre he dicho, y mi partido, es que estamos en contra de la instalación de una industria como estas porque creemos que tenemos bastante pero siempre al final tenemos que cumplir la ley. Yo desde el ayuntamiento tengo que hacer cumplir la ley. Y si a mi me dice el Departamento de Medio Ambiente y todos los técnicos que cumple la normativa técnica la instalación, es una actividad que es reglada y cumple, yo no puedo negarme» (KAE2)

Azpimarragarria iruditu zaigu, Kokeren Aurkako Koordinadoraren baitan egon den jendea definitzerakoan aniztasuna izan dela eragileek gehien erabili duten hitza. Honela dio aktore sozial batek:

«Ahí había mucha gente abertzale, y también muchos del PNV y de todos los partidos que no están de acuerdo con el proyecto; sobre todo, gente joven. Nosotras somos madres también, pero mirando el porvenir de los hijos, gente con niños pequeños, se ha implicado mucho» (KKE4)

Aldeko eragileek aldiz, kontra dagoen mugimendua zehazteko zailtasun gehiago dituzte. Aipatu dugun aniztasuna ez dute aitortzen eta ezkerreko alderdietan kokatzen dute oposizioa. Batzuk ezker abertzale soilik aipatzen dute: »En contra la izquierda abertzale» (KAE3) eta beste batzuk ezker alderdien kontrako jarrerari ekologistena gehitzen diote: « En contra todos los partidos de izquierda, Ezker batua, Ezker Abertzalea y los ecologistas» (KAE5). Kokeren Aurkako Koordinadora oso gutxitan aipatzen dute eta Petronorreko goi kargu batek, honela identifikatzen ditu proiektuaren aurka daudenak: «Kontra zeudenak, berriz, inoiz zehaztu ez den herritar talde bat»(KAE1). Oposizio politikoa ekiditeaz gain, deigarria da Kokeren Aurkako Koordinadorari buruz nola mintzo den.

Proiektuaren aldeko eragileak identifikatzerako garaian, bai aldeko eta bai kontrako aktoreen artean adostasuna ageri da, Petronor sustatzaile nagusia izanik, aldeko jarrera nabaria eduki duela azaltzerakoan. Aldeko eragile batek, modu honetan adierazten du aipatutakoa: «Esan beharrik ere ez alde zegoena enpresa sustatzailea zela» (KAE4).

Alderdi politikoei dagokionez EAJ, PSOE eta herrian ordezkariarik ez badu ere, PP aipatzen da. Dena den EAJ eta PSOE-ren jarrera adierazterakoan «isiltasuna» edo «ezkutuan egotea» egotzi zaie, batez ere 2007ko udal hauteskundeak baino lehen:

«El Partido Nacionalista Vasco pues, yo sé que estaba a favor, pero no dijo ni que estaba a favor ni en contra, en su programa electoral eso no venia. Y el PSOE tampoco, aunque se sabía que estaba a favor, vamos que no estaba en contra» (KAE2)

Udal hauteskunde ondoren, Koke planta martxan ipintzeko baimenak udalera helduko dira eta elkarrizketatuen aburuz momentu horretan EAJk eta PSOEek bere aldeko jarrera publikoa egingo dute. Horren adibide udaleko aktore politiko batek azaldutakoa:

«Orduan udalak egin zuena garai hartan izan zen ba jende guztia bildu, talde politikoei ere gonbidapena luzatu zien eta antolatu genuen batzorde bat, jarraipen batzorde bat. Berehala talde politiko batzuk deskolgaratu ziren, PSOEek ez zuen parte hartu inoiz eta EAJ lehenengo batzordera joan zen. Bigarren batzordean gogoratzen naiz esan zigutela uzten zutela ze konturatu zirela beraien ustez hori zela Kokeren kontrako plataforma bat» (KKE2)

Eragile sozialek proiektuarekiko alderdi hauen aldeko jarrera, Koke plantaren gaineko herri kontsulta bideratzerakoan edukitako portaeran laburbiltzen dute :«Nos iban a dar todas las facilidades, lo mismo el PSOE que EA, porque el único que se oponía era el PNV, pero a la hora de la verdad hemos tenido a todos en contra»(KKE1).

Jaurlaritzaren aldeko jarrera ere, aipatua izan da. Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen planta egitasmo pribatua bada ere, aurrera eramateko beharrezkoak ziren baimenak Jaurlaritzaren Ingurumen sailak eman zituen, EAren esku zegoen saila, alegia. Honek ondorioan eduki zituen Muskizeko EA taldean:

«En el gobierno están a favor mientras en el ayuntamiento están en contra, hay una situación complicada, de hecho el partido se rompe, en Muskiz, se quedan los que están a favor de la planta y los que están en contra se van» (KKE5)

Koke plantaren aldeko bestelako eragileak identifikatzerakoan Petronorreko findegiko langileak aipatu behar ditugu. Eragile sozial batek honela azaltzen du langileen jarrera: «Un pequeño factor de la población que puede estar beneficiado por trabajar en Petronor, estimamos unos 100 trabajadores, ellos y sus familias están a favor del proyecto» (KKE3). Enpresa batzordeko eragile batek ideia hau berresten du: «No hay un debate importante dentro. La gente de dentro lo que quiere es que le paguen a fin de mes y si puede meter a su hijo, mejor» (KAE3). Muskizeko ostalariak ere, aipatuak izan dira:

«En la construcción de la planta pues iba a ver mil y pico, dos mil personas trabajando, gente que esta comiendo fuera, y el sector hostelero, aplaudía la construcción de la planta» (KAE2)

Ikusi dezakegunez, proiektu honen aldeko eragileak identifikatzeko arazorik ez dago. Bai proiektuaren kontrako eta bai aldeko aktoreen partetik, enpresa sustatzailea eta eragile politiko eta sozialak izendatzeko erabiltzen den zehaztasun maila agerian geratu da. Aldiz, kontrako eragileak identifikatzeko aldeko aktoreen definizio gabezia nabarmena izan da. Ezkerreko alderdi politikoak eta ekologistak aipatzen diren arren, Kokeren Aurkako Koordinadorearen ia aipamenik ez dago. Batez ere enpresa sustatzaileak Kokeren Aurkako Koordinadora inola ere ez aintzatestea adierazgarria iruditu zaigu. Oposizioa biltzen duen plataforma ez dute aipatzen eta aitorten falta hau, erabilitako terminologian agerian geratu da, «inoiz zehaztu ez den herritar talde bat».

AKTORE DESBERDINEK NONDIK IZAN ZUTEN PROIEKTUAREN BERRI ETA NOLA INPLIKATU ZIREN: Egitasmo honen hasierako informazioaren iturburuak identifikatzerakoan, bai eragile sozialek eta bai, udal eragile politikoek, bi iturri aipatzen dituzte. Proiektu honen lehenengo berriak, Muskizeko herrian, findegian lan egiten duten langileek emango dituzte. Kanean, biztanle eta auzokideen arteko elkarriketetan sortutako zurrumurruek lirarteke. Herrian bizi diren langileen eskutik, era informalean, entzundako informazioa aipatzen dute eragile sozial eta politikoek. Horren adibide, eragile sozial batek aipatutakoa:

«Bagenekien Kokeren inguruan zerbait herrian komentatzen zelako. Herrian dago findegia, jende askok lan egiten du barruan, bueno asko ez batzuk, eta orduan entzuten zen garai horretan» (KKE5)

Udal eragile politikoek era berdinean azaltzen dute informazioaren iturburua: «Eusko Jaur-laritzak luzatu zigun informazioa, udalari, eta orduan bere iritziaz galdetu. Eta garai hartan udalak ez zuen ezer esan eta gu enteratu ginen kalean» (KKE2), «Gente que trabaja en la Petro-nor nos comentaba, oye creo que van a hacer una planta de Coke» (KAE5).

Ondoren, prentsaren bidez lehen informazio honen konfirmazioa jasoko dute. Horrela adierazten du eragile sozial batek: «Enterarnos nos enteramos por la prensa, en El Correo, yo leí una noticia, y venía muy cortito lo de Coke y derivados» (KKE3). Ildo beretik, Muskizeko udaleko eragile politiko batek esandakoa:

«En el 2006 o 2007 ya empezó a salir en prensa que Petronor tenía ese proyecto industrial, que iba a ser la inversión más grande que había en Euskadi desde hace unos años, creo que son ochocientos y pico, novecientos millones de euros y que iba para adelante y así nos enteramos en que consistía.» (KAE2)

Beraiek azaldutakoaren arabera, prentsak ematen die egitasmo honen berri. Aldiz, enpresa ordezkatzan duten eragileek zuzenean jasotzen dute informazioa, enpresa bera baita proiektuaren sustatzaile nagusia. Horrela, proiektuari buruzko informazioa bitartekorik gabe heltzen da eragile hauengana: «Por el comite de empresa directamente. Ya en ese momento se creo un departamento de URF igual ya en el 2006, ya estaba creado el departamento de URF del nuevo proyecto»(KAE3).

Hortaz, enpresaren baitan Koke plantaren egitasmoa martxan ipintzen duten bitartean, eragile sozialek eta udal eragile politikoek prentsaren bidez jasotzen dutela informazioa azpimarratzen dute. Petronorreko eragileek bestelako azalpenak ematen dituzte egitasmoaren hasierako informazioa nola ekoizten den argitzerakoan :

«Informazioa beti ere publikoa izan da, bai proiektuaren aurkezpena, bai baimenen eskabidea, bai Administrazioak jarritako baldintzak, baita legezko alegazioak ere, etab.» (KAE1)

Muskizeko eragile sozial eta politikoek berriz, proiektuaren gaineko lehen informazioa langileen ahotik entzuten dela adierazten dute eta ondoren, proiektuaren nondik norakoak, prentsa irakurtzerakoan ezagutuko dituzte: «Nos enteramos por la prensa y a partir de entonces empezamos a intentar informarnos en el Ayuntamiento, pero había mucho ocultismo» (KKE4).

Udalaren partetik informazio ezkutatzea egon dela salatzerakoan, eragile sozial eta udal mailako politikoek bat egiten dute. Egitasmoaren berri izan ondoren, udalak eduki zuen jarra informatibo itxia nabarmendua izan da eragile hauen partetik: «Empezamos a pedir, no por escrito, en plenos, que nos informaran. Y todo el rato, que no había nada y nada» (KK3). Informazioa ezkutuan gorde nahia, udaleko eragile politiko batek berresten du adierazpen hauetan:

«Hemen udaletxean begiratzen konturatu ginen hemen «consultas previas» izeneko dokumentu bat sartu egin zela eta garai hartako alkateak ez zuen ezer esan, ez zuen ezer komentatu. Orduan epe guztiak pasatu ziren eta udalak ez zuen erantzun» (KKE2)

Eragile sozialek azaldutakoaren arabera, Muskizeko udalaren jarrera 2007ko udal-hauteskundeak egin ziren arte, oso itxia izan zen. Egitasmo honen inguruko informaziorik ez zuen eman eta ezkutuan eduki zuen Koke plantaren proiektuaren asmoa. Baina jarrera hau Eusko Jaurlaritzari eta Kostaldeko Zuzendaritzari ere egozten diete:

«Decidimos ir a hablar con el alcalde, y el alcalde nos decía que no tenía noticias de nada. Y en cierta reunión dijimos, vamos a hacer una carta; decidimos, carta por escrito al Ayuntamiento, todo con acuse de recibo. Esto era 2006, y para mayo ya recibimos las primeras cartas de contestación. Escribimos a Petronor, al Ayuntamiento, al Gobierno Vasco y a Costas; porque sabíamos que parte del terreno cedido es de Costas. El único que nos dijo que sí fue Petronor, que es una carta que tenemos copia»(KKE1)

Hortaz, badirudi, egitasmo honen hastapenetan eragile sozialek prentsatik at, informazio ofiziala jasotzeko zuzenean interpelatu zutela proiektuaren sustatzailea. Proiektu honen kontra dauden eragile sozial eta politikoez, Koke plantaren gaineko informazioa lortzeko eduki zituzten arazoak aipatzerakoan, egitasmo honen hasieraren inguruan dauden iritzi kontra-jariak agerian geratzen dira. Petronorrek egitasmo honen informazioa momentu oro publikoa izan zela esaten duen bitartean, oposizioak bestelako eszenatokia irudikatzen du.

Honen ondorioz, proiektuarekiko inplikazioa ere tarte desberdinetan gertatuko da. Egitasmoaren sustatzaileek Koke planta eraikitzeo ideia eduki zutenetik proiektuaren alde egingo dute eta alde dauden eragile politikoez udalak publikoki gaia lantzen duen momentutik, era ezkutuan bada ere. Azaldutakoaren arabera, eragile sozialek Petronorri zuzendutako gutunaren erantzuna jasotzerakoan Koke planta bat egiteko asmoaren lehen informazio ofiziala jaso dute eta momentu horretan inplikatu dira. Eragile sozial baten aburuz: «Ahí empezamos. Petronor fue en ese momento el único que no lo negó y dijo la verdad» (KK4).

Finean proiektu honen ezagupena askoz ere beranduago ematen da elkarrizketatutako eragile sozial eta politikoen artean. Desoreka informatibo honetan aktore sozialek dira kaltetuak, kasu honetan zailtasunak izan baitituzte instituzioei informazioa eskatzeko eta beraien partetik informazioa jasotzeko. Koke plantaren kontra dauden aktore sozialek hedabideen bitartez izan dute egitasmo honen berri. Horrez gain, instituzioek ez dute erraztasunik jarri proiektuen inguruko informazioak lortzeko. Beraz, informazioa hasieratik era gardenago baten zabaltzearen gabezia agerian geratu da.

AKTOREEN ARTEKO HARREMANAK

Atal honi dagokionez, aipatu behar dugu aktoreen arteko harremanak urriak izan direla. Bai aldeko eta bai kontrako eragileek argi adierazi dute beraien arteko hartu emanak ez direla gauzatu. Adierazgarria iruditu zaigu kasu honetan, aldeko eta kontrako iritziak bat egitea. Koke plantaren aurka dauden eragileek enpresa sustatzailearen jarreraren inguruan egiten duten diagnostikoa adierazpen honekin laburbildu daiteke: «Petronor ez da eseri inoiz mahai batean eztabaidatzeko»(KKE2).

Enpresa sustatzaileak jokaera hau justifikatzen du. Beraien ustez, harremanik ez da egon, kasu honetan ez datorrelako harira. Eztabaidarik ez da behar, ez dauka zentzurik horrelakorik egitea, afera legearekin zerikusia daukanean eta ez egitasmo berarekin:

«Arazoa sortzen da zenbait taldek lege-baldintzak gutxitzat jotzen dituztenean edota indarrean dauden legeak errespetatu nahi ez dituztenean, beraien direlakoan herri-osasunaren zein herri-ondasunaren bermea. Arazoa ez da proiektu-eragileen eta proiektuaren kontra daudenen arteko eztabaida, beraien eta Administrazio Publikoaren artekoa baino»(KAE1)

Hortaz harreman eza, eztabaidan parte hartu beharko luketenen eragileen identifikazioa gauzatzeko agertzen da. Petronorren ustez sozio-ingurumen gatazka honetan beraien ez daukate lekurik: «Proiektu-eragileek ez dute hor zer esanik, beti ere indarrean dauden legeak eta baldintzak betetzea besterik ez dute eta» (KAE4). Modu honetan aldeko eragileek mahai-gaineratzen duten eztabaida beharra, ezeztatzen dute eta gatazkaren egitura, beste parame-troen arabera eraikitzen dute komunikazio kanalen ukatzea justifikatzeko:

«Hor ez dago eztabaidarik. Indarrean dauden legeak, gustatu edo ez, bete egin behar dira. Eta aldatu nahi dituenak Legebiltzarrera jo behar du» (KAE1)

Egoera honek, eragileen arteko harremanak lantzeko eragile bakoitzak hartu duen jarrera, bi posizioetan banatu du. Aldekoek ez dute ikusi horren beharrik: «Enpresa sustatzaileari ez dagokio nola-halako proposamenak asmatzea, aldez aurretik erabakita dauden betekizunak kunplitzea baizik» (KAE4). Kontrako eragileentzat aldiz, aldekoen jarrera itxiak, hartu emanen aukerak baldintzatu ditu: «Los que estábamos en contra de este proyecto, siempre hemos estado abiertos para sentarnos y para contrastar los datos, pero los que estaban a favor no tenían esa actitud» (KKE4).

Ondorioz, kontrako eragileen artean harremanen inguruko azterketa burutzerakoan, «frustazio» sentazioa nabarmendua izan da. Horren adierazle adierazpen hauek:

«Haiek bazekiten kolokan zegoela proiektua eta gutxienez eztabaidatua izaten zela kalean, gizartean, eta orduan hori nola borrokatzen da? Hor inpultsoa nola egin? Hartu eta Josu Jon Imaz presidente jarri. Hartu Athletic eta propaganda egin. Taldeei deitu eta zenbat diru laguntza ematen dizugu? Ba bueno aurten bikoitza. Eta horrela egin dute» (KKE5)

Egitasmo honen alde dauden eragile politikoen adierazpenetan ere, legea betetzearen argudioa agertzen da:

«Existen las leyes y esta ley hay que cumplirla, es decir, no siempre puedes saltártela, no puedes ni saltarte la ley, ni poner un proyecto en el cajón porque te pueden demandar. Mi actuación ha sido respetar la legalidad, intentando que Petronor cumpla todos los requisitos legales para darles la licencia. Cuando los ha cumplido, pues se lo tengo que dar» (KAE2)

Arrazoibide honek kontrako eragileengan ondorioak eduki ditu. Indar korrelazioan, kontrako mugimendutako eragileek bere indarra aldekoena baina ahulago dela sentitu dute: «Nire ustez horrek adierazten du, esaten du, legeak zertarako dauden. Legeak eginda daude defendatzeko noren interesak? Haiek babes hori sentitzen zuten, aldeko jarrera zutenek» (KKE2). Eragile sozialek instituzioetatik «babes eza» jaso izana azpimarratzen dute: «Nosotras lo que vemos es que estamos como indefensas con las instituciones»(KKE1). Orokorrean eragile sozialek eragile instituzionalen harremanetarako atea itxita ikusi dute. «Desde las instituciones no nos han hecho ningún caso»(KKE3).

Kasu honetan ere dimentsio pertsonalak jokatu duen papera aipatu behar dugu. Eragileen arteko harremanen azterketa egiterakoan, batez ere mugimendu sozialen partetik, eragile politiko instituzionalek jokatutako papera pertsonen arabera azaltzen dira askotan. Eragile hauek pertsonalizatzen diren heinean, jarreraren desberdintasunak azpimarratzen dira. Horrela harremana guztiz aldatzen da:

«Marcos (udaleko zientotzia) en el Ayuntamiento nos está ayudando muchísimo, y gracias a él; pedimos un aplauso para él en el pleno. Es el único apoyo que vemos. Porque para cualquier cosa le llamamos y contesta»(KKE1)

Sozio-ingurumen gatazka honetan proiektuaren aldeko eragileek eztabaidaren ukazioa argudio legez erabili dute eragileen arteko harreman eza azaltzeko. Egitasmoaren sustatzaileek eta alde dauden eragile politiko instituzionalek Koke plantaren aurka dauden eragileekiko jarrera itxia erakutsi dute, gatazkaren muina legearen errespetuan jarri dutelarik. Aldiz kontrako eragileek aldekoen jarrera irmoa eta dinamika komunikatibo baten gabezia salatu dute.

B. EZTABAIDA-EREMU PUBLIKOAREN ANALISIA

Ikerlan honen analisi enpirikoaren bigarren atal honen helburua, eztabaida-eremu irekirik ote dagoen aztertzea da. Analisi hau bi ardatzetan egituratu dugu. Batetik, hedabide eta eragileen arteko harremanak aztertuko ditugu, eragile desberdinen estrategia informatiboak identifikatuz, euren mezua hedabideen bitartez gizartera nola heldu den aztertuz eta hedabideek izan duten jarrerari buruzko iritziak jorratuz. Bestetik, prentsaren jardueraren analisiari ekingo diogu eta horretarako analisi hemerografikoa burutuko dugu.

HARREMANAK KOMUNIKABIDEekin:

Koke planatren sozio-ingurumen gatazka honetan parte hartu duten eragileek era diferentetan azaltzen dute hedabideekin eduki dituzten harremanak. Aldeko eragile politiko instituzionalak eta enpresarialek, komunikabideekin harreman arina eta zuzena izan dutela azpimarratzen dute. Honela definitzen du hedabideekiko erlazioa, eragile politiko instituzional batek: «Una relación fluida» (KAE2).

Enpresaren partetik antzeko deskripzio bat egiten da. Eragile hauek hedabideekin eduki duten tratua denboran kokatzen dute, harremana momentu oro ona izan dela nabarmenduz: «Komunikabideekiko harremanak betidanik izan dira zuzenak eta profesionalak» (KAE1). Gainera harreman hau lantzeko beraiek egindako lana azalatu dute: «Gure eginbeharra ahalik eta informaziorik gehiena eskaintzea izan da. Baita eskatzen zaizkigun argibideei erantzutea ere» (KAE3).

Koke plantaren aurka dauden aktore sozialek ostera, hedabideekin eduki dituzten harremanak azaltzerakoan zailtasunak aipatu dituzte. Adierazi dutenaren arabera, harremanak ez dira izan beraiek espero zuten bezain errazak: «En la prensa hemos tenido problemas» (KKE1). Beraien aburuz sozio-ingurumen gatazka honen prozesuan, aldaketa bat eman da hedabideekiko harremanetan. Hasieran, Muskizeko herrian FMU plantaren egitasmoaren berri eduki zuten eta honen kontrako oposizioa piztu zenean, arreta mediatikoa egokia izan zen beraien ustez. Honela azaltzen du eragile sozial batek:

«Al principio nos llamaban para saber de nuestra opinión, pero ya hace tiempo que no nos llaman. Yo creo que el control que hace Amatiño es muy fuerte». (KKE3)

Kontrako mugimenduko aktore guztiek aldaketa bat suertatu zela adierazten dute. Elkarrizketan eragile sozialek aditzera eman dutenez, Petronorrek bai zuzendaritzan, bai komunikazio departamentuan egindako aldaketek, enpresan momentu horretararte zeukan perfil teknikoak, politikoagoa bilakatzen du. Josu Jon Imaz eta Luis Aranberri, Amatiño, enpresan hastearen ondorio legez lotzen dute eragile sozialek, hedabideekiko eduki zuten harremanen aldaketa. Zehazki, Petronorren komunikazio arduradun berria izendatzeak, prentsa eta Koke plantaren aurkako eragileen arteko harremanean eragin zuzena eduki zuela adierazten dute:

«En el momento que entra Amatiño hay un giro, un giro en el control de prensa» (KK4),
 «Amatiño se encarga de que nosotros no tengamos acceso a la prensa» (KKE3)

Kontrako mugimenduak oztopoak eduki ditu hedabideekin harremantzeko. Prensarekin partetik jasandako tratamendua orokorrean neketsua izan dela azaltzeaz gain, harreman horretan «bloqueo» sentitu dutela adierazten dute: «Tampoco ya insistimos mucho con la prensa, porque te da la impresion de que no va a ser posible, hay bastante bloqueo, y ves luego que no sacan» (KKE4).

Ondorioz Koke plantaren aldeko eragile politiko instituzional eta enpresarialek harreman estuagoa eta arinagoa izan dute hedabideekin, eragile sozialek baino. Gainera, azken hauek egitasmoa sustatzen duen enpresari egokitzen diote prentsarekin izandako harreman arazoak. Horren adibide, eragile sozial batek adierazitakoa:

«Me llamó un señor de Antena3, Juanjo; movimos todo, porque querían hacer un monográfico de 3 partes sobre los ruidos; uno con vecinos. Y cuando ya habíamos quedado para todo me llamó pidiéndome perdón, después de que le había mandado información por e-mails, por fax y todo. Después de que movimos todo, la víspera me llama pidiéndome perdón, porque Repsol debe tener socios o lo que sea, y que no les dejaban hacer, era intocable, que no se podía» (KKE1)

HEDABIDEETAN PROIEKTUARI BURUZ AGERTU DEN INFORMAZIOAREN NOLAKOTASUNAK

Sozio-ingurumen gatazka honetan parte hartu duten aktore guztiek gabeziak sumatu dituzte beraien mezua gizarteratzerakoan. Bai aldeko eta bai kontrako eragileen artean hedabideei helarazi nahi izan dieten argibideetan informazio falta antzeman dute. Aldeko eragileek gaiaren izaera teknikoan oinarritzen dute arazoa:

«Proiektua, berez, teknikoa da. Eta ez da erraza izaten informazio orokorreko komunikabideetan informazio teknikoa eta sektoriala gaiak behar lukeen bezain zehatz eta zabal agerraraztea» (KAE1)

Kontrako eragileek aldiz, indar korrelazioa aipatzen dute, hots, enpresaren eragin eremua. Aktore sozialek, EAEko hedabideetara heltzeko eduki dituzten zailtasunak Petronorren indarrarekin lotzen dute: «Nuestro mensaje no ha salido. La empresa ha hecho un trabajo impesionario». (KKE4).

Kasu honetan ere, Euskal Y-koaren kasuaren moduan, eragileen izaerak hedabideekin izango duten harremanean eragina dauka. Eragile sozialek erraztasun gutxiago dituzte hedabideetara iristeko. Honen inguruan aldeko eragile politiko instituzional batek esandakoa:

«Petronor evidentementeementee pues puede controlar más llamando a información, saca sus revistas propias» (KAE2). Aktore sozialen ohiartzuna txikiagoa izan da eta batzuetan bere irudia «deformatua» agertu dela adierazi dute. Kasu honetan aldeko aktore batek honela azaltzen du egoera hau:

«La Coordinadora Antikoke no ha tenido presencia en los medios y siempre ha tenido presencia en los medios como los malos, como los antiprogreso» (KAE3)

Alabaina, gai hau aztertzerakoan, oro har, aldekoen eta kontrako eragileen arteko desberdintasunekin topatu gara. Proiektuaren alde dauden aktoreentzat aldekoen eta kontrakoen iritziak era berean atera dira, alegia, orokorki hedabideetan agertutako informazioa orekatua izan dela adierazten dute. Horren adibide eragile enpresarial batek egindako adierazpenak: «Gaur egun nekez esan daiteke komunikabideek iritzi guztiak biltzen ez dituztenik (KAE1)».

Kontrako eragileen artean ikuspuntu hau ez da konpartitzen: «Hedabideetan aldekoen jarrera agertu da gehiago»(KKE5). Horrela, «manipulazio» arrangura, modu orokorrean antzematen da kontrako eragileen diskurtsoetan, batez ere, Vocentoko egunkariari dagokionez:

«Petronorrek onartu zuen idatziz bere proiektuan 32 lanpostu fijo egingo zirela. Ba 32 lanpostutik El Correo-n heldu zen momentu bat non agertu ziren 1500 lanpostu fijo » (KKE2)

Sozio-ingurumen gatazka honetan hedabideen jarrera lantzerakoan, El Correo-ren inguruko kekek nabariak izan dira eragile sozialen partetik. Vocento-ko egunkariak eta Petronor enpresaren arteko interes ekonomikoak aipatuak izan direlarik:

«El Correo celebró con el patrocinio de Imaz, de Petronor, la gala del deporte aquí, en el Meatzari» (KKE4)

«Deigarria izan da El Correo-ko jarrera. Nik ez dakit non irakurri nuen behin baina ez dut berriro ikusi, Vocento taldeak ba zituela interesak, akzioak» (KKE5)

Adierazgarria iruditu zaigu Petronorreko goi kargu bi, EAJtik eratorritako presidentea eta komunikazio arduraduna, Koke plantaren egitasmoa aurrera eramane dutenak izan arren, Noticias taldeko Deia kazeta kritika hauetatik at geratu izana:

«Deia, depende para qué, pero por lo menos ha salido; informa más real y más cantidad que El Correo» (KKE1)

Oraingoan ere kazetaren ildo ideologiko edo linea editorialak sozio-ingurumen gatazka bati buruz informatzerakoan eragina daukala agerian geratu da. Elkarrizketetan agertutakoaren arabera, informazioaren nolakotasunak hedabide motarekin zerikusia dauka. Enpresako eragileak izan ezik, aldeko eta kontrako eragileen artean adostasuna dago diagnostiko hau egiterakoan. Kontrako eragile batek hórrela laburbiltzen du azaldutakoa: «Informazioa eta kantitatea, medioen arabera» (KK2).

Aldeko eragileek ere bat egiten dute baieztapen honekin eta adierazgarria iruditu zaigu aldeko eragile politiko instituzional baten azalpena:

«Depende en que medios. Hombre, no es lo mismo, una noticia que aparezca en el Deia, en el Correo o en el Gara. Evidentemente yo puedo decir una cosa, pero todos sabemos la ideología que tienen los medios de comunicación, entonces, el que yo de una licencia, el correo puede titular « El alcalde de Muskiz afirma que se ve obligado a dar la licencia a Petronor», el Gara publica «El alcalde de Muskiz sucumbe a las presiones de Petronor y concede la licencia». Al final yo he concedido la licencia pero la forma de expresarlo es diferente. Depende la ideología del que lo diga, mas claro agua» (KAE2)

Izan ere, kontrako aktore sozialek beraien mezua Gara eta Berria kazetetan agertu dela adierazten dute. Euren estrategia informatiboak, hots, hitzaldiak, mahai-inguruak eta manifestazioak egunkari hauetan tokia eduki dute: « Gara y Berria han reflejado bastante» (KKE3) Noticias taldeko Deia kazeta ere aipatzen dute informazio kanal legez, behintzat aipatuak izaterako orduan: «Deia sí, a pesar de cómo lo trate, pero ha salido» (KKE1). Aipamen berezia Argia astekariari egin diote : «Quizas Argia ha sido quien ha cubierto en información mas extensa nuestra vision» (KKE4).

Hortaz, prentsak publikatzen dituzten albisteetan desoreka informatiboak topatu ditugu. EAEn irakurle gehien daukan Vocento-ko egunkariak kontrako eragileen mezuari toki eta arreta informatibo gutxiago eskaini dio. Koke plantaren alde dauden aktoreek, batez ere enpresako eragileek, oreka informatiboa nabarmentzen badute ere, estaldura mediatikoa egunkarien arabera egin da. Honen ondorioz, kontrako eragileen oihartzun mediatikoa indar gutxiago eduki omen du.

PRENTSAN AGERTUTAKO INFORMAZIOAK JENDEAREN IRITZIAN IZANDAKO ERAGINA :

Aktore ia guztiak onartzen dute prentsan agertutako informazioak ondorioak eduki dituela oro har, jendearen iritzian. Aldeko eta kontrako eragileentzat sozio-ingurumen gatazka honetan pisu asko eduki du proiektu honen ustezko onura ekonomikoaren gaineko informazioak. Aldeko eragileek horrela azaltzen dute: « Entra la informacion de los medios y la gente sabía que habia una oferta de trabajo que luego no son tantos pero...cala» (KAE3). Aldeko eragile politiko instituzional batek ideia berdina azpimarratzen du:

«Hay una gran mayoría que no sabe lo que es el proyecto, pero esa gran mayoría lo que quiere es que el que está en el paro a ver si le consigues un puesto de trabajo en la contrata de Petronor» (KAE5)

Eragile enpresarialek aldiz, bestelako ikuspuntu bat plazaratu dute. Enpresa sustatzailearen ustez proiektu honen gaineko informazio eraginak aztertzerakoan «arriskuek» pisu gehiago eduki dituzte onura ekonomikoak baino:

«Komunikazioa ontzat ematen denez, albiste txarrek onek baino interes eta eragin gehiago izan ohi dute. Ez dago arrazoirik kasu hau salbuespena denik pentsatzeko» (KAE1)

Eragile hauen aburuz beraiek helarazi nahi izan duten informazioa ez da izan beraiek nahi zuten adina: «Behar bada sekula ez da nahiko (...) informazio orokorreko komunikabideetan norberak nahi edo komeni baino urriago agertzea» (KAE4).

Sozio ingurumen gatazka honetan prentsaren eragina aztertzerakoan aipatu behar dugu, kontrako eragileentzat oso garrantzitsua izan dela El Correo egunkariak jokatu duen papera. Arestian aipatu dugun moduan, Vocento-ko egunkaria EAEn gehien irakurtzen den kazeta da, CIES-eko datuei erreparatuz (2015) 447.000 mila irakurle baititu. Honek suposatzen duen hedadura ulertzeko, Deia-aren 90.000 irakurle eta Gara-aren 76.000 irakurleak kontutan eduki behar ditugu. Gogoratu behar da ere, El Pais-ek EAEn 62.000 irakurle dituela eta euskaraz zabaltzen den kazeta bakarrak, Berriak, 49.000. Hortaz egunkari guzti hauen irakurle kopurua, hots, 277.000, El Correo-aren irakurle kopuruaren erdia baino apur bat handiago da. Hortaz Vocento-ko egunkariaren eragin eremuaren tamaina ezin dugu konparatu EAeko beste egunkariekin.

Hori dela eta, Koke plantaren kontrako eragileek asko azpimarratu dute egunkari honek jendearen iritzian sortutako eraginaren ondorioak: «El Correo por ejemplo, son los que menos nos han apoyado, y son los que tienen más tirada y reflejo en la sociedad» (KKE4). Publikatutako informazioak proiektuaren kontrako mugimenduan eragin positiboa eduki ahal izan duela onartzen badute ere, eragin hau gutxienekoa izan da El Correo-aren bultzada kontutan edukita. Horrela adierazten dute:

«Creo que ha venido poco a poco más gente, pero es mínima para la gente a la que llega la otra prensa, al dar la noticia de manera partidista apoyándose en los puestos de trabajo, en el paro que se va a generar si se cierra» (KKE1)

Kokeren plantako eragile sozialek publikatutako informazioaren joera asko kritikatu dute. Informazioa era partzialean erabilia izan dela nabarmendu den kexa izan da, berriro ere, ira-

kurle gehien duen kazetaren partetik: «El Correo que es el que que más tirada tiene no nos ha apoyado nada; (...) El Correo publica siempre la noticia sesgada para el lado de Petronor»(KKE3). Egunkari honen albisteak, proiektuaren berri ematerakoan, enpresa sustatzailearen alde kokatu direla azpimarratu dute. Horren erakusle, kontrako eragile baten kontakizuna:

«Hasiara batean tratatzen zuten gaia ba begira zer gertatzen den herri honetan baina bat-batean sekulako aldaketa egon zen. Tratamendu jada ez zen... ez dakit ze herrian dago sekulako kezka eta hauek egin nahi dute...jada beste definizio bat zeukan, berri guztietan amaieran gogoratzen ziguten zenbat lanpostu betetzen ziren, zenbat diru uzten zuen enpresak akta foraletan edo zergak ordaintzen eta ez dakit zer. Eta beti. Batzuetan ez zuen zerikusirik...baina beti zen gauza bera» (KKE2)

Egoera honek ondorioak eduki dituela Muskizeko herrian azaltzen dute: «Jende askok El Correo irakurtzeari utzi zion»(KKE5).

Ondorioz kasu honetan aldeko eta kontrako eragileek prentsaren eragina aitortzen badute ere, nolakotasunean ez dute bat egiten. Kontrako eragileek, beraien informazioan gabeziak egon direla adierazten dute eta aldekoek gabeziak eta tratamendu partziala salatzen dute, batez ere Vocento taldeko egunkariaren partetik. EAEn gehien irakurtzen den egunkaria Koke plantaren aurka dauden eragile sozialentzat oztopoa izan da.

AZTERKETA HEMEROGRAFIKOA

Azaldutako informazioari osotasuna emateko, Koke plantaren sozio-ingurumen gatazkaren inguruko albisteen azterketa hemerografikoa burutuko dugu. Kasu honetan ere 20 mementu estrategiko aukeratu ditugu bi gertaera nagusiei lotuta: mobilizazio sozialen gainekoak eta administrazioaren —eta kasu honetan Petronor enpresaren— erabakiei lotuta egondako momentuak.


25. TAULA: **Koke plantaren sozio-ingurumen gatazkaren 20 gertaera**

	DATA	GERTAKIZUNA
1	2007/02/18	Findegian obrak egiten dira Koke planta erakitzeke
2	2007/07/12	Repsoleko presidentek Koke plantaren obrak 2008.an hasiko direla irgartzen du
3	2008/02/07	Petronorrek Koke plantaren aurkezpen publikoa egiten du Muskizen
4	2008/02/12	Kokeren Aurkako Koordinadorak Petronorren nagusikeria salatzen du
5	2008/04/12	Muskizeko udaleko ordezkariak Koke planta bat bisitatuko du Hungarian
6	2008/10/10	Josu Jon Imaz Petronorren etorkozina Koke plantarekin lotzen du
7	2008/10/15	Muskizeko udalak Lakuari eskatzen dio baimenik ez ematea Petronorri
8	2008/11/22	Eusko jaurlaritzak baimenak ematen ditu Koke planta martxan ipintzeko
9	2008/12/12	Muskizeko udalak ez du herri kontsultarik egingo
10	24/12/2008	Petronorren aurkako helegitea aurkezten du Izatek, Muskizeko talde ekologistak
11	2009/02/11	Koke planta egiteko baimenak eman dizkio Muskizko Udalak Petronorri
12	2009/02/14	Petronorrek Koke plantaren obrak martxan ipiniko ditu
13	2009/03/13	Kokeren Aurkako kordinadorak Herri Kontsulta bat egingo du
14	2009/04/22	Kokren Auirkako Kordinadorak akzio penalak egingo dituela irgartzen du
15	2009/05/28	Meatzaldea Bizirik elkarteak, Petronorren eta Muskizko Udalaren aurka salaketa jartzen dute
16	2009/10/23	Petronorreko findegiak ingurumen baimenik ez duela salatzen dute
17	2009/11/08	Mila lagun baino gehiago bildu dira Petronorrek egin nahi duen koke plantaren aurkako manifestazioan
18	2009/11/26	Koke plantaren lanak eteteko, milioi bat euroko bermea eskatu du Udalak
19	2009/12/09	Lakuako teknikariak Petronorreko findegiko segurtasun maila egiaztzeko bisita egiten dute
20	2013/04/03	Koke plantaren inaugurazioa

Iturria: XXX

Horrela jarraian dagoen gertaera hauei lotuta dauden albisteen azterketa hemerografiko burutu dugu (grafiko guztiak egileak eginak dira):

Tituluen karakterizazioa



Iturria: Egileak egina


Berriako (2017) estilo liburuaren arabera, kazetaren aurpegia dira tituluak. Izan ere, irakurtzen den aurrena tituluak dira eta, askotan, tituluak baino ez. Horregatik tituluak, arretaren operazio kognitiboaren irudikapen linguistikoa bezala ulertu daiteke (D. Jorques, 2000, 95-96). Beraien xedea argia da: testuaren edukia iragartzea eta irakurlea erakartzea. Beraz, kazetaria, azken batean, zer den nabarmenena edo informaziotik erakargarriena erabakitzen du, halabeharrezko subjektibotasuna erantsiz.

Nolakotasun horri erreparatzeko Koke plantaren gaineko berrien tituluen karakterizazioa aztertu dugu. Gure sailkapena karga ideologiko edo balio karga neurtuz egin dugu eta aztertutakoaren arabera titulu neutroak Deian eta Garan topatu ditugu gehien bat. Mota honetako albisteetan karga ideologikoa ez da agerian agertzen, gertaerak modu neutroan azaltzen direlarik. Horren adibide titulu hauek izan daitezke «Izate presenta recurso de alzada contra la planta de coque» (Deia 2008.24.12) eta «Lakua otorga la autorización a la planta de coque de Petronor» (Gara 2008.11.22). Aldiz, titulu neutro gutxien erabili dituzten kazetak Berria eta El País izan dira.

Titulu negatiboak aztertzerakoan El Correo egunkariak askotan mota honetako tituluak erabiltzeagatik nabarmentzen da eta positiboetan nagusitu dena Deia kazeta izan da. Fenomeno hau ulertzeko gertaera berdinen inguruan bi kazetek egindako tituluak aipatuko ditugu: «Imaz cree que Petronor desaparecerá si no puede acometer sus inversiones» (El Correo 2008.10.10) eta Deiak berriz, albistea modu honetan titulatu du: «Imaz reclama la «defensa sin complejos» de los proyectos industriales» (Deia 2008.10.10).

Grafikoan ikusten dugunez egunkari guztiek mota desberdinetako tituluak erabili dituzte. Kontutan edukita batzuetan aztertutako momentuen inguruan kazeta guztiek ez dutela informatzen, adierazgarria iruditu zaigu El País eta Berriak ia era berdintsuan karakterizatu izana Koke plantaren inguruko albisteak.

Hedabidea eta dimentsioa




Iturria: Egileak egina

Atal honetan egunkariak sozio-ingurumen gatazka honen berri emateko erabilitako espazioari erreparatuko digu. El País izan da aztertutako egunkarietatik gai honi orrialde osoa eskaini ez dion bakarra. Kontutan eduki behar dugu Euskadi atal berezia lantzen badu ere, Espainiar Estatuko eremuan zabaltzen den kazeta dela, hortaz, gai honi eman dion espazioa beste egunkariak eskainitakoa baino gutxiago izateak ulergarria izan daiteke. Orrialde osoko estaldura informatiboa beste lau egunkarietan egon bada ere, Gara izan da tamaina horretako tartea gutxien erabili duena.

Orrialdearen hiru laurdeneko espazioaren erabilera aztertuz El Correo eta Gara aipatu behar ditugu, era berdinsuan aritu baitira eta orrialde erdiko dimentsioan Berria eta El Paisen hutsuneak aipagarriak iruditu zaizkigu. Egunkari guztiak orrialde erdia baino gutxiagoko albistek argitaratu dituzte eta era nabarmenean El Correo eta Deia. Bi kazeta hauek Koke plantaren afe-rari dimentsio txikia eskaini badiete ere, kopurua handia izan da beste egunkariekin alderatuz.

Hedabidea eta saila




Iturria: Egileak egina

Egunkari guztiak sailen arabera egituratzen dira. Bakoitzak era desberdinean egiten badu ere, sail batzuk egunkari guztietan komunak dira. Koke plantaren aferako albisteak aztertzerakoan, egunkari guztietan topatzen ditugun Gizartea eta Ekonomia sailak agertu dira. Euskal Herria saila aldiz, lurralde eremu hau lantzen duten kazetetan soilik aurkitu ditzakegu. Desberdindu behar dugu Espainiar Estatuko egunkariak Euskal Herri saila izendatzerakoan egiten duten erabilera, estatuko autonomia erkidegoak bereizteko erabiltzen baitira. Gure kasuan, El País-ek erabiltzen duen sailkapena litzateke. Beste kazetetan aldiz, Deia, Gara, Berria eta El Correo Euskadi mailan gertatuko albisteak kokatzeko erabiltzen den saila da. Ikusten dugunez egunkari guztien sail horretan kokatu dute aztertutako kasuaren albisteak. Honek aditzera ematen digu gizartean, hau da, Euskal Herrian duten garrantzia, egunkariak beraiek ematen dietela, euren sekzio nagusienetan sartu dutelako informazio hau.

Aldiz, Deia eta El Correok ekonomia saila erabili duten bakarrak izan dira. Ondorioztatu dezakegu Koke plantaren afera arlo ekonomikoan kokatzerakoan, sozio-ingurumen gatazka honen azterketan nabarmendu ditugun interes ekonomikoari garrantzia eman diotela bi kazetek. Koke planta proiektu ekonomiko estrategikotzat jo dute bai Petronorreko eragileek, bai eragile politiko instituzional batzuk, EAJ, PSOE eta PP alderdikoek, alegia. Hortaz bi egunkari hauek marko diskurtsibo honen ildoa jarraitu izan dutela baieztatu dezakegu.

Aldi berean, El Correo egunkariak «Ciudadanos» atalean kokatu ditu Koke plantaren gaineko albiste batzuk, batez ere epeetan, afera honen hasieran kokatzen diren berriak. Hortaz, proiektu honen kontrako eragile sozialek adierazitakoa baieztatzen da. Beraien arabera, hasieran El Correok sail horretan kokatzen zituen Koke plantaren inguruko albisteak eta ondoren Ekonomia sailean kokatzen hasi zen afera honen gaineko berriak. Horrela, proiektu honen izaera ekonomikoari erreparatuko dio eta ez hainbeste, izaera sozialari, hots, sortutako sozio-ingurumen gatazkari.

Hedabideak eta portada



Iturria: Egileak egina


Kazeta baten egituraketa bere lehen orrialdean hasten da. Portada «erakustoki» funtzioa betetzen du (Canga 1994:36), hots, egunkariaren eduki nagusien aurkibide papera egiten du. Baina lantzen dituen gai guztiak ezin direnez agertu, hautaketa lana egin behar da egunean interes gehien dituen gaiak bertan agertzen direlarik. Portada, edukien aukeraketa, egunkari bateko eguneko kudeaketan apustu estrategiko nabarmena da. Horregaitik, kazeta bateko berri bati ematen dion garrantzia neurtzeko ezinbestekoa da portadan agertu den edo ez aztertzea.

Aztertzen dugun sozio-ingurumen gatazka, Deia, El Correo eta Berria egunkarien portadetan agertu da. Ikertutako momentu informatiboak kontutan edukita, Deia izan da gehien erakutsi duena Koke plantaren gaineko albisteak egunkariko lehenengo orrialdean. Horrela, Deiak agenda mediatikoa osatzerakoan, gai honi garrantzi gehien eman dion kazeta dela ondorioztatzen da. El Correek eta Berriak ere afera honen inguruko albisteak egunkariaren leku estrategikoenean kokatu dituzte, portadan hain zuzen. Hortaz, egunkari hauetan ere, garrantzi maila handia eduki duela esan dezakegu.

Landu ditugun gertaerak egunkarien portadetan orokorrean agertu ez badira ere, Garak eta El Paisek ez diote garrantzi hau eskaini, agenda publikoan eta politikoan gai honek jokatu duen papera aski nabarmena izan da.

Hedabidea eta editoriala

31. Grafikoa: Hedabidea eta editoriala




Iturria: Egileak egina

Editorialen kasuan, egunkari guztietan ikusi ahal izan dugu orokorrean ez dutela editorialik egin Koke plantaren inguruan; hau da, batzuetan editorialak atera dituzte, baina atera ez dituztenekin konparatuta oso kopuru murrizta da.

Arestian aipatu dugun legez, editorialak formalki iritzi publikora zuzenduta badaude ere, funtsean Estaturekiko elkarrizketa harremana da. Kazetaritza erakundeek Estatuaren aparatu burokratiko buruei afera publikoak nola gustatuko litzaieken bideratzea esaten ahalegin-tzen dira editorialen bidez.

Kasu honetan, Deia izan da proportzionalki editorial gehien atera dituen, Gara egunkaria bigarren eta El Correok, nahiz eta gutxiengoa izan, editorialak publikatu ditu ere bai. Honela, ikusten dugu aztertutako egunkarientzat sozio-ingurumen gatazka hau ez duela bestelako be-riek duten pisua, edo behintzat ez dela izan ildo editoriala baldintzatzen duen gai bat.

Hedabidea eta Irudia




Iturria: Egileak egina

Argazkiak informazio elementuak dira. Albiste bati garrantzi gehiago eman nahi zaionean argazki edo irudi bat sartzen da berrian, honek irakurlearen arreta deitzeko modu bat da eta. Aztertutako kasuan orrialde erdia baino gutxiagoko albiste kopurua handia izan denez, grafikoan ikusten diren irudiaren erabilpen ezaren emaitzak honekin zuzeneko korrelazioa daukala on-dorioztatu dezakegu.

Dena den, irudiez lagunduta joan diren albiste kopurua ez da txikia izan. Egunkari guztiek erabili dute baliabide hau. Gara kazeta izan da irudi gehien erabili dituen euren informazioak osatzeko. El Correo eta Deiak era bertsuan erabili dituzte eta ondoren Berria kazeta aipatu behar dugu. El Pais-ek gutxien erabili dituen izanda ere, aipatu behar da kopuru berdinean publikatu dituela irudiekin laguntzen diren albistek.

Hedabidea eta albistearen genesisia




Iturria: Egileak egina

Aztertutako egunkarietan Koke plantaren gaineko albisteek adierazpen eta gertaerak (inaugurazioak, bilerak...) izan dituzte nagusiki oinarritzat. Oso gutxitan informatu da protesta ekintzei buruz. Gara izan da protestei buruzko berri gehien argitaratu dituenak, baina hala ere, gutxiengoa izan dira. Honek zera adierazten digu, mugimendu sozialek eta proiektuen kontra dauden mugimenduak direnez protesta ekintzak erabiltzen dituztenak, hauek oihartzun gutxiago izan dutela egunkariak emandako albisteetan. Elkarrizketetan oinarritutako albisteak, hots, elkarrizketa bera albistea bilakatzea, El Correon egunkariak soilik erabili duen generoa izan da.

Egunkariz-egunkari begiratuta, azpimarragarria da protestetan oinarritutako albisteek izandako espazio eskasa. Honela, Berria, El País, El Correo eta Deian oso gutxi izan dira protestetan oinarritutako argitaratutako albisteak. Gara izan da protesta berri gehien eman dituenak, baina hala ere, gertaera eta adierazpenetan oinarritutako berri askoz gehiago argitaratu ditu.

Hedabidea eta berria egiteko era




Iturria: Egileak egina

Landu ditugun albisteetan, kasu ia guztietan, egunkariak beraiek landutako informazioak argitaratu dituzte, eta kanpoko agentzien informazio erabilia izan bada ere, oso kasu gutxitan egin da barnekoarekin alderatzen badugu.

Hau da, aztertutako sozio-ingurumen gatazka honetan egunkariak inplikatu egin dira, prentsaurrekoetara joan dira eta eragileen adierazpenak eurek jaso dituzte. Ikusten da emandako informazioa egunkariak berak landu dituela eta ez dutela kanpoko errekurtoetara jo.

El País izan da kazeta bakarra Koke plantaren inguruko informazioa jorratzeko bi motatako informazio lanketa erabili duena.

Hedabidea eta iturria



Iturria: Egileak egina

Albisteak sortzeko lan prozesuan, iturri informatiboen kudeaketak funtzio zentrala betetzen du. Iturriak informazioaren ekoizpen prozesuaren motorrak dira, albiste osatzeko oinarrizko informazioa eskaintzen baitiote hedabideari. Hortaz hedabideek erabiltzen dituzten iturrien analisia, azterketa hemerografikoaren oinarrizko atal bat da.

Aztertutako kasuan sortutako emaitzak jorratzerakoan, era nabarmenean El Correo-ren albiste gehienetan aktore enpresarialak, hots, Petronor, euren iturri informatibo bakarrak izan direla aipatu behar dugu. Egunkari honek sozio-ingurumen gatazka honen gaineko albisteak

osatzerakoan erabili duen informazioak, iturri bakarra eduki du askotan, Koke plantaren enpresa sustatzailea, hain zuzen. Horrela Petronorrek pisu handia eduki du El Correo-k publikatutako berrietan.

Aitzitik, Gara izan da kontrako mugimendua informazio oinarri bezala gehien erabili duen kazeta. Iturri bakarren erabilera aztertzerakoan egunkari honek zeharka ala zuzenki, herri mugimenduen bozgorailu bilakatu da Koke plantaren aferaren inguruko albisteak egiterakoan. Kontrako mugimendua osatzen duten eragile sozialen ahotsei eskaini dion lekua ezin da beste kazetekin konparatu. Dena den Deia egunkaria aipatu behar dugu. Elkarrizketen analisisan azaldu dugun moduan, kazeta honek kontrako mugimenduko eragile sozialak askotan kontutan eduki baitutu bere albisteak egiterakoan. Iturri bakarra erabiltzerako orduan, gehiago erabili ditu herri mugimenduen iturriak Petronorrenak baino.

Dena den bai albisteak egiterakoan, kontrako herri mugimendua eta Petronorreko iturriak aldi berean gehien erabili duen egunkaria Berria izan da. Bere estilo liburuan, deontologiari dagokionez, zera azpimarratzen dute (Berria, 2017): » Informazioa emateko, alde guztien ikuspuntuak bilduko dira, eta albistearen alde guztietako protagonistei ahotsa emateko ahalegina egingo da beti». Hortaz, bere estilo liburua jarraituz sozio-ingurumen gatazka honetan jokatu duen kanal informatzaile orekatua azpimarratu behar dugu.

Azkenik emaitzen arabera, eragile guztiak, hots, herri mugimendua, Petronor eta eragile politikoen iturriak, aldi berean erabili dituzten kazetak Gara eta Berria izan dira. Ahotsen aniztasuna bermatuz, bi kazeta hauek, albiste gutxietan izan bada ere, sozio-ingurumen gatazka honetako hiru iturri mota desberdinak erabili dituzte berriak osatzerakoan.

C. MARKO DISKURTSIBOEN KOKAPENA ETA ANALISIA

Analisi enpirikoaren azken atal honetan marko diskurtsiboaren kokapena eta diskurtsoen azterketa jorratuko dugu. Sozio-ingurumen gatazka honetan sortu diren diskurtsoen azterketari erreparatuz marko diskurtsibo komunik agerian dagoen edo ez aztertzea izango da gure xedea.

MARKO DISKURTSIBOEN KOKAPENA

Sozio-ingurumen gatazka honetan egitasmoaren alde dauden eragileek bi marko diskurtsibo nagusi erabili dituzte proiektu honen egokitasuna argudiatzeko. Euskal Y-aren kasuan azaldu dugun moduan, kasu honetan ere ikuspegi teknokratikoa eta garapen ekonomikoaren ikuskerak jorratu egin da. Energia azpiegituren plangintzen ikusmira teknokratikoan oinarritutako diskurtsoak, energia-azpiegitura politiken garapen ardatza adituen esku jartzen ditu. Garapen ekonomikoaren garrantziari aitortzea egiten bazaio ere, marko diskurtsibo hau energia azpiegituren zentraltasunean oinarritzen da. Ingurumen arloa eta ikuspuntu ekonomiko eta soziala ez dauka horrenbesteko garrantzirik. Oraingoan zentraltasun diskurtsiboa, energiaren arazori aurre egiteko dagoen beharrezanean oinarritzen da. Honen adibide Petronorreko dokumentuetan «merkatura egokitu beharra» kontzeptuaren erabilera. Horrela azaltzen du Petronorrek bere web gunean (www.petronor.eus) kontzeptu hau:

«Finketaren sektorea, gainerako jarduera ekonomikoak bezala, merkatuari etengabe doaz egokitzen. Petronor ez dago eragin horretatik at eta, ondorioz, FMU prozesua (Fuel-olioa Murrizteko Unitateak) barneratu du bere ekoizpen-egitura, zeinak Findegiaren ekoizpen egitura fuel-olioaren kontsumoaren murrizketaren arabera eta gasolioaren eskaerak duen eboluzioaren arabera egokitzen duen» (Petronor 2017)

Ikuspegi honen arabera plantaren proiektua eskari berrien eta beharrianen diskurtsoan oinarritzen da: «Modernizatzen jarraitzeko grina bizi-bizirik dirau Muskizko instalazioetan, eta garai berriei eta merkatuen gorabeheriei egokitzen jakin izan du beti. Horren erakusgarri Petronorrek hartu berri duen FMU Planta (Koke instalazioa)» (Petronor 2017).

Marko diskurtsibo honek garrantzi handia hartu du Koke plantaren aldeko eragileen artean, findegiaren etorkizuna zuzenean lotu baita beharrian eta eskarien diskurtsoarekin. Proiektu hau findegiaren «irtenbide bakarra» legez defendatu da. Hona hemen Petronorreko goi kargu batek azaldutakoa ikerlan hau garatzeko egindako elkarrizketetan:

«Gaur egun findegiek ekoizten dutenaren %25 fuel astuna da. Fuel honek gero eta eskabide gutxiago du merkatuan eta, hain zuzen ere, debekatua dago erregaitzat erabiltzea Europako Batasunean. Fuel hori murrizten ez baldin bada, findegiak ez du etorkizunik, ez baitago ekoizpenaren %25a urtero-urtero biltegitan gordetzerik. Irtenbide bakarra fuel hori murrizteko unitate berezia eraikitzea da, fuel astuna balio erantsi handiagoko produktuetan (gasolina eta gasoila) bihurtzeko, beti ere Europako Batasunaren betekizunen arabera eta horretarako eskaini ohi duen finantziarioz baliatuz» (KAE1)

Aldi berean jorratu den beste marko diskurtsiboa garapen ekonomikoarekin dauka zerikusia. Ikuskera honek Koke plantaren proiektua produkzio eta garapen ekonomikoa sustatzeko nahitaezko baldintza legez aurkezten du. Marko diskurtsibo hau bi esparrutan kokatu dute aldeko eragileak. Alde batetik, garapenaren ideiarri so eginez, aldeko aktoreek proiektuak ekonomia lokalean duen eragina azpimarratzen dute. Petronor enpresaren jarduerarekiko Muskizko udalaren mendekotasun sozioekonomiko nabariak, krisi-garaietan eta etorkizun itxaropen negatiboekin, aldeko eragileek koke plantaren eraikuntza konponbide bezala planteatzea eragiten du. Udal mailan garapen ekonomikoaren marko diskurtsiboa parametro hauetan kokatzen da. Petronorreko presidentea zenak, Josu Jon Imazek, horrela azaltzen zuen ideia hau:

«Aquí tenemos un proyecto para invertir más de 800 millones de euros, si las autoridades nos lo permiten, que generará empleo para 340 personas y 1.300 de forma inducida» (Europa Press 2009.01.16)

Kontutan eduki behar dugu krisi garaietan (2008) Muskizen langabezi tasa %12 zela, EAEko langabezi tasa baino 2 puntu handiagoa (Barcena 2014:47). Lan enplegu sorrera proiektuaren aldeko udal sektore sozial eta politiko guztiak elkartzen zituen argudio nagusia izan zen. Horren adierazle, langile baten adierazpenak: «La perspectiva que se ve desde dentro es simplemente que va a haber mas puestos de trabajo»(KAE3).


Bestaldetik, garapen ekonomikoaren marko diskurtsiboa EAE mailan garatua izan da ere bai. Marko diskurtsibo honek Koke plantaren eraikuntza garapen ekonomikoaren politiketarako tresna estrategikotzat jotzen du. Lehiakortasunarekin lotuz, produkzio eta garapen ekonomikorako funtsezkoa den azpiegitura moduan landuko da. Horren adibide, Josu Erkoreka, Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak Koke plantaren gainean egindako adierazpenak: «Petronorren inbertsio honek bihurtunera gerturaten gaitu, berreskuratzearen hasiera eta hazkundera ekarriko duen joera aldaketara» (Berria 2013.04.04)

Garapen ekonomikoak aldekoen marko diskurtsiboaren kokapenean eduki duen garrantziaren azalpenekin bukatzeko, Petronorreko presidentek Josu Jon Imazek, Repsol eta Kutxabank akziodunek egindako apustuaren gaineko adierazpen hauek aipatu behar ditugu :

«Bizitzan bi modu daude erronkei eta garai zailei aurre egiteko; luzera begira eraginkorrena dena da zailena: esfortzua, hobekuntza, berrikuntza eta lehiakortasunaren aldeko apustua, hau da, inbertsioaren aldeko apustua. Repsolek eta Kutxabankek beste bide batzuk aukera zitzaketan, baina ekonomia errealaren aldeko hautua egin zuten» (Berria 2013.04-04)

Koke plantaren aldeko eragileek proiektu honen sorrera merkatuaren eskaerekin eta garapen ekonomikoarekin uztartzen dute. Aldi berean, koke plantaren eraikuntzara lotzen dute findegiaren jarraipena. Ondorioz diskurtso honek gizarteratzen duen mezua, hots, Muskizko findegiaren etorkizuna bermatuko du, garapen ekonomikoa sustatu eta lanpostuak sortu ditu, azpiegitura honen egokitasuna justifikatzen du.

36. GRAFIKOA: Koke plantaren aldeko marko diskurtsiboa osatzen duten elementuak



Iturria: egileak egina

Koke plantaren aurka dauden eragileen marko diskurtsiboa osasuna, ingurumena eta parte hartze eza eduki ditu ardatz, hots, hiru eremu hauetan kokatu dute beraien diskurtsoa. Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen plantaren kontra dauden aktoreek sozio-ingurumen gatazka honen osasun alderdian oinarritu dute Koke plantaren kritikak «Nuestra salud no es un negocio» Koordinadorak erabili duen lelo nagusia izan baita. Aldi berean, burutu dituzten manifestazioen leloak osasun eta ingurumen gaietan oinarritu dira, horren adibide 2010701/30 egindako giza katearen izenburua. «Por el derecho a respirar aire limpio».

Hortaz pertsonen osasunean eragin dezakeen kalteak kontrako aktoreen marko diskurtsiboaren oinarri nagusia izan da.

«240 hektarea, zazpi aldiz Bilboko Alde Zaharra betetzen duen findegi bat dago hemen, eta gutako batzuk 50 edo 100 metrora bizi gara hortik. Badakigu bentzenoa jaurtitzen dutela, eta toluenoa, eta bestelako partikula batzuk. Sufrea ere erruz dago pilatuta. Horrek inguruko biztanleen osasunari eragingo ez diela pentsatzea ikaragarria da» (Sara Ibañez, Kokeren Aurkako Koordinadoraren kidea Argia, 2011.02.13)

Koordinadorak 2011ko urtarrilean atera zuen bere lehen aldizkaria eta bertan ingurumena eta osasunari egiten zioten erreferentzia. Aldizkariak Petronorreko findegiak omen isurtzen dituen gai kutsatzaileen zerrenda eta horien eraginak laburbiltzen zituen: NMVOC, sufre monoxidoa (SO), nitrogeno monoxidoa (NOX), eta fluoruroak eta nikela, besteak beste. Horrela zioen aldizkariak: «Defiende tu salud y tu medioambiente. Relacion de productos-sustancias de una

refineria de petroleo como Petronor y sus efectos sobre la salud y el medioambiente» (Coke EZ, Kokeren Aurkako Koordinadoraren aldizkaria, <kontsulta:2017.03.15>

Osasunarekin batera arestian aipatu dugun ingurumen dimentsioa kontrakoaren marko diskurtsiboaren bigarren ardatza izan da. Koke plantaren aurkako eragileek Petronorren Muskizko findegia Euskal Herrian atmosfera eta ura gehien kutsatzen duen enpresa dela argudiatzen dute. Modu honetan, marko diskurtsibo honen funtsa, enpresaren kutsatzailearen izaeran oinarritzen dute. Horretarako PRTR erregistroaren datuak erabiltzen dituzte. Erregistro hau Isuri eta Iturri Kutsatzaileetako Espainiar Estatuko Erregistroa da. Bertan publikoaren eskura jartzeko industria nagusiek atmosferara, uretara eta lurzorura isurtzen dituzten substantzia kutsatzaileen datuak eta hondakinen gaineko informazioa (PRTR España, <http://www.prtr-es.es/>, <Kontsulta: 2017.04.11>).

PRTRren erregistroaren azken bildumaren arabera, 2013. urtekoa hain zuzen ere, Petronorrek urte batzuetan, krisiaren ondorioz, kutsadura gutxitu bazuen ere, krisi aurreko mailara itzuli da enpresa hori. Enpresa kutsatzaileen erregistroaren arabera, 2,3 milioi tona CO₂ isuri zituen airera Petronorren findegiak, hots, aurreko urtean baino 0,3 milioi gehiago. Hego Euskal Herrian airera botatzen den CO₂ guztiaren %10 inguru suposatzen du horrek, halako gas gehien isurtzen dituen enpresa, alegia..Izan ere, 2013ko apirilaren 3an martxan jarri zuen koke planta, eta, horrek, bere ekoizpena ez ezik, bere kutsadura ere handitu egin du aurkako eragilearen arabera (Meatzaldea Bizirik 2013:135-138)

Hortaz, kontrako aktoreek Koke plantak eta findefiak ingurumenari egiten dizkion kalteei erreparatu diete beraien diskurtsoetan, horren adibide Juan José Zarraga Muskizeko kontzejal ohiaren adierazpenak :


«Durante años los detectores exteriores para controlar la calidad del aire, dependientes de medio Ambiente, no han funcionado, y las famosas balsas de decantación emitían olores insoportables y vertían sin ningún pudor todo lo que les venía en gana « (Zarraga 2014, hemen aipatua Meatzaldea Bizirik, 2014:152)

Azkenik, Koke plantaren kontrakoaren eragileen artean landutako marko diskurtsiboan parte hartze eza aipatu behar dugu. Proiektu hau martxan ipintzeko Muskizeko biztanleriaren iritzia ez dela kontutan hartu nabarmendu dute kontrako aktoreek:

«Udaletxeko Gobernu Batzordeak koke proiektuaren jarduerari baimena eman zion eta orain lantegia eraikitzeko baimenaren zain daude. Guzti hori herriaren nahiari kasu egin gabe, jasotako eskaerak, sinadurak, aurkeztutako idazkiak eta egin izan diren konzentrazio eta manifestazioak gaitzesten egin da»(Kokeren Aurkako koordinadora 23.03.2009, hemen <http://coordinadoraanticoke.blogspot.com.es/2009/03/coke-planari-buruzko-herri-kontsulta.html> <kontsulta:2017.03.17>)

Finean Koke plantaren aurkako eragileek Petronorreko findegiak eta zehazki Koke plantaren ondorio kutsakorrek salatzen dituzte, beraien marko diskurtsiboa osasun eta ingurumen babesean ardazteko. Gainera egitasmoa herritarren iritzia aintzat hartu gabe burutu dela adierazten dute, Euskal Y-koaren kasuan ikusi dugun legez, «inposaketa» kontzeptua kontrakoen marko diskurtsiboan agertu delarik.

37. GRAFIKOA: Koke plantaren aurkako marko diskurtsiboa osatzen duten elementuak



Iturria: egileak berak egina

DISKURTSOEN ANALISIA

Marko diskurtsiboen kokapenean azaldutakoaren arabera, plano diskurtsiboan aldeko eta kontrako eragileek erabilitako gutxienez hiru aldagai aipatu ditzakegu Elementu hauen deskribapen sistematikoa 26. taulan jasotzen dugu:

1. Garapen ekonomikoa, Koke plantaren aldeko eragileek nabarmendu duten aldagaia eta kontrakoek aurkatu. Taulan honi erreferentzia egiten dioten adierazpenak horrela identifikatu ditugu: G1, G2, G3, G4, G5, G6 eta G7
2. Ingurumen eta Osasun inpaktuak, aldekoen eragileen partetik garatu den elementua izan da eta kontrakoek aldiz, indargabetu duten elementua. Taulan diskurtsioen analisia garatzeko erabili ditugun adierazpenak, modu honetan adierazi ditugu: IO1, IO2, IO3, IO4, IO5, IO6 eta IO7

3. Parte hartzea⁴⁵, aldeko eragileek indar gabe uzten duten elementua bada era, kontrakoek parte hartze eza aldarrikatzen dute. Taulan PHf1, PHf2, PHf3, PHf4, PHf5, PHf6, laburdura erabiliz izendatu ditugu azterketarako oinarri diren adierazpenak.

⁴⁵ Parte hartzea aipatzen dugunean arestian aipatu dugun moduan, Euskal Y-koaren diskurtsoen analisia egiterakoan, Ibarrek proposatzen duen definizioan oinarritu gara (Ibarra, 2009:76).

26. TAULA: Diskurtsoen analisiak Koke Plantaren sozio-ingurumen gatazkan

AZTERKETARAKO ALDAGIA	EUSKAL YAREN ALDEKO DISKURTSOA	EUSKAL YAREN KONTRAKO DISKURTSOA
ERAGILEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jaurtaritza • Muskizeko Udaltexea • Petronor 	<ul style="list-style-type: none"> • Kokeren Aurkako Koordinadora • Meatzaldea Bizirik • Talde Ekologistak • Alderdi Politikoa (EH Bildu)
	<p>G1: «Etorbizuneko estrategia ekonomikoa garatzen ari da Jaurtaritza. Egun egokia da gaurkoa (Koke plantaren inaguruzazio eguna), estrategia horren oinarriak hemen daudela aurreratzeko» Josu Erkoreka, Eusko Jaurtaritzako bozeramailea (Berría 2013.04.03)</p>	<p>G5: «Aqui tenemos un proyecto para invertir más de 800 millones de euros, si las autoridades nos lo permiten, que generará empleo para 340 personas y 1.300 de forma inducida» Josu Jon Imaz Europa Press 2009.01.16</p>
	<p>G2: «Hemen Koke planta ez baliitz egin, orain ez ginen etorkizunari buruz ariko, etorkizunak esango bultzuen honek porrot egin zuela» Emlilano Lopez Axturra Petronorreko presidentea (Berría 2017.04.29)</p>	<p>G6: «Es mentira que si no ponen la fábrica de coque y la de cogeneración de energía eléctrica la refinería no tenga futuro o que incluso se cierre en los próximos años. Ya en el 2001, ante el proyecto de la IGCC (térmica) utilizaron el mismo argumento» Kokeren Aurkako Koordinadora. Oriñalde informazioa 2008.10.14 http://coordinadoraanticoke.blogspot.com.es/2008/10/ <kontsulta: 2017.04.28></p>
GARAPENA ETA AURRERAKUNTZA	<p>G3: «Es un proyecto de viabilidad futura» Josu Jon Imaz, Petronorreko presidentea El país (2008.10.10)</p>	<p>G7: «Para algunos todo es válido si crea empleo y las promesas de la empresa han acallado a muchos, pero la realidad ha demostrado que el paro se ha duplicado en Muskiz durante la construcción de la planta de Coque pasando de 255 personas en el año 2008 a 439 en enero 2010». Sara Ibañez, Meatzaldea Bizirik (Con Marzen aldizkaria 23 zenbakia) https://drive.google.com/file/d/0B6NEV6WVat9NjG5MmZlZmEiMmEzNC00ZDVkLTgzODU1MmMwZkNmUzNzVx/view?hl=es <kontsulta: 2017.04.28></p>
	<p>G4: «Fuel hori murrizten ez baldin bada, findegiak ez du etorkizunik, ez baitago ekoizpenaren %25a urtero-urtero biltzelean gordezerik. Itenbidetarako bakarra fuel hori murrizteko unitate berezia erakitzzea da» (KALE)</p>	<p>G8: «La industria es necesaria para crear riqueza y empleo, pero no a cualquier precio. Debe ser compatible con el respeto al medio ambiente y la salud de las personas». Gonzalo Riancho El Correo 2009.01.17</p>
	<p>I01: «Seguratasun neurri ugari barneratu dira, eta ingurunea zaintzeko eta babesteko konpromisoa gure egin dugu» Petronor http://petronor.eus/eu/findegia/instalazioak/unf/ <kontsulta: 2017.04.26></p>	<p>I05: «Terrorismo mediamambiental en Muskiz. La salud y nuestro medio ambiente ni se compra ni se vende,, se protege y se defiende» Meatzaldea Bizirik 2010.05.10 http://coordinadoraanticoke.blogspot.com.es/2010/ <kontsulta: 2017.04.26></p>
INGURUMENA ETA OSASUNA	<p>I02: «Ekoizpena merkatu-eskatelara zein ingurumen-baldintzetara egokitzeko teknologia besterik ez da Fuel-olioa Murrizteko Unitatea edo Koke-plantak» Amaitio, Petronorreko komunikazio arduradunahits://eibar.org/blogak/amaitio/euskal-industriaren-imbetsioik-galantena <kontsulta: 2017.04.26></p>	<p>I06: «El « negocio « que pretende Petronor queriendo implantar en la Refinería, la citada planta de COKE, es un atentado contra nuestra salud, y la de las futuras generaciones» Kokeren Aurkako Koordinadora 2008.10.30 http://coordinadoraanticoke.blogspot.com.es/2008/10/ <kontsulta: 2017.04.26></p>
	<p>I03: «Ana Oregi Eusko Jaurtaritzaren Ingurumen sailburuak ziurtatu du Petronorren, ekainaren 21ean eta uztailaren 2an, izandako gertakariak ez zutela pertsonen osasuna zein ingurumenakaitetu.» Petronor http://petronor.eus/eu/2014/09/eusko-jaurtaritzak-ziurtatu-du-petronorren-ger-takariak-uztela-osasuna-kaltetu/ <kontsulta: 2017.04.26></p>	<p>I07: «Las refinerías de petróleo constituyen una fuente importante de polución en el aire y entre sus contaminantes existen diversos compuestos catalogados como cancerígenos por la Agencia Internacional de Investigación del Cáncer» Josep Ferris i Torjada, medikua, Meatzaldea Bizirik 2010eko urtaritza 2 zenbakia https://drive.google.com/file/d/0B6NEV6WVat9NjG5MmZlZmEiMmEzNC00ZDVkLTgzODU1MmMwZkNmUzNzVx/view?hl=es <kontsulta: 2017.04.26></p>
	<p>I04: «Kokizazio prozesua ezinbestean da kutsatzailea, ez dago modurik hori salhesteko» Sara Ibañez, Kokeren Aurkako koordinadora (Argia 2009.12.06)</p>	<p>PHT2: «No hubiese sido totalmente conveniente, democrático y obligatorio fomentar un verdadero debate que permitiese a vecinas y vecinos construirse una opinión lo más amplia posible! Eso sería lo lógico, pero esa misma lógica hubiese aplastado la imposición « Kokeren Aurkako Koordinadora (Gara 2010.07.18)</p>
PARTE-HARTZEA	<p>PHT1: «Gure politika gardentasun osoa edukitzea da. Petronorrek ez du ezer ezkututzen, ezer ere ez» Emlilano Lopez Al Xurra Petronorreko presidentea (Berría 2017.04.29)</p>	<p>PHT5: «Gobernuek Petronor estrategikoztat badule esan dezate, baina eztabaidatu dezagun garbi findegi bat herri baten erdian izatearen ondorioez» Cristina Alvarez Baquerizo. Ingurumen abokatura (Argia, 2017.01.01)</p>
DIMENTSIO FLOSOFIKO-IDEOLOGIKOAK	<p>PHT3: «Ingurumen agintarien erabakietan, eztabaidaren beharra gainditu da» Josu Jon Imaz, Petronor http://petronor.eus/eu/2009/02/imaaz-ingu-rumen-agintarien-erabakietan-eztabaidaren-beharra-gainditu-da/ <kontsulta: 2017.04.26></p>	<p>PHT6: «EH Bilduk dei egin nahi die herritar guztiak Muskizko bizilagunei inposatu zaien koke plantaren aurka» http://ehbidu.eus/eu/albisteak/93-eskaintza/itenbidetara/2008-petronorren-koke-plantaren-inaguruzazioa-inposizio-segida-baten-azken-urratsa-da <kontsulta: 2017.04.28></p>

Iturria: egileak berak egina, Martinez Palacios (2011:151) oinarrituta eta ikerketaren zehar egindako elkarrizketetatik, prentsa idatzirik eta eragileek idatzitako komunikatu eta bame dokumentuetan oinarrituta

Diskurtsoen analisiari erreparatuz eta lehenengo aldagaiari so eginez, hots, garapena eta aurrerapena, antzeman daitekeen lehenengo ondorioa da, aldeko jarrera duten aktoreek kontrako jarrera duten aktoreek baino sakonago garatu dutela ideia hau. Horren adierazle, Eusko Jaurlaritzako bozeramailearen adierazpenak dira, Koke planta Euskadiren garapen estrategia-rekin lotzen baitu: G1.

Egitasmoaren sustatzaileentzat garapena eta aurrerakuntza ardatz diskurtsiboaren oinarria izan da. Alde batetik, Koke planta ez sortzeak ekarriko lukeen ondorio negatiboak azpimarratzen dira, azpiegitura hau ez eraikitzeak Petronor enpresa etorkizun gabe utziko duelaren ideia garatuz. Horrela beldurraren diskurtsoa erabiltzen dute, azpiegituraren legitimazioa bilatzeko nahiarekin. Izan ere, beldurrak diskurtso politiko arrazionaletatik ihes egiten du eta eztabaidak sentimenduen inguruko eszenatokian azaltzen du: G2 eta G3.

Bestaldetik, aldeko aktoreen partetik garapenaren diskurtsoa baino gehiago «beharraren diskurtsoa» erabili izan da. Horrela, Koke planta, aurrerakuntza bat baino, beharrezkoa den egitura bezala aurkezten da Fuel-olioaren eskaerei erantzuna emateko aukera bakartzat aurkezten da FMU planta(G4).

Azkenik aldeko aktoreek proiektuak ekonomia lokalean duen eragina azaltzen dute, proiektuak enpleguak sortuko dituela azpimarratuz eta ekonomikoki garatzeko aukera dela azalduz(G5).

Argudio horiek kontrako aktoreek aurkatu dituzte. Egitasmoa Petronorren etorkizunarekin lotzeak, kritikak sortu ditu eta hauen oinarria, Koke planta baino lehenago eraiki nahi izan zen IGCC termika eraikitzekeo arrazoi berdinak erabili izana da (G6). Garapena eta ekonomiaren ardatzak enpleguaren sorrerarekin uztartzeak, kontrako argumentuak sortzen ditu Kokeren aurka dauden aktoreen artean. horretarako datu kuantitatiboak erabiltzen dituzte (G7,) proiektua eraikitzen zen bitartean langabezi tasa jeitsi baino, igo egin zela frogatzeko.

Bere aldetik, azpiegituren kontrako aktoreek, garapena eta aurrerakuntzaren diskurtsoa zuzen-zuzenean garatzen dute osasunarekin batera. Hortaz, ugari dira garapena, osasuna eta ingumenarekin konektatzen dituzten diskurtsoak (G8). Kasu honetan, egitura sortzeak ekar lezakeen ondorio negatiboetan oinarritzen da oposizioa.

Bigarren aldagai aztertuz, ingurumena eta osasuna, kontrako eragileek sozio-ingurumen gatazka honetan gehien garatu duten argudioak izan dira. Koke plantaren aurkako aktoreek, osasun arloan oinarritu dituzte batez ere proiektu honi egin dizkieten kritikak (IO4). Ingurumenaren babesaren inguruko argudioak ere jorratu dituzte IO5 adierazpenetan irakurri dezakegunez. Hortaz, osasunean izan zezakeen ondorioak zuzen zuzenean jorrotzen dituzte proiektua aurkatzeko. Etorkizuneko belaunaldiek jaso izanen duten kutsaduraren ondorioak, bai ingurumenean, bai osasunean osotzen dute kontrako aktoreen argudioak, IO6 adierazpenetan irakurri dezakegun moduan «es un atentando contra nuestra salud, y la de las futuras generaciones». Hortaz, ondorioztatzen da, ingurumena eta osasunari buruzko diskurtsoa kontrako aktoreen jarrera legitimatzeko erabili izan dela.

Kasu honetan osasuna eta ingurumen aldagaiak aztertzeko Douglasek azaltzen dituen arriskuaren pertzepzioen arteko bereizketak aipatu behar ditugu. Autore honen ustez hiritarren

pertzepzioa eta aditu teknologikoen pertzepzioa (teknologia beraren sortzaileak) desberdina da. Koke plantaren moduko azpiegitura bat sortzerakoan «jendeak ez ditu arriskuak jakidunen antzera ikusten» (Douglas, 1996: 15). Dena den Douglasek desberdintzen dituen «teknikoen eta publikoaren ikuspuntua» partzialki bat egiten duete arriskuaren pertzepzioan. Kasu honetan medikuek (IO7) zein eragile sozialek Koke plantak sor dezaken arriskuaren inguruko pertzepzioak partekatzen baitituzte (Douglas, 1996).

Azpiegituren aldeko eragileek aldiz, oposizioak emandako argudioak ingurumenerako eta osasunerako dauden arriskuak txikiagotuz, IO1 eta IO3, eta teknologiekiko konfidantza azpimarratuz kontra arrazoitu dituzte. Aldeko aktoreek ekoefizientzian oinarritzen duete euren diskurtsoa, teknologiek sortzen duten segurtasuna aldarrikatuz (IO2) eta teknologian konfiantza azalduz.

Hortaz, jarrera «teknoentusiastaren» eskuko argudioak jorratu dira. Koke plantaren aldeko eragileen jarrera eta diskurtsoa «poztasun teknologikoen» eskutik doan bitartean, kontrako eragileek beldurraren diskurtsoa erabili duete, FMU plantak ekar lezakeen ondorio negatiboen deskribapena egiten.

Hirugarrenik, parte-hartzeari buruzko diskurtsoen inguruan, oro har, kontrako aktoreen partetik aldeko aktoreen aldetik baino erreferentzia gehiago egin dela antzeman dugu. Koke-ren aurkako eragileek parte hartzea zuzenean ezeztatu duete bi argudio nagusi erabiliz. Batetik legediaren indarra, hots, eztabaidarako aukerarik ez zabaltzea legeak betetzearekin lotu duete. Modu honetan, sozio-ingurumen gatazka honen ardatza legeak onartu edo ez onartzearen erabakian oinarritzen duete eta beraiek enpresa sustatzaile moduan daukaten ardura desagartarazten duete (PHf2).

Bestaldetik agintariak erabakiak hartu ondoren, Eusko Jaurlarizaren Ingurumen saila eta Muskizeko Udala, hain zuzen, eztabaidarako lekuri ez dagoela argudiatzen duete (PHf3). Horrela, enpresaren gardentasun politika (PHf1) legitimizatuta geratzen da, bai legeak eta bai agintariak egitasmoaren alde egin badute, gaiaren inguruan eztabaidatzeko arrazoirik ez baitago. Diskurtso honetan antzematen da estrategia informatiboa, informazioarako bide legal eta instituzionaletan oinarritzen dela.

Kontrako aktoreen diskurtsoan oster, parte-hartzea balore etikotzat jotzen da, gatazka egoera batean aurrera eramateko derrigorrezkoa balio legez ulertzen da (PHf4). Eztabaida, behar baten legez ulertua izan da eta diskurtsoetan antzeman daiteke honen beharra ez dagoela hainbeste iritzia aldatzeko parametroetan kokatuta, proiektuak sortzen dituen ondorioetan baizik (PHf5).

Aldi berean, sozio-ingurumen gatazka honetan Euskal Y-koaren kasuan bezalaxe «inposaketa» kontzeptua kontrako diskurtsoen oinarri bat izan da (PHf5 eta PHf6). Instituzioen gardentasun falta eta desinformazioari maiz egin zaio erreferentzia gatazkaren zehar. Eztabaida gabe, informazio barik, halako proiektua martxan jartzeak Petronorrek administrazioaren laguntzarekin inposatutako erabaki bat dela argudiatu da. Informazio falta sumatu izatean zentratu duete diskurtsoa eta kritika horretatik, parte-hartze sakonago eta erabaki prozesuen sorrera aldarrikatu duete: Horretarako herri kontsulta bat burutu zuten arestian azaldu dugun moduan.

Hortaz, aldeko eragileen diskurtsoa argudio ekonomiko eta proiektua gauzatzearen «beharran» oinarritu da. Kontrako eragileena, aldiz, «osasunean ta ingurumenean sortuko dituen kalteetan» oinarritu da. Finean, aktore bakoitzak «berea» ez den ardatz diskurtsiboari, kontra erantzunak sortzen aritu ohi da, bere esparru diskurtsiboa eratuz. Horrek, bi diskurtso mota sortu ditu, eremu dialogikorik sortu gabe.

5. Ondorioak

*«El único modo de resolver los problemas es conociéndolos, sabiendo que existen. El simplismo los cancela y, así, los agrava»
(Sartori 2003: 30)*

Atal honetan, ikerlanean ateratako ondorio nagusiak identifikatu eta laburbilduko ditugu. Azterketa arloan egin den bideari buruzko gogoeta eta analisisa jaso ondoren, lortutako emaitza nagusiak azalduko dira. Horretarako bai Abiadura Handiko Trenaren kasuan, Euskal Y-koa, bai Fuel-olioa Murrizteko plantaren kasuan, Koke plantan, landu ditugun ondorioak jorratuko ditugu, ondoren emaitza orokorrak aztertzeko. Horrela lan honetan eginiko hipotesiak eta jorratutako hurbilketa eta ikuspegi teoriko kontzeptuala eta metodologikoa lotuz eta erlazionatuz, ondorioak uztartuko ditugu. Guzti hau azaltzeko hiru ardatzetan sailkatu ditugu gure ondorioak:

5.1. Informazioa, ezagutza eta gardentasunaren maila

Hasierako ondorio honekin ingurumen afera eta auzietan nolako informazioa ematen den, bai instituzio edo talde bultzatzailearen partetik edota proiektu baten kontra dauden taldeen aldetik ere landu dugu. Azken batean, auzi edo sozio-ingurumen gatazka baten inguruan inplikaturik dauden alde guztien ezagutza maila eta euren jarrerak defendatzeko erabiltzen dituzten datuak, argudioak eta proposamenen gaineko ondorioak azaldu ditugu. Gure helburua informazioa, ezagutza eta gardentasun mailan identifikatu ditugun hutsune eta gabezi sakonen emaitzak gauzatzea da. Ikerlanean aipatu dugun moduan, askotan gatazka sortzen duena ez baita proiektua bera, proiektua sortzerakoan egondako isiltasuna, informazioaren estaltzea eta gardentasun falta baizik (Aguilar, 2003:25.33; Beristain, 2010:36).

Marko teoriko kontzeptualean, ikuspegi demokratiko orokor batetik ikusita, «komunikazio gardena» ingurumen aferetan eman behar den derrigorrezko baldintza dela azaldu dugu (Cox, 2006). Ingurumenarekin zerikusia duten egitasmoen abiapuntu gardena, politika publikoen ekimenaren jatorria, hasierako ekimena, jakina, ezaguna eta ahal bada, partekatua izan behar litzateke, alderdien monopolioa saihesteko eta, era berean, interes edo presio talde korpo-

ratiboen ezkutuko eragina azalerazteko. Ildo horretatik, topatu ditugun ondorioen azalpena gauzatu dugu.

Abiadura Handiko trenaren kasuan, hogeitun urte luze baino gehiago dira, jadanik garraio azpiegitura proiektu hau instituzio europarren, estatuen eta autonomikoen mahai gainean jarri zenetik, zentzu horretan «berandu» datorren edo pentsatuta eta diseinatua baino zenbait urte geroago eraikitzen ari den proiektua da. Arrazoiak bi motakoak dira, alde batetik instituzio zentral eta autonomikoen arteko finantziario akordiorik gabe ezin zirelako obrak martxan jarri eta bestetik azpiegitura honen aurkako oposizioa ugari eta zabala izan delako. Bi aspektu hauek instituzio kudeatzaileen arteko deskoordinazio eta interes kontrajarriek zein egitasmoaren aurkako eragile sozio-politiko askoren oposizioak (euskal gehiengo sindikala, udaletxeak, talde herritarrak eta ekologistak) informazioa eta ezagutzaren dinamikak markatu dituzte.

Azpiegitura proiektu lineal luze eta konplexu bat izaterakoan, aurrekontu altuarekin eta zailtasun tekniko eta burokratiko askorekin iritzi publikoak gatazkaren gaineko informazioa jaso du baina askok, analisi enpirikoan ikusten den bezala, informazio falta aitortu dute. Hots, alde edo kontrako jarrerak agertu dira noski, aldiz, proiektuaren ezagutza eta informazioa ez hainbeste.

Edozein gatazkan egoten diren aldeko eta kontrako jarreretan ez bezala, kasu honetan, letratze politiko eta ideologikoarekin, agintari politikoekiko konfiantzaz edo mesfidantzaz oinarritu da, proiektuaren ezagutza eta hainbat aspektuen gaineko informazioa (ekonomikoak, teknikoak, geltokien kopuru eta kokapena, obren eraginak eta kalteak) faltan izan baitira, nabarmenki. Gainera informazio eta gardentasun maila eskasa oposizioaren erdiguneko kritika eta mobilizatorako zioaz erabili da.

Koke plantaren kasuan, eraikitzearen proiektua eragile pribatu batek sustatua izan da, Petronor, eta horrek honi buruzko informazio eta ezagutza maila urria izatea ekarri du, enpresak berak ez duelako era gardenean informatu nahi izan proiektuaren nondik norako eta ingurumen inpaktuari buruz.

Instituzioek ere ez dute proiektuaren ezagutza eta sozializazioan gauza handiegirik egin, proiektua pribatua dela argudiatuz, baina beti ere sustatzaileekiko harreman estua eta babesa mantenduz.

Informazio eskasia hau jasan dutenak kontrako eragileak izan dira; politikoak, baina batez ere, inguruetako herritarrak. Hortaz, gure ikerketak agerian utzi duenez, iritzi publikoa ez da era garden batean informatua egon, enpresa sustatzaileak koke Plantari buruzko ingurumen eta osasun gaietan estrategia informatibo opakoa eraman duelako aurrera. Ezagutza mailari dagokionez, batez ere inguruko herrietan oso altua izan da, baina kontrako plataformek eta herri mugimenduek egindako lanari esker.

Kontrako mugimendu eta herritarren eskakizun nagusienetako bat informazio gardena eskatzea izan da, bai enpresari, bai proiektua babestu duten instituzioei (Muskizeko Udala eta Eusko Jaurlaritza) batez ere herritarren osasunean Koke Plantak izan ditzakeen eraginei buruzkoa. Nahiz eta askotan eskatu, informazio trukaketa ez da eman eta honek oposizioaren aktibazio eta mobilizazioa areagotu du, euren kabuz proiektuaren inguruko ahalik eta gauza gehien gizarteratzeko.

Hortaz, argi ikusi dugu aztertutako bi kasuetan, proiektuen berri emateko berariazko bi-tartekorik ez dagoela. Sozio-ingurumen gatazkaren arkeologiari erreparatuz, ideia berdina errepikatu egin da bi kasuetan, hots, egitasmoaren hasieraren berri prentsaren bidez jasotzen dela. Proiektuak «bonba informatibo»en antzera jausten dira. Era horretan, Abiadura Handiko Trenaren proiektuan halako adierazpenak errepikatu dira: «Nondik enterau ginen? Prentsatik» (TKE3). Kokeren kasuan ere, antzeko egoera antzeman da: «Nos enteramos por la prensa y a partir de entonces empezamos a intentar informarnos en el Ayuntamiento, pero había mucho ocultismo» (KKE4). Hortaz, marko teoriko kontzeptualean garatu dugun ideia konfirmatzen da, hots, hedabideek funtsezko ingurumen informazio iturri bilakatzen direla sektore sozial zabaletarako (Ecobarometro, 2011; Diez Nicolas, 2004; CIS, 2007). Horrela gure lehen hipotesia frogatu egin dela baieztatu dezakegu.

H1 Proiektu baten aurrean gatazka sortzen da gaiaren inguruko iritzi osaketa/erabaki prozesuak ez direlako aski parte hartzaileak izaten. Batez ere izapidearen hasieran. Egitasmoen abiapuntua ez da gardena, informazioa ez da nahikoa.

Herritarrei zuzendutako berariazko informaziorik ez sortzeak, informaziorako mekanismo espezifikorik ez edukitzeak eta proiektuaren berri bat batean hedabideetatik jasotzeak, «inposizio» sententzia areagotzen du eta sustatzaileen kontrako elementu bihurtu egin da aztertutako kasuetan.

Gainera bi kasuetan, informazioa lortzeko oztopoak antzeman dira eta eragile sozialek bi kasuetan azpimarratu dute informazio publikoa eskatzerakoan zailtasunak eta mugak eduki dituztela: «Empezamos a pedir, no por escrito, en plenos, que nos informaran. Y todo el rato, que no había nada y nada» (KKE3). AHTren kasuan oztopo berdinak aipatzen dituzte: «Las decisiones fueron tomadas, en ese sentido sin ninguna participación, ni participación ni información pública, o sea, del 1988 al 1991 bueno, adelantan mogollón, eso (el proyecto) no existe oficialmente» (TKE2). Modu honetan gure bigarren hipotesiaren baieztapena aitortu dezakegu.

H2 Egitasmoen ekimen fasea eragile instituzional eta interes talde indartsuen esku dago da eta, askotan, ezkutuan bideratzen da.

Horregatik eragile sozialek, esfera publiko informatiboaren zabaltzea bultzatu dute, informazioaren gabezi sententzia hori berezko kanal informatiboaren bidez kudeatzeko. Aztertutako kasuetan proiektuaren kontrako eragileek tresna informatiboak sortu dituzte; webguneak, blogak, auto editatutako aldizkari informatiboak eta liburuak. Batetik, proiektuaren gaineko

informazioa sortzeko eta zabaltzeko, eta bestetik, beraiek antolatutako ekintzen inguruko informazioa plazaratzeko.

27. TAULA: **Sozio-ingurumen gatazketan kontrako eragileek sortutako tresna informatiboak**

KASUA	ERABILITAKO TRESNA
ABIADURA HANDIKO TRENA	. AHT Gelditu! Elkarlanaren webgunea . AHT Gelditu! Elkarlanak publikatutako txostenak . TAV las razones del no liburu, (Txalapartak argitaratua 2009.urtean) . "TAV ¿Qué nos ocultan? dokumentala
KOKE PLANTA	. Kokeren Aurkako Koordinadoraren bloga . Metzalde Bizirik aldizkariak (Hiru zenbaki) . Hil ala Bizi meatzaldean liburu (Meatzaldea Bizirik Talde Ekologistak argitaratua 2014. urtean) . «Muskiz señales de humo» dokumentala

Iturria: egileak berak egina

Hortaz, informazio faltak, aztertutako bi kausetan kontrako mugimenduetako eragileek mekanismo informatiboak asmatzera eraman ditu. Proiektuen inguruko informazioa kudeatzeko sortutako materialaz gain (aldizkariak, txostenak, dokumentalak eta liburuak), internet eta 2.0 sare tresnak sortu dituzte, oposizioaren aldetik esfera publikoa zabaltzeko asmoarekin. Dena den kontutan eduki behar dugu, Jérôme Tournadrek azpimarratzen duen moduan, tresna hauen helburua informatzea edota eztabaidatzea dela gehienetan, hots, erabakiak hartzeko esparrua mugatuta geratzen da hauetan (Tournadre, 2010: 79). Beraz, erabakitzeko aukerarik ez badute ematen ere, hori gauzatzeko oinarri den iritziak plazaratzeko aukera errazten dute: «IKTn bidez (Informazio eta Komunikazio Teknologia), demokrazian iritzia emateko kanalen hobekuntza ematen ari da» (Mesa, 2005: 102).

5.2. Hedabideen funtzioa sozio-ingurumen gatazketan

Bigarrenez, sozio-ingurumen gatazketan, informazio kanalen funtzioen gaineko ondorioak, hots, ahots edo bozgorailuen funtzionamenduaren azterketaren ondorioak, jorratuko ditugu. Ikerlan honetan hedabideek, prentsak zehazki, jokatzeko duten papera aztertu eta neurtu nahi izan dugu, batez ere funtzio informatzaile/orekatzaileari buruzko ondorioak azaltzeko. Horrela, dauden interes kontrajarrien adierazpenak modu kontrastatu, orekatu, garden eta integraztaile batean suertatzen diren edo ez ondorioztatuko dugu.

Marko teoriko kontzeptualean azaldu dugun legez, demokrazian derrigorrezkoa den solaskidetzara hurbiltzeko kontutan eduki behar dugun baldintza bat, erabaki publikoak hartzeko garabidean bildutako eragile guztiek bitarteko eta aukera berdina edo «komunikaziorako baliabide berdina» izan beharko lituzketela da. . Atal empirikoan Cox-en (2006) baldintza honen jarraipena egiteko eremu publikoaren osaketari erreparatu diogu, hedabide nagusien jardura aztertuz. Hor zehaztuko baitira eztabaidarako eremu publiko arrazional bat osatzeko egungo hedabideetan sortzen diren arazoak.

Abiadura Handiko Trena-ren kasuan, prentsa idatziaren funtzioa ingurumen gatazka honetan aldean legitimaziorako izan da eta gizartean eman den polarizazio soziala areagotzeko baliabide izan du. Hortaz Hieberrek azaltzen duen legez, elkarrizketa-agendak erakutsi ordez errealitatearen irudikapen bipolarrean oinarritu dituzte landutako informazioak (Hieber, 2001:31). *Agenda setting*-en teoriak esaten duenez, hasierako une batean komunikabideek markatzen baldin badute zeintzuk diren informazioaren gaiak eta zeintzuk ez, *framing* eta *priming*-en bidez irudiak eta perspektibak markatzen dituzte, publikoaren iritzian eragiteko. Eta kasu honetan, azterketa hemerografikoaren azterketan, hedabide idatziaren jarrera oso markatua izan da, gehien baten, gehiago direlako, proiektuaren defentsan, agintari eta instituzio gobernariaren babesean aritu direnak. Egon dira, nola ez aurkariaren aldeko jarrerak eta ikuspuntuak plazaratu dutenak, Gara adibidez. Baina gure azterketan salbuespena Berria da, euskarazko egunkariak hartutako jarrera orekatua izan delako aldeko zein aurkariaren ahotsak eta argudioak plazaratzeko bide mantenduz.

Bestalde, gatazka honetan, *Euskal Sindromearen* presentzia dugu (Casado da Rocha eta Perez 1996:58) eta horrek egitasmoaren ezbaia ukatuz, konfrontazioa biolentziaren parametroetara eramaten da, non ETArekin presentziarekin, aurkariaren kriminalizazio estrategia bat bilakatu den. Ez dago eztabaida proiektuari buruz baizik eta Estatuaren arazoiaz eta terrorismoaz eta jakina horrek errepresioa eta desmobilizazioa dakartza. Sozio-ingurumen gatazka batean hori gertatzen bada, auzia endekatzen da eta horretan hedabideen estrategiak oso funtsezkoak ditugu.

Koke plantaren kasuan oposizioko mugimenduek komunikabide talde handien manipulazioa eta enpresarekiko lerrokatzea salatu dute, batez ere El Correo-ri dagokionez. Azterketa hemerografikoari erreparatuz, kazeta honek sozio-ingurumen gatazka honen gaineko albis-

teak eratzekoan, Petronorreko iturriak soilik gehien erabili duen egunkaria izan da. Hots, hedabideek gatazkaren interpretazioa mugatzeko duten ahalmena kontutan edukita, egunkari honek hautatutako errealitatearen alderdiak (Entman,1993:52) sozio-ingurumen gatazka honen inguruan eraikitako «irudi publikoa» baldintzatu du. Aitzitik, Deiak, hala nola Garak eta Berria egunkariak jarrera irekiagoa izan dute eta oposizioko taldeen informazioak publikatu dituzte. Hala ere, Koke plantaren kontra agertu diren eragile sozialek komunikabideekiko mesfidantza sentitu dute; gure azterketan ikusi dugunez, irakurle gehien duen komunikabideak euren mezuak isilarazi dituztelako, eta Petronorren egitasmo pribatuei tratamendu publizitario edo ia propagandistikoa eman dielako. Ekonomia sailean publikatu ditu albiste gehienak eta aldekoen argudioak azpimarratu ditu, hots, enpresaren bideragarritasunerako beharrezko proiektua da eta lanpostuak eta aberastasuna sortuko dira.

Izan ere ondorioztatu dezakegu, prentsak aztertutako kasuetan ingurumenaren gaineko erabaki publikoetan intzidentzia izan nahi duten eragile sozialen arteko lehia betetzen duen bitartekaritza eta negoziatiozko rola (Cox 2006:18-20) ez duela bete. Hortaz gure hirugarren hipotesia egiaztatzen da

H3 Gaiaren inguruko informazioaren plazaratzea (agenda-setting) ez da egokia: informazio iturri monopolistikoak, informazio kanalen «kartelizazioa» eta kontraste eza, informazioaren kalitate eta eduki eskasa, pertsuasio/propaganda gisa bideratutako informazioa sortzen du.

Ikerlanean garatu dugun moduan, hedabideen agendan sarturik daudenez, sozio-ingurumen gatazkak «publiko» egiten dira, herritarrak gatazkez jabetzen dira, eta horrek dinamikak nahiz aukerak ahalbidetzen ditu, gizartean egitasmo horien gaineko kezkak arlo publikoan jakinarazteko. Hedabideek ematen diete gatazkei existentzia publikoa, gatazkaren irudi publikoa eraikitzen dute, eta gainera, gatazken bilakaeran eragiten dute, zeren, «selektiboki funtzionatu baitezakete, gatazka sozialak azeleratzeko, moteltzeko, argitzeko edo birdefinitzeko» (Strohm, 1999: 60). Aztertutako sozio-ingurumen gatazketan ondorioztatu dezakegu prentsak ez duela ez moteltzeko, ez argitzeko edo birdefinitzeko aukeretan lagundu. Hots, orokorrean, bere jokabidea sozio-ingurumen gatazketan suertatu diren konfrontazio dinamiketan kokatzea oinarritu da.

5.3. Eztabaida eremu publikoa

Ikerlan honen azken ondorioa eremu edo eztabaida edo kontrasterako espazio publikoaren zabalkundearekin dauka zerikusia. Aktore edo eragile desberdinen arteko elkarreragiketa komunikatiboen ondorioei erreparatu diogu, hots, espazio publiko horren existentzia eta bere zabalera edo bestelako ezaugarriak nolakoak izan diren ondorioztatu ditugu. Horretarako eremu deliberatibo horretan emandako eztabaida eta interes desberdinen agerpena jorratu dugu, eztabaida parametro arrazionaletan burutu den edo ez azaltzeko.

Abiadura Handiko Trenaren kasuan, agintari autonomikoen ustez eta horrela diote eurekin egindako elkarrizketetan, eztabaida eta iritzien kontraste nahikoa izan da, batez ere instituzioen artean. Aldiz, AHT-ren egitasmoaren aurkarien esanetan, Euskal Herrian inoiz egon den proiekturik garestienak ez du inongo eztabaida publikorik izan. Mobilizazio ugari izan dira lelo horrekin, eztabaida eta parte-hartze demokratikoaren alde. AHT-ren ibilbideak jotzen duen hainbat udalerritan herri kontsultak (14) antolatu dira proiektuaren aurkako iritzia zenbatzeko eta emaitzak oso argiak izan dira, AHT-ren aurka. Horren aurrean agintari autonomikoen erantzuna izan da, Gasteizko Legebiltzarrean gehiengo luze bat (%80) proiektuaren alde zegoela eta behin obrak hasi eta gero (2006eko Urrian) ez zegoela lekurik ezbaian jarraitzeko. Beraz, parte-hartzearen eta eztabaida publikoaren leloak oso presente egon dira auzi honetan.

Koke plantaren kasuan, egindako analisisian ikusi dugunez ez da egon koke Plantari buruzko eztabaida edo iritzien arteko kontrasterik. Hasieratik enpresa sustatzailearen jarrera izan da bere egitasmoak aurrera eramatea, herritarrei edota kontrako mugimenduekin inolako eztabaidarik eduki gabe. Behin instituzioen lizentzia jasota (2008an) itxiztat ematen du afera Petronorrek, eurek legea betetzen dutela eta lanpostuak sortuko direla argudiatuz. Hala eta guztiz ere, sustatzailearen jarrera itxi honek ez du esan nahi iritzi publikoan (batez ere Muskiz eta inguruetan) eztabaida egon ez denik. Kontrako mugimenduek ahalbidetu dute espazio deliberatiboak irekitzea ingurumen eta osasun arloak jorratzeko, nahiz eta enpresak eta instituzioek ez parte hartu.

Hortaz, aktore edo eragile desberdinen arteko eztabaidarik ez da gauzatu. Eztabaida serratatzeko komunikazio kanalak egon behar dira eta horretarako lehenengo eta behin aktoreen arteko aitortpena egon behar da. Baina aztertutako bi kasuetan egitasmoaren aldeko eragileek ez dute oposizioa aintzat hartu. Abiadura Handiko Trenaren kasuan oposizioa batzen duen plataforma, AHT gelditu! Elkarlana ez da aipatu ere egiten aldeko eragileen partetik eta proiektu honen kontra dagoen gehiengo sindikala ere ez. Horrela, beraien jarrera defendatzeko eragileak izendatzerakoan halako adierazpenak egiten dituzte: «Nik uste det alde egon dela edozein esango genuke» (TAE1). Kokeren kasuan gauza bera gertatzen da. Kontrako eragileak identifikatzerakoan egitasmoaren sustatzailean den enpresaren partetik oposizioaren ekiditea argia da: «Inoiz zehaztu ez den herritar talde bat»(KAE1). Kokeren Aurkako Plataforma ez da inoiz aipatzen. Horrela ikerlan honetan proposatu dugun laugarren hipotesiaren konfirmazioa egiaztatzen dugu

H4 Egitasmoen bultzatzaileen eta beste eragile interesatuen edota herritarren arteko komunikazioa eskasa da, ez dago komunikaziorako kanal egokirik.

Komunikazio kanal egokirik ez bada gauzatzen ezinezkoa da eztabaida publiko arrazionalik burutzea. Bi kasuetan eztabaidaren ezeztapena ematen da. Abiadura Handiko Trenaren kasuan egitasmoaren aldeko eragileek, ordezkagarritasun politikoan sortzen den legitimitatea erabiltzen dute eztabaidaren beharra ukatzeko: «Era honetako azpiegiturak egin behar diren edo ez erabaki behar den esparrua EAE da, eta esparru hau ordezkatzeko duena legebiltzarra da. Honetan %80ak baiezkota eman du eta beraz, hiritarren gehiengoak babestu duen erabakia hartu dugu» (Nuria Lopez de Guereñu, El Correo 2007.12.23). Kokeren kasuan legeen betekizuneari oinarritzen da eztabaidari espaziorik ez emateko zilegitasuna: «Hor ez dago eztabaidarik. Indarrean dauden legeak, gustatu edo ez, bete egin behar dira.» (KAE1). Aldi berean Koke planta martxan jartzeko baimenak lortu ondoren, ordezkaritza politikoaren (Eusko Jaurlaritza eta Muskizeko Udala) erabakien legitimazioa mahaigaineratzen dute eztabaida ukatzeko: «Ingurumen agintarien erabakiarekin, eztabaidaren beharra gainditu da» (Josu Jon Imaz 2009 Petronor).

Hortaz ondorioztatu dezakegu gure hipotesia baieztatzen dela aztertutako ikerlanean.

H4.1 Ez dago industria kutsakorren edo azpiegituren inguruko eztabaida publiko arrazionalik.

Edozein ingurumen aferaren gainean iritzia, interesa, edota kaltea duten eragile guztiak barneratu beharko liratekeen politikagintza sarerik (*policy network*) ez da gauzatzen. Jarduera demokratikoan eragile zehaztugabe askoren arteko harremana bideratzeko derrigorrezkoa den baldintza, hots, inklusibitatea, ez dauka lekurik aztertutako sozio-ingurumen gatazketan.

5.4. Azken gogoeta orokorra

Gure ikerlanaren azken atal honetan ekarpen praktiko bat egiten saiatuko gara, gure artean maiz gertatzen diren ingurumen alorreko dinamika gatazkatsuei irtenbide arrazional eta demokratiko bat bilatzen laguntzeko asmoarekin. Hori izan da, aipatu dugun moduan, gure azterlanean garatu dugun hipotesi nagusia, hots, izapide informatibo argiago batek eragile ekonomiko, politiko eta gizarte mugimenduen arteko harremanak parametro egokiagoetan lekutzeko aukera eman dezakeela. Finean, euren arteko komunikazioa eta elkarren arteko informazio kanalak sakonduz, ingurumen politiken ezartze garden eta zabalago bat burutu daitekeelakoan gaude.

Aurrerantzean idatzitakoa ibilitako bidean aurkitu dugunaren panoramika aldatzeko lerro eraikitzaileak izan daitezkeelakoan gaude. Finean, proposamen hauen azken helburua da jarraibide gauzagarri batzuk ematea, sozio-ingurumen gatazken testuinguruan kalitate komunikatiboa hobetzeko; beraz, kalitate demokratikoa ere hobetzeko.

5.4.1. Informazioaren kudeaketa

